




GENERO programak eta politikak

Sorkuntzaren eta industriaren ikuspegitik
antzerkia, dantza, liburu eta musikaren
arloan genero-berdintasunaren
egoera diagnostikoa EAEn.



GENERO programak eta politikak

Sorkuntzaren eta industriaren ikuspegitik
antzerkia, dantza, liburu eta musikaren
arloan genero-berdintasunaren
egoera diagnostikoa EAEn.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaraldia: 1.a. 2019ko iraila

Ale-kopurua: 150

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea:

Eneritz Artetxe Aranaz, Jemima Cano Martínez, Igor de Quadra Belausteguigotia,
María Goiricelaya Burón, Tere Irastortza Garmendia, Amaia Ispizua Gisasola,
Ainara Legardon Pérez, Ainhoa Novo Arbona, Kualitate Lantaldea

Koordinatzaileak:

Kualitate Lantaldea, Kultura Sustatzeko Zuzendaritza-Kulturaren Euskal Behatokia

Itzultzailea: Bitez, Lete itzulpenak

Diseinua eta konposizioa: Mooneki

Inprimategia: Printhaus

ISBN: 978-84-457-3074-4

Lege-gordailua: VI 721-2019

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

AURKIBIDEA

1. ATALA

- 1.1. Aurkezpena.
- 1.2. Garatutako oinarrizko metodologia.
- 1.3. Esparru normatiboa eta erreferentziazko esparrua kulturaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean.
- 1.4. Kulturaren arloko datu kuantitatibo orokorrak: enplegua, prestakuntza eta ohiturak.

6

6

8

10

22

2. ATALA. ANTZERKIAREN, DANTZAREN, LIBURUAREN ETA MUSIKAREN SEKTOREKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERAREN LABURPENAK, SORKUNTZAREN ETA INDUSTRIAREN IKUSPUNTUTIK

32

- 2.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna euskarazko antzerki sorkuntzan: Egoeraren diagnostikoa. Eneritz Artetxe Aranaz.
- 2.2. Antzerkiaren industriako emakumeen eta gizonen egoera EAEn: Egoeraren diagnostikoa. María Goiricelaya Burón.
- 2.3. Dantza-sorkuntzako emakumeen eta gizonen egoera EAEn: Egoeraren diagnostikoa. Igor de Quadra Belausteguigotia.
- 2.4. Dantzaren industriako emakumeen eta gizonen egoera EAEn: Egoeraren diagnostikoa. Jemima Cano Martínez.
- 2.5. Euskarazko literatura eta hitzen sorkuntzako emakumeen eta gizonen egoera: Egoeraren diagnostikoa. Tere Irastortza Garmendia.
- 2.6. Liburuaren industriako emakumeen eta gizonen egoera EAEn: Egoeraren diagnostikoa. Ainhoa Novo Arbona.
- 2.7. Musika-sorkuntzako emakumeen eta gizonen egoera EAEn: Egoeraren diagnostikoa. Ainara Legardon Pérez.
- 2.8. Musikaren industriako emakumeen eta gizonen egoera EAEn: Egoeraren diagnostikoa. Amaia Ispizua Gisasola.

33

47

61

79

91

101

112

127

3. ATALA. AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN LABURPENA KATEGORIAREN ETA SEKTOREAREN ARABERA (SORKUNTZAREN ETA INDUSTRIAREN IKUSPUNTUA)

138



**AURKEZPEN
OROKORRA**

1.1. AURKEZPEN OROKORRA

Jarraian aurkezten den dokumentuaren xedea “Genero programak eta politikak” proiektuan garatutako edukien panoramika orokor eta laburtu bat eskaintzea da, Kultura Auzolanean tresnaren esparruan, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatutako kultura-plangintzarako tresnaren esparruan, alegia.

“Genero politikak eta programak” proiektuaren helburu orokor nagusia dantzaren, liburuen eta literaturaren eta musikaren eta antzerkiaren alorrean emakumeen eta gizonen berdintasunaren egoerari buruzko azterketa informatu bat osatzea da, bai sorkuntzaren ikuspegitik eta baita industriaren ikuspuntutik ere. Bigarren helburu orokor gisa, aipatzekoa da, azterketa horiek era berean Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarentzat oinarritzko euskarri bihurtuko direla, horien bidez gero programak eta jarduerak diseinatzeko eta abiarazteko, genero arrakala edo desberdintasun egoerak atzeman diren esparruetan esku hartzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egoera hobetzeko xedez.

Azterketa-lanak gauzatu ahal izateko, aipatutako sektoreetako zortzi profesional elkartu dira, ikerketei aztertutako errealitate bakoitzaren begirada errealista eta aditu bat emateko asmoz, eta horiek euren erreferentziazko sektoreetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko azterketa eta hausnarketa bat garatu dute.

Oinarri metodologikoen atalburuan zehatzago azaltzen den eran, azterketa-lana datu kuantitatiboen eta kualitatiboen irakurketatik eta genero ikuspegiaren egoeraren azterketatik abiatuta garatu dira. Azterketa horrek erraztuta, ikerketen egile guztiek iritzi artikulatu bat idatzi dute eta sektore bakoitzean egin litezkeen balizko esku-hartzeak proposatu dituzte.

Garatutako planteamenduari esker, kultura-esparruan gerta litezkeen desberdintasun sotilenak edo atzemateko zailenak direnak identifikatu ahal izan dira, sektorearen barruan eztabaida eta hausnarketa suspertu izanaz gain.

Sektore bakoitzeko ikerketetako edukien laburpena egiteaz ez ezik -egileen jatorrizko idazkera albait gehien errespetatuz egina-, hiru atal osagarri idatzi dira.

Atal horietan lehena, kulturaren alorreko emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparru normatiboa eta erreferentzia-esparrua deskribatzean eta aztertzean ardaztu da; bigarrenak, berriz, panorama orokor gisa eta datu sektorial zehatzetan sartu gabe, enpleguari, prestakuntzari eta kultura-ohitura edo jardunbideei buruzko zenbait datu kuantitatiboren ikuspegi orokorra eskaintzen ditu. Azkenik, hirugarrenak modu sinoptikoan mahai gainean jarritako proposamen guztiak biltzen dituen irudi bat proposatzen du, proposamen eta sektore bakoitzaren araberako taldekatze-kategorietan sailkatuta (sorkuntzaren eta industriaren ikuspuntutik).



METODOLOGIA

1.2 METODOLOGIA

Aurkezpen orokorraren atalean azaldu den eran, antzerkiaren, dantzaren, liburuen eta literaturaren eta musikaren alorreko zortzi profesionalak gauzatu dute ikerketa-lana, sorkuntzaren eta industriaren ikuspegitik, sektore bakoitzak ikuspegi orokor bat izan zezan.

Testuinguru horretan, sektore bakoitzeko profesionalak esker azterketa aditua, gertukoa eta errealista egin den premisatik abiatuta, katedra-askatasuna ikerketa bakoitzean errespetatu beharreko arauetako bat izan da. Horiek horrela, azterlan bakoitzaren planteamendua eta garapena bideratzeko oinarrizko jarraibide metodologiko batzuk izatea ere beharrezkotzat jo da.

Ilido horretatik, honako alderdi hauetan oinarritu dira jarraibideak:

- Datu kuantitatiboen funtsezko atal bat garatzea, sektore bakoitza testuinguruan jarri ahal izateko. Zentzu horretan, egileek bigarren mailako iturrien azterketa bat egin dute eta sektore bakoitzeko alor ezberdinetako datuak eraiki dituzte: hezkuntza formala; enplegua; jarduera eta ohitura kulturalak; dirulaguntza publikoak; zirkuituak, programak eta festibalak...
- Azterketa kualitatiboaren atal bat garatzea, elkarrizketen bidez sektore bakoitzeko profesionalengana edota erreferenteengana gerturatuz. Egile bakoitzak zehaztu ditu garatu beharreko gidoiak eta edukiak, betiere sektore bakoitzean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko gutxieneko eduki batzuk bermatuz. Horrez gain, ikerlari bakoitzak burutu du ikerketaren helburuak lortzeko egin beharreko elkarrizketa kopuruaren balorazio-lana. Hala, ikerlarien beharren eta aukeren arabera izan da elkarrizketatutako pertsonen kopurua.
- Datu kuantitatiboen eta kualitatiboen azterketa, sektore bakoitzeko emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko gakoak eta elementu adierazgarriak iradokiko lituzketen azterketak edo iritzi-artikuluak idazteko.
- Sektore bakoitzean esku-hartze modura egin litezkeen proposamenak eta jarduerak mahai gainean jarri, sektore bakoitzean berdintasun ezaren eragile moduan identifikatu diren elementu horiei erantzuteko beharra asetzeko.

Era berean, aipatu behar da, ikerketan aintzat hartu beharreko beste puntu garrantzitsu bat abiapuntuko ikuspegia izan dela. Testuinguru horretan, helburu orokorra kultura-arloko emakumeen eta gizonen errealitatea islatzea izanik, genero ikuspegia izan da azterketa-tresna nagusia. Tresna horren bidez, kulturaren alorreko bazterkeria eta berdintasun eza identifikatu, eztabaidatu eta baloratu ahal izan da, eta horrek, era berean, hobekuntza proposamenak egiteko aukera eman du, aurkitutako berdintasun eza murrizteko ekintza jakin batzuk diseinatzeko.

**ARAU ETA
ERREFERENTZIA
ESPARRUA KULTUR
ARLOKO ETA EMAKUMEEN
ETA GIZONEN ARTEKO
BERDINTASUNARI
DAGOKIONEZ**

1.3 ARAU ETA ERREFERENTZIA ESPARRUA KULTUR ARLOKO ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI DAGOKIONEZ

I. SARRERA

Kultur arloko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari loturiko arau- eta erreferentzia-esparruen inguruko ikuspegi orokor bat eskaintzen du kapitulu honek. Honela, bi arlo horiei loturiko egingo erreferentzia arauemaile nagusiak aurkeztuko dira, berdintasunari buruzko erreferentzia-arauetan kultur arloari egiten zaizkion aipamenetan sakontzen saiatuz; eta, alderantziz, kultur arloko arau nagusietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari egiten zaizkion aipamenak aztertuz ere.

Era honetan arau-esparru nagusiak mugatzen lagundu eta, halaber, topaguneak zer nolako neurrian proposatzen dituzten edo beren arauetan “beste arloetako” gaiiei egiten dizkieten aipamen edo erreferentziak aztertzen lagunduko duen ikuspegi orokor bat eskainiko da. Ondokoa da abiapuntu-oinarria: egun, orokorrean, ezin esan genezake genero-ikuspegia lege-osagai eta arau guztietan txertatua dagoenik, nahiz eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa eta sexu-diskriminazio guztiak arau eta lege-testu ezberdinetan jasota egon.

Azkenik, adierazi ere nazioarteko, estatu-mailako eta erkidego-mailako erreferentziak biltzen dituen ikuspegi bat eskainiko dela.

II. BERDINTASUNARI BURUZKO ARAU-ESPARRUA

2.1. Nazioarteko esparrua berdintasunari dagokionez

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak ¹ (Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948ko abenduaren 10ean onartu zuen 217 A (III) Ebazpenean jasotako adierazpen-dokumentua) ondokoa dio **1. artikuluan**: «Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela». Eta 2. artikulua ondokoa gaineratzen du: «*Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomia maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik*». Adierazpen Unibertsaleko aitortza inplizitu hori esplizitu bilakatzen da nazioarteko testu eta itun ugarian.

Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioa ² (CEDAW) 1979ko abenduaren 18an onartu eta sinatzeko edo berresteko ireki zuen NBen Batzar Nagusiak 34/180 Ebazpenaren bitartez. **Lehen artikulua**ren arabera, «*emakumearen kontrako diskriminazioa*» *esapideak, sexuan oinarritutako edozein bereizketa, bazterketa edo murrizketa adierazten du, hots, emakumeari, bere egoera zibila gora-behera eta gizon eta emakumearen berdintasuna oinarri, esparru politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta zibilean edo beste edozeinetan, giza eskubideen eta funtsezko askatasunen aitormena, gozamina edo erabilera gutxitu edo ezeztatze helburuz edo emaitzaz egindakoa*.

¹ https://www.ohchr.org/EN/UDHR/Documents/UDHR_Translations/spn.pdf

² <https://www.ohchr.org/sp/professionalinterest/pages/cedaw.aspx>

2015eko irailaren 25ean onartutako **Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda** ³, bestetik, ekintza-plan bat da eta aurrerapen handia suposatzen du genero-ikuspegitik, “*genero berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea*” helburu zehatza jasotzen baitu. Horrez gain, genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea pertsona, planeta, oparotasun eta bake unibertsalari loturiko beste helburu eta xede guztiak lortzeko funtsezko osagaiak direla dio.

2.2. Europako esparrua berdintasunari dagokionez

Europar Batasunak, **Amsterdameko Ituna** ⁴ 1999ko maiatzaren 1ean indarrean sartu zenetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna formalki aitortua dago Europar Batasuneko oinarritzko printzipio gisa.

Lehenik eta behin, Europako Kontseiluaren **2018-2023 Genero Berdintasunerako Estrategia** ⁵ aipatu beharra dago. Dokumentua 2018ko maiatzaren 3-4an Kopenhagen eginiko “Genero Berdintasuna: bide eginaz” biltzarrean argitaratu zen. Estrategia horrek lehentasunezko 6 arlo jaso, 2014-2017 Genero Berdintasunerako Estrategiaren bost helburu estrategikoak mantendu eta lehentasun tematiko bat gehitzen du:

- Genero-estereotipoak eta sexismoa prebenitzea eta borrokatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzea eta borrokatzea.
- Justiziarako bidezko sarbidea bermatzea emakumeei.
- Emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua lortzea erabaki politiko eta publikoak hartzeko prozesuetan.
- Emakume eta neska migratzaile, errefuxiatu eta babes-eskatzaileen eskubideak babestea.
- Genero-ikuspegia txertatzea politika eta neurri guztietan.

Bestalde, Europako Batzordeak 2016an argitaratu zuen **2016-2019 Genero Berdintasunerako Konpromiso Estrategikoak** ⁶ emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea du xede eta bost arlo jorratzen ditu bereziki:

- 1 Emakumeen partaidetza areagotzea lan-merkatuan eta emakumeen eta gizonen independentzia ekonomiko berdina sustatzea.
- 2 Ordainsari, diru-sarrera eta pentsioei dagokienez sexuen artean dauden aldeak murriztea, emakumeen pobrezia-aren aurka borrokatzeko.
- 3 Emakume eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea erabakiak hartzeko prozesuetan.
- 4 Indarkeria sexistaren aurka borrokatzea eta biktimak babestea.
- 5 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta emakumeen eskubideak mundu osoan sustatzea.

2.3. Estatu-mailako esparrua berdintasunari dagokionez

Estatu mailan, 1978ko abenduaren 6an berretsi eta urte eta hil berberako 29an indarrean sartu zen **Espainiako Konstituzioak** ondokoa dio **14. artikuluan**: “*Espainolak legearen arabera berdinak dira eta ezin da onartu diskriminapenik, jaiotze, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik.*”

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako, 2007ko martxoaren 24an sartu zen indarrean eta bere xedea da “*...tratu- eta aukera-berdintasunaren eskubidea eragingarri egitea emakumeen eta gizonen artean, batez ere, emakumearen bereizkeria ezabatuz, emakumearen inguruabarrak eta egoera gorabehera, bizitzako edozein esparrutan...*” **26. artikulua**k, bere aldetik, berariazko aipamena egiten dio sorkuntza eta ekoizpen artistikoaren arloko berdintasunari eta emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipio eragingarria bermatzea eskatzen die agintari publikoei.

³ <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/2015/09/la-asamblea-general-adopta-la-agenda-2030-para-el-desarrollo-sostenible/>

⁴ https://europa.eu/european-union/sites/europaeu/files/docs/body/treaty_of_amsterdam_en.pdf

⁵ <https://rm.coe.int/estrategia-de-igualdad-de-genero-del-coe-es-msg/16808ac960Una>

⁶ <http://www.educacionyfp.gob.es/ministerio-mecd/dms/mecd/ministerio-mecd/organizacion/espacio-de-igualdad/ststegic-engagement-for-gender-equality.pdf>

1. Atala • Esparru normatiboa eta erreferentziako esparrua kulturaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean

2.4. Erkidego-mailako esparrua berdintasunari dagokionez

Euskal Herriko Autonomia Estatutuak, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoan onartuak, berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik ez pairatzeko eskubidea aldarrikatzen ditu **9.1 artikuluan**. **Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen** sorrerarekin, lehentasuntzat jo zen emakumeen aurkako diskriminazio guztiekin akabatzea eta erreminta ezberdinak abiatu ziren emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta indarkeria matxista desagerrarazteko.

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa onartzearekin batera *mainstreaming* estrategiak garrantzi handia hartu zuen, berdintasun printzipioa ikuspegi global batetik erakunde eta administrazio publikoetatik garatuko diren politika, programa eta ekintza guztietan txertatzea eskatzen baitu.

Honela, kultura-politikak eta kultura-ekintzak genero-ikuspegia barne hartuz diseinatu beharko dira. **25. artikulua** ondokoa dio: *“euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonen parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduera guztietan.”*

Legeak, bestalde, kultura eta kirol arloari loturiko neurriak jasotzen ditu eta gizonen eta emakumeen arteko partaidetza eta sarbide orekatua derrigorrezkotzat jotzen du EAEn egingo diren kultura-jarduera guztietarako. Horrez gain, sexu-diskriminazioa egiten duen kultura-, jai- eta arte-jarduera orok ezingo du diru-laguntza publikorik jaso, ez eta aginte publikoen parte-hartzea izan ere.

Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasuna lortzea ahalbidetuko duten erremintetako beste bat **Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak** lau urtean behin onartzen duen **Berdintasunerako Plana** da. Berdintasunerako plana bide-orria dira, berdintasunari dagokionez, euskal agintari publikoen jardunerako. VII. Planak esku-hartzerako xede nagusiak zehazten ditu Eusko Jaurlaritzan eta bere sail, Foru Aldundi eta udaletxetarako. Hauek, berdintasunerako legeak eskatzen dituen beren ekintza-planen bitartez bilatu beharko dituzte aipatu xedeak. Honela, lanerako ardatz nagusiak ondokoak dira.

- **Gobernu ona:** Barne-arloa. Erakundetatik bertatik.
- **I. Ardatza:** Emakumeen ahalduntzea.
- **II. Ardatza:** Ekonomiak eta gizarte antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko.
- **III. Ardatza:** Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak. Sentsibilizazioa, Prebentzioa, Hautematea, Arreta Ematea, Konpontzea eta Erakundearen arteko Koordinazioa.

Planean jasotako lau ardatzek kulturaren arloan eragiten duten ekintzak jasotzen dituzte, nahiz eta zuzenki adierazi ez. Beste batzuetan, aldiz, berariaz aipatzen dira:

- **Gobernu ona:** Emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua duten epaimahaien edo antzeko organoen ehunekoa handitzea.

Adierazleak

- Emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua sustatzeko klausula bat duten funts kulturalak eta/edo artistikoak eskuratzeko eta sariak emateko epaimahaien ehunekoa.
- Emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua duten funts kulturalak eta/edo artistikoak eskuratzeko eta sariak emateko epaimahaien ehunekoa.

- **1. Ardatza.- Emakumeen ahalduntzea:** Emakumeek eta gizonen ikaskuntzako eta aisiako baliabideetan, artean, kulturaren eta jaietan du-ten parte-hartzean dagoen genero-arrakalak murriztea.

Adierazleak

- Obrak erakusgai jartzen dituzten, programazioetan esku hartzen duten (komisarioak eta adituen beste profil batzuk), hitzaldiak eta mintegiak ematen dituzten, obrak bildumetan dauzkaten eta obrak EAEko museoetan eta arte- eta/edo kultura-zentroetan saltzen dituzten emakumeen eta gizonen kopuruaren bilakaera.

III. KULTUR ARLOKO ARAU-ESPARRUA

3.1. Nazioarteko esparrua kultur arloan

Atal honen oinarri-kontzeptuak, lehenik, kultura-eskubideetan oinarritutako ikuspegiari jartzen du bere arreta, **Kultura Eskubideei buruzko 2007ko maiatzaren 7ko Freiburgeko Adierazpenaren**⁷ arabera giza eskubideak diren heinean. Aipatu dokumentua arau-erreferentzia objektiboa ez bada ere, kultura eskubideen inguruko oinarritzko kontzeptu-esparru bat planteatu eta garatzen du, bai eta aipatu kultura eskubideak nazioartean dagoeneko aitortzen dituzten arau eta erreferentzien esparrua ere.

Planteamendu horrez gain, ikuspegi eragileago batetik kulturaren balio-kateko alderdi edo egoera ezberdinetan-bakarka zein multzoka- osagai ezberdinak arautzen dituzten arau-erreferentziak aipatu eta deskribatzen dira ere.

Ikuspegi orokor batetik, Kultura Eskubideei buruzko Freiburgeko Adierazpenak ondoko eskubideak aitortzea planteatzen du:

- **Kultur nortasun eta ondarea** (pertsona orok du, gizabanako gisa edo talde gisa). Bere kultur nortasuna aukeratzeko eta bere adierazpideetan errespetatua izateko eskubidea eta bere kultura ezagutu eta kultur hori errespetatua izateko eskubidea. Bai eta Kulturen adierazpide diren kultur ondareak ezagutzeko aukera izateko eskubidea ere.
- **Kultur komunitateak**, kultur komunitate batekin edo gehiagorekin identifikatzeko edota ez identifikatzeko, baita aukera hori aldatzeko ere. Halaber, ezin da inor behartu bere borondatearen aurka kultur komunitate bateko kide sentitzera, ezta kide bihurtzera ere.
- **Kultur bizitza eskura izatea eta parte hartzea**; pertsona orok dauka, gizabanako gisa eta talde gisa, kultur bizitza eskura izateko eta modu askean parte hartzeko eskubidea, eta libreki hautatutako bideen bitartez egin ahalko du (adierazpen askatasuna, ondasun eta zerbitzuen erabilpenari, ekoizpenari eta hedapenari dagokienean ezagupenak eta kultur adierazpideak garatzeko eta partekatze askatasuna eta kultur jardueraren fruitu diren lanekin lotutako interes moralak eta materialak babestuak izateko eskubidea biltzen ditu).

- **Hezkuntza eta trebakuntza**, hezkuntza eskubidearen esparru orokorrean, kultur nortasuna osoki eta aske garatzeko aukera izan dezan.
- **Informazioa eta komunikazioa**, adierazpen askatasunerako eskubidearen eremu orokorrean. Arte adierazpena, iritzi eta informazio askatasuna, eta kultur aniztasunaren errespetua barne hartzen ditu; pertsona orok du eskubidea, gizabanako gisa edo talde gisa, informazio aske eta askotarikoa jasotzeko, eta informazio horrek bere kultur nortasuna osoki eta modu askean garatzen laguntzeko. Betiere, besteen eskubideak eta kultur aniztasuna errespetatuz (...).
- **Kultur lankidetzak**: Pertsona orok, gizabanako gisa edo talde gisa, bitarteko demokratikoak erabiliz, eskubidea dauka honako funtzioak betetzeko: kide den komunitateetako kultur garapenean parte hartzeko; bere kultur eskubideei eragiten dieten erabakiak hartzeko, indarrean jartzeko eta ebaluatzeko; eta kultur garapen eta lankidetzan aritzeko, maila guztietan.

Jarraian, Freiburgeko Adierazpenak berak aipatzen dituen nazioarteko arau-erreferentziak jaso dira:

Hasteko, aipatu beharra dago **Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak** ondokoa jasotzen duela **27. artikuluan**⁸: “1. Pertsona orok du eskubidea elkarteko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzi aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko eta 2. Zientzia, literatura edo arte mailan egindako lanen egile diren pertsona guztiak dute horregatik eskubidea dagozkien interesak eta materialak babes dakizkien eskubidea”.

Bestalde, **Nazio Batuen Batzarrak 2200A (XXI) Ebazpenaren bitartez 1966ko abenduaren 16an onartu zuen Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen Itunak**⁹ (1976ko urtarrilen 3an sartu zen indarrean), lehen aipamen bat egiten dio emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari bere **3. artikuluan**: “Itun honetako sinatzaile diren Estatu Kideek itunean jasotako eskubide ekonomiko, sozial eta kultural guztiak maila berean gozatzeko aukera bermatuko diete emakumei eta gizoni”.

7 https://culturalrights.net/descargas/drets_culturals239.pdf

8 https://www.ohchr.org/EN/UDHR/Documents/UDHR_Translations/spn.pdf

9 <https://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/CESCR.aspx>

1. Atala • Esparru normatiboa eta erreferentziazko esparrua kulturaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean

15. artikuluko 1. atalak kultura arloan jartzen du bere arreta eta honela dio: “pertsonak orok a) kultur bizitzan parte hartzeko duen eskubidea, (...) c) beren zientzia, literatura edo arte ekoizpenei lotutako interes moralak eta materialak babestuz izateko eskubidea aitortzen dute Estatu sinatzaileek”. Halaber, **artikulu horretako 2. atalak** dioenez, “Itun hau sinatu duten Estatu Kideek eskubide hau bermatzeko onartu beharko dituzten neurrien artean, zientzia eta kulturaren bizirautea, garapena eta hedatzea bermatzeko beharrezkoak diren horiek egon beharko dute”. **3. atalean jasotakoaren arabera** “Itun honetako Estatu Kideek zientzia-ikerketarako eta sorkuntza-lanerako beharrezkoa den askatasuna errespetatu beharko dute”. Azkenik, **4. atalak** “zientzia eta kulturaren arloetan nazioarteko harremanak eta lankidetzak sustatzeak eta garatzeak dakartzaten onurak” aitortzen ditu.

Bestalde, **UNESCOren Biltzar Nagusiak 2001eko azaroaren 2an aho batez onartu zuen Kultur Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsalak** ¹⁰ ondokoa dio: “gizarte edo giza-talde baten ezaugarri diren alderdi espiritual, intelektual eta afektibo berezien batuketa da kultura eta arte eta letrez gain, bizitzeko erak, elkarrekin bizitzeko erak, balio-sistemak, ohiturak eta sinesmenak biltzen ditu”. Testuaren arabera, kultur, nortasun, gizarte-koheresio eta ezagutzan oinarritutako ekonomia baten garapenari buruzko eztabaida guztien muina da kultura.

Aipatu adierazpenak lau ardatzetan egituratzen ditu bere artikulua: *nortasuna, aniztasuna eta pluralismoa; kultur aniztasuna eta giza eskubideak; kultur aniztasuna eta sormena; eta kultur aniztasuna eta nazioarteko elkartasuna.*

Azkenik, aipatu ere Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) **Kultur-adierazpenen Aniztasuna Babesteko eta Sustatzeko Konbentzioa** ¹¹ onartu duela. Horren bitartez, kultur-adierazpen ezberdinak eta beren aniztasuna babestu eta sustatu nahi da, bai eta kulturen arteko elkarrekintza sustatuko duen kultur-bizikidetzak bat babestu ere.

2015. urtean, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) *Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda* ¹² onartu zuen. Honek, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko eta emakumeak ahalduz nazioarteko komunitateak duen konpromisoa sustatzen du bere boskarren helburuan ¹³, “generoen arteko berdintasuna, oinarritzko giza eskubidea ez ezik, mundu baketsu, oparo eta iraunkor bat lortzeko derrigorrezko oinarria ere dela” aldarrikatuz. Espainiako kultura-industrien ordezkariak NBERen agenda hori babestu berri dute, “Kulturaren Konpromisoa 2030 Agendarekiko” ¹⁴ izeneko Adierazpena sinatuz.

Azkenik, eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren ¹⁵ 70. urteurrenarekin batera, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) “Kultura politikak (ber) aztertuz – Garapenerako sormena” ¹⁶ izeneko txostena argitaratu zuen 2018. urtean. Erreferentziazko testu horrek “kulturaren arlo ia guztietan eta munduko eskualde gehienetan temati mantendu diren emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunen alderdi ugariekin” akabatzeko beharra azpimarratzen du. Testuaren arabera, “emakumeek presentzia txikiagia dute maila profesionalean -sorkuntza-eginkizun nagusienetan eta erabakiak hartzeko postuetan gehienbat-, zailtasun handiagoak dituzte bitartekoak lortzeko eta beren ordainsariak gizonenak baino askoz ere baxuagoak dira. Alde horiek unibertsalki aitortuta ez badaude ere, beren existentzia onartu eta horien aurka egin beharra dago kultur-adierazpenen benetako aniztasuna lortu ahal izateko”.

Testuingurua ikusita, esan genezake kulturari loturiko nazioarteko esparrurik orokorra nazioarteko zenbait adierazpen ezberdinetan egituratua dagoela eta aipatu erakundeek gizartea sortzen duten funtsezko osagaietako batzat hartzen dutela kultura, berari loturiko eskubide ezberdinak aldarrikatuz.

Bestetik, eta geroago ikusiko dugun bezalaxe, arau-izaera nabariagoa duten erreferentziak -Europa, Estatu zein erkidego-mailakoak- kultura-sistemen edo, zehatzago, kultura-ekoizpenari loturiko sistemen osagai diren arlo eta osagaiak berariaz arautzea dute xede.

10 Kultur Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsala http://portal.unesco.org/es/ev.php-URL_ID=13179&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html

11 <http://www.unesco.org/new/es/culture/themes/cultural-diversity/cultural-expressions/the-convention/convention-text/>

12 <http://www.unwomen.org/-/media/headquarters/attachments/sections/library/publications/2018/sdg-report-gender-equality-in-the-2030-agenda-for-sustainable-development-2018-es.pdf?la=es&vs=834>

13 <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/gender-equality/>

14 <http://www.institutoautor.org/es-ES/SitePages/EstaPasandoDetalleActualidad.aspx?i=2308&s=1>

15 Gure erkidegoan, UNESCO Etxeak #Fem_RIGHTS izeneko proiektua abiatu zuen 2018. urtean, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 70. urteurrenari lotua: “Xede zen giza eskubi deek munduan bizi duten egoeraren inguruko hausnarketa-esparru kritiko bat ezartzea, arreta berezia eskainiz emakumeen eskubide urratuetan eta, horretarako, arte-adierazpen ezberdinen komunikazio-boterean oinarritu eta Vitoria-Gasteizko hiritarrek tartean sartu genituen”.¹⁶ <https://es.unesco.org/creativity/global-report-2018>

16 <https://es.unesco.org/creativity/global-report-2018>

3.2. Europako esparrua kultur arloan

Europar Batasunaren barruan, EBko Estatu kide bakoitzak du bere kultura-politika arautzeko ardura. Europako Batzordeak erronka komunei aurre egiten lagundu behar du. Erronka horiek Koordinazio-metodo irekiaren bitartez zehazten dira, kulturaren arloan Europa-mailako lankidetzaz garatzeko EBko Estatu kideek erabiltzen duten erreminta. Zentzu horretan, eta hasteko, erronka komun horiei loturiko erreferentzia-markoa -ez arau-esparrua, ordea- jaso da jarraian.

2007ko Kulturarako Europar Agenda (2007ko azaroaren 16ko Kontseiluaren Ebazpena, Kulturarako Europar Agenda bati buruzkoa)¹⁷, **2018ko maiatzean Europako Batzordeak Agenda berri** bat onartu zuen (**komunikazioa**¹⁸), kultura-sektorearen bilakaera aintzat hartuz. Ondoko alderdiak lehenesten ditu agenda berriak: kulturaren ekarpen positiboa gizarteari, ekonomia eta nazioarteko harremanak, estatu kide, gizarte zibil eta nazioarteko bazkideekin lan egiteko metodo hobek. Kulturarako Europar Agenda berriak Europar Batasunaren baitako lankidetzaz fase berrirako (2019) lan-esparrua zehazten du. Testuinguru horretan, Estatu kideek kulturaren arloko lankidetzarako gai eta lan-metodo nagusienak zehaztuko dituzte, Ministro Kontseiluan onartutako Kulturari buruzko Lanerako Planen bitartez.

Kulturari loturiko 2019-2022 Lanerako Planak¹⁹ bost lehentasun zehazten ditu kultura-politikari loturiko Europa-mailako lankidetzarako:

- Iraunkortasuna kultura-ondarean.
- Kohesio eta ongizatea.
- Artistak, sormenaren eta kulturaren profesionalak eta Europako edukiak babesteko dituen ekosistema bat.
- Genero-berdintasuna.
- Nazioarteko kultura-harremanak.

“Genero-berdintasunaren” lehentasunari dagokionez ondoko dio: *“genero-berdintasuna kultura-aniztasunaren zutabetako bat da. Kulturak funtsezko rola dauka estereotipoekin amaitu eta gizarte-aldaketak sustatu ahal izateko. Nolanahi ere, sexu-diskriminazioa dago oraindik, sektore artean, kultura eta sormenaren arloko sektore gehienetan. Artista eta kulturaren profesional diren emakumeek zailtasun handiagoak dituzte sormen- eta ekoizpen-bitartekoak eskuratzeko, gizonen baino askoz gutxiago irabazten dute orokorrean eta presentzia eskasa dute lidargo- eta erabakiak hartzeko postuetan, bai eta arte-merkatuaren baitan ere. Desberdintasun horiek aitortu eta borrokatu beharra dago, politika eta neurri zehatzen bitartez. Kontzientziak eremu politiko eta administratiboan eta sektore ezberdinetan areagotu ahal izateko datu zehatz eta zuzenak behar ditugu; bai eta jardute egokiak partekatu ere”.*

Europako Batzordeak (bere webgunetik lorturiko informazioa²⁰), bestalde, aldaketak garatu eta sustatu ditu indarreko araudian. Ondokoak jasota daude, hain zuzen ere:

- 2012ko urriaren 25eko 2012/28/EB **Zuzentaraua**, zenbait lan umezurtzen erabilpen baimendu batzuen ingurukoa.²¹
- 2014ko otsailaren 26ko 2014/26/EB **Zuzentaraua, egile-eskubideen eta antzeko eskubideen kudeaketa kolektiboari buruzkoa, eta musika-obren gaineko eskubideen lurralde anitzeko lizentziak emateari buruzkoa, halakoak barne-merkatuan linean erabili daitez.**²²
- **Egile-eskubideak babesteko eta beste eskubide batzuk babesteko epeari buruzko 2006/116/EK Zuzentaraua**, Europako Parlamentuarena eta Batzordearena, **aldatzeko zuzentarau-proposamena**^{23, 24}
- Batzordearen 651/2014 Erregelamendua (EB), 2014ko ekainaren 17koa, **zenbait laguntza-kategoria barne merkatuarekin bateragarriak direla aitortzen duena**, Ituneko 107. eta 108. artikulua aplikatuz.²⁵

17 [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32007G1129\(01\)&from=EN](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32007G1129(01)&from=EN)

18 https://ec.europa.eu/culture/sites/culture/files/commission_communication_-_a_new_european_agenda_for_culture_2018.pdf

19 <http://data.consilium.europa.eu/doc/document/ST-13948-2018-INIT/es/pdf>

20 https://ec.europa.eu/culture/policy/cultural-creative-industries/regulatory-reform_es

21 <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32012L0028&from=ES>

1. Atala • Esparru normatiboa eta erreferentziazko esparrua kulturaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean

- 2019/790 (EB) **Zuzentaraua**, 2019ko apirilaren 17koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, **merkatu digital bakarreko egile-eskubideei eta antzeko eskubideei buruzkoa eta 96/9/EK eta 2001/29/EK zuzentarauak aldatzen dituena**.²⁶
- **Marrakecheko Ituna itsuen, ikusmen urrikoen edo testu inprimatua irakurtzeko beste arazo batzuk dituztenen alde sinatua**, Marrakechen, 2013ko ekainaren 27an²⁷. Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundeak (JIME) egile-eskubideen inguruan kudeatzen dituen nazioarteko itunetako bat da. Berez, ez da Europara mugatzen, ez eta Europar Batasunera ere.
- 2012ko ekainaren 24an **onartu zen Beijingeko Ituna, ikus-entzunezko interpretazio eta exekuzioen ingurukoa**²⁸. JIME erakundeak egile-eskubideen inguruan kudeatzen dituen nazioarteko itunetako bat da. Berez, ez da Europara mugatzen, ez eta Europar Batasunera ere.

Orokorrean, aipatu beharra dago aipatu zuzentarau eta araudiek ez dutela genero-ikuspegia beren planteamendu edo garapenean txertatua, arautzen dituzten eremu eta gaien sarbidean, gauzatzean edo tratamenduan emakumeen eta gizonen artean egon litezkeen desberdintasunak ez baitituzte aintzat hartzen.

Erreferentzia bakarra 651/2014 (EB) **Araudian** aurkituko dugu. Hasierako bere zioetan, ondokoa dio: *“lan merkatura sartzeko eta bertan irauteko oraindik zailtasun bereziak dituzten desgaitu eta babesgabeko zenbait langile-kategoria aipatzen ditu eta -ondorioz-aginte publikoek pertsona horien, gazteen bereziki, enplegu-mailak areagotzeko pizgarriak aitortu beharko lituzkete”*.

Honela, definizioak jasotzen dituen **2. artikulua** zehazten duen arabera, Araudiaren ondorioetarako *“babesgabeko langileztat joko da sexuen arteko desoreka Estatu Kide horretako batezbestekoa baino % 25 gutxienez handiagoa duen sektore edo lanbide batean lan egin eta gutxitutako talde horretako kide den pertsona oro”*.

3.3. Estatu-mailako esparrua kultur arloan

Estatu mailan, egoera berdintsua da. Indarreko araudiak kultura-espektra osatzen duten arlo edo sektore zehatzak arautzen ditu baina ez dago kultura-arloa bere osotasunean arautzen duen erreferentzia globalik. Hori horrela, ondoko lege-esparrua azpimarra daiteke:

1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilko 12koak, onartu zuen **Jabetza Intelektualari buruzko Testu bategina**, eta 281/2003 Errege Dekretua, martxoaren 7koa, Jabetza Intelektualaren Erregistro Orokorra onartzen duena. Jabetza Intelektualari buruzko Legeak literatura-, arte-, edo zientzia-lan bat egin duen pertsona babesten du eta lanaren jabetza osoa eta aipatua ustiatzeko eskubide esklusiboa ematen dizkio egileari.

Legeak ez badu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeaz berariaz hitz egiten ere, kulturara iristeko pertsonak guztiek duten eskubidea nabarmentzen du.

23/2011 Legeak, **uztailaren 29koak, Lege-gordailuari buruzkoak**, *“lege-gordailua arautzea du xede. Lege-gordailua da instituzio juridiko bat, Estatuaren Administrazio Orokorri eta autonomia-erkidegoei aukera ematen diena edozein euskarritan eta edozein prozeduraren bitartez -doan edo ordainpean- banatzeko edo publikoki komunikatzeko diren mota orotako argitalpenen aleak jasotzeko, eta xede duena, halaber, unean-uneo garaian Espainiako kulturen ondare bibliografikoa, soinu-duna, ikusizkoa, ikus-entzunezkoa eta digitala zaintzeko betebeharrari men egitea, bai eta ondare horretan sarbidea izateko aukera ematea ere, betiere kultura, ikerketa edo informazio edo lanak berriz editatzeko arrazoiak tarteko direla, lege honetan eta jabetza intelektualari buruzko legean ezarritakoarekin bat”*.

Espainiako Ondare Historikoaren 16/1985 Legeak, ekainaren 25ekoak, interes artistiko, historiko, paleontologiko, arkeologiko, etnografiko, zientifiko edo teknikoak duten higiezinak eta objektuak arautzen ditu. Horiez gai, dokumentu- eta bibliografia-ondarea, aztarnategi eta eremu arkeologikoak eta balio artistiko, historiko edo antropologikoa duten natur-gune, lorategi eta parkeak arautzen ditu.

22 <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32014L0026&from=ES>

23 <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52008PC0464&from=ES>

24 <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32006L0116&from=ES>

25 <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32014R0651&from=ES>

26 <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2019-80826>

27 [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:22018A0221\(01\)&from=ES](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:22018A0221(01)&from=ES)

28 https://www.wipo.int/treaties/es/text.jsp?file_id=295837

Ez dago emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea xede duen ekintza positiborik Lege-gordailuko Legean edo Espainiako Ondare Historikoaren Legean. Termino "neutralak" erabiltzen dira sarbide-eskubideari dagokionez.

Kulturaren arloko erreferentziatzako beste legeetako bat **10/2007 Legea da, ekainaren 22koa, Irakurketari, liburuari eta liburutegiei buruzkoa**. Ondokoa du xede: *"liburuaren esparru juridikoa zehaztea, kultura-produktu den heinean, liburuak sortzen denetik bere merkaturatze, hedatze eta Espainiako bibliografia-ondarearen parte gisara kontserbatzen den arte; seriedun argitalpenak arautzea, irakurzaletasuna, liburutegiak eta, bereziki, liburutegien arteko lankidetzak sustatzea"*.

Genero-ikuspegiaren txertatzeari dagokionez, sarbide-berdintasuna bermatzeko beharra orokorrean aipatzen da: *"liburutegiko material, instalazio eta zerbitzuak erabiltzeko berdintasuna bermatzea erabiltzaile orori, inolako bereizkeriarik gabe jaiotze, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik"*; *"Liburutegiek -publikoek, eskoletako eta unibertsitatekoek, gehienbat- paper ordezkazina jokatzen dute irakurzaletasuna garatu, mantendu eta garatzeari dagokionez, pentsamenduaz eta kulturaz gozatzeko eskubidea berdintasunez bermatzen baitiote hiritar orori"*.

Kultur arloko Artistaren eta Profesionalaren Estatutua

Diputatuen Kongresuak Artistaren Estatutuaren Txostena onartu berri du Artistaren Estatutua garatzeko. Aipatuak sektorearen zenbait aldarrikapen historiko jaso ditu. Honela, txostenak diotenaren arabera ondoko gaiak aztertuko dira:

- 1 Zergak sektorearen ezaugarri diren aldizkako jarduera profesionalera eta diru-sarrerara irregularretara egokitzea.
- 2 Araubide berezia sortzea Gizarte Segurantzaren, Araubide Orokorraren zein Autonomoen Araubidearen baitan. Araubide horrek aldizkako lanaren ezaugarri bereziak aintzat hartuko ditu, bai kotizazio-formulari dagokionez, bai behin-behineko gaixotasunak, betiereko gaixotasunak, amatasuna edo erretiroa, besteak beste, estaltzeko estaldurari dagokionez ere. Halaber, jarduera artistiko eta teknikoaren laneko gaixotasunak eta lesioak aintzat hartu beharko lirakeke. Honela, langileak ingurune

seguru batean egingo luke lan, non edozein ezusteko gertakariren aurrean babestua egongo bailitzatekeen.

- 3 Kultura arloko profesionalak ordezkariak sindikala izateko eta beren sektoreko negoziazio kolektiboetan aktiboki eta demokratikoki parte hartzeko duten egiazko eskubidea bermatzea. Dagokion hitzarmen kolektiboaren sorrera sustatuko da eta egun dauden horiek berraztertuko dira, kultura-jarduerak behar bezala arautua egon dadin.
- 4 Besteren konturako kontratu bat eskatzen duen eginkizun bat betetzen duten kultur arloko langileak kontratatzen dituen enpresak espazio berezi horretan altan ematen dituela bermatzea eta egiaztatzea, "autonomo faltsuaren" irudiaren bitartezko kontratazioa saihesteko kultura-jardueraren arloan.
- 5 Orientazio- eta hezkuntza-zerbitzuen prekarizazioaren aurkako neurriak sustatzea gure kultura-espazioetan.
- 6 Sektore independenteetan garatzen den irabazi-asmorik gabeko jarduerak artistikoa sustatzea lan elkartuko kooperatiben sorrera ahalbidetzeko helburuarekin. Kooperatiba horien barne-funtzionamendua kultura-jardueraren berezitasunetara egokituko da eta sektorea ekonomia kolaboratibo, sozial eta solidarioaren berezko praktikei lotuko zaie.

Kultura arloko emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunari dagokionez, Estatutuaren txostenak ondokoak jasotzen ditu ondorioen eta gomendioen atalean:

"Kultura-prozesuaren pertsona, jarduera eta une ezberdinak Estatutuan sartzearen alde egin dugu (...) Ezaugarri berdinek ez badituzte ere, denek edo ia denek baldintza soziolaboral berdinek, ordainsarien aldizkakotasuna eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eza pairatzen dituzte, beste faktoreen artean. Puntu honetan, Azpibatzearen ustez kultur arloan ematen den emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eza gomendio guztien aplikazioan txertatu beharko da".

Atal honetan bertan aurreikusten den beste alderdietako batek berdintasunaren aldeko borrokari eta amatasunari loturiko prestazioak ditu jomuga, laneko babesari eta Gizarte Segurantzari dagokienez bereziki:

“(...) haurdunaldiko arriskuaren prestazioa (alta beharrezkoa da prestazioa eskatu beharreko unean eta hori zaila izan daiteke zerbitzuen eskaintzan dagoen aldizkakotasuna dela eta), amatasuna (zenbaitetan zaila baita kalkulatzeko, erditzea baino lehen, interesatua alta asimilatuko egoeran egongo ote den ala ez erditzea gertatzen den unean) edo erretiroaren kobratzea eta jarduera artistikoen gauzatzea konbinatzeko aukera (aldizkakoak gehienetan baina eragin handia dutenak jasoko den pentsioan, zerbitzua eskaintzeko unearekin bat ez datozen unetan ere aipatua bertan behera uztearen ondorioz) bezalako prestazioak.

Erakunde-ikuspegi batetik eta norbanako eta taldekako eskubideak berdintzeari, norberaren eta besteren konturako kultura-lana babesteari eta baldintza materialak sortzeari begira kultura arloan emakumeek eta gizonen beren ibilbide profesionala berdintasunez gara dezaten...”

3.4. Erkidego-mailako esparrua kultur arloan

Erkidego-mailan ez dago kultura arloko lege edo politika publiko guztiak biltzen dituen lege-esparru orokorrik ezta ere. Ondorioz, eta Estatuan bezalaxe, lege, dekretu, agindu eta antzeko ezberdinek dute kultura arloko alderdi ezberdinak arautzeko ardura.

Onartu berri den **6/2019 Legeak, maiatzaren 9koak, Euskal Kultura Ondarearenak**, EAEko kultura ondarearako araubide juridiko bat ezartzea du xede, *“beraren babes, kontserbazioa eta balio-nabarmenaz bermatzeko, bai eta pertsona guztiek, oraingo eta etorkizuneko belaunaldiak, irisgarritasun unibertsaleko baldintzetan posible direnean, ondare hori ezagutu, ikertu, hedatu eta goza dezatela erraztea ere”*.

Bere berritasunen artean, ondare materiala arautzeaz gain, orain arte arretarik jaso ez duten zenbait kultura-adierazpen bildu ditu ere. Horien artean, ahozko ohiturak, erritualak, artisautza-teknikak, bertsolaritza, musika, dantza, gastronomia eta kirola, bai eta *“Industria-ondarea osatzen dute industriarekin lotutako hainbat jarduerak (teknikoak, erauzte-koak, teknologikoak, ingeniariakoak, ekoizpenekoak eta eraldatzekoak) izandako eboluzioaren testigantza adierazgarria,*

baita industria-kulturarekin loturiko adierazpenena ere, ematen duten ondasun higiezin, higigarri eta immaterialen multzoa” ere.

“Euskal kultura-ondarea osatzen duten ondasun immaterialak gutxienez kategoria hauetan sailkatu ahal dira, zeinak beren artean iragazkorra izango diren: kulturaren ahozko tradizioak eta adierazpideak; hizkuntza barne, kultura-ondare immaterialaren hedatzailea den aldetik, eta toponimia (Bertsolaritza, musika, dantza, emanaldi tradizionalak eta oroitzapenezkoak, usadio sozialak, gastronomia, kirola, jai-ekitaldiak, naturarekin eta unibertsoarekin lotutako ezagutzak eta usadioak, eskulangintzari eta industriari buruzko teknikak)”.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, zioen azalpenak ondarearen definizio zabalago bat jasotzen du, non emakumeek kultura-ondareari egiten dioten ekarpena aitortzen baiten.

“Ondareztat aintzatesten da historikoki ikustezinak izan diren talde sozialen beste baliabide, jaraunspen eta jakintza batzuen multzoa, esaterako, emakumezkoena. Legean ondareari buruzko ikuspegi integratzaile bat jasotzen da, imajinario femeninoaren zentzuak eta esanahiak balio kultural gisa berreraikitzeak aukera emango duena eta balioko duena herentzia eta ekarpen femeninoa elementu bereizgarri gisa ikusarazteko eta birbaloratzeko politika publikoen jarduna errazteko”.

232/2000 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituena. Euskal Herriko dokumentazio ondarea Kultura Ondarearen Legearen babesean kontserbatu eta hedatzeko prozedura garatzen du.


Euskadiko kultur arloko lege-esparruak ez du, ezta ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun ezarekin amaitzeko xede berezia duen neurririk jasotzen.


IV. BESTE AURRERAPAUZO BATZUK KULTUR ARLOKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI DAGOKIONEZ

Egia bada ere asko dagoela egiteke oraindik genero-ikuspegia lege-esparru orokorrean eta, kultur arlokoan bereziki txertatzeko, nabarmendu beharreko estrategiak garatu dira:


Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundeak (JIME) berdintasun-politikak garatzeko konpromisoa hartu zuen 2014. urtean. Honela, genero-ikuspegia Erakundearen politika eta programa guztietan txertatzeko konpromisoa hartu zuen.

Horrez gain, emakumeek kultura arloan bizi duten egoera ikusgai egin zuen 2015. urtean, lehen aldiz, "Emakumeak eta jabetza intelektualak" izeneko mahai-inguru baten bitartez. Bertan, emakumeen kezka mahairatu ziren (honako hau, adibidez: *...Erakundearen bitartez aurkeztutako nazioarteko patente-eskarien % 30,5ean baino ez dago emakume asmatzaile bat, gutxienez*").





**KULTUR ARLOKO
DATU KUANTITATIBO
OROKORRAK**



1.4 KULTUR ARLOKO DATU KUANTITATIBO OROKORRAK


Emakumeek eta gizonen kultur arloan duten presentziaren irudi orokorra eskainiko du kapitulu honek, genero-ikuspegitik, baina aipatua osatzen duten eremuetan sartu gabe, ondoko ataletan xehetasunez aztertuko baititugu.

Azterketa labor honek aldagai garrantzitsuenak hartuko ditu aintzat, egungo testuinguru orokorraren irudia eraikitzeko. Honako hauek dira: enplegua, prestakuntza, kultura-ohitura eta praktikak eta programazioa. Bigarren mailako datutan oinarritutako azterketa kuantitatibo baten bitartez, emakumeen eta gizonen partaidetzan alde esanguratsuak agertzen dituzten eremuak agerian uzten saiatuko gara egungo desberdintasunak mahairatu eta beren atzean dauden zio eta osagaiak bilatzeko, mekanismo horiek neutralizatuko dituzten ekintzak gauzatu ahal izateko.

Enplegua

Enplegu-tasa oinarritzko aldagai bat da emakumeek eta gizonen lan-merkatuan bizi dituzten egoerak alderatu ahal izateko. Enplegu-tasetan oinarritutako azterketa bat egin beharra dago; baina baita azterketa kualitatibo bat ere, lanpostu horien baldintzak eta gizonen edo emakumeen presentzia handiagoa duten kultura-eremuak deskribatzeko.

Enplegu-tasa, sexuaren arabera (2018)




Iturria: Espainiako Estadística Institutua

Enplegu-tasak emakumeen eta gizonen arteko desoreka agertzen du lehen begiratuan, gizonen alde. Egoera hori Estatu-mailan zein EAEn errepikatzen da. Lehen kasuan, % 11,7ko aldea dago gizonen eta emakumeen artean. EAEn kasuan, aldiz, % 8,6koa da.

Kultur arloa, berez, ez da jarduera esanguratsutzat jotzen ikuspegi ekonomikoari dagokionez, arloak sortzen duen enpleguak EAEko enplegu guztiaren % 3,2 baino ez baitu suposatzen (2016).


Kultur arloko enpleguaren ehunekoa, Estatuako eta EAEko enplegu guztiarekiko (2011-2016) (%)



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia

Erkidego-mailako kultur arloko enpleguaren egoera Estatu horren berdintsua da, aldea % 0,2koa da eta 2011 eta 2016 bitarteko bilakaera gorabeheratsua izan bada ere, egonkor mantendu da epealdi osoan zehar (% 2,6 eta % 3,2 bitartean bi kasuetan). Gorakada txiki bat ikus daiteke 2015 eta 2016 urteen artean, % 0,5ekoa Euskadiren kasuan eta % 0,1ekoa Estatuan.

Kultur arloko enplegua EAEn, sexuaren arabera (2015)



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia

Kultur arloko enplegu-tasa sexuaren arabera aztertzerakoan, emakumeen eta gizonen presentzia desorekatua ikus daiteke eta emakumeak dira gutxiengoan daudenak.

Kultura arloko urteko batezbesteko enplegua Estatuan, ekonomia-jardueraren eta sexuaren arabera (2017)


	EMAKUMEAK (%)	GIZONAK (%)
Banaketa portzentuala	% 39,3	% 60,7
Liburutegi, artxibo, museo, beste kultura-erakundeen jarduerak, liburuak, egunkariak argitaratzea eta beste argitaratze-jarduera batzuk.	% 55,7	% 44,3
Zinema, bideo, irrati eta telebistako jarduerak.	% 45,8	% 54,2
Diseinu, sorkuntza eta itzulpen jarduerak, jardura artistikoak eta ikuskizunak.	% 41,5	% 48,5
Arte grafikoak, euskarriak grabatzea eta erreproduzitzea, musika-edizioa, euskarriak eta irudi eta soinu aparatuak, musika-instrumentuak.	% 24,4	% 75,6
Beste ekonomia-jardura batzuk.	% 35,8	% 64,5
Kultur arloko enpleguaren ehunekoa, enplegu guztiarekiko.	% 45,5	% 54,5

Iturria: KUKM. Biztanleria Aktiboaren Inkestaren Ustiapena Kultur Arloan

Kultur arloko ekonomia-jardueren enplegu-tasa aztertuz gero nabariak dira emakumeen eta gizonen artean dauden aldeak, emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunetan oinarritzen direnak.

Orokorrean, kultura arloko ekonomia-jardueren enplegutarako banaketa portzentuala emakumeen eta gizonen artean askoz altuagoa da bigarrenen kasuan (+ % 21,4). Emakumeen eta gizonen arteko desorekarik handiena agertzen duen ekonomia-jarduera Are grafikoak, euskarriak grabatzea eta erreproduzitzea delakoa da. Bere kasuan, lau langiletako hiru gizonak dira. Liburutegi, artxibo eta museoei loturiko jardueren kasuan, ordea, emakumeen presentzia gizonena baino handiagoa da (+ % 11).

EAEko kultur arloko eginkizunetan erregistratutako aldi baterako kontratuak, kontratuaren iraupenaren eta sexuaren arabera (2017)



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia

Ez da alde handirik antzematen kontratuen iragankortasunari dagokionez nahiz eta joera berdina aurkitu, non emakumeak kaltetuta baitauden.

Sei hiletik beherako aldi baterako kontratuen kasuan, emakumeek % 51,5 suposatzen dute (29.296) eta gizonak % 48,5 (27.566). Emakumeen presentzia handiagoa da aldi baterako kontratuetako kategoria guztietan, astebeteko eta urtebetetik gorako kontratuen kasuan ezik; azken horretan, % 11koa da aldea. Aldi baterako enplegu-kategoria motzenen kasuan emakumeak gizonak baino gehiago badira ere, urtebetetik gorako kontratuen kasuan -hau da, hain kaltegarriak ez diren horien kasuan- gizonak dira nagusi.



Lanaldi osoaren baliokidean lan egiten duten EAEko langileak, lanbide-kategoriaren eta eragile-tipologiaren arabera (2015)


Sektorea	Eragile-tipologia	Zuzendaritza karguak	Langile teknikoak	Kudeaketa/ Administrazioa	Beste batzuk
Arte eszenikoak	Produktore	% 41,40	% 46,60	% 56,50	% 46,80
	Programatzaile	% 33,40	% 31,90	% 74,30	% 53,80
Liburua	Argitaletxe	% 29,90	% 60,40	% 59	% 39,20
	Liburu-denda	% 60,60	% 62,40	% 83,70	% 64,80
Musika	Orkestra	% 0	% 48,30	% 66,70	% 0
	Programatzaile publikoa	% 42	% 58,10	% 56,70	% 64,90
	Sustatzaile pribatua	% 21,40	% 38,60	% 47	% 50
	Kontzertu aretoa	% 44,40	% 26,20	% 50	% 43,40
	Txistulari eta musika-bandak	% 0	% 26,90	% 33,30	% 0
	Diskografia	% 25	% 40	% 40	% 0
	Diskoen salmenta	% 9,30	% 39,80	% 81,80	% 0
Ikusizko arteak	Erakustegi	% 85,50	% 77,70	% 95,60	% 19,90
	Arte galeria	% 40,50	% 50	% 71,40	% 57,10
Ikus-entzunezko	Produktore	% 23,10	% 43,60	% 70,30	% 50,30
GUZTIRA	-	% 37,10	% 43,80	% 69,90	% 50,30

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia

Datuek agerian uzten duten bezalaxe, sexuak kultur arloko langileen lanbide-eginkizuna baldintzatzen du. Emakumeak kudeaketa eta administrazio lanpostuetan dira nagusi (% 69,9). Profil teknikoko (% 43,8) eta zuzendaritzako lanpostuetan (% 37,1), aldiz, gizonak dira nagusi. Emakumeen presentzia kultur arloko lanpostuetan alderantziz proportzionala da lanbide-kategoriaren garrantzi eta tamainarekiko.

Emakumeak zuzendaritza karguetan dituzten sektoreak ikusizko arteei eta liburuari loturiko horiek dira, liburu-dendetan bereziki, zuzendaritza karguetako % 60,6 okupatzen baitute. Eta ikusizko arteetako erakustegi kasuan, berdin (% 85,5). Zuzendaritzako postuetan emakumeen presentzia txikiena duten sektoreak ikusizkoa, musika eta arte eszenikoak dira. Azken horretan aldea nabaria da (+ % 53,8).

Lanaldi osoaren baliokidean lan egiten duten EAeko langileak, sexuaren eta eragile-titulartasunaren arabera (2015)



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia

Emakumeen presentzia kultur arloan sektore publikoan zein pribatuan da txikiagoa. Alde hori sektore publikoan da nabarmenen (- %13,6). Elkarte fundazioetan, aldiz, emakumeek presentzia handiagoa dute (% + 12,6). Erakunde horien izaera solidarioa eta beren eginkizun soziala azpimarratu beharra dago, bai eta genero-estereotipoek eta -rolek egoera horretan izan dezaketen balizko eragina ere.



Prestakuntza

Oso konplexua da kultura-prestakuntzaren eta kultura-industriaren profesionalizazioaren arteko korrelazioa aztertzea, ez baita beharrezkoa arteen inguruko prestakuntza arauturik izatea kultur arloan profesionalki lan egiteko.

Kultur arloari buruz eskuragarri dauden datu-baseek eskaintzen duten kategorizazioa, gainera, aipatu baseak kudeatzen dituzten erakundeen arabera aldatzen da. Horrexegatik, kulturari baldintza generikoetan loturiko alderdiak aztergai izan ditugu eta horiek aurkitzea ezinezkoa izan denean, kultur arlo orokorraren egoera partzialki azaltzeko balioko diguten kultur eremu zehatzen inguruko datuak aztertu ditugu.

EAEko unibertsitatetan graduko ikasketak amaitu dituzten ikasleak tituluaren, sexuaren eta epealdiaren arabera

Titulua	2012/2013		2013/2014		2014/2015		2015/2016		2016/2017	
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
Arte eta giza zientziak	124 (%76)	40 (%24)	392 (%71)	157 (%29)	459 (%68)	221 (%32)	473 (%66)	241 (%34)	476 (%67)	23 (%33)
Arte	33 (%66)	17 (%34)	72 (%78)	20 (%22)	59 (%62)	36 (%38)	61 (%66)	31 (%34)	90 (%74)	32 (%26)
Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzea	7 (%100)	0 (%0)	12 (%80)	3 (%20)	33 (%97)	1 (%3)	22 (%85)	4 (%15)	16 (%84)	3 (%16)
Sorkuntza eta Diseinua	23 (%82)	5 (%18)	38 (%73)	14 (%27)	65 (%71)	27 (%29)	56 (%65)	30 (%35)	60 (%67)	30 (%33)
Artearen Historia	2 (%67)	1 (%33)	12 (%75)	4 (%25)	35 (%76)	11 (%24)	31 (%79)	8 (%21)	27 (%73)	10 (%27)

Iturria: Eustat

Emakumeek gehiago handia dute kultura eta ikus-entzunezko arteen sektoreetako profesionalizazioari loturiko gradu guztietan titulua lortu dutenen artean eta joera hori egonkor mantendu da 2013 eta 2017 bitartean. Kultura Ondasunen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko gradua da emakumeen eta gizonen arteko desorekarik handiena agertzen duena: 7-0 zen alde 2012/2013 ikasturtean eta 33-1, 2014/2015 ikasturtean, beti ere emakumeen alde. Joera orokorra argia da, gradu horietan titulua lortu duten gizonak nekez iristen baitira % 38ra kasurik onenean; eta beren ehunekoa % 10etik behera dago zenbait kasutan.

Aztertutako epealdiaren barruan gizonen tituludunen tasarik handiena agertzen duen gradua Arte izenekoa da, % 30,8ko batezbestekoarekin. Bere atzetik Arte eta Giza Zientziak delakoa dator % 30,4rekin eta bi kasu horietan, emakumeen tasak gizonena bikoizten du.

EAEko ikusizko arteetako eragileen batezbesteko enplegua (lanaldi osoko langileak urteotuta), sexuaren arabera (2007-2015)

Urtea	Emakumeak	Gizonak
2007	% 55,0	% 45,0
2009	% 63,2	% 36,8
2011	% 59,2	% 40,8
2013	% 61,0	% 39,0
2015	% 59,1	% 40,9

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia

Aztertutako epealdiaren hasiera-hasieratik, emakumeek enplegu-tasa handiagoa dute ikusizko arteen sektorean eta joera hori erabat naturala da, modalitate horretan azken urteotan gradu-titulua lortu duten gehienak emakumeak baitira. Azpimarratu beharra dago halere emakumeen enplegu-tasa altuago horrek ez duela proportzio zuzenik mantentzen lanbide-eremu horri loturiko unibertsitate-titulua lortu dutenei dagokionez emakumeen eta gizonen artean dagoen aldearekin, emakumeek nabarmenki gainditzen baitzaizkie gizonak alderdi horretan.

Ez da bilakaera-joera garbirik antzeman epealdi honetan; aldaketarik esanguratsuena 2007 eta 2009 artean ematen da (+ % 8,2), 2011. urtean berriro egonkortu eta berean mantentzen bada ere 2015. urtera arte.

EAEko ikasleak, mailaren eta sexuaren arabera (2016/2017)

	Emakumeak	Gizonak
Arte plastiko eta diseinua	187 (%73)	68 (%27)
Musika	1513 (%56)	1202 (%44)
Dantza	102 (%93)	8 (%7)
Goi-mailako Diseinu Artistikoak	197 (%77)	60 (%23)
Goi-mailako Arte Dramatikoa	22 (%73)	8 (%27)

Iturria: EUSTAT

Arte eszenikoen zein ikusizko arteen edo musika eremuan, emakumeek presentzia handiago dute gizonak baino. Sexuen arteko alderik handiena agertzen duen eremua dantza da, + %86ko aldearekin. Desorekarik txikiena agertzen duena, aldiz, musika da, non emakumeek presentzia handiagoa baituten (% 12). Ikusizko arteei eta arte dramatikoa dagokienez, emakumeen gehiengoak esanguratsu izaten jarraitzen du eta gizonen kopurua hirukoizten du ia bi kasuetan.

Ekoizpen-eragileen batezbesteko enplegua (lanaldi osoaren baliokidea duten langilea, urtekotuta) sexuaren, eragile-tipologiaren eta lanbide-eginkizunaren arabera (EAE, 2015)


	Lanbide eginkizuna	Emakumeak	Gizonak
Antzerkia	Zuzendaritza	% 38,8	% 61,2
	Teknika	% 46,8	% 53,2
	Kudeaketa/ Administrazioa	% 54,8	% 45,2
	Beste batzuk	% 47,0	% 53,0
Dantza	Zuzendaritza	% 52,3	% 47,7
	Teknika	% 51,9	% 48,1
	Kudeaketa/ Administrazioa	% 74,4	% 25,6
	Beste batzuk	% 44,2	% 55,8
Bandak	Zuzendaritza	% 0,0	% 100,0
	Teknika	% 26,9	% 73,1
	Kudeaketa/ Administrazioa	% 33,3	% 66,7
	Beste batzuk	% 0,0	% 0,0
Orkestrak	Zuzendaritza	% 0,0	% 100,0
	Teknika	% 48,3	% 51,7
	Kudeaketa/ Administrazioa	% 66,7	% 33,3
	Beste batzuk	% 0,0	% 100,0

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia

Langileek izango duten lanbide-eginkizuna sexuaren mende dago: eremu bakoitzean erabakigarrienak diren lanpostuak gizonak betetzen dituzte gehienbat. Horren adibide argia da banda eta orkestren zuzendaritzari dagokionez gizonak duten monopolioa (E= % 0 / G= % 100). Emakumeen ordezkariak handiagoa duten lanpostuak kudeaketa eta administrazioari loturiko horiek dira.

Antzerki, dantza eta musika eremuetako langileen lanbide-eginkizunak aintzat hartuz eta arlo horietan espezializatutako zentroetan urte horretan bertan izena eman duten ikasleen kopuruarekin alderatuz gero ikus daiteke gizonak ehuneko altuagoa suposatzen dutela erabakigarriagoak diren lanpostuetan; horren aurrean, kontraste eginaz, prestakuntza jasotzeko izena eman duten gizonen ehuneko baxua.

Dantzaren kasuan ateratako ondorioak zenbait sektoreen enplegu-tasa bateratua arlo horietan espezializatutako zentroetan izena eman duten ikasleekin alderatuz gero lortzen diren emaitzen berdintsuak dira: emakumeek gizonak baino presentzia zertxobait handiagoa agertzen dute lanpostu garrantzitsuetan. Alde horrek, ordea, ez du zerikusirik izena eman duten ikasleei dagokienez dagoen aldearekin: maila akademikoaren tasa E= % 93 / G= % 7 den bitartean, dantza-ikuskizunetako zuzendaritzako lanpostuetan % 52,3 emakumeak dira eta % 47,7 gizonak.



Ohiturak


Kultura-jardueretara EAEn eskainitako batezbesteko denbora (hh/mm) partaideko eta partaidetza-tasa, sexuaren arabera (2013)


Jarduera		Emakumeak	Gizonak
Disko edo kaseteak entzutea	Batezbesteko denbora partaideko	1:03h	0:55h
	Partaidetza-tasa	% 1,30	% 1,40
Liburuak irakurtzea	Batezbesteko denbora partaideko	1:27h	1:30h
	Partaidetza-tasa	% 6,10	% 4,20
Arte-jarduerak	Batezbesteko denbora partaideko	1:40h	1:44h
	Partaidetza-tasa	% 2,50	% 2,70

Iturria: Eustat

Musika disko edo kasete formatuan entzuten duten gizon gehiago daude baina emakumeek denbora gehiago igarotzen dute. Liburuak irakurketarekin alderantzizkoa gertatzen da: emakume irakurle gehiago dago gizon baino (+ %18), baina irakurtzen emandako denborari dagokionez gizonen batezbestekoa altuagoa da, aldea xumea bada ere (E= 1:27h / G= 1:30h).

Arte-jarduerak egiten emandako batezbesteko denbora zein jarduera hauek gauzatzen dituzten pertsonen arteko tasa altuagoa da gizonen kasuan. Halere, aipatu beharra dago aldea oso xumea dela, irakurtzen emandako denborari dagokionez gehienbat.





**ANTZERKIAREN, DANTZAREN,
LIBURUAREN ETA MUSIKAREN
SEKTOREKO EMAKUMEEN
ETA GIZONEN EGOERAREN
LABURPENAK,
SORKUNTZAREN ETA
INDUSTRIAREN IKUSPUNTUTIK**

Emakumeen eta gizonen
arteko **BERDINTASUNA**
euskarazko **ANTZERKI**
sorkuntzan

ENERITZ ARTETXE ARANAZ



I. SARRERA

Helburu orokorrak eta espezifikokoak

Eusko Jaurlaritzak, Kultura Auzolanean Programaren barruan, sormenaren arloan ari diren emakume gisa sailkatuen presentzia ikertu nahi du hainbat arlotan: literaturan, dantzan, musikan eta antzerkian. Ikerketa hauen azken helburua litzateke emakumeek sormen esparruan duten presentzia aztertu eta gizonekiko parekide izateko neurriak hartzea. Ikerketa honek, hain zuzen ere, antzerki sorkuntzan emakume gisa sailkatuek duten presentzia aztertu nahi du modu kualitatibo batez.

Ikerketa honen xedeak puntu hauek ikertzea izango da:

- Zein den gaur egun indarrean dagoen antzerki sormenaren egitura.
- Sormen egitura horrek zer gizarte mota islatzen duen.
- Antzerki sortzaile emakumezkoek zer rolak hartzen dituzten indarrean dagoen sormen egituran.
- Zergatik hartzen dituzten emakume sortzaileek rol horiek, eta zergatik dituzten zailtasunak beste batzuk hartzeko.
- Zer zailtasun, desabantaila eta injustiziak pairatzen dituzten emakumeek beren ibilbide profesional zein pertsonaletan.
- Zer egin daitezkeen gizonen eta emakumeen rol guztiak parekidetasunez har ditzaten.
- Nola alda daitezkeen sormen inguruneak eta egiturak, gizonen zein emakumeen antzerkia modu feministago eta parekideago batean sortu ahal izateko.
- Zein den pentsamendu berria, antzerkia egiteko modu ezberdinak eta parekideagoak ekarriko dituenak.

II. TESTUINGURUKO DATUAK

2.1 Kulturako emakume euskalduna

Emakumeek euskal antzerki sorkuntzan duten egoeraren ikerketa egiterakoan, erabateko eragina duten hiru baldintza kontuan hartu behar dira:

- Emakumeek beraiek gizonen alderatuta jendarte honetan jasaten duten hauskortasun egoera jaso beharko litzateke.
- Kultur langileek orokorrean Estatu espainiarrean bizi duten egoera prekarioa (Ipar Euskal Herriko egoera ezberdina da, legeak intermitentzia jasotzen duelako).
- Sormeneko jarduera hizkuntza gutxitu batean eramaten da aurrera sortzaile euskaldunen kasuan; eta, horrela, ahuldade egoera hirukoiztu egiten da.

Beraz, emakume, kultur langile eta euskaldun izateak erabat baldintzatzen ditu sormen jardueraren garapenaren nondik norakoak eta hau aurrera eramateko baldintza zein aukerak.

2.2 Emakumeek jendartean

Jakinada Euskal Herriko jendartean zein Europako mendebaldeko hainbat jendartetan indarrean dagoen sistemaren egituraketa, gaur egun, sistema patriarkal kapitalista dela. Sistema sozio-politiko hau familia nuklear estandar batean oinarrituta dago. Familia horren buru, gizonezko baten figura jartzen du sistemak emakumezkoaren gainetik, patriarkala izateaz gain heteronormatiboa ere badelako. Heteropatriarkatu honek, badu zerikusia kapitalismoarekin ere, kapitalismoaren helburu nagusia produkzioa delako eta produkzio hori errazteko, betikotzeko eta posible egiteko, moldatu zirelako gaur hain hedatuak eta naturalizatuak diren **familia nuklearrak**.

Fenomeno hau oso ondo irudikatzen du Silvia Federici filosofo italiarrak "Caliban eta sorgina" liburuan. Bertan aipatzen den bezala kapitalismoaren helburua etengabe produzitzea da, baina norbait behar da produkzio hori aurrera eramateko, lan indarra. Bestalde, produzitzen duten horiek norbait behar dute

beren sostengua eta zaintza ahalbidetzeko, baita subjektu horien ugalketa ziurtatzeko ere.

Horretarako modu erraz eta eraginkorra asmatu du sistemak; pertsonak, muturreko bi multzotan sailkatu eta, banaketa horren arabera, produkzio edo ugalketa rola ematea. Horrela, pertsonen generoak, Queer teoriak azaldu bezala, berez anitzak direnak, muturreko bi sexu-generotara sinplifikatzen dira: emakumeak eta gizonak. Genero bakoitzari, gainera, bere lan ugaltzaile edo produktorea betetzeko, ustez egoki zaizkion ezaugarriak atxikitzen dizkio sistemak. Horiek lirateke **genero rola**, gizonezko gisan zein emakumezko gisan sailkatuak izan diren pertsonen gainean interes ekonomiko, politiko eta sozialen arabera eraikitakoak. Eta, beraz, naturaletik gutxi dutenak.

Genero rol hauek banatzeaz gain, hetero-patriarkatuak, gizonezkoei atxikitzen zaizkien ezaugarriak hobesten ditu besteen gainetik. Horrela eta boterea gizonezkoena izanik, ikuspuntu androzentrikoa gailentzen da gizartearen estamentu guztietan. Beraz, emakumezkoei atxikitzen zaizkien balio eta ezaugarriak bigarren mailakotzat hartuak izango dira eta, horregatik baztertuak, ez ikusiak, ez baloratuak eta, kasu batzuetan, ordainduak ere ez; hala nola, zaintza, umeak, etxeko lanak, sentimenduak, intuizioa, irrazionaltasuna, kultura, magia, artea...

2.3 Kultur langileen egoera

Arteak ez du gure egunerokotasunean erdigunerik hartzen. Orokorrean artea eta kultura, entretenimendua eta aisialdiarekin lotzen ditugu, pertsona zein jendartearen garapenerako funtsezko arloekin baino.

Kultur langileena, beharrian eta neurri berezituak eskatzen dituen lana da, beste hainbat lan bezala. Baina, orain arte kultur lana beste lan batzuk bezala kudeatua izan da, bai ogasunaren zein gizarte segurantzaren aldetik, haren ezaugarriak beste lan batzuetatik oso ezberdinak direnean. Kulturaren esparru ezberdinetan lan egiten dutenen ezaugarri orokorretako bat intermitentzia da. Artisten lanak ez dira jarraituak izaten, boladaka doaz eta hori kontuan hartu beharko litzateke ogasun zein gizarte segurantzaren (lana intermitentziaren arabera jasoz).

Zorionez, Artistaren Estatutuak proposatutako neurri batzuk onartuak izan ziren 2018/12/29an errege dekretuz. Horri esker, egoera jakin batzuetan dauden artistek gizarte segurantzaren

jarraitzeko aukera izango dute jardura etenetan ere; hala nola; haurdunaldiko arriskuagatik lan uzteetan eta edoskitzeari dagozkienetan.

Bestalde, orain arte kultur langile autonomoek ordaindu izan duten BEZaren % 21ak eragin handia izan du kultur langile askoren bitzta laboralean. Artistaren Estatutuan jasotzen diren neurri horiek ezartzeak berebiziko garrantzia izan du kultur langileentzat. Baina, orain arte ezarriak Estatutua osatzen duten neurri eta puntuen zati txiki bat baino ez dira.

Euskal Herrian kulturaren langileak prekarietatean bizi direla baieztatu daitekeen bezala, hauskortasun berezia duten pertsonengan gogorrago jotzen du babesgabetasun horrek. Pertsona horien artean aurkitzen dira, noski, emakumezkoak. Beraz, nahiz eta Artistaren Estatutuak haurdunaldiari eta edoskitzeari buruzko neurriekin pauso bat eman duen emakumeen egoera gizonekiko berdintze aldera, gizonezkoek zailtasun gutxiago izaten jarraitzen dute lanari heltzerakoan. Horrela, errazago egiten zaie lanuzteetatik itzultzea, prestazioak jasotzea eta baita kontratu zein soldata duinagoak lortzea ere. Beraz, kultur prekarietateak gogorrago eragiten die emakumezkoei gizonezkoei baino, eta hori berriz ere generoen arteko aukera ezberdintasunen isla garbia da.

2.4 Krisialdiaren eragina

AISGE. Fundazioak 2016. urtean artista zein dantzarien lan baldintzak aztertzeke ikerketa bat eraman zuen aurrera Espainiako estatuan. Ikerketa horren arabera, jardura artistikoa, bere garairik onenetan ere (2004-2006) prekarioa bazen —langabeziak % 28 suposatzen zuelarik—, 2016. urtean % 48ra iritsita zegoen. Esan daiteke, beraz, garai horietan hasi zela kultur arloan (eta jendarte osoan) krisialdi ekonomikoa eta honek eragin ikaragarriak izango zituela kultur jardunean eta baita bere baitako langileen bizi zein lan baldintzetan ere.

Kontraturik lan egiten duten artisten kopurua ikerketa hau egin zen garaian % 6,2tik 11,7ra igota zegoen, adibidez. Orduan ikusi ahal izan zen, baita ere, artisten erdiak beste lanbide bati esker bakarrik eraman zezakeela aurrera bere bizimodua. Eta langile artisten ia-ia heren bat txirotasunaren muga bizi zen 2016. urtean. Artisten egoera larri honi emakume izatearen baldintza gehitzen zaionean gertatzen dena ere aztertzen du ikerketak: sarriago lan egiten dute kontraturik gabe emakume artistek gizonezkoek baino (% 17,2 emakumezkoek; % 10,9

gizonezkoek). Beren lan artistikotik diru kopuru txikiagoa jasotzen dute (600 eurotik behera: emak. % 34,8; giz. % 23,9). Gutxiagotan jasotzen dute osasungintza publikoaren babesa, eta, beraz, zerbitzu pribatuak ordaindu behar izaten dituzte (emak. % 8,9; giz. % 4,6).

Lan artistikora bueltatzeko arazo gehiago dituzte EAEko emakume artistek, eta ohizkoagoa da lanbide artistikotik kanpoko beste lanbide batzuk edukitzea emakumezkoetan (emak. % 22; giz. % 15 esparru artistikoarekin zeharkako harremana duten lanetan eta emak. % 38; giz. % 31 arlo artistikoarekin harremanik ez duten lanei dagokionez). Bestalde, lan artistikotik diru gutxiago jasotzen dute gizonezkoek baino. Urtean 600 eurotik behera irabazten duten emakumeen kopurua % 42 da emakumezkoetan; gizonezkoetan, aldiz, % 27 suposatzen du.

Beraz, nahiz eta urte batzuk pasa diren ikerketa hau burutu zenetik, argi ikus daiteke emakume artistek jendarte osoa astintzen duen krisialdian zer-nolako ahuldade egoeran aurkitzen ziren gizonezkoekin alderatuta. Argi ikus daitekeenez, nahiz eta krisialdiak gizonezko zein emakumezko sortzaileengan izan duen eragina, ondorio larriagoak izan ditu emakumezkoen kasuan.

2.5 Euskal kulturaren kontsumoa

Esan behar da, baita ere, euskaraz aritzen garen antzerkilarioi eragin eta lan esparrua murrizten zaigula, gurea gutxitutako hizkuntza bat delako. Elkar fundazioak eta Siadecok egindako inkestatik ondorioztatzen da euskaldunek euskarazkoak ez diren kultur produktuetara jotzen dutela euskarazkoetara baino gehiago. Beraz, euskaraz jakitea ez da nahikoa euskal kultura kontsumitzeko. **Antzerkiari dagokionez, elebidunei begiratuz gero**, horietatik % **25ek** kontsumitzen **omen du erdaraz eta % 13k, aldiz**, euskaraz.

III. ABIAPUNTUKO KONTZEPTUAK

- **Aktorea:** drama batean pertsonaia bat antzezten duen pertsona da, filmetan, telebistan, antzerkian zein irratian.
- **Antzezlea:** Antzerki, zine edo beste ikuskizun batean pertsonaia baten rola egiten duen pertsona da.
- **Jokalaria, performerra:** Ikuslego baten plazererako antzezten duena da, dantzatzu, abestuz zein dramaren bidez antzezten duela ere.
- **Sortzailea:** Lan artistikoa edo intelektuala sortzen duena da, ekarpen berri esanguratsua egiteko ahalmena duena.
- **Autorea:** Obra bat sortzen duena da, obra hori artistikoa, literarioa nahiz zientifikoa izan. Gaur egungo kontzeptuak originaltasuna, lanaren autoritatea eta jabetza moral, intelektual zein ekonomikoarekin du zerikusia.
- **Dramaturgoa:** Testu literarioak idazten dituena da, testuok espazio eszeniko batean antzeztuak izan daitezen.
- **Eszena zuzendaria:** Arte eszenikoetan aurrera eramaten diren lanen taularatzeaz arduratzen dena da. Taularatzea zuzendu zein gainbegiratzea da bere egin beharra, baita lantaldearen eta produkzioaren ekarpen zein jardun ezberdinak uztartzea eta bateratzea ere.
- **Aktore-zuzendaria:** Antzezlan bateko aktoreen interpreta-zioaren lanketa eta haren bateratzeaz arduratzen dena.
- **Argitekniaria:** Argitekniariak, oholtza gaineko argiztapen sistemak eta efektu elektrikoak prestatu eta martxan jartzeaz arduratzen dira. Baita hauen mantentzeaz ere.
- **Argi diseinatzailea:** Argi diseinua jarduera intelektual eta intuiziozkoa da. Honen bidez, espazio eszenikoan emango den argiaren gaineko manipulazioari buruzko kontzeptuak sortu eta eraikitzen da.
- **Eszenografoa:** Eszenografiaren sortzailea da, ikuskizun bateko ikusizko osagaien autore, diseinatzaile edo zuzendaria.

- **Jantzi diseinatzailea:** Ikuskizun bateko pertsonaiek soinean eramango dituzten jantziak sortu eta diseinatzeko dituenak.
- **Androzentrismoa:** Androzentrismoa mundua antolatzen duen eredu unibertsal gisa erabiltzen da, hau da, gizonak eta emakumeak ordezkatzeko dituenak. Edozein fenomeno edo errealitate aztertzen denean, gizonaren (eta ez gizon-emakumeen) ikuspegitik egiten da, eta horrek emakumeen errealitatea eta historikoki egindako ekarpenak ezkatzea dakar.
- **Queer teoria:** Queer teoriak sexu, genero, identitate eta orientazio sexual kategoriak erakuntza sozialak direla planteatzen du, gizarte heteropatriarkalean, heteronormatiboan eta sailkapen bitarrean oinarritzen den jendartearen bizi garelako. Sexuaren eta biologiararen arteko lotura hausten du kategoria finkoak, oro har, esanahi sozial eta erakuntza sistema baten parte ere badirelako. Beraz, gizona, emakumea, heterosexualitatea, homosexualitatea, bisexualitatea, etab. ez dira kategoria unibertsalak, sozialki definituak eta eraikitakoak baizik.

IV. DATU KUANTITATIBOAK ETA HORIEN IRAKURKETA

4.1 Antzerki ikasketak

Jasotako datuen gaineko irakurketa egin ondoren, badago ondorioztatu daitekeen zenbait emaitza. Hasteko, antzerki formakuntzako datuek argi baieztatzen dute emakumezkoak gehiengoak direla antzerki ikasketetan. Nahiz eta arlo batzuetan beste batzuetan baino presentzia handiagoa izan, oro har, espezializazio guztietan gehiengo dira eskoletan matrikulatutako emakumezkoak gizonetzkoak baino. Baita ikasketak bukatzen dituztenak ere (goi mailakoak zein ikasketak ez ofizialekoak). Eta hau Euskal Herri mailan gertatzen den zerbait da, baina Espainia zein Kataluniako adibiderik esanguratsuenetan ere bai, hala nola RESADen zein Bartzelonako Institutuen.

Euskal Herriari dagokionez, goi mailako ikasketak burutzeko, une honetan Dantzertin matrikulatuta daudenak % 64,6 dira

emakumezkoak. Kontsultatutako eskola ez-formal guztietan ere ikus daiteke emakumezkoek gehiengoak direla ikasketak hauek burutzeko.

Dantzertin 2017-2018 ikasturtean, arte dramatikoko goi mailako tituluan emakumezkoak % 64,6 eta gizonetzkoak % 35,4 ziren. TAE Donostiatik, 1995-2018 aldirian, guztira, 215 emakumezko pasatu dira, eta 124 gizonetzko. Gasteizeko TAE, emakumezko profesionalak % 42,4 eta gizonetzkoak % 57,6 dira; inazioan, aldirian, emakumezkoak % 72,2 eta gizonetzkoak % 27,8. BAI eskolan emakumezkoak % 61,36 dira, eta gizonetzkoak % 38,57.

Gure eremuan ezinezkoa zaigu interpretazioaz aparte ikasketei buruzko datuak jasotzea. Horregatik bildu ditugu RESADen eta Institut del Teatren zuzendaritza, gidolaritza, eszenografia eta interpretazio ikasketak burutu dituzten ikasleen datuak. Oro har, ikasketak bukatzen dituzten gehienak emakumezkoak dira RESADen zein Institutuen. Nabarmentzekoa da, baita ere, RESADen, adibidez, 2014. urtetik 2018. urtera izan den bilakaera, gizonetzkoen graduatu kopuruak gorantz egin baitu etengabe eta progresiboki eskola horretan (% 40 izatetik % 50 izatera).

4.2 Antzerki enpresak

Antzerki enpresei dagozkien ESKENAKo (Euskadiko, Ekoizle Eszenikoen Elkarte) kideek sortutako azken ikuskizunei buruzko datuak jaso dira ikerketa honetan. Datu horiek aztertzearen helburua, ikuskizun bakoitza gauzatzeko emakume zein gizonetzkoek hartutako rola ikertzea izan delarik. Hau da, zenbat zuzendari, autore, emakume aktore, argi diseinatzaile, andrazko eszenografo zein jantzigile emakume eta gizonetzko aritu diren lan horietan.

ESKENAKo **kideen azken ikuskizunetan emakumezkoen presentzia, oro har, % 40,83koa da.** Honek, noski, talka zuzena egiten du eskoletatik jasotako datuekin, haietan gehiengoak emakumezkoena baitzen. Gainera, datuek azaleratzen dutenez, ia lan esparru guztietan dira gehiengoak gizonetzkoak. Jantzigintza da emakumezkoak gehiengoak diren arlo bakarra % 69,23rekin. Zuzendaritza nahiko berdinduta agertzen zaigu (emak. % 44; giz. % 48), eta eszenografia ere bai (emak. % 46,15; giz. % 53,84), baina aktoreetan eta, batez ere, aktoreetan (emak. % 31,57; giz. % 68,42) eta argi diseinatzaileetan (emak. % 0; giz. % 100) dator ezberdintasunik

handiena. Eta argi diseinuaren kasuan emakumezko izen bakar bat ere ez da agertzen.

Argi dago beraz, datu hauei begiratuta, bizi garen gizarteak gizon-emakumezkoentzat aurreikusten dituen genero rolek, antzerki egituretan isla zuzena dutela. Emakumezkoek jantziak, estetika, zaintza, besteekiko harremana, besteen atseginerako paperak jokatzeko eta antzeko rola asumitzen dituzte. Eta gizonzkoek, aldiz, eraikuntzarekin (eszenografia), erabakiak hartzearekin (zuzendaritza), hitza hartzearekin (autoreak) eta botere zein prestigio gehien duten rola loturikoak.

Esan daiteke orokorrean, emakume aktoreen kopurua ez dela gizonzkoen aldean hain ezberdina. Rol hori sartu daiteke bizi garen jendarteak, emakumezko espero duenaren barruan. Baina, hala ere, eta antzerki eskoletan emakume aktoreek gizonzko aktoreekin alderatuta duten kopuru handia ikusirik, harrigarria da gero profesional mailan emakumea hain berdinduta eta sarritan gutxiagoko kopuruan agertzea.

Emakume aktorea izatea badago emakume batez espero litekeenaren barruan, jendarte horren imajinarioan. Erraz irudika dezakegu emakume bat oholtza gainean. Beste kontu bat da jendarteak aktoreen bizimodu ez ohizko, mugikor, intermitentearen inguruan duen aurreiritzia. Izan ere, aurreiritzi horiek berberak aurki ditzakegu jendarte sisteman bertan, zeinetan ez den lanbidearen espezifikotasun intermitente hori (ezta beste asko ere) jasotzen.

Ezgonkortasun eta itinerantzia horrek gizonzkoetan irudi txarra ematen badu, emakumezkoetan are okerragoa ematen duela esan daiteke. **Bizimodu itinerante intermitente** hori da emakumeentzat egoki ikusten ez dena; horrek egiten du talka genero rolaekin.

Bestalde esan behar da, baita ere, emakumezko ugarik aktore rolari uzten diola edo arlo horretako jarduera gutxitzen duela ama izandakoan. Eta, hori ere, badela datu horiek aztertzean kontuan hartzeko arrazoia. Gizonzkoetan aktore lanak uztea edo gutxiagotzea ez delako hainbeste gertatzen aitatasuna dela eta.

Esan behar da baita ere, emakumezko edo gizonzko antzezleei gauza ezberdinak eskatzen zaizkiela eta emakumeen kasuan aukera espektroa asko murrizten dela (indarrean dagoen kanon estetikoaren menpekoo, adin jakin batekoa, interpretazio espektro murriztago...); horrek,

emakume antzezle talentudun asko uzten ditu espektro horretatik kanpo; eta, beraz, lan esparrutik at.

Beste arrazoi bat, autore eta zuzendari gizonzkoen gehiengoak eman dezake. Beraiek gehiengoa izanik, haien begiradetatik sortzen direlako antzezlanetarako rol eta sormen prozesuak.

4.3 Dirulaguntzak

4.3.1 Antzerki testuak

Eusko Jaurlaritzak urtero antzerki testuen sorkuntzarako zein antzerki produkzioarako ematen dituen dirulaguntzetan oinarritu da ikerketa hau, alor honi buruzko datuak jasotzeko. Gidoilarietarako dagokionez, azken bederatzi urteetan antzerki testuetarako dirulaguntzak jasotzeko aurkeztu diren emakumeen kopurua % 39 izan da, batez beste. Eta dirulaguntza hauetan, emakumezko onuradunak % 38 izan dira.

4.4 Sariak

Euskal Herrian, antzerkia modu kuantitatibo esanguratsuan saritzen duen pare bat sari baino ez dago. Donostia sariak alde batetik, zeinetan Donostiako antzokietan taularatu diren euskarazko antzezlanek baino ez duten sarituta izateko aukera eta bestetik, antzerki testuak saritzen dituzten "Kutxa sariak". Donostia sarietarako dagokienez, azken 6 urteetan sarituak izan diren antzezlanen zerrindari erreparatu zaio azterketa honetan.

Saritutako lan hauetan, emakumezkoen autoretza hutsa sinatzen dutenen kopurua % 0 da, zuzendariena, aldiz, % 28,57. Aktore lanetan dute emakumezkoek gehiengo txiki bat % 52 (ia-ia berdinduta dago, egia esan) eta jantzigintzaren kasuan emakumezkoen gehiengoa oso nabarmena da, % 83,33rekin. Antzerki testuen atalean bada beste sari bat ere, aurton 17. edizioa bete duen "Cafe Bar Bilbao antzerki testu laburren saria", hain zuzen ere. Antzerki sari honek modalitate bi ditu, bata euskarazkoa eta bestea gaztelerazkoa, eta urtero-urtero modalitate bietan saridun ezberdinak ateratzen dira. Bere ibilbide luzean "Cafe Bar Bilbao" saria 36 pertsonak jaso dute, eta horietatik 6 emakumezkoak izan dira, % 16 beraz.

Sari honetara aurkezten diren emakume autoreen kopurua txikia dela esan behar da, baina kopuruen kontaketa, egoeraren irudi bat egiten laguntzen digula uste dut. Eta, batez ere, emakumezkoek sarietan parte hartzearen eta haien lana ikusgarri egitearen premia larria erakusten. Kutxa sariei dagokienez, gauza bera gertatzen da, emakumezko euskarazko (1990-2018) antzerki testu sarituen kopurua oso urria dela % 16.

4.5 Antzerki jaialdi txikiak (underground); Eztena, Zurrunbilo, Atxiki, Matadeixe

Areto, elkarte edo kolektibo hainbaten inizatibaz sortutako jaialdiak izaten dira antzerkiaren undergrounda mugitzen dutenak. Espazio hauetan, zirkuitu normaletan ezin ikus daitezkeen lanak plazaratzea izaten da asmoa. Azken urteetan helburu horrekin sortutako jaialdi txikiak aurki ditzakegu Euskal Herrian zehar. Hemen aztertu diren jaialdietan, emakumezkoen sorkuntzak osatzen du beren edukia gehiengoa.

Egin daitezkeen irakurketa, honako hau da: emakumeen ikuspuntutik egindako sormen lan ugari ez dutela lekuri zirkuitu ofizialean. Hor onartuak izan eta bertan mantentzea zaila egiten zaie emakumeei. Horregatik bilatzen dute leku bat undergroundean. Aldi berean, termino eta kontzeptio orokorretatik kanpo dauden lan ugari emakumeek proposatutakoak direla esango nuke (hain zuzen ere, talka egiten duelako beren pentsamenduak indarrean dagoenarekin) eta beraz, zerbait ezberdina sortzen duena sarritan emakumezkoa izango da. Emakumezkoen zein beste sektore ahulduen ikuspuntua baita zirkuitu normalean agertzen ez dena. Emakume baten sormen lan pertsonalak, beraz, errazago aurkituko du espazioa undergroundean. Esan beharrik ez dago undergroundean diru kopuru txikiak mugitzen direla orokorrean, nahiz eta ingurune batzuek oso lan baldintza duinak izatea lortu duten.

V. DATU KUALITATIBOEN LABURPENA

5.1 Sormen egituretako rol azterketa

Autoretza

Hainbat ikerketa eta artikulutan azaltzen denez, autoretzarena oso estamentu estrategikoa da antzerki sorkuntzan. Eta

generoa lantzeko garaian ere lehentasuna eman behar litzaioke. Izan ere, autoretzak hitza hartzea esan nahi du. Antzezlanetan zertaz hitz egingo den erabakitzen duena da autorea, edukiez arduratzen dena. Baita pertsonaiei buruzko lan ildo nagusiak eta tonu orokorra proposatzen dituen ere. Beraz, emakumearen ikuspuntua taularatzea eta gizarteratzea nahi baldin badugu, autore emakumeen presentzia gehitzea ezinbestekoa zaigu. Bestalde, emakumezko autoreen presentzia urriari azalpen ugari eman dakiok.

Lehenik eta behin, emakume autoreek plazaratzen dituzten gai eta edukien gaineko aurreiritziak ekarriko nituzke mahai gainera, gai hauek ez-unibertsal, bigarren mailako eta berezitat irakurriak baitira, gizonak azaleratzen dituzten gai zein edukiekin gertatzen den ez bezala. Horrela, beraz, esan daiteke genero rolek eragin handia dutela oraindik gizaratean, emakumea autore gisan ikusteko orduan. Jendarte honetako genero rola direla eta, normalean ez ditugu emakumeak autore gisan begiratzen (emakumeek beren burua autore gisan ikustea ere ez da erraza izaten, nahiz eta hainbat lan idatzita eduki). Esan bezala, hitza hartzea suposatzen duen rol bat da, eta patriarkatuak edukien aukeraketa gizonen generoari atxikitzen dionez, oso zaila egiten zaigu txip hori aldatzea, bai gizonezkoiei eta bai emakumezkoiei.

Beraz, genero rolek berdin funtzionatzen dute emakume zein gizonezkoek beren zein besteen gainean duten kontzeptuetan. Elkarrizketatu batek baino gehiagok aipatzen du denok beharko genukeela reset bat gai honen inguruan; **generoen gaineko rolen inguruko hausnarketa sakon bat antzerkiaren testuinguruan.** Bestalde, emakume autoreek argi eta garbi diote nahiz eta beraiek beren burua autore gisa ikusi eta beren jarduna genero rolen zein aurre iritzien gainetik kokatu, ez direla jendartearekiko edo lanbidearekiko hain erraz ikusgarri egiten. **Existitu egingo ez balira bezala jokatzeko duela bai jendarteak eta baita lanbideak berak ere.** Alde batetik hedabideetan ez dira gizonak bezainbeste ateratzen, eta, bestetik, lanbidearen barruan ez dira gizonezkoak bezain aitortuak, ezta prestigiatuak ere.

Zuzendaritza

Datuei begira eta elkarrizketatutako emakumeek esandakoari erreparatuz, pentsa daiteke zuzendaritzan emakumezkoek aurrerakada egin dutela, orain urte batzuk gertatzen zenarekin alderatzen badugu. Zuzendaritzan emakumeek

aurrerapausoak eman ditugun arren, oraindik ere gizonen kopurua handiagoa da eta batez ere ikusgarritasun eta prestigio edo aitortza handiagoa dute, orokorrean, gizonen zuzendutako lanek.

Gizonen errazago ematen dute jauzia zuzendaritzara, talentu berezia izan ala ez, eta ahalegin berezirik egin behar izan gabe. Esango nuke errazago esaten zaiela gizonen: "Zuzendu ezazu zerorrek, kanpoko begirada eman ezazu". Ez du hainbeste borrokatu behar postu hori lortzeko; kontu praktiko bat da. Berriz ere genero rolez ari gara, noski, zeinetan botere eta erabakien postuak gizonen egozten zaizkien emakumeen baino errazago.

Emakume zuzendari batek adierazten zuen, zuzendari izatera iritsi baldin bada, asko tematu delako izan dela. Emakume sortzaile baten ibilbidean ez baita erraza hori naturaltasunez gertatzea. Hala ere, berak aipatzen zuen ez duela oraindik bere mailako gizonen kideek jasotako aitortzaren baliokiderik jaso.

Emakume zuzendariak lupaz begiratzen diren sententzia aipatu dute elkarrizketatutako zuzendariak. Zuzendaria da antzerki egitura horretan lana bideratzen duena eta erabaki nagusiak hartzen dituena. Produktorearen ostean, lanaren garapenean botere esparru handia du zuzendariak; lanaren erantzule nagusia dela esango nuke. Botere postu hori ez dagokio emakumearen rolari eta beraz susmagarri gisan begiratzen zaio, ustez gizonari dagokion espazioa okupatzen baitu.

Honen harira, emakume zuzendariak diotenez, beraien erabakiak eta agindu zein proposamenak lantaldean onartuak izateko zein seriotasunez hartzeko arazo gehiago dituzte gizonen baino. Emakume zuzendariak aipatzen duten beste kontu bat **beraiek sortutako lanen gaineko aurreiritziak dira**. Autoreen kasuan gertatzen den bezala, haiek burutzen dituzten lanak emakumeen egozten zaizkien ezaugarriak izango dituztela uste baita; sententzietatik besteak, estetika zainduarekin, finak, ez komikoak...

Gainera sentitzen dute boterea eta dirua daudela jokoan, eta gizonen ez dutela hori eskuen artean labaintzen utzi nahi. **Emakumeen arteko sareak eraiki behar genituzke, eta horien bidez gure buruak indartu eta lan esparru berriak eraiki**. Deigarria egiten zait elkarrizketatutako emakume zuzendariak oso ingurune sostengatzailea dutela ikustea. Kasu guztietan, emakume hauen ingurune afektibo, bikote eta abarrak, **profesionalaren erabateko fan dira eta**

beharrezko egiturak eraikitzen dituzte, haiek zuzendari jarduna modu egokian burutu dezaten. Iruditzen zait hainbesteko aurreiritzi, zalantza jartze, oztopo eta abar jasotzen duen rol hau aurrera eramateko, ezinbestekoa dela inguruko babes eta ulermen erabatekoa. Izan ere hala erakusten dute elkarrizketatuen profila, jardun zein bizimoduek.

Jokalaria

Jokalaria, performer edo aktoreari buruzko datuek diotenez, emakume zein gizonen kopurua arlo hauetan ez da hain ezberdina. Hala ere, eta antzerki eskola guztietan emakumeen kopurua handiagoa denez gero, profesionalizatzean gertatzen denak ematen du hausnarketarako parada. Izan ere, bidean emakume asko baztertu egiten dira gizonen ibilbide profesionalen aurrera egiten duten bitartean. Genero rolen aldetik, ematen du emakumeak aktore gisa irudika ditzakegula jendarte honetan. Dena den, iruditzen zait gizon zein emakumei jokalaria gisa eskatzen zaiena eta, beraz, rol bakoitzari egozten zaizkien ezaugarriak ezberdinak direla.

Emakumeen gehiago eskatzen zaie politikaz, gazteak, melodrama eta tragediarako dohainak izatea. Eta gizonen, aldiz, paper aniztasuna, ekintzailatasuna, indarra, komediarako dohaina... (berriz ere genero rola). Beraz, nahiz eta antzezlea izatea emakumeen genero rolen barruan kokatzen dugun, ezaugarri bereziak eskatzen zaizkio haren jardunari. Eta elkarrizketatutako emakume ugari aipatzen du emakume antzezleak kontratatzerakoan, batzuetan, talentua bigarren mailako baldintza izaten dela, eta estetika berebiziko garrantzia duela (estetika estandarra, hain zuzen ere).

Emakume gazte eta politikaz nahi dituzte, normalean, produktorek zein antzerki taldeek. Ikuspuntu androzentriko horretan, joera honek ezkatzen duena da emakume gizonen nahiak asetzeko dagoenaren ideia. Eta ikuspuntu honek pisu izugarria du jokalarien karreretan. Izan ere, emakumeen ibilbideak martxan jartzea zaila bada, adinean aurrera doazela mantentzea are zailago egiten du.

Adinaren presioa, presio estetikoak, gehi antzezle ona izatearen presioa eta hamaikatxo gehitutako presioekin zaila da ibilbide profesional batierotugabe eta luzaroaneustea. Baina, mantentzea lortzen badugu ere, emakume aktore pedagogoak zihoen bezala **gure lanen bidez gizarteratzen dugun emakumeen buruzko irudiak eta kontzeptuak kezkatu behar genituzke**

bereziki. Jokalariak beren pertsonaiak zein sorkuntzak aurrera eramaterakoan generoaren begirada txertatzearen garrantzia landu beharko genuke. **Eta horretarako berebiziko garrantzia du profesionalak izateko ikasten ari diren jokalariai zentzu horretan hezte.**

Argi diseinatzaileak

Ikerketa honetan jasotako datu zein burututako elkarrizketek argi iradokitzen dute emakumezko teknikari eta argi diseinatzaileek dutela antzerkiaren egituretan presentziarik urriena. Emakumeen presentzia eskas honek, nahiz eta gero eta emakume teknikari gehiago dauden, ingurunearen erabateko maskulinizazioa dakar. Eta honek nola ez, eragin zuzen eta erabatekoa du ingurune horretan aritzen diren emakumezko zein gizonezkoengan, eta bertan sortzen diren giro, jokaera eta ohituretan.

Esan behar da lehendabizi, Euskal Herrian egiten diren argi diseinu gehienak, teknikari izatetik datozen langileek burututakoak izaten direla. Teknikari formazioa dute eta esperientziaren zein lanaren ondorioz halako batean, diseinuak egiten hasten dira. Garapen natural bat dela esan daiteke. Baina elkarrizketatutako emakume teknikariek diote, progresio hori gizonezkoetan gertatzen baldin bada ere, emakumezkoetan ez da horrela izaten.

Bestalde, **teknikari esperimentatu eta honei ematen zaie diseinua egiteko ardura.** Prestigio eta sormen handiagoa duen kategoria da diseinatzailearena. Elkarrizketatutako emakume teknikariek zioten horretarako ondo egiten duzunaren aitortza bat behar dela. Eta, horregatik, ez ditugula emakumeak diseinuan kokatzen.

Teknikari izatea, beraz, gizonen kontua da. Emakumeak ez dira lan horretarako dohaindutzat ikusten. Dohainduak ez badira eta hor badaude tira, baina horrez gain onak direla esatea eta gizonezko bat baino hobeak direla aitortzea, hori ezinezkotzat ikusten da. Eta argi diseinuaren ardura diseinatzaile onek hartzen omen dutenez, emakumezkoak ez dira sekula kategoria horretara iristen. Hori argi erakusten dute datuek.

Beste kontu bat da teknikarien artean bizi duten giro maskulinizatua eta horren ondorioz emakumeek pairatzen dituzten aurreiritzi, egoera zein erasoak. Bestalde, tratuari dagokionez ere, kexa handia erakusten dute emakume

teknikariek. Hainbat gizonezko inguratuta lan egiten dute normalean. Sarritan biran ere ibiltzen dira elkarrekin, eta, beraiek aipatzen dutenez, harreman matxistetan oinarritzen da tratua sarritan. Fisikoaren eta estetikaren gaineko eta emakumeen genero gaineko aurreiritziak aipatzen zituzten.

Eszenografoak

Eszenografiari dagokionez, elkarrizketatutako emakumeekin hitz egin ondoren, Euskal Herrian eszenografiara heltzeko modu ugari daudela ikus daiteke. Alde batetik, Arte Ederretako (eskultura zein pintura) zein Arkitekturako formazioetatik datozenak leudeke. Eta bestetik, antzerki taldeetan brikolajerako edo eraikuntzarako gaitasun berezia dutenak, gutxinaka-gutxinaka eszenografian hezten joan direnak izango genituzke aurrez aurre. Horiek lirateke gaur egun Euskal Herriko antzerki taldeetan gailentzen diren eszenografo profilak.

Aurreko ataletan aipatu bezala, antzerki graduatuko espezialitate honetan matrikulatutako emakumezkoak gizonezkoek gailentzen zaizkie, kopuruari dagokionez. Horrela, 2018. urtean, eszenografian graduatutako ikasleen kopuruaren erdia osatzen dute emakumezkoek Bartzelonako Institutuen. Eta Madrilgo RESADen, aldiz, azken urteetako batezbestekoan, emakumeek gehiengoa osatzen dute, argi eta garbi.

Datu hauek noski, erabat egiten dute talka Euskal Herri mailan profesionalki aritzen diren eszenografoen datuekin. Lehenago aipatu bezala, Euskal Herrian lanean dabilzan eszenografo gehienak gizonezkoak baitira. Elkarrizketatutako emakume eszenografoek ere, beste arlo batzuetan bezala, sorkuntzarako lantaldeetako bereizgarririk handiena, lan egiteko moduetan jartzen dute. **Lan egiteko modu parte hartzaileagoa, orekatuagoa, saretuagoa, horizontalagoa eta pertsonen arteko harremani garrantzia ematen diena nabarmentzen dute desiragarritzat.**

Hala ere, aipatzen dute oso pertsona gutxi bizi daitekeela Euskal Herrian, gaur egun, eszenografian bakarrik arituz gero. Aipatu bezala, arkitekto laneak edo hezkuntzakoek edo antzezle laneak osatzen dute beren diru iturri nagusia. Eszenografia ez dutelarik inolaz ere lanbide gisan ikusten, jarduera osagarritzat baizik.

Jantzigileak

Jantzigintzaren kasua da bereziena, datuei erreparatuz gero. Izan ere, honetan emakumezkoen presentzia handiagoa da gizonezkoena baino, eta hauxe da hori gertatzen den arlo bakarra.

Elkarrizketatutako emakume jantzigileekin hitz egin eta gero ondorioztatzen dudana, zera da: profil bi nagusitzen direla lanbide honetan. Alde batetik, arte ederretatik datozen profesionalak. Hauetariko batzuek antzerkiko jantzigintzako masterrez edo bestelako ikasketez osatu dute beren hezkuntza. Eta, bestetik, eszenografiaren atalean gertatzen denaren antzera, antzerki taldeko kideren bat gutxinaka-gutxinaka jantzigintzan hezten joan da, horretarako gaitasun berezia zuela eta, jostun ona delako eta estetika aldetik intuizioa duelako.

Argi geratzen da gehienbat emakumezkoen lotutako genero rolekin datorrela bat, etxeko lanei, jostuntzari eta halako kontuei atxikitzen zaielako. Hori argi geratzen da jasotako datuei begiratuta zeintzuetan antzerki jantzigileen eta diseinatzaileen gehiengo zabala emakumezkoa den. Hala ere, oso deigarria egiten da ikustea nola Arriaga bezalako antzoki handi bateko jostun burua gizonezkoa den.

Beste estamentu batzuetan gertatzen den bezala, hemen ere, soldata finkoa eta boteregunea jokoan dauden tokietan gizonezkoekin egiten dugu topo, bestela emakumezkoak nagusitzen diren arlo batean. **Emakume eszenografoek zioten bezala, jantzigintza antzerkiaren sorkuntza prozesuan bukaerarako uzten den kontu bat da;** beste kontu batzuei baino garrantzi gutxiago ematen zaio. Horrek ez die ematen jantzigileei sormen prozesuan benetan ekarpen esanguratsu bat egiteko aukerarik.

Bestalde, elkarrizketatutako jantzigileek aipatzen dute beraiek antzerki sorkuntzaren egiturari, azkenak sentitzen direla. Denek aipatu dute kontu hau. Denetan azkenak direla, eta aktore, teknikari eta beste guztiak baino beherago kokatzen dituztela talde lanen hierarkian. Emakumeei egotzen zaien lana da jantziarena eta beraz ez du beste lan batzuek duten prestigioa eta estimu bera. Ordaintzea kostatu egiten da, besteak baino gutxiago baloratzen den hori...

5.2 Iritzi artikulua

Emakumeen presentzia euskal antzerki sorkuntzan; karanbola hirukoitza

Gaur egungo jendarte antolakuntza

Guztiok dakigunez, gaur egun Euskal Herriko jendartearen zein Europako mendebaldeko jendartearen indarrean dagoen sistemaren egituraketa patriarkal eta kapitalista da. Sistema soziopolitiko hau familia nuklear estandar batean oinarrituta dago. Familia horren buru gizonezko baten figura jartzen du sistemak emakumezkoaren gainetik, patriarkala izateaz gain heteronormatiboa ere badelako. Heteropatriarkatu honek zerikusi zuzena du kapitalismoarekin, honen helburu nagusia produkzioa delako, eta produkzio hori errazteko, betikotzeko zein ahalbidetzeko, moldatu zirelako gaur egun hain hedatuak eta naturalizatuak diren **familia nuklearrak**.

Egoera hori mantentzeko era erraza eta eraginkorra asmatu du sistemak: pertsonak muturreko bi multzotan sailkatu, eta, banaketa horren arabera, produkzio edo ugalketa rolak atxikitzea. Horiek lirake **genero rolak**, gizon edo emakume gisa sailkatuak izan diren pertsonen gainean interes ekonomiko, politiko eta sozialen arabera eraikitakoak. Eta, beraz, naturaletik gutxi dutenak.

Genero rol hauek banatzeaz gain, hetero-patriarkatuak **gizonezkoen atxikitzen zaizkien ezaugarriak hobesten ditu besteen gainetik**. Horrela, eta boterea gizonezkoena izanik, ikuspuntu **androzentrikoa** gailentzen da jendartearen estamentu guztietan. Beraz, emakumezkoen atxikitzen zaizkien balio eta ezaugarriak bigarren mailakotzat hartuak izango dira eta, horregatik, baztertuak, ez ikusiak, ez baloratuak eta, sarritan, ordainduak ere ez; hala nola, zaintza, umeak, etxeko lanak, sentimenduak, intuizioa, irrazionaltasuna, kultura, artea, basa...

Emakume kultur langile euskalduna

Gauzak honela, emakume sortzaile euskaldunok hiru baldintza erabakigarri jasaten ditugu bizi garen jendarte honetan, zapalkuntza egoerak, modu hirukoitzuan pairatzeko. Batetik, emakume gisa sailkatua izateak gure sortzaile ibilbidea erabat baldintzatzen du. Gainera, gure beharrian zehatzak ez dira jasoak ogasun zein gizarte segurantzian, eta horrek, gure lanbidea arraro eta bitxiztat irakurtzera gonbidatzen du jendarte osoa.

Gure lanari bere espezifikotasuna ez aitortzeak eragiten du gehienbat lanen prekarietate hau. Horrenbestez, artistaren estatutuaren bide irekiak, esperantza pizten digun arren, ez

dakigu aurrerantzean gerta daitezkeen aldaketa politikoek, ibilbide hori oztopatu edo erraztuko duten. Bestalde, emakume kultur langile izate honi, **hizkuntza gutxitu batean aritzea** gehitzen badiogu, zailtasunen kopurua berehala hirukoizten zaigu.

Angela Davisek “*Generoa, klasea eta arraza*” liburuan hiru faktore horiek jendartean hiru aldiz zapaldua izatea ahalbidetzen dutela azaltzen zuen. Generoaren ondoren, arraza aipatzen zuen Davisek, eta euskal emakumeen nazionalitatearen baldintza ekar dezakegu mahai gainera, Lorea Agirre eta Idurre Eskizabelek “*Euskalgintza eta feminismoa*” artikuluan aipatzen zuten legez. Klasearen baldintzapenaz hitz egiten zuen Angela Davisek, eta kultur langileriaren itzaltasunaz hitz egin dezakegu euskal kultur langileok. Agirre, Lorea; Eskizabel, Idurre: “Euskalgintza eta feminismoa” BAT soziolinguistika aldizkaria, 98 (2016), 12-32.

Emakumeen presentzia euskal antzerki sorkuntzan

Datuen bilketatik ondorioztatu dut gizonen eta emakumeen jendarte patriarkalak berentzat diseinatutako **genero rolak** betetzen dituztela zehatz mehatz, baita antzerki sorkuntzan ere; betiko estereotipoak oraindik lasai asko dabiltzala gure lanbideetan hara eta hona, bazterrak nahasten. Gizartearen hainbat estamentutan gertatzen den bezala, gizonetakoekin **prestigioa, boterea eta hitzartzea** garraiatzen dituzten roletan dago, gehienbat, emakume antzerkilarien hutsunea (autoretzan, batez ere; baina, zuzendaritzan ere bai). Ikasten ari diren bitartean ez dute dirurik ez prestigiorik pilatzen; arazoa geroago dator.

Emakumeek, bestalde, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko dituzten arazoak ugariagoak dira gizonetakoekin baino. Eta gai hau bereziki esanguratsua da batez ere birak egiten dituzten rolen kasuetan, hots, **antzezleak eta teknikariak**. Emakume baten lan dinamika, alde batetik bestera ibiltzea eta edozein ordutan etxean sartzen aritzea, ez da oraindik behar bezala onartua gure jendartean. Errazago ematen zaie horretarako baimena gizonen. Emakumei atxikitako genero rolak etxearekin, egonkortasunarekin eta zaintzarekin lotzen dituelako rol horiek. Baina, baita ere, emakumeek oraindik etxeko lanen eta zaintzaren ardura handiagoa hartzen dutelako gizonetakoekin baino, eta, ondorioz, nekez izan ditzakete birak egiteko aukerak. Ugaltze lana atxiki zitzaigun soldataren patriarkatuan emakumeoi eta horri ihes egitea kostatzen ari zaigu, nahiz eta

produktore lana ere gure gain hartu dugun aspaldi jendartean. Egoera eskizofreniko horrek lan bikoitza egitera eramaten gaitu emakumeok sarritan, oraindik ere etxeko lanen eta zaintzaren pisurik handiena daramagulako, eta, bestalde, ordaindu gabea delako. Zer esanik ez, ordaindua ez izateak lan hau ez ikusia eta desprestigiatua bihurtzea ahalbidetu duela.

Honen harira esan behar dut sarritan entzun dudala emakumezkoek publikoki jasaten duten ikusgarritasun ezaren ideia. Baina, benetan, nire arreta erabat hartu duena emakume elkarrizketatuek behin eta berriz aipatu duten kontu bat izan da: **oso gutxitan aitortzen zaiela ondo egindako lana**, modu pribatuan zein lankideen artean. Sarritan entzun dugu emakumezko antzerkilari bat gizonetako baten lana miresten, edo lankideen aurrean hari aitortza ematen. Aldiz, gizonetako emakumezkoen lana lankideen artean goraiatzea ez da hain sarritan gertatzen. Izan ere, ematen du emakumezko baten lana goraiatzeak gizonetako taldearen adostasunaren ostean gertatu behar duela.

Jendarte egiturak antzerki sorkuntza duen eragina

Lehenagoko ataletan aipatutako sistema patriarkal kapitalistak, nola ez, eragina du ikerketa honetan aztertzen ari garen *emakumeek antzerki sorkuntzan duten presentziaren gainean*. Izan ere, ezin ulertuko dira presentzia honen funtsa eta ezaugarri zehatzak, bizi garen sistemaren ezaugarriak aztertu eta ulertu gabe. Antzerki egitura horien ezaugarriak **patriarkatuaren ezaugarri berberak** dira; hau da, hierarkikoak, sailkapenean oinarrituak, kategorizatzaileak eta ikuspegi androzentrikoan oinarrituak.

Antzerki sormenerako hedatuen dugun **sistema bera** jarri nahi nuke zalantzan, jendarte mailan patriarkatuaren sistema zalantzan jarri behar litzatekeen bezala. Bestela, emango luke emakumeak sistema horretan bai ala bai sartu nahi ditugula, eta, aldiz, ikuspuntu androzentriko eta patriarkal batetik egituratua izan da, erabat naturalizatuta dagoen arren.

Datuek argi erakusten dute itzalean geratzen diren banakakoez zein kolektiboez elikatzen dela orain eta hemen argian dagoena, icebergaren muturra den **gizonetako irudira egituratutako antzerki klasiko profesionala**. Hori sostengatzen duen eraikuntzaren behe solairuak emakumez lepo daudelarik; antzerki irakaskuntza, salmenta, beste antzerki geruzak, undergrounda eta batez ere **ikuslegoak**.

Ez baitugu ahaztu behar, kulturaren orokorrean gertatzen den bezala, antzerkian ere, *kontsumitzaileen* gehiengoak emakumezkoena dela.

Emakumeen lanaren gaineko aurreiritziak eta gizonen anaiarteak

Oholtza gainak ikusi bezala, gizonen eta haien ideiek betetzen dituzte nagusiki. Berriz ere, artearen alde pasibo, sostengatzaile, hezitzaile eta ez ikusia egokitzen zaigu emakumeoi. Amatearen papera egitera kondenatuak berriz ere, eta, bitartean, gure *semeen* sorkuntzak jendarte guztiak txalotzen ditu (guk geuk barne). Izan ere, emakume zein gizonen **gaitasunen gainean ditugun aurreiritziak** indar handia dute oraindik jendartean. Horien artean, emakume sortzaile askok mahai gainera ekarri dutena; gizonen emakumezkoen baina **talentu handiagoko** dutenaren teoria harrigarria. Talentuak eta lanak —gizon edo emakume batetik etorri— ibilbide ezberdina egiten duela ere, argi erakusten dute datuek. Baita elkarrizketatutako sortzaileen iritziek ere. Emakumeen kasuan, talentuak rol jakin batzuk bakarrik joko ditzake (aktorea, produkzio lana, jantzigilea...), eta bigarren maila batera bakarrik heldu daiteke (undergrounda, kultur etxeak, antzoki txikiak, sari txikiak.)

Gizonen emakumezkoen erabakitzen dute zer dagoen ondo eta zer txarto. Zein antzezlanek merezi duten eta zeintzuek ez. Kritikoak, sari emaitzak, antzoki handietako programatzaileak, zuzendari zein autore prestigiosuak. Eta balio neurgailu hori gizonen irudira egina dagoenez, androzentrikoa denez, erabat, zaila egiten zaigu emakumeoi horretara egokitzea. Eta, batez ere, **gure izaera propiotik, gure gorputzetatik eta heldu nahi ditugun gai zein estilotatik aritzea da nekezena**. Ez baitago eduki zein estetika horiek jasotzen dituen ingurune indartsurik, ez egonkorrik (undergrounda baizik, ikusi dugun bezala).

Esan behar da, baita ere, emakumeon begirada sarritan, gizonen emakumezkoen kutsatzen duela nahi gabe, haien oniritzia behar dugulako lanean jarraitu ahal izateko.

Bestalde, beren artean txalotzen dira, beren artean saritzen eta beren artean gorapatzen. **Gizonen kluba naturalizatuta dago**. Hortxe dago betidanik. Orain ematen du feminismoa dela eta, emakumezkoen ahizpatasun sareak sortu direla. **Gizonen anaiarteak, berriz, gizartea bere osotasunean hartzen du**.

Lanerako zer gai aukeratuko dugun, zer estilo, zer gorputz daukagun, zer aldarerekin azaltzen garen komunikabideetan... dena begiratzen du jendarteak gizonen begiradatik, beren oniritzia behar dugulako gure lanean irauteko eta egiten duguna balioduntzat irakurria izan dadin. Guk genero rolen mugak gainditu ditzakegu ahalegin ikaragarri bat eginez, baina jendarteak azken finean leku txiki bat baino ez digu ematen momentuz. Hor daude datuak.

Egiteko modu eta rol ezberdinak

Elkarrizketatutako emakume ugari aipatutako beste kontu bat, **egiteko moduen gaineko** hausnarketa da. Beren aburuz, antzerkia egiteko moduen aldaketak ekar dezake forma eta emaitzaren aldaketa ere (egiteko modu ez hain hierarkikoa, ez hain sailkapenekoa: zuzendari bideratzaileak, talde sormena, kideen arteko harremana zainduz, talde osoaren ekarpenak jasotzekoa...). Ikus daitekeenez, rolen kontzeptuak berak eskatzen du sorkuntza egituraren aldaketa bat, eta alderantziz (kontzeptu aldaketak egitura horizontalagoa eskatzen du; eta horizontalitateak, kontzeptu irekiago eta anitzagoen agerpena errazten du).

Dauden sormen guneak bultzatu eta haietarako sarbidea erraztu (sormen guneak, egonaldiak, konpainia erresidenteen presentzia areagotzea, konpainia egonkorak sortzeko aukerak eman eta horien egituratzea bultzatzea...). Horrek guztiak badu zerikusia emakumeen sortzaile ibilbideekin. Izan ere, sormen guneak erabiltzeko erraztasunak sorkuntza propioak egituratzea errazten duelako. Merkatuaren eta estereotipoen aurrean hauskorrago diren kolektiboak babesten dituzte halako espazioek. Emakume sortzaile batek, bere bitzikitiki gertu bere kabuz sortzeko aukera badu, ez du zertan beste inora joan behar, ez inoren menpe ibili beharrik.

Sormen guneen gai honi dagokionez, ez dut uste kasualitatea denik Euskal Herrian gaur egun ezagutzen ditugunetik gehienak emakumezkoen bultzatutakoak edo emakumezkoen gehiengo batek kudeatuak izatea; hala nola, **Azala kreazio espazioa, Garaion sorgingunea, Baratza aretoa, Arropaineko arragua, La Fundación aretoa, Hameka...**

Edonola ere, egiteko modu berriekin dute zerikusia sormen gune horiek, indarrean dauden egitura, balio eta ikuspuntuarekin apurtuko duten lanekin eta ikusteko modu ez hain androzentrikoekin.

“Bigarren mailako” antzerki geruzak

Bestalde, gure historiako androzentrismoaren eraginez, **emakumezkoei egotzi zaizkien balio eta ezaugarriak, bigarren mailakotzat ulertuak** izan dira. Horrela, ezaugarri horiek dituzten **antzerki geruza** eta generoak ere bigarren maila batean kokatzeko joera, nabaria da: klowna, ipuin kontalaritza, antzerki hezkuntza, gorputzetik datorren antzerkia...

Antzerki geruza hauetan emakumezkoen presentzia oso handia da; hain zuzen ere, genero rolek arlo hauekin lotzen dituztelako emakumeak. Baina aldi berean, emakumeei atxikitako ezaugarriak bigarren mailakotzat hartuak direnez, sistemak itzalean uzten ditu. **Geruza hauek prestigiatuz**, emakumezkoei egotzen zaizkien rolak baloratzeari ekingo genioke eta aldi berean, bertan aurkitzen diren emakume andanei ikusgarritasuna eman.

Sormen lana eta bizitza pertsonala

Emakumezkoek atxikitzen zaigun ugaltze lanetik ateratzeko eskubidea aldarrikatu eta hortik ateratzea ere lortu genuen aspaldi (herrialde eta espazio batzuetan behintzat...). *Produkzioaren* bidea hartu dugu askok eta askok. Hala ere, gutariko gehienok ezin izan dugu ugaltze lana alde batera utzi, ez behar bezala partekatu. Honek emakumezkoek sarritan bi lan burutu behar izatea dakar (produkzioa eta ugalketakoa), gizonzkoek gehienetan bakarra asumitzen dutenean (normalean lan hau produkziozkoa eta beraz ordaindua delarik).

Emakumezkoen egoera *berezi* honek, asko zailtzen du emakumeok gure antzerki sormenean aurrera egitea, nahi dugun ibilbidea garatu ahal izatea edo erantzukizun handiagoko rolak, gure gain hartzea. Bizitza profesionala eta bizitza pertsonalaren artean aukeratzera behartuta ikusten dituzte beren buruak. Edo bata zein bestea oso modu prekarioan aurrera eramatera. Baten batek kontzienteki ere aukeratu dezake bizimodu hori, agian. Aukera bat da, baina aukera guztiek behar lukete posible izan. Posible izan behar luke bizitza pertsonala eta lana modu orekatuago batean uztartu ahal izatea.

Amatasuna

Bestalde, zer esanik ez, sorkuntza eta bizitza pribatua ama izatearekin uztartzeko zailtasunak handitu egiten direla.

Jendarte eta gure lanbidea antolatuta dauden moduak ez baitu horretarako erraztasunik ematen. Lehenago aipatu bezala, duela gutxi onartu dute haurdunaldiko baja eta amarengandiko edoskitzearen sostengurako neurria gizarte segurantzaren. Esan behar da, lege honek lan baldintza batzuetan dabilzan artistei bakarrik eragiten diela. Artista gehienei lan bolumenak ez die onura hauez gozatzeko eskatzen diren ezaugarrietan sartzeko ematen edo bestela autonomoak dira. Horrek esan nahi du momentuz profesionalen kopuru murrizt batek bakarrik jaso ahal izango dituela onura hauek gizarte segurantzatik.

Elkarrizketatutako emakume ugarik aipatzen du ama izateak beren karrera moldatu behar izana ekarri diela, gizonzkoek kontu honek hainbesteko aldaketarik eragiten ez dien bitartean. Berriz ere, emakumezkoei dagozkigun kontuak ez dira unibertsalak. Amatasuna ez da unibertsala eta ez du interesik orokorki. Berriz ere andreen kontu hau, txarto datorkigun erle ziztada bat da. **Alfonbra azpian gordetzen den erritmo moteltze ez-produktibo antiestetikoa.**

Horrek argi eta garbi uzten die emakumeei eta hauen gorputzei, jendarte honetan zein antzerki sorkuntzan, ematen diegun lekua. Nire ustez, amatasunaren gainean egiten den irakurketak asko esaten duelako genero rolei, androzentrismoari eta patriarkatuari buruz. **Gure gorputzek argi eta garbi hitz egiten dutelako une horretan, baimenik eskatu gabe.** Eta argi dago ez zaiela jaramon txikiena ere egiten. Are gehiago, ezkutatu eta baztertu egiten dira.

Ingurune pertsonal sostengatzaileak

Elkarrizketatutako emakumeen artean antzerki sorkuntza eta bizitza pertsonala modu orekatu eta asegarrian aurrera eraman dutenen adibideek argi uzten dute aurrean aipatutakoa. Egoera horretara heltzea lortu duten emakumeen atzean etxeke lanak, zaintza eta bizitza pertsonalean aurrera egiteko laguntza saretua, elkarbanatua eta parekidea erakutsi dutelako. Ingurune sostengatzaile bat azaldu dute, zeinean beren lanbidea ulertua, babestua, zaindua eta praktikoki ahalbidetua den.

Kontzientzi hartzea

Emakumeok antzerki sorkuntzan dugun presentzia ikertzerakoan, arreta eskatu didan beste kontu bat aipatu nahi nuke. Izan ere konturatu naiz, antzerki sortzaileok generoaren eraginaren gainean dugun kontzientzia maila oso

ezberdina dela. Puntu honen gainean bereziki hausnartzea garrantzitsua dela iruditzen zait. Izan ere, sormenaren esparruan emakumeok gure presentzia estamentu guztietara hedatu, islatzen ditugun estereotipoak aldatu eta sormen egiturak deseraiki nahi baldin baditugu, gertatzen ari denaren kontzientzia hartzea ezinbestekoa dela iruditzen zait.

VI. PROPOSAMENAK

1-Arte eszenikoetan generoaren gaia jorratuko duen komisio egonkorra

Arte eszenikoetan generoaren gaia aztertu, horri buruzko informazioa bildu eta alorreko hainbat sektoretan eragiteko gaitasuna izango duen komisio bat sortu behar litzateke.

Ezinbestekoa zaigu ildo honetatik jarraitu eta antzerki sorkuntzaren hainbat arlotan ikertzen eta diagnostikoak egiten jarraitzea. Horri dagokionez, **emakume teknikarien egoeraren diagnostiko bat** egitea da ikusi dudana beharizan premia bat. Baita **euskal autore emakumeen gaineko ikerketa** eta testu bilketa bat egitearena ere.

2-Antzerki sorkuntza eta produkzio taldeak

Emakume sortzaileen topaketak martxan jartzea garrantzitsua dela iruditzen zait. Eta **EHAZERen funtzioa** arlo honetan garrantzitsua dela iruditzen zait, euskaraz egiten den antzerkiaren erreferente bakarra delako. Horrek esan nahi du Nafarroan eta Ipar Aldean euskaraz aritzen diren sortzaileen lana jaso dezakeen espazio bakarra dela, eta, beraz, **euskararen eremuaren osotasunera heldu daitekeen bakarra**.

3-Antzerki eskola

Lehenik eta behin, antzerki ikasketak burutzen ari direnen kontzientzia zioa ekarriko nuke mahai gainera. Dantzertin nagusiki, baina antzerki eskola ez ofizialetan ere jarriko nuke martxan **generoaren ikuspuntua lantzeko programa bat**.

4-Arte diseinatzaile eskolak

Komeni litzateke, nire ustez, elkarrizketatutako emakume teknikariak aipatzen zuen ildotik, eskola hauetan ere generoaren ikuspuntua lantzea. Lehenago aipatu bezala, horixe delako antzerki egiturako mailetan maskulinizatuena, eta aurre iritzi zein jarrera matxista gehien pairatzen dituen, beraz.

5-Hedabideekiko kontzientzia zioa

Interesgarria izan daiteke, baita ere, hedabideak arlo honetan heztea. Batez ere publikoak direnak ETB kasu. Sormenaren eta kulturaren trataera nola eramaten duten aurrera eta generoaren zer ikuspuntutik egiten duten lantzea litzateke beharrezkoa.

6-Antzokiak eta programatzaileak

Antzoki txiki, ertain zein handietako programatzaileek generoaren inguruko kontzientzia hartzeko programa bat ere martxan jarri behar litzatekeela iruditzen zait.

7-Dirulaguntza eta sari batzordeak


Dirulaguntzak ematea erabakitzen den batzordeetan emakume sortzaileen % 40ko kupo bat egotea, gutxienez (antzerki sormenaren arlo ezberdinetan aritzen diren emakumeak). Sariak ematea erabakitzen den batzordeetan emakume sortzaileen % 40ko kupo bat egotea, gutxienez.

8-Emakume sortzaileen katalogoa

Emakume antzerki sortzaileen katalogo bat osatzea eta interneten eskuragarri izatea.

ANTZERKIAREN
industriako emakumeen
eta gizonen **EGOERA**
EAEn

MARÍA GOIRICELAYA BURÓN



I. SARRERA

Ikerketaren helburu orokor eta bereziak

Ikerketa honek EAEko antzerkigintzaren egungo genero-inpaktua azalaraztea du xede orokor, bai eta emakumeek eta gizonen antzerki-artearen industria-katearen (ekoizpen, hedatze, antzezte, etab.) barruan duten leku zehatza ezagutzea ere. Ikerketak, gainera, azterketa-formula misto bat proposatzen du, erantzun kuantitatiboak ez baitira nahikoak hausnarketa- eta partaidetza-gune komunak behar dituen txosten bat idazteko. Egoera hau bertatik bertara ezagutu eta bizi dutenen ikusmira funtsezkoa da portaera sexistak betikotu ez daitezen.

Finen, sektorearen diagnostikoa planteatu nahi da, kultur sektore baten -kasu honetan, euskal antzerkigintza-errealitatea irudikatzea xede duen mapa osatzea. Horretarako, azterketa sakona egin beharra dago emakumeek eta gizonen zer nolako garapena bizi duten jakiteko. Hasi aurretik, baina, zenbait definizio azalduko ditugu: "genero" hitza esaterako; zer esan nahi duen eta bere aplikazioak zer dakarren azterlan honetarako. Aurreko idatz-zatian jasotako helburu orokorraz gain, azterlanaren ondoko helburu bereziak azpimarratu beharra dago ere:

- Euskal Herriko antzerkigintzaren mapaketa bat egitea, emakumeen eta gizonen presentziari eta partaidetzari dagokionez dauden aldeak aintzat hartuz.
- Euskal antzerkigintzan lan egiten duten pertsonen egoera genero-ikuspegitik aztertzea.
- Ondorioak atera eta proposamenak egitea, testuinguru paritarioak lortu ahal izateko sektore honetan.

II. OINARRI-KONTZEPTUAK

Jarraian, azterlan hau egiteko erabili diren oinarri-kontzeptuak zehaztuko dira.

Lehenik eta behin, garrantzitsua da argitzea "**antzerkigintza**" esamoldearen esanahia. Konplexutasun handikoa duen esamoldea da aipatu bezain pronto, eta hizkuntzaren globalizazioaren ondorioz, antzerkigintza "kultur industria" delakoen artean kokatzeko joera baitugu, hauek serializatua izan daitekeen produktu bat ekotzi ete hedatzeko prozesuan oinarritzen badira ere, produktu horren balio artistikoa dena delakoa.

Arte eszenikoak, eta antzerkia tartean horrenbestez, ezin dira kultur industriatzat hartu, beren sorkuntza-, hedapen- eta harrera-prozesuen izaera dela eta. Zer da, orduan, antzerkigintza?

- Industria bat da, lehengaiak eraldatu eta gizakiaren beharrak asetzeko apropos den produktu bat bihurtzen dituen ekonomia- eta teknika-jarduera bat. Eta jarduera hori gauzatzen duten instalazio eta enpresen multzoa da ere.
- Zentzu horretan, "antzerkigintza" dira kontsumitu daitekeen antzerki-produkturen bat sortzen duten jarduerak eta enpresak; antzerki-produktu bat sortzea xede duten ataza eta jarduera guztiak (bere sorkuntza, ekoizpena, hedapena, komunikazioa, etab.).

Bigarrenez, **genero kontzeptua** 70ko hamarkadaren erdialdera sortu zen eremu akademiko anglosaxoian, gizarte-zientzietatik funtsean garaturiko ikerketetan oinarrituta: analisi-kategoria eta harreman-kategoria bana biltzen ditu. "Gender" hitz ingelesaren itzulpenetik ateratako hitz bat da eta Auñamendi eusko entziklopediaren arabera ondokoa da bere esanahia: "*gizarte edo kultura zehatz batean emakume izateak edo gizon izateak hartzen duen esanahia zehazten duen prozesu dinamiko, historiko eta aldagarria*"¹.

Kontzeptua konplexua eta abstraktua da berez, zehaztezina delako ez, baizik eta definizio ezberdinak biltzen dituelako. “Genero”, horrenbestez, pertsonen beren sexuaren arabera esleitzen zaizkien ezaugarri soziokulturalak biltzen dituen eraikuntza sinbolikoa da. Aipatu ezaugarriek gizarte-ezberdintasun bilakatzen dute sexuen arteko ezberdintasuna. Genero-ezberdintasuna eraikuntza mental eta soziokultural bat da, ez ezaugarri biologiko bat. “Genero”, ondorioz, ez da “sexuaren” baliokide. Lehen hitzak kategoria soziologiko bat aipatzen du; bigarrenak, aldiz, kategoria biologiko bat.

Isabel Veiga Barriok ondokoa jasotzen du Andaluziako Kultur Kudeatzaileen GECA aldizkariak argitaratu duen ale monografiko batean: *“tradizioz, kultura guztietan, sexuen arteko ezberdintasunak bere buruaren inguruko interpretazio bat egin ohi du, batzuen eta besteen berezko ezaugarriak zehaztuz, gizartean duten papera eta posizioa baldintzatuz eta pertsonalki zein gizarte-mailan jokatzeko erak eta portaerak finkatuz”*². Horrek hierarkia bat ezarri du urtetan zehar, zeinaren arabera emakumeek egiten duten orok balio eta gizarte-aitortza txikiagoa baituen eta gizonena berezkoa den gauza orok ospe, gizarte-balio eta aitortza publikoa baituen. Eta hori da ezberdintasunen jatorria. Sozialki eraikitako ezberdintasunak dira emakumea eremu eta sektore guztietan gizonaren mende jarri dutenak.

Euskal antzerkigintzaren barruan ikuspegi hori aplikatzeak bere baitan ezarritako genero-harremanak sakontasunez aztertzea eskatzen du, harreman horiek eraldatzeko gaitasuna izango duten zioak eta estrategiak aurkitzen saiatzeko. Eta gai honen alderdi kualitatiboa ere ezagutzea eskatzen du, sektore honetan inplikaturako pertsonen euskal antzerkigintzan emakumeek eta gizonen duten presentzia eta partaidetzaren inguruan duten hautematea erreferentziatuz hartuz.

III. EAEKO ANTZERKIGINTZA KARAKTERIZATZEKO DATU KUANTITATIBOEN LABURPENA

3.1. Prestakuntza espezializatua antzerkigintzaren arloan

Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskolaren 2017-2018 ikasturteko datuen arabera emakumeak gehiengo dira Dantzertik eskaintzen dituen bi espezialitatetan (% 71). Gehiengo hori Dantzari dagokionez da nabarien, emakumeak izana eman duten guztien % 84 baitira. Arte Dramatiko Goi-mailako Tituluaren kasuan emakumeak gehiengo dira ere, baina proportzioa txikiagoa da (% 65).

Aipatu beharra dago ere antzerkigintzaren arloan garaturiko beste lan-jarduerei dagokienez (zuzendaritza, ekoizpena, banatzea, etab.) ez dagoela prestakuntza berezirik eginkizun mota horiek EAEn garatzeko. Ikaskuntza beste lanbide batzuetatik edo hirugarren mailako ikasketetatik lortzen da. Nolanahi ere, eta KSLei loturiko unibertsitate-mailetakoa ikasle-kopuruari dagokionez, Euskal Herria seigarren postuan zegoen beste erkidego guztiekiko, ikasle guztien % 13,9rekin.

3.2. Kultur arloko enplegua eta antzerkigintzako enplegua

Sektore ezberdinak aintzat hartuz gero ikus daiteke ikusizko arte, argialetxe eta liburutegietan lan egiten duten emakumeak gizonak baino gehiago direla % 58,7, % 61,9 eta % 66,7ko portzentajeekin hurrenez hurren. Ikus-entzunezkoen eta musikaren arloan, aldiz, portzentajeek % 39,7 eta % 41,1eraino jaisten dira hurrenez hurren. Arte eszenikoei dagozkion portzentajearen banaketa ondokoa da: % 48,1 emakumeak eta % 51,9 gizonak.

2017n Lanbiden eta antzerkigintzaren barruan erregistraturako kontratuen karakterizazioa aintzat hartuz gero ikus daiteke emakumeak leihatilarako kontratuetan (% 60tik gorako portzentajeak), eszenografiako (% 74) eta kultur kudeaketako (% 63) kontratuetan direla nagusi. Bestalde, gizonen portzentajea ondoko arloetan da % 60tik gorakoa: argiztapen-lan teknikoak (% 91), ikus-entzunezkoak (% 76), kokapen, zaintza eta babesa (% 64). Ikuskizunen erregidoretza, errealizazio, ekoizpen,

² VEIGA, Isabel. (2008) Gestión cultural y género. Revista GECA. (Gestores Culturales de Andalucía), 11. zk., azaroa. Argitaratzailea: Asociación de Gestores Culturales de Andalucía. ISSN: 1695-1794. 2019ko urtarrilaren 22an hartua: <http://gecaandalucia.org/wp-content/uploads/2017/10/revistageca11.pdf>

zuzendaritza eta/edo eszenaratze, errealizazio-laguntzaile eta atrezzo lanetarako kontratueta gizonen % 60 suposatzen dute ere eta emakumeek, aldiz, % 40.

3.3. Arte eszenikoak ekoiztea eta antolatzea

Arte eszenikoko enpresa eta ekoiztetxeak

EAEko kultur arloaren enpresa, enplegu eta lan-merkatuaren inguruko azken azterketak (2016. urtekoa³) dio sorkuntza-, arte- eta ikuskizun-jarduerak garatzen dituzten enpresak direla presentzia handiena dutenak, kultur arloko enpresa guztien % 30 suposatzen baitute. Sortzen duten enplegua, halere, askoz beherago dago, kultur arloko enplegu guztien % 17 suposatzen baitute.

Bestalde, Kulturaren Euskal Behatokiak arte eszenikoen ekoizpenari buruz 2015. urtean egin zuen estatistika-txostenaren arabera, 177 antzerki-konpainia zeuden⁴ EAEn eta Estatuko konpainia guztien % 4,5 suposatzen dute. Horien artean eta urte horretan bertan (2015), 14 Araban zeuden, 32 Bizkaian eta 30 Gipuzkoan.

Bere industria-dimentsioaren barruan eta eragile pribatu guztiak (irabazi-asmoa dutenak eta irabazi-asmorik gabekoak) aintzat hartuz gero, arte eszenikoko ekoiztetxeen fakturazio-bolumena 76 eragileren lanaren emaitza zen eta gastuak kendu ondoren, % 56ak baino ez zuen onurarik lortzen. Halaber, Lurralde Historikoaren eta lurralde-banaketaren arabera antzerki-ekoizleen tipologiak antzerki-ekoizle gehienak Bizkaian kokatzen ditu (% 44,5). Bere atzetik Gipuzkoa (% 34,9) eta Araba (% 20,6) datoz.

Antzerki-ekoizleen batezbesteko enplegua eta enplegu absolutua aintzat hartuz, 2015. urteko azken datuek⁵ aurreko joera berbera agertzen dute: ekoizpen-eragileen enpleguan gizonak dira nagusi (% 53,4), emakumeen aurrean (% 46,6). Datu horietan ikus daitekeenez, halaber, zuzendaritza-eginkizunetan lan egiten duten emakumeek

% 41 suposatzen dute (gizonek % 59). Eginkizun teknikoetan, emakumeen portzentajeak % 48raino egiten du gora, gizonen % 52aren aurrean. Kudeaketa- eta administrazio-karguetan, emakumeek % 57 suposatzen dute eta gizonen % 42.

Ekoizpen eszenikoko zentroak

Ekoizpen eszenikoa lantzen duten 11 zentzoren⁶ sexuen araberako banaketari eta giza-taldeen mailari (zuzendaritza, langile teknikoak, kudeaketa eta administrazioa, koordinazioa, mantentze eta segurtasuna) buruzko datuak aztertu dira: Izaera oso ezberdineko zentroak, non ikuskizunak prestatzeko lana baldintza eta egoera oso ezberdinetan egiten baiten:

- Harrobiak lanaldi osoko 2 langile ditu egun: kudeatzaile bat eta administrari bat.
- Sarobek 19 langile ditu: emakumeek % 32 suposatzen dute; gizonen, % 68.
- Garaion kooperatiba 2 emakumek zuzentzen dute.
- Azalaren proiektua emakume batek kudeatzen du, zuzendari artistiko gisara.
- Emakume eta gizon banak zuzentzen dute Baratza.
- Bilbao Eszena eta Dantzagune. Ez dugu datu zehatzik sexuen araberako banaketari edo beren langileen mailari buruz.
- La Fundición. Zentroaren zuzendaritza (zuzendaritza eta programazioa) emakume eta gizon banaren ardurara da egun; komunikazioa, emakume batena eta areto-burua gizon bat da.
- Kunarte. Koordinatzaile nagusia emakume bat da eta emakume batek eta gizon batek zuzendaritza artistikoa partekatzen dute.

³ KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA. EAEko Kultura-arloko enpresen, enpleguaren eta lan-merkatuaren analisia [Online]: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_enplegua_2018/es_def/adjuntos/empresas_empleos_cultura_CAE_2018.pdf

⁴ Kulturaren Euskal Behatokiak 2015. urtean egin zuen estatistika-txostenaren arabera, arte eszenikoetako ekoizpen-eragile da "EAEn egoitza duen erakunde publiko edo pribatu oro, zeinaren ekimenez eta arduraz edozein generoko antzezlan bat ekoizti baiten". Definizio horretatik at geratzen dira ekoizpen eszenikoa modus vivendi nagusia ez duten talde amateurrak, azken bi urteotan ikuskizunik ekoiztu edo ustiatu ez duten erakunde guztiak eta azken urtean 6 emanaldi gutxienez eskaini ez dituzten erakunde guztiak".

⁵ Kulturaren Euskal Behatokia, Arte Eszenikoetako Ekoizleak. Estatistika-txostena, 2015.

⁶ Ondoko ekoiztetxeak aztertu dira: Harrobia, Sarobe, Garaion, Azala, Baratza, Bilbao Eszena, Dantzagune, La Fundición, Kunarte, Zirkozaurre eta Pabellón 6.

- Zirkozaurre. Egun, emakume batek kudeatzen du elkarte, emakume eta gizon banak administrazioa daramate eta bitartekaritza-jardueren ardura emakume batena da.
- Pabellón 6. 2 emakumek eta 2 gizonak zuzendaritza artistikoa daramate, emakume batek ekoizpenaren ardura du, 2 gizon ataza teknikoez arduratzen dira eta emakume bat da komunikazioaren buru.

3.4. Euskarri- eta teknika-jarduerak, zuzeneko ikuskizunak ekoizteko

Azterlanak dio EAEn zerbitzu teknikoak eskaintzen dituzten enpresak gutxi direla, lan-bolumenaren zatirik handiena 2 enpresaren esku baitago. 2 enpresa horietatik, bakarrak helarazi dizkigu bere datuak eta horien arabera emakumeak langileen % 26 dira eta gizonak % 74.

3.5. Hedatzea

Kasu honetan, hiru banaketa-etxe aztertu dira eta EAEn ikus daitekeen joera ondokoa da: konpainia bakoitzak bere lanak banatzen ditu, bere kabuz eta era independentean. Nolanahi ere, ondokoa diote sexuen arabera banaketari eta langileen mailari buruzko datuak:

- Portal 71 Producciones culturales. 3 emakumek osatzen dute bere plantilla.
- ATX Teatroa. Pertsona bakar bat konpainiaren jabe bada ere, langileria emakume eta gizon banaz osatua dago.
- Aire Aire. Bi emakume langile ditu, zuzendarikide direnak.

3.6. Emanaldia. Antzerki-programatzaileak

Atal honetan ikuskizun profesionalak programatzen dituzten antzerki eta aretoak hartu dira aintzat, lan amateurrak eskaintzen dituzten horiek albo batera utziz. Antzerki-espazioen unibertsoa 73 espazio eszenikok osatzen dute (64 publiko -% 88-, 8 pribatu -% 11- eta kudeaketa mistoko bat -% 1-). Arte eszenikoak programatzen dituzten eragileen kopuruari dagokionez⁷, 82 eragile zenbatu ditugu guztira (9 Araban -% 12-, 38 Gipuzkoan -% 52- eta 35 Bizkaian -% 48-).

- Eragile horien sexuen arteko banaketa ondokoa da: emakumeek % 46,9 suposatzen dute; gizonak, % 53,1.
- Antzerkien % 74k gizon bat du zuzendari; % 26k bakarrik emakume bat.
- Kargu teknikoen % 69a gizonak okupatzen dute; beste % 31 emakumeek.
- Administrazio-lanpostuen % 75a, aldiz, emakumeek okupatzen dute, gizonen % 25aren aurrean.

Azterlanak, halaber, beren langileen sexuen arabera banaketa eta maila xehetasunez aztertzen ditu, bai eta programazioen inguruko beste zenbait datu ere, SAREA⁸ delakoa osatzen duten 62 antzerki publikoen eta 8 antzerki pribatuen artean bereiziz. Datu horiek guztiak txosten osoan kontsulta daitezke.

Beste atal batera igaro aurretik, 2018. urtean zehar EAeko hiru antzoki publiko nagusienek garatu zuten programazioaren analisia laburbilduko dugu:

- Programatutako 86 antzerki-funtzioetatik, testuen % 7 baino ez dago emakume batek idatzia; beste % 93a, ondorioz, gizon batek idatzitako lanak izan ziren.
- Desoreka antzematen da ere zuzendariari dagokienez; emakumeek ikuskizunen % 15 baino ez zuten zuzendu, gizonak zuzendu zuten % 85aren aurrean.

⁷ Kulturaren Euskal Behatokia, Arte Eszenikoetako Ekoizleak. Estatistika-txosteneko datuak, 2015.

⁸ <http://www.sarea.euskadi.eus/aa95-home/eu/>

- Antzezle-zerrenden kasuan, banaketa orekatuagoa dago zerrenda mistoei esker. Honela, ikuskizun mistoek eta emakumeak baino ez dituzten ikuskizunek programazioaren % 59 osatzen dute; gizonak baino ez dituzten lanek, % 41.

3.7. Beste entitate batzuk

- Eskena, Euskadiko Ekoizle Eszenikoen Elkarteak 20 konpainia kide ditu eta zuzendaritza batzordean gizon bana dira presidente eta idazkari eta diruzaina emakumea da.
- Besteok, antzerki banatzaile, konpainia eta ekoizleen elkarteak 4 konpainiak osatzen dute: horietako hiruk gizonen bat dute buru eta laugarrenak zuzendaritza mistoa dauka.
- Artekale, Euskal Herriko Kale Arteen Elkarteak 42 konpainia kide ditu: 22k (% 52) gizonen bat dute zuzendari, 13k (% 31) zuzendaritza orekatua dute gizon eta emakumeen artean eta 7k (% 17) emakumez osaturiko zuzendaritzak dituzte.
- ATAE, Arte Eszenikoen Teknikarien Elkarteak⁹ 300 kide inguru ditu Estatu osoko langile teknikoak eta sektore horretako enpresak batuta. Ez ditugu sexuen arabera datuak ezagutzen.
- EHAZE, Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteari dagokionez esan ez ditugula bere kideen sexuen arabera datuak ezagutzen.
- UNIMA Federación España delakoa Nazioarteko Txotxongilo Elkartearen adar nazionala da. Euskadiko zuzendaritza-batzordea bi emakumek eta bi gizonek osatzen dute eta gizon batek du zuzendaritzaren ardura.
- EAB, Euskal Aktoreen Batasuna¹⁰. Egungo zuzendaritza-batzordea 4 gizonek eta 3 emakumek osatzen dute.

3.8. Testuinguruaren sorrera babesteko programak

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak antzerki-ekoizpenerako

Ebazpen baten bitartez 2016, 2017 eta 2018n eman diren diru-laguntzak aztertu ditugu. Eskarien sexuen arabera datu bereizirik ez dugu, ez eta errefusatutako proiektuen inguruko daturik ere. Horrez gain, ezin izan dugu balorazio-batzordeen osaketa sexuaren ikuspegitik aztertu.

- Sorkuntza egonaldien modalitatea. Azken hiru urteetako datuak aldakorrak dira: bi laguntza eskaini ziren 2016n (emakume eta gizon bana). Gizon bati laguntza bakarria 2017n eta bi laguntza 2018n (2 gizon).
- Antzerki-jarduera profesionalen modalitatea. Azken bi urteotan, eta aurkeztu diren konpainiak aldatu badira ere, hobekuntza txikia antzeman daiteke laguntza hau jaso eta emakume bat buru duten konpainien portzentajea; halere, beren portzentajea % 33 izan da 2018n, gizon bat buru dutenen % 67aren aurrean.
- Itunpeko zirkuitua. 2017ko zenbakiak (laguntzen % 33 emakumeren bat buru duten proiektu ezberdinentzat) 2016ko datuak hobetu bazituzten ere (diru-laguntzarik ez emakumeren bat buru duen proiektuen batentzat), portzentaje horrek behera egin du berriz ere 2018. urtean (% 29, gizonen bat buru duten proiektu ezberdinek jaso duten laguntzen % 71ren aurrean).
- Bi urteko jarduera. Antzekoak dira zenbakiak; 4 konpainia inguruk jaso dute diru-laguntza hau. 2018n, oreka egon zen emakumeren bat eta gizonen bat buru duten proiektuen artean.

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak antzerki-sorkuntzarako

Azken hiru urteotan, emandako diru-laguntzen proportzioak berdina izaten jarraitzen du, aginduak jasotzen duen klausula betez: *“Nolanahi ere, eta beti ere 22.2 artikuluan jasotakoaren aplikazioak ahalbidetzen badu, diruz lagundutako proiektuetako hiruk gutxienez emakume bat izango dute arduradun; eta 2k, 30 urtetik beherako pertsona bat”*.

^{9,10} Hizkuntza inklusiboa erabili da testuan.

Bizkaiko Foru Aldundiko diru-laguntzak, antzerki-hedatzea babesteko

Kasu honetan, 2018ko datuak aztertu dira eta ondokoa da ondorioa: diru-laguntzaren bat jaso duten konpainien artean % 68k gizonen bat du buru, % 32k lidergo mistoa dauka eta ez dago emakumeren bat buru duen proiekturik.

Bizkaiko Foru Aldundiko beka arte plastiko eta ikusizko arte, arte dramatiko, musika, dantza eta kultur kudeaketaren arlorako eta diru-laguntzak arte dramatiko, musika, dantza eta kultur kudeaketaren arloetarako

Beka hauei dagokienez, aipatu beharra dago emandako diruaren portzentaje handi bat emakumeek aurkeztu duten proiektuetara bideratzen bada ere, zenbatekoen arteko aldea esanguratsua dela, kultur kudeaketaren arloa kenduta. Beste beka guztietan gizonek era nabarian gaintzen dituzte emakumeei esleitutako zenbatekoak.

3.9. Truke-programak eta kanpoko mugikortasuna

Etxepare Institutua, Euskal sortzaileen mugikortasuna euskararen lurraldetik kanpo sustatzeko 2018ko diru-laguntzak, antzerki modalitatean


2018. urtean, diru-laguntzen erdia gizonen bat buru duten konpainia ezberdinetara bideratu zen; % 26 lidergo mistoko konpainietara eta % 25 emakumeren bat buru duten konpainia ezberdinetara.

3.10. Beste programa batzuk (antzerkigintza berriak...)

2016-2019 epealdiko datuak aztertu dira eta joera diru-laguntzen banaketa orekatua bermatzea izan dela daiteke; honela, emakumeren bat buru duten 4 proiektu eta gizonen bat buru duten lau proiektu aukeratu dira 2019. urtean. Programak, halaber, proiektuen ekoizpena babesteko laguntza bat dauka ere eta proiektu bakar baten ekoizpena babesteko erabili zen 2018. urtean.

3.11. Egonaldi artistikoak

- Baratza. 2018. urteko datuak aztertu dira, non 3 proiektuekin lan egin baitzen: emakumeen ardurako 2 eta lidergo mistoa duen beste 1.
- Artistentzako egonaldia – BAD Bilbo 2018. urtean aukeratutako 3 proiektuen artean, 2k gizonen bat zuten buru eta besteak zuzendaritza-talde misto bat.
- Zubi. Kasu honetan, 2013, 2015, 2017 eta 2018ko datuak aztertu dira. Lehen bi urtetan sustaturiko proiektuak gizonek idatzi eta zuzendu bazituzten ere, azken bi urtetan emakumeen proiektuak izan dira eta, honela, paritatea lortu da programaren egileari eta zuzendariari dagokionez aztertutako lau edizioetan. Nabarmendu beharra dago emakumeek presentzia handiagoa dutela proiektuetan parte hartu duten antzezleei dagokienez (% 67).
- Sorkuntza-egonaldiak La Fundiciónen. Aurreko denboraldian aukeratutako proiektuei dagokienez, beren zuzendaritzak zenbaki orekatuak agertzen ditu, eta baita ere emakumeen eta gizonen presentziak antzezlerrendan. Dramaturgiaren kasuan egoera ez da berdina, baina: testuen % 60k gizonen bat du egile eta % 40k aldiz emakumeren bat.



3.12. Ikusgarritasuna eta aitortza

Emakumeen eta gizonen presentzia eta partaidetza kultur ekitaldi eta sorkuntzan¹¹

- 2017. urtean zehar antzeztutako antzezlanean emakumeek eta gizonak duten partaidetza aintzat hartuz ikus daiteke antzezlanean % 12ak baino ez duela emakume egileren bat, gizon baten lan direnek suposatzen duten % 44aren aurrean. Autoretza mistoek % 11 suposatzen dute.
- Ikuskizunen zuzendaritzan, emakumeek antzezlanean % 21 zuzendu zuten, gizonak antzezlanean % 47 eta antzezlanean % 8aren kasuan zuzendaritza mistoa izan zen (non emakumeek % 45,5 eta gizonak % 54,5 suposatzen baitzuten).
- Antzele-zerrenden kasuan, formula mistoa da ohikoena (% 48), non emakumeek % 46,8 eta gizonak % 53,2 suposatzen baitzuten. Antzeleen artean emakumeak baino ez dituzten lanek % 21 suposatzen dute; gizonak baino ez dituzten antzezlanean % 20 suposatzen dute.
- Antzokian ekoiztutako sorkuntzei dagokionez, datuek diote antzezlanean %27aren kasuan emakumeren bat dela egilea eta % 56aren kasuan gizonen bat. Autoretza mistoek antzezlanean guztien % 6 suposatzen dute (% 43 emakumeak eta % 57 gizonak).
- Zuzendariei dagokionez, gizonak dira nagusi (% 59) eta emakumeek % 31 suposatzen dute. Autoretza mistoa, non emakumeek % 43ko eta gizonak % 57ko partaidetza baitzuten, % 6koa da.
- Antzele-zerrenden kasuan, antzele-zerrenden % 31k emakumeak besterik ez ditu eta % 19ak gizonak baino ez. % 48aren kasuan antzele-zerrenda mistoa da (emakumeak % 54 eta gizonak % 46).

Ercilla Sariak

- 2015, 2016. eta 2017n lan dramatiko, ikuskizun eta euskal ekoizpen onenaren sariak gizonen bat idatzitako eta zuzendutako lan batentzako izan ziren, zeinaren antzele-zerrenda mistoa izan edo gizonik baino ez baitzuen. 2018. urtean, lan dramatiko eta ikuskizun onenerako lau hautagaiak gizonen bat idatzi eta zuzendu ditu. Euskal ekoizpenaren sarirako hautagaien artean, batek emakume bat du egile eta hiruk emakumeren bat dute zuzendari.

Kafe Bilbao Teatro Laburreko Gidoi Sariak

- Sariak izan dituen hamasei edizioetan 35 pertsona saritu dira: sei emakume (% 17) eta 29 gizon (% 83).

Pabellón 6 Antzerki Laburreko Sariak

- Arlo guztietan baxuagoa bada ere, 2018n emakumeen portzentajeak dezentegin egin zuten gora zuzendaritza, dramaturgia eta antzele-zerrenden barruan.
- Azken hiru urteetako "Alex Angulo Sariak" gizonen bat zuten egile eta zuzendari eta gizonik baino ez zuten antzele-zerrendan bat ezik, zeinak antzele-zerrenda mistoa baitzuen. "Kriselu Sariari" dagokionez, oreka handiagoa antzeman daiteke emakumeren bat egindako eta zuzendutako lanak baitaude, bai eta antzele-zerrenda femenino, maskulino eta mistoak ere. Geroz eta orekatuago dagoen partaidetza-testuinguru baterantzko joera agertzen dute zenbakiek.

Donosti Saria

- Azken urteotan emandako sariei dagokionez, hiru ikuskizunek gizonen bat zuten egile, bik gizonen bat zuten zuzendari eta hiruek ere antzele-zerrenda mistoa zuten.

¹¹ Kultura Auzolanean ekimenaren barruan eginiko "Análisis de la presencia y participación de mujeres y hombres en creación y eventos culturales 2017" (1. bertsioa, 2018) txostenetik ateratako datuak.

IV. ANALISI KUALITATIBOAREN LABURPENA

4.1. EAeko antzerkigintzako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko sektorearen iritziak

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruan item ezberdinak zituen inkesta bat da lanaren ardatza. Egungo antzerkigintzan lan egiten duten erakunde ezberdinetako 68 kultura-eragilek (38 emakume eta 29 gizon) bete dute inkesta. Jarraian inkestaren -antzerkigintzako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko hautematea ezagutzeko galderetan oinarritua- bitartez lorturiko emaitza nagusienak jaso dira:

- Gizonen % 25aren eta emakumeen % 34aren iritzi emakumeen presentzia eta partaidetza antzerkigintzan ez da altua, ezta baxua ere. Emakumeen % 26ak eta gizonen % 14ak, ordea, baxua dela uste du. Gizonen % 21ak altua dela dio; emakumeen % 16 soilaren babesa du baieztapenak. Emakumeen % 8rako eta gizonen % 7rako altua da eta azken horien % 16ak ez dio galderari erantzun.
- Emakumeek dituzten karguen inguruan, inkesta bete duten emakumeen % 45ak uste du emakumeak kargu ertainetan edo erantzukizun ertaineko kargutan daudela; gizonen % 31 baieztapen horrekin bat dator. Gizonen % 14ak halere emakumeak goi-kargutan edo erantzukizun handiko kargutan daudela uste du (emakumeen % 5ak baino ez du iritzi berbera).
- Inkestari erantzun dioten emakumeen % 34ak uste du emakume gehienek kudeaketa-eginkizunak betetzen dituztela. Gizonen % 31k ere emakume gehienek kudeaketa-eginkizunak betetzen dituztela uste du.
- Zenbakiak berdintsuak dira banaketari erreparatuz gero. Emakumeen % 16ak bere burua eginkizun horiek betetzen aitoritzen du eta gizonen % 14ak uste du emakumeen gehiengo duen arloa dela aipatua.
- Ekoizpenari dagokionez, emakumeen % 14ak baino ez ditu emakumeak eginkizun horiek betetz kokatzen. Inkestan parte hartu duten gizonen % 28ak arlo horretan emakumeek presentzia handia dutela uste du.
- Komunikazio- eta zuzendaritza-lanen inguruko hautematea ezberdina da ere. Ez dago emakumerik komunikazioa lan-arlo ohikoentzat jotzen duenik; gizonen % 3ak arlo horretan kokatzen ditu ordea. Gizonen % 7k, halaber, emakumeek zuzendaritza-karguak betetzen dituztela uste du. Ez dago baieztapen horrekin bat datorren emakumerik, ordea.
- Goi-mailako karguetako partaidetza orekatuari edo paritateari dagokionez, emakumeen % 71ren ustez ez dago paritateari goi-mailako karguetan, baieztapen horrekin bat egiten duen gizonen % 8aren alderatuta. Honela, gizonen % 38k uste du paritatea dagoela goi-mailako kargu eta erantzukizun handiko karguetan. Emakumeen % 11k baino ez du baieztapen hori berresten.
- Inkesta bete duten emakumeen % 71k uste du genero zioengatik aldeak daudela; gizonen % 52k gauza bera pentsatzen du. Gizonen % 31k uste du ez dagoela alderik baina emakumeen %13a baino ez dator bat iritzi horrekin.
- Gizonen % 59ak uste du emakumeen bilakaera garrantzitsua izan dela industriaren barruan; eta iritzi berdina du inkestan parte hartu duten emakumeen % 47ak.
- Emakumeek zein gizonek uste dute bilakaerarik handiena izan duten arloak sorkuntza, zuzendaritza eta kudeaketa direla eta bilakaerarik txikiena izan duten horiek, aldiz, ekoizpena, komunikazioa edo banatzea izan direla.
- Zabaldua dagoen iritzia da emakumeen egungo egoera (orokorrean) orain dela bost urtekoa baino askoz hobea dela. Hori uste du gizonen % 69ak eta emakumeen % 47ak.
- Sektorean lidergoa duten emakumeei dagokienez, inkestari erantzun dioten emakumeen % 47aren ustez gutxiegi dira. Gizonen % 41ak gauza bera pentsatzen du.
- Emakumeen % 37aren eta gizonen % 38aren ustez, lidergo ezberdina garatzen da sexuaren arabera (emakume edo gizon).
- Antzerkigintzan lidergo-postuak dituzten emakumeen lana kargu horiek berberak betetzen dituzten gizonen

lana baino gehiago jartzen dela ezbaian dio baieztapenak: nahiko ados dago emakumeen % 32a; eta erabat ados % 26a.

- Emakumeek (% 32) zein gizonen (% 34) uste dute emakume kudeatzaileen lidergoa gizonen baina transformazionalago dela.
- Gehiengoaren ustez, lana eta familia bateragarri egitea da industria honetan emakumeek dituzten zailtasunen artean esanguratsuen. Hori uste du inkestari erantzun dioten emakumeen % 38ak eta gizonen % 32ak. Goi-karguak lortzea eta emakumeak industriaren barruan ikusgarri egitea dira emakumeek aurre egin behar izaten dituzten beste oztopoak.

4.2. Iritzi-artikulua

Aurkeztutako datu kuantitatibo eta kualitatiboak aztertzea da artikulua honen xedea, emakumeek eta gizonen antzerkigintzan egun duten presentzia agerian uzteko. Sektoreak, nahiz eta emakumeen presentzia handia izan, desoreka handiak agertzen ditu oraindik enplegu bat lortzeko aukerei eta egungo goi-kargu eta lanpostuei dagokienez. Aipatu desorekak emakumeek goi-karguetan edo erabakiak hartzeko postuetan duten presentzia eskasa ikustean nabari daitezke gehienbat.

Inkesta bete duten profesionalek, lehenik eta behin, sektore honetako emakumeak topatzen dituzten kristalezko sabaiak azpimarratzen dituzte. Bestetik, beren ustez emakumeek aukera handiagoak dituzte arlo publikoko lanpostu bat berdintasun-baldintzetan lortzeko; hau da, aurrera egin dela antzematen dute. Baina arlo pribatuan egondako aurreratzea askoz ere txikiagoa izan dela nabarmentzen dute gehienek.

Sexu-arrazoiengatiko eginkizun, ataza eta ezberdintasunak

Generoaren ondoriozko ezberdintasunak arlo guztietan daude presente oraindik, iraganean jasotako hezkuntzaren emaitza den kultura eta gizarte herentzia baten ondorioz. Gizonak nabarmenki gailentzen dira antzokien zuzendaritzetan eta zuzendaritza artistikoetan. Kudeaketa eta ekoizpen taldetan,

berriz, emakumeak dira nagusi. Konpainia bat zuzendu edo konpainia baten jabe diren emakume gehienak ikusezin dira oraindik. Horrez gain, iritzi zabaldua da emakumeak trebezia handia agertzen dutela kudeaketa, ekoizpen eta koordinazio-atzak gauzatzen baina lan hori ikusgarritasun gutxiko lekuetatik edo gizonen gozatzen duten ikusgarritasuna eta aitortzara iritsi gabe betetzen dutela.

Emakumeak goi-kargu eta erantzukizuneko karguetan

Ez dago paritaterik goi-kargu eta erantzukizuneko karguetan eta gizonen duten presentzia handiago horren ziotzat jotzen da erakunde askotako talde egonkorrek urtetsuak direla eta goi-karguetako pertsonen artean asko daramatzatela aipatuetan. Sarbideari dagokionez azken urteotan antzemandako bilakaera baieztatzen du horrek; eta oraindik dagoen desoreka nabarmentzen du ere.

Kargu zehatz batzuk betetzeko autokonfiantza eskasa eta hezkuntza-lastia ere arazo garrantzitsuak dira emakumeen ahalduntzeari dagokionez.

Berdintasun eza nabaria da ere antzokien programazioetan. Zenbakiei dagokienez programazio-politika paritario bat lortzea ezinezkoa dirudi oraindik, oso urrun dago orokorrean eta sentsazioa da egoerak hobera egin badu ere emakumeek oraindik ez dutela espazio nahikorik lortu programazio egonkorren barruan. Horren zioa ez da bereizkeria zuzen bat programatzaileen aldetik, baizik eta merkatuan ikuskitzuten bat eskaintzen duten emakumeen kopurua, gizonena baino askoz ere baxuagoa baita oraindik.

Orokorrean, beren eginkizunen gauzatzean emakumeek gizonen baino trebezia handiagoa agertu behar dutela uste da. Gizarteak emakumeek garatzen duten lidergoa inkontzienteki ezbaian jartzen duelaren ustea dago ere. Halaber, sororitatearen aurrean gizonen kezkatuta agertu eta beren pribilegioak mantentzeko helburuarekin batu egin direla antzeman da.

Lan-baldintzak, ordainsariak eta lana eta familia bateragarri egitea

Azken belaunaldietan emakumeak gehiengo izan badira ere arte eszenikoen inguruko prestakuntzari dagokionez, lan-

merkatura sartzeko ordua iristen denean piramidea gizonen alde alderantzikatzen da. Sektore publikoko lan-baldintzak berdintsuak dira baina desorekak gora egiten du enpresa pribatuan, non emakumeen presentzia txikia baiten oraindik.

Generoa eta adinaren arteko lotura dagoela ikusi da ere, emakumeek presentzia handiagoa baitute familia eta haurrei zuzenduriko ikuskizunetan, helduentzako ikuskizunetan baino. Azken hauetan, euskal emakume zuzendariak presentzia oso murrizta agertzen dute oraindik ikuskizunak sortu, konpainiak eta ikuskizunak zuzendu edo dramaturgiako eginkizunetan.

Lana eta familia bateragarri egiteari dagokionez, gehienen ustez enpresa publikoa da aukera bakarra lan mota hau eta familia bateragarri egin ahal izateko. Izan ere, eta gizonek beraiek aitortzen dutenez, arlo publikoak erraztasun handiagoak eskaintzen baditu ere egun, lana eta familia bateragarri egiteko ardura emakumeena da oraindik ere. Gizonen inplikazioa txikiagoa da eta emakumeek diotenaren arabera ez dute gutxiago lan egiten: bizitza sozialari eta aisialdiari kentzen diote seme-alabak hazteko beharrezkoa den denbora eta, horrenbestez, beren lan-karga askoz handiagoa da.

Emakumeen eta gizonen bilakaera EAeko antzerkigintzan

Inkesta bete duten gehienen ustez presentzia eta partaidetza orekatua sustatu beharra dago sektorean eta egon den bilakaera ez da era naturalean bermatzen, baizik eta politika eta neurri bereziak ezarri bilakaera hori sustatzeko. Eta egin beharreko lehen gauza, ezbairik gabe, egungo desorekak ikusaraztea da, desoreka horiekin bukatu ahal izateko. Testuinguru horretan, Estatuan egon berri diren aldaketen inguruko kezka nabari daiteke, anti-feminista, autonomia erkidegoen aurkakoa eta nabarmenki xenofobia den alderdiren batek lortu duen babes eta presentzia mediatikoa dela eta.

Hezkuntzaz gain, bilatutako aldaketa bermatu ahal izateko emakumeak eta gizonak desoreken inguruan sentsibilizatu beharra dago eta asko dago egiteke oraindik emakumeen ahalduntzea sustatuko duten mekanismoak abiarazteari dagokionez.

Egoeraren inguruko hausnarketa

Mendetan zehar, ez da emakumeen memoria historikorik egon. Mendetan baztertuta eta ikusezin egon ondoren gizartean izan duten bilakaera azaltzen duten txostenak idazten dira urtero. Nolanahi ere, arazo handienetako bat da ez dugula generoari loturiko estatistikarik arte eszenikoen arloan. Aintzat hartu beharreko alderdi bat da ondorioz, egungo desorekekin amaituko duten neurriak sustatu ahal izateko kristalezko sabaia ikusarazi beharko baitira, konpromiso publikoak eta ezarritako politiken gaparena kontrolatzea ahalbidetuko duten erreminten bitartez.

Hausnarketa gisara (nahiz eta emakumeen presentzia eremuan esanguratsua dela esan daitekeen ere), aztertutako datuak ikusita esan daiteke emakumeen garapen profesionala lermatua geratzen dela ikasketak amaitu ondoren. Berdintasun eza horrek arrazoi ugari ditu.

Oinorde patriarkala boteretsua da oraindik, ezbairik gabe, eta emakumeen mugikortasun soziala kontrolatzeko mekanismo gisara funtzionatzen du. Baina egitura-baldintzak aztertu behar ditugu ere, hau da, emakumeek bizitzako beste arlo batzuetan duten posizioan eragiten duten gizarte-dinamikek kultur arloan zer nolako eragina duten aztertu beharra dago ere. Sexuaren araberako lanaren banatzea eta gizonak eta emakumeak egiten duten denboraren erabilera ezberdina aztertu beharreko bi alderdi garrantzitsu dira. Horien ondorioz, lanbide-karrera motzagoak eta ez hain biziak garatzera behartuta daude emakumeak. Horrek, aldi berean, kultur arloan lan egiteko eskuragarri dauden emakumeen kopuruaren eta enpleguaren errealitatearen arteko desoreka azaltzen du, ez baitago lotura zuzenik emakumeen presentzia orokorraren eta emakumeek erantzukizuneko karguetan duten presentziaren artean.

Soldata arrakala da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko beste oztopo esanguratsu bat. Sexuaren araberako lanaren banatzeak eta genero-estereotipo eta -rolek, emakumeen lanbide-karreraren eragiteaz gain, kulturaren bitartezko emakumeen garapen pertsonala oztopatzen dute ere erabat maskulinizatuta dauden eta gizonen ikuspegitik egindako produktuak sustatzen dituen sistema baten barruan.

Finean, emakumeen eta gizonen ezberdintasunean oinarritutako sistema patriarkal batean egituratua dago

gizartea oraindik. Antolaera horrek berdintasun ezeko zeharkako egoeren presentzia berresten du: hasiera batean emakumei industria honen barruan profesionalki berdintasun-baldintzetan garatzea eragozten dien neurririk edo araurik ez badago ere, emakumeak egoera okerragoan daude praktikan; honela, ez dituzte gizonak adina aukera eta ez dute azken horiei ematen zaien tratua jasotzen eta horrek ordena patriarkalaren bizirautea mantentzen du.

Gizarte-antolaera horren jarraipenak eragin zuzena dauka emakumeek eta gizonak gizarte honetan dituzten erabaki, itxaropen eta abagunetan, bai eta batzuek dituzten pribilegioetan eta besteek dituzten oztopoetan ere.

Gizonak gehiago handia dute politika eta kultur alo, antzoki, jaialdi eta abarrak zuzentzeko eginkizunetan eta horrek ezinezkoa bilakatzen du ezberdintasunak betikotzen dituzten dinamika zaharrekin amaitzea. Dinamika horiek aintzat hartu eta ahalik eta azkarren desagerrarazi beharra dago.

Antzerkigintzaren eremu guztietan ikusezin diren emakumeen kopuru handia ikusita, berebiziko garrantzia dauka sektorean duten presentzia babesteko duten programak garatzea.

V. PROPOSAMENAK

Diagnostikoa garatu ondoren planteaturiko proposamenak jasotzen ditu kapitulu honek. Amaieran, hiru proposamen zehaztu eta beren gauzatzea aurreratuko da.

5.1. Ekintza positiboak diru-laguntzen deialdiarako

- Paritate-klausulak derrigorrezko egitea laguntza eta diru-laguntzetarako aginduetan.
- Emakumeak egile dituzten sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektualak babesteko politika aktiboen garapenean sakontzea, arreta berezia eskainiz lan horren hedatzeari.
- Diskriminazio positiboko neurriak aplikatzea sarietako epaimahaietan eta laguntza-lerro ezberdinak baloratzeke organoetan.

- Gutxieneko zenbait irizpide ezartzea emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak antzoki eta erakustegietan aplikatzeko, batzorde baten bitartez.
- Halaber, ekintza positiboak aplikatzea Eusko Jaurlaritzaren mende dauden ekoizpen eta programazio unitateetan emakumeen lanak edo emakumeek zuzenduriko antzezlanak programa daitezten.
- Enpresa barruko berdintasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztea eskatzea diru-laguntzak emateko deialdietan parte hartzen dutenei. Honela, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sistematikoki babestu, sustatu edo horren inguruan kontzientziatzen duten proiektuek puntu gehiago lortuko lituzkete.

5.2. Sentsibilizazio eta ahaldunderako neurriak

- Berdintasunaren eta bereizkeria ezaren inguruko derrigorrezko eduki bereziak sartzeko curriculum diseinu eta hezkuntzako maila guztietan eta arte eszenikoei dagokienez, Antzerkiaren Historia eta Teoria irakasgaia aztertzea, orain arte ikusezin izan diren emakumeen lana sartuz.
- Berdintasun-balioetan oinarritutako sentsibilizazio kanpainak sustatzea, genero-aurreiritzi eta estereotipoekin amaitzen eta emakumeen irudi indartsua eta positiboa sustatzen lagunduko dutenak.
- Emakumeen presentzia sustatzea erakunde eta erabakiak hartzeko gurguetan.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aktiboki sustatzea enpresa-kulturaren baitan, berdintasun-diagnostikoen eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako planen gauzatzea sustatuz.
- Emakumeak ikusgarri egiteko espazio bat sortzea. Emakumeek antzerkigintzari egin dioten ekarpenak ezagutaraztea xede duten jaialdi, batzar eta beste espazio edo ekitaldi batzuen garapena sustatu eta babestea. Espainiako Estatuan egin diren topaketa handien antzera, Conde Duqueko 'La Otra Mirada' eta 'Ellas crean' eta Teatros del Canal erakunde 'Mujeres a escena' edo 'A solas' (Red Magdalena Project) ekimenen tankera izango duen

jaialdi bat sortzea emakumeen lanak ikusgarri egiteko. Jaialdi horiek urtetik urtera antolatu eta alternatiba birrorekatzaileak eskaintzen dituzte.¹²

- Emakumeren bat zuzendari duten jaialdi eta topaketa ospetsuak babestea.

5.3. Akonpainamendu eta aholkularitza neurriak

- Ordutegiak arautu eta lana eta familia bateragarri egiteko Estatu-mailako itun bat sustatzea, lanaldi malguagoa bermatzeko xedearekin. Abantailak eskaintzea ituna aplikatzen duten enpresei.
- Amatasun eta aitatasun-baimena berdindu eta transferiezin bilakatzea, 26 astekoa bilakatuz: 8 aste guraso bakoitzerako eta 10 aste partekatzeko.
- Haurren zaintzarako eskaintza (haurtzaindegi/eskolak) egokitzeko neurriak sustatzea, beren ordutegia familien lanorduetara egokitu dadin eskaintzak zabalduz eta lana eta haurtzaindegia bateragarri egiteko aukerak hobetuz.
- **Pizgarriak eskaintzea haurtzaindegi-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei. Eta enpresa txikiaren kasuetan, hitzarmenen sinatzea sustatzea gertuko haurtzaindegiekin.**
- **Pizgarri ekonomikoa eskaintzea bere proiektua abiarazi nahi duten emakumeei.**

5.4. Ikerketa xede duten neurriak

- Arte eszenikoen eremu ezberdinen inguruko genero-ikerketetan inbertitzea¹³.
- Genero-ikasketak sustatzea unibertitate, ikastegi eta eskoletan. Genero eta arte eszenikoetan aditu diren diziplina anitzeko ikerketa-taldeak sustatzea.
- Genero-berdintasuna euskal arte eszenikoetan ebaluatzeko batzorde bat sortzea.

- Arte Eszenikoen Euskal Behatokia sortzea, zeinak generoan aditua den batzorde bat bilduko baituen.

5.5. Balizko hiru proposamen. Garapena

- Emakumeak egile dituzten sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektualak babesteko politika aktiboen garapenean sakontzea, arreta berezia eskainiz lan horren hedatzeari.

MENTORING PROGRAMA bat, egoitza EAEn duen sortzaile independente banak idatzi eta zuzenduriko 3 antzezlanen garapena bultzatzeko. Akonpainamendua eskaintzea antzezlanak idatzi, zuzendu, ekoiztu eta banatzeko prozesuan. EAEko antzokiren batekin batera gara daitekeen ekimen bat. Antzokiek berezko ekoizpenak hartu edo egonaldiak eskainiko lituzkete sortzaile gazte edo ez hain gazteren baten alde, beren lanbide-karreraren barruan. Egonaldian, artistak urtebete izango luke sorkuntza-prozesuaren alderdi ezberdinak barneratu ahal izateko antzezlan bat sortzeko prozesuaren osagai guztiak eta sortutako ikuskizuna hedatzeko eta banatzeko faseak landuko dituzten prestakuntza-eremu ezberdinen bitartez.

- Emakumeak ikusgarri egiteko espazio bat sortzea. Emakumeek antzerkigintzari egin dioten ekarpenak ezagutaraztea xede duten jaialdi, batzar eta beste espazio edo ekitaldi batzuen garapena sustatu eta babestea.

Emakumeen antzezlanak eskusiboki ikusarazteko ZIKLO/JAIALDI bat. Urteko lan femenino esanguratsuenak hartu eta EAEko udalerriren batean astebetetz garatuko den jarduera. Emakume sortzaileen talentua azpimarratzeko jai-ekitaldi bat. Emakumearen Euskal Erakundeak, udalerriren batek eta SAREA Euskadiko Antzokien Sareak elkarrekin antola dezakete. Urtero antolatutako litzateke eta bi zutabe izango lituzke antzerki-sorkuntzari dagokionez: gure kulturaren funtsezko izan diren emakumeen memoria berreskuratzea eta sortzaile berriak ikusgai egiteko aukera eskainiko duten proposamenak garatzea.

¹² Ekintza positibo hau, egun beharrezkoa bada ere, egitura-izaerako beste neurri batzuekin konbinatu beharko da. Emakumeak jaialdi guztiak izan daitezten ikusgarri. Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko berdintasuneko teknikarien oharra.

¹³ Beste neurri bat: genero-ikuspegia arte eszenikoen inguruan eginiko estatistika eta azterlan guztietan txertatzea. Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko berdintasuneko teknikarien oharra.

- Genero-berdintasuna euskal arte eszenikoetan ebaluatzeko batzorde bat sortzea.


ANTZERKIGINTZAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BATZORDEA.

Genero-arazoak eta -desorekak noizean behin aztertuko dituen batzorde bat sortzea, non ematen diren ikusi eta aipatuekin amaitzeko aukerak proposatu ahal izateko. Batzordeak, halaber, aholkulari-eginkizunak bete ditzake beste erakunde batzuentzako (SAREA, ESKENA, ARTEKALE...), irizpideak batu, jardute egokiak partekatu eta euskal antzerkigintzaren barruan paritatea bermatuko duten neurriak sustatzeko.



DANTZA sorkuntzako
emakumeen eta gizonen
EGOERA EAEn

IGOR DE QUADRA
BELAUSTEGUIGOTIA



I. SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatu eta artista eta kultura-eragile ezberdinez osatutako ikerketa-talde baten bitartez gauzatutako azterlan honek emakumeek eta gizonen kultur arlo ezberdinetan duten presentzia eta partaidetza ezagutu eta aztertu nahi du.

1.1 Helburu bereziak

- Emakumeen eta gizonen egoera ezagutzea dantzagintzaren balio-katearen osagai ezberdinetan (prestakuntza; sorkuntza; ekoizpen; hedatze; programazio eta emanaldiak), emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko duten ekintzak garatu ahal izateko.

II. OINARRI-KONTZEPTUAK

Dantzaren arloko sortzaileak

Txosten honen xedeetarako, “dantzaren arloko sortzaile” da EAEko dantzaren arloko sorkuntza-proiektuen buru den (zuzendaritza artistiko edo koreografikoaren eginkizunetik) sortzaile oro. “Jarduera profesionaltzat” jotzen da: dantza prestakuntza arautua izatea, irakasle izatea, erakusketa-jardueraren bat garatzea, sariak jasotzea, akademia edo elkarte artistikoetako kide izatea, eremu akademikoaren aitortza jasotzea, kritikari edo komisario izatea eta/edo antzoki eta kultur-gunetako programazio artistikoaz arduratzea.

Dantza-lan bat ekoizteak, “dantzaren arloko sortzaileez” gain, “sorkuntza-talde” profesional bat izatea eskatzen du (interpretateak, argiztapen- eta soinu-teknikariak, eszenografia-arduradunak, banatzaileak...). Talde horiek aztertuz, ondorioz, dantzari zuzenki loturiko rol profesional ezberdinetan emakumeek eta gizonen duten presentzia ezagutuko dugu.

Kultura eta Sormen industriak

Kultura eta Sormen industrien (KSI) ¹ “kultura-sektoreen” inguruan Eusko Jaurlaritzatik egin duten proposamenari jarraiki, dantza eta antzerkia “arte eszenikoen” barruan daude, “Kultura-industrien” zazpi azpisektoreetako bat gisa. Sailkapen berri horrek EAEko dantzari eragiten dioten kultura-politika berrietan du bere isla.

Dantzaren arloko sortzaileak, kulturaren langile

Sinbolo eta identitate izaera nabaria duten ondasunak sortzen dituen ekosistema ekonomiko bat da kulturaren ekoizpen-sistema. Kultura-ekoizpenaren aldizkako izaera ukiezin horren ondorioz dantzaren arloko sortzaileak aldizkakotasuna eta prekaritatea ezaugarri nagusi dituen ekoizpen-erregimen bateko langileak dira. Erregimen horren beste ezaugarri batzuk: autoenplegu-maila handia, ordainsari baxuak, egonkortasun eza, afiliazio-tasa baxua herrialde ezberdinetako gizarte segurantzako sistemetara ².

Balio-katea

“Kultura-sektore” horiek guztiak “balio-kate” ³ baten antzera antolatzen dira, hau da, ekoizpen-prozesuan zehar balioa eransten doaz fase ezberdinen multzoa bezala. Balio kate horrek, ondorioz, bi isla ditu: balio ekonomikoaren sorrera eta kultura-balioen mobilizazioa kultura-sorkuntzaren ekoizpen, banatze eta hedatze prozesuetan inplikaturiko eragile ugarien elkarrekin bitartez, bai eta herritarrek kulturaz gozatzeko duten eskubidearen bitartekaritza- eta ahalbidetze-lanetan ere.

Genero-ikuspegia

Genero-ikuspegiak ⁴ emakume eta gizonen berezko ezaugarriak zehaztu, aztertu eta ulertzea ahalbidetzen du, emakumei eta gizonen esleitu zaizkien rola eta generoari loturiko eginkizunak aintzat hartuz. Ikuspegi horretatik, batzuen eta besteen bizitza-aukerak, beren bizitzen zentzua, itxaropenak eta aukerak

¹ Delimitación conceptual y definición de los sectores de las ICC en EUSKADI

² Marta Pérez Ibáñez y Isidro López Aparicio en Actividades artística y precariedad: La situación económica de los/las artistas en España a partir de un estudio https://gestioneventos.us.es/_files/_event/_16604/_editorFiles/file/ACTIVIDAD_ART_STICA_Y_PRECARIEDAD_8WCCEM.pdf

³ Balio-katearen eginkizunak: sorkuntza, ekoizpena, edizioa, banatzea, merkataritza eta hedatzea; zaintza, hezkuntza, kudeaketa eta arautzea.

⁴ La Perspectiva de Género, llamada también enfoque de género, se basa en la Teoría de Género y se inscribe en tres paradigmas: el paradigma teórico histórico-crítico, el paradigma cultural del feminismo y el paradigma del desarrollo humano. El fundamento de la Teoría de Género es crítico, la índole de los enfoques que genera es crítica, y le es imprescindible la crítica de la modernidad. Todo ello ubica a la Teoría de Género en las corrientes democratizadoras postmodernas, comprendidas en el horizonte histórico-cultural de la modernidad misma, que no se ha clausurado. Lagarde, Marcela, “El género”, fragmento literal: ‘La perspectiva de género’, en Género y feminismo. Desarrollo humano y democracia, Ed. horas y HORAS, España, 1996, pp. 13-38. http://www.europofem.org/contri/2_05_es/cazes/03_cazes.htm

aztertzen dira, bai eta sexu bakoitzetik gizarteak espero duen horrek baldintzatzen dituen gizarte-harreman konplexuak eta aurre egin behar izaten dituzten erakunde-mailako eta eguneroko arazoak ere (gehi horiei aurre egiteko era ugariak).

III. EAEKO DANTZAGINTZA KARAKTERIZATZEKO DATU KUANTITATIBOEN LABURPENEA.

3.1 Goi-mailako Dantza Prestakuntza EAEn

Orain dela oso gutxira arte ez zegoen dantza garaikideko lanbide hezkuntza ofizialik EAEko hezkuntza-eskaintza publikoan. DANTZERTI Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskola 2015ean sortu zenetik, emakume eta gizon profesionalen ibilbidea -ikasten hasten direnetik EAEko dantzaren balio-katean eragina izaten duten arte- islatzen duten gure kultura-lurraldeko berezko datuak lor eta azter ditzakegu.

Dantzerti

DANTZERTI Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskola Euskadin goi-mailako dantza titulu bat eskaintzen duen zentro ofizial bakarra da. DANTZERTI Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskolaren azken datuak aztertuz gero (2016-2018), emakumeen portzentajea gizonena baino askoz ere altuagoa dela ikus daiteke. 2018n, emakumeek % 84 suposatzen dute eta gizonak % 16.

3.2 Dantzako lanbide heziketarako diru-laguntzak

FORU ALDUNDIAK

Dantzaren arloko profesionalizazioak EAEn jasotzen dituen erakunde-laguntzen artean nabarmendu beharra dago foru aldundiek dantzari eta koreografo gazteei (16-30 urte) eskaintzen dieten babesak, beren prestakuntzarekin jarrai dezaten Euskadiko zein kanpoko eskola ezberdinetan. 2016 eta 2018 bitartean, emakumeak nagusi dira Bizkaiko Aldundian (% 79) eta Gipuzkoan (% 64) baina portzentaje hori baxuagoa da Araban (% 33), laguntzen kopurua askoz txikiagoa delarik ere. Deialdietako oinarriek ez dute emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatzeko baldintzarik jasotzen.

Bizkaiko Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen dituen beka arte plastiko eta ikusizko arteak, arte dramatiko, musika, dantza eta kultura-kudeaketa modalitateetarako deialdiaren barne doaz. Azken hiru urteotan emakume hartzaile gehiago egon da gizon baino; halere, gizonen presentziak gora egitea eta emakumeenak behera egitea da ikus daitekeen joera (2016: emakumeak % 89 eta gizonak % 11; 2018: emakumeak % 80 eta gizonak % 20).

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen dituen beka musika, dantza, arte dramatiko, ikusizko arteak, erakusketen komisariotza, moda eta diseinua eta arkitektura arloetako prestakuntza espezializatua jasotzeko beka-deialdian jasota daude. Azken hiru urteotan emakume hartzaile gehiago egon da gizon baino; halere, gizonen presentziak gora egitea eta emakumeenak behera egitea da ikus daitekeen joera (2016: emakumeak % 75 eta gizonak % 25; 2018: emakumeak % 60 eta gizonak % 40).

Arabako Foru Aldundia

Arabako Foru Aldundiak beka bakarra eskaintzen du dantzaren arlorako, arte eszeniko eta musika-arteetako prestakuntza-ekintzak babesteko deialdi publikoaren barruan. Azken hiru urteotan gizon hartzaile gehiago egon da emakume baino (2016: emakumeak % 100 eta gizonak % 0; 2018: emakumeak % 0 eta gizonak % 100).

EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZAK DANTZAREN ARLORAKO

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak dantza sustatzeko ematen dituen diru-laguntzen xedea da Euskadin lan egiten duten koreografo eta konpainien sorkuntza-lana bultzatzea, bai eta sektorea profesionalizatzeko helburuarekin eginiko esfortzu guztiak babestea ere.

Diru-laguntzak dantzaren arloko sorkuntza babesteko modalitate ezberdinetan antolatzen dira. Nahiz eta aldatetako egon diren azken urteotan diru-laguntzen kategorietan, hiru diru-laguntza modalitate bereiz ditzakegu 2016-2018 epealdian.

Modalitatea: Sorkuntza koreografikoa

Lehen lan koreografiko laburrak eta esperimentazio-prozesu txikiak diruz laguntzea da, gehienbat, modalitate honen xedea. Beka honekin batera, Eusko Jaurlaritzak Dantzaren Bilaka ekimena sustatu du azken urteotan: koreografo bekadunen lanak babestu, jarraitu eta erakusteko programa bat, dantzaren arloko sortzailez osaturiko batzorde batek koordinatzen duena. 2017. urtetik aurrera, ADDE - Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteak koordinatzen du Dantzaren Bilaka. 2016-2018 epealdian, emakumeren bat buru duten proiektuek gizonen bat buru duten horiei gailendu zaizkie.

(2016: emakumeak % 67 eta gizonak % 33; 2017: emakumeak % 43 eta gizonak % 57; 2018: emakumeak % 67 eta gizonak % 33).

Modalitatea: Dantza ekoizpena

2016n abiatutako modalitate honek dantza-ekoizpen profesionalak sustatzen ditu. 2016. urtean, emakumeren bat buru duten dantza-ekoizpeneko proiektuak gizonen bat buru duten horiek baino gutxiago dira (emakumeak % 42 eta gizonak % 58).

● Modalitatea: Dantza ekoizpena 1

Modalitate honek lan-talde txikiko (pertsonek bakarrik edo bikoteak...), iraupen labur edo ertaineko lanak bultzatzen ditu, ikerketa eta/edo esperimentazio koreografiko eta eszenikoa lantzea xede dutenean; bai eta izaera profesionaleko lehen lanak ere. 2017-2018 epean, emakumeren bat buru duten dantza-ekoizpena 1 modalitateko proiektuak gizonen bat buru duten horiek baino dezente gehiago dira (2018: emakumeak % 71 eta gizonak % 29).

● Modalitatea: Dantza ekoizpena 2

Formatu handiko, iraupen ertain-luzeko proiektuak eta/edo koprodukzioak dituen proiektu baten zati bat sustatzea du xede. 2017-2018 epean, emakumeren bat buru duten dantza-ekoizpena 2 modalitateko proiektuak gizonen bat buru duten horiek baino dezente gutxiago dira (2018: emakumeak % 30 eta gizonak % 70).

Modalitatea: Konpainiak egonkortzea

Izenak dioen bezala, "Konpainiak egonkortzea" modalitatearen xedea dantza-konpainiak egonkortzea da, ondoko alderdiei loturiko jardueretarako diru-laguntzak eskainiz: babes administratiboa eta koordinazioa, ekoizpenak hedatu eta komertzializatzea eta konpainiaren jardura paraleloak. 2017-2018n, modalitate honetan diruz lagundutako eta emakumeren bat buru duten proiektuek oreka izan dute emakumeren eta gizonen bat buru duten proiektuekiko (2016: emakumeak % 20 eta gizonak % 50; 2017, emakumeak eta gizonak % 50; 2018: emakumeak % 63 eta gizonak % 38).

3.3 Egonaldi artistikoak eta dantzaren arloko sorkuntza babesteko espazioak

Kultur arloko egitura ezberdinek dantzaren arloko sorkuntza-prozesuak babesten dituzte, egonaldi artistikoen bitartez, kontzeptualizazio-, ideia- eta esperimentazio-fasetan. Jarraian, EAEn egonkortasun handiena agertzen duten horietako zenbait aztertuko ditugu.

Sortutakoak Dantzagunean

"Sortutakoak"⁵ ekimena 2011n sortu zen Erretereriako Gipuzkoako Dantzagunearen baitan. Gunearen xedea da dantza-proiektu berrien sorkuntza, garapena eta hedatzea bultzatzea Gipuzkoan. 2016-2018n, emakumeren bat buru duten proiektuen presentziak gora egin du, oreka lortu arte gizonen bat buru duten proiektuekin (2016: emakumeak % 33 eta gizonak % 67; 2017, emakumeak eta gizonak % 50; 2018: emakumeak eta gizonak % 50).

Azala (2016- 2018)

Azala⁶ ekimenak beren sorkuntza-prozesurako eta/edo ikerketa-prozesurako bildutasunean lan egiteko espazio eta denbora bat behar duten artista eta sortzaile, pentsalari eta aktibistak hartzen ditu. 2016-2018n, emakumeren bat buru duten proiektuek gizonen bat buru duten proiektuei gailendu zaizkie (2016: emakumeak % 60 eta gizonak % 40; 2017, emakumeak % 78 eta gizonak % 22; 2018: emakumeak % 25 eta gizonak % 31).

5 "Sortutakoak" dantzaren arloko sortzaileak babesteko Dantzagunean abiatu dituen programa ugarietako bat da <http://dantzagunea.gipuzkoakultura.net/index.php/es/convocatorias>

6 http://www.azala.es/es/anoario/pagina_1/2018/espaciocreacion_archivo_anoario.html

La Fundación / Egonaldi artistikoak (2016-2018)

La Fundación Baliabide Zentroaren⁷ baitan, egonaldi artistikoek ikerketa-, sorkuntza- eta ekoizpen-faseak dituzte xede. 2016-2018n, emakumeren bat buru duten proiektuek gizonen bat buru duten proiektuei gailendu zaizkie baina azken hauek hazkunde progresibo bat agertu dute (2016: emakumeak % 82 eta gizonak % 18; 2017, emakumeak % 73 eta gizonak % 27; 2018: emakumeak % 47 eta gizonak % 53).

3.4 Dantzaren arlorako mugikortasun-programa eta nazioarteko egonaldiak

Honako ekimen hauek nabarmendu behar dira Euskadiko dantza-sorkuntzaren eremurako mugikortasun-programei eta nazioarteko egonaldiei dagokienez:

Etxepare Institutua (2016-2018)

Etxepare Institutuak⁸ diru-laguntza bat eskaintzen du dantzaren arloko euskal sortzaileen mugikortasuna euskararen lurraldetik kanpo sustatzeko. 2016-2018 epealdian oreka egon da emakumeren bat buru duten proiektuen eta gizonen bat buru dutenen artean (2016: emakumeak % 53 eta gizonak % 47; 2017, emakumeak % 45 eta gizonak % 55; 2018: emakumeak % 55 eta gizonak % 45).

Azkuna Zentroa Amphytrion (2016-2018)

Amphytrion Azkuna Zentroaren Nazioarteko Egonaldi Artistikoetarako programa da : beren proiektu artistikoak garatu eta gertuko ehun sortzailea nazioarteko kultura-ingurumenekin konektatzeko baliabide materialak eta espazioak eskaintzen dizkie sortzaileei. 2016-2018n, emakumeren bat buru duten proiektuek gizonen bat buru duten proiektuei gailendu zaizkie (2016: emakumeak % 110 eta gizonak % 0; 2017, emakumeak % 100 eta gizonak % 0; 2018: emakumeak % 100 eta gizonak % 0).

Begirada Gurutzatuak (2016-2018)

La Fundaciónek Malandain Ballet Biarritzeko *Le laboratoire de recherche chorégraphique sans frontières* delakoarekin batera

sustatu duen truke-programa, ipar eta hego Euskal Herriko artisten ezagutza, mugikortasun eta bere lan globalaren (sorkuntzak, pedagogia, etab.) ikusgarritasuna bultzatzeko. 2016-2018n, emakumeren bat buru duten proiektuen presentziak progresiboki egin du aurrera gizonen bat buru duten proiektuen aurrean (2016: emakumeak eta gizonak % 50; 2017, emakumeak % 75 eta gizonak % 25; 2018: emakumeak % 100 eta gizonak % 0).

3.5 profesionalak eta sexu-genero sistemak dantzaren arloko rol profesionalean eta sorkuntza taldetan izan duen eragina

Dantzaren arloko sorkuntza profil artistiko eta tekniko ezberdinak dituzten pertsonen arteko lankidetzaren emaitza da askotan. Talde-lan horrek ekoizpen koreografiko bakoitzaren partaideen zerrendan du bere isla. ADDE - Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteak urtero egiten duen lan koreografikoen urteko katalogoaren 2016 eta 2018 bitarteko edizioetako partaideen zerrendak aztertuz gero emakumeek eta gizonak talde artistikoaren barruko rol ezberdinetan duten presentzia ikus daiteke.

Zuzendaritza artistikoa

Dantzaren arloko zuzendaritza artistikoa askotan lan koreografikoaren eta dramaturgiaren eskutik hartua doan eginkizuna da. 2016-2018n, emakumeen presentzia zuzendari artistikoen artean handiagoa izan da gizonena baino (2016: emakumeak % 63 eta gizonak % 38; 2017, emakumeak % 54 eta gizonak % 63; 2018: emakumeak % 63 eta gizonak % 38).

Koreografía

Eginkizun koreografikoak forma, estiloa eta gorputzek eszena-espazioan egingo dituzten konposizioak zehaztea du xede. Askotan, pertsona berbera arduratzen da zuzendaritza artistikoaz eta dramaturgiaraz. 2016-2018 epealdian oreka egon da emakume koreograforen bat buru duten proiektuen eta gizon koreograforen bat buru dutenen artean (2016: emakumeak % 5 eta gizonak % 42; 2017, emakumeak % 48 eta gizonak % 52; 2018: emakumeak % 55 eta gizonak % 45).

⁷ <https://www.lafundacion.org/urtekaria/?lang=eu>

⁸ <https://www.etxepare.eus/eu>

⁹ https://www.azkunazentroa.eus/az/cast/inicio/agenda-4/residencias-artisticas-2019/al_evento_fa

Interpretazioa

Interpreteak, askotan, beren laguntza eskaintzen diote zuzendari artistikoari lana sortzeko prozesuan. Interpreteten kopurua kontzeptu artistikoaren eta ekoizpenaren bitartekoen mende dago. 2016-2018 epealdian, emakume interpreteek agertzen duten nagusitasunak behera egin du gizon interpreteen aurrean eta azken hauek etengabeko gorakada bat izan dute (2016: emakumeak % 64 eta gizonak % 36; 2017: emakumeak % 52 eta gizonak % 48; 2018: emakumeak % 43 eta gizonak % 57).

Soinu / Musika

Dantza ikuskizunetako musika-lanetarako, zuzenean arituko diren profesionalak zein alde zuzenetik grabatutako hirugarren egileen musika erabiltzen dira. Gure laginerako, nahiz eta kopuru eta adierazgarritasun estatistiko baxua eduki, musika orijinala sortu eta dantza-ikuskizun bateko taldeko kide diren pertsona fisikoak aintzat hartu ditugu bakarrik. 2016-2018 epealdian, soinu-eginkizunetan emakumeek zuten gutxiengo posizioak gora egin du progresiboki (2016: emakumeak % 17 eta gizonak % 83; 2017: emakumeak % 22 eta gizonak % 78; 2018: emakumeak % 67 eta gizonak % 33).

Eszenografia

Eszena-espazioa irudikatu, diseinatu eta eraikitzeke arduradunak dauka eszenografoak. 2016-2018 epealdian oreka egon da emakume koreografoen bat buru duten proiektuen eta gizon koreografoen bat buru dutenen artean (2016: emakumeak % 50 eta gizonak % 42; 2017, emakumeak % 40 eta gizonak % 60; 2018: emakumeak % 50 eta gizonak % 50).

Jantziak

Jantzien arduradunek interpreteek eramango dituzten arropak sortu, diseinatu eta eraiki beharko dituzte. 2016-2018 epealdian arduradun hau izan duten emakumeek gizonak baino presentzia handiagoa izan dute (2016: emakumeak % 75 eta gizonak % 25; 2017, emakumeak % 75 eta gizonak % 25; 2018: emakumeak % 75 eta gizonak % 25).

Argiak

Argien arduradunaren eginkizuna da eszenatokiko argiak

pentsatu, diseinatu eta eraikitzea. 2016-2018 epealdian arduradun hau izan duten emakumeek presentzia txikiagoa izan dute, gizonak baino (2016: emakumeak % 13 eta gizonak % 88; 2017, emakumeak % 13 eta gizonak % 87; 2018: emakumeak % 20 eta gizonak % 80).

Banatzea

Banatzearen xedea da dantza-ekoizpenak hedatzea, komunikatzea eta saltzea antzoki, jaialdi eta azoketan. 2016-2018 epealdian arduradun hau izan duten emakumeek gizonak baino presentzia nabarmenki handiagoa izan dute (2016: emakumeak % 79 eta gizonak % 21; 2017, emakumeak % 81 eta gizonak % 19; 2018: emakumeak % 83 eta gizonak % 17).

Goian jasotako datuen arabera, nabaria da emakumeen eta gizonen arteko desoreka dantzaren arloko sorkuntza-taldeei atxikitako rol ezberdinei dagokienez. Gehiago txikia badago ere zuzendaritza artistikoan eta koreografian, horrek behera egiten du interpreteak aintzat hartzerakoan, non partaidetza orekatua ikus baitaitekeen. Azkenik, kontrastea dago oraindik gizonak nagusi dituzten eginkizunen (argiak eta diseinua) eta emakumeak nagusi dituzten eginkizunen artean (jantziak, banatzea).

3.6 Dantzaren arloko emakume sortzaileen presentzia SAREA Euskadiko Antzokien Sareko dantza-programazioan

Dantzaren arloko emakume sortzaileen presentzia SAREA Euskadiko Antzokien Sareko dantza-programazioan

SAREA Euskadiko Antzokien Sarea 1993n sorturiko erakunde arteko entitate bat da eta ondoko kideak ditu: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Foru Aldundietako kultura arloak eta sarean sarturiko antzoki eta aretoen jabe diren udalak. Dantzak Sarea sareko antzokietan emandako ikuskizun guztien % 11 suposatzen du¹⁰: 239 emanaldi guztira.

2017ko urteko txostenak ikusleen kontsumo-ohiturak neurtu zituen eta, horretarako, bi kategoria nagusi zehaztu zituen: haurrak eta gazteak/helduak. Emakumeen presentzia handiagoa dela sinetsi badaiteke ere, sexuen arabera bereizitako daturik gabe ezinezkoa da emakumeek eta gizonak ikusleen artean egun duten presentzia kuantitatiboki neurtzea.

¹⁰ "SAREA_Txosten_Estatistikoa_2017", Sareak gaur arte argitaratu duen azken memoria.

Sarea elkarteko kideek 2018. urtean eskaini duten dantza ikuskizunen inguruko datuak ¹¹ mugatuak badira ere joera moduko bat aditzera ematen dute emakumeren edo gizonen bat buru duten proiektuen presentziari dagokionez eta 2018ko programazioetan erabili ziren “dantza-generoei” erreparatuz ere:

- **Tradiziozko dantza:** Emakumeak % 0 / Gizonak % 100
- **Dantza garaikidea:** Emakumeak % 54 / Gizonak % 46
- **Antzerki-dantza:** Emakumeak % 67 / Gizonak % 33
- **Familientzako dantza:** Emakumeak % 71 / Gizonak % 29
- **Fusioa:** Emakumeak 67% / Gizonak % 33
- **Performance:** Emakumeak % 0 / Gizonak % 100
- **Hirikoa:** Emakumeak % 0 / Gizonak % 100
- **Zirku-dantza:** Emakumeak % 100 / Gizonak % 0

Bestalde, 2018n Sarean eskainitako dantza-programazioaren barruan emandako “emanaldi” guztien sexuen arabera bereizitako datuak aztertuz gero ikus daiteke emakumeren bat duten proiektuen presentzia % 48tik % 45era igarotzen dela emanaldien kopurua aintzat hartzen dugunean eta gizonen bat buru duten proiektuen emanaldiak % 52etik % 55era igarotzen direla.

- **Tradiziozko dantza:** Emakumeak % 0 / Gizonak % 100
- **Dantza garaikidea:** Emakumeak % 47 / Gizonak % 53
- **Antzerki-dantza:** Emakumeak % 67 / Gizonak % 33
- **Familientzako dantza:** Emakumeak % 75 / Gizonak % 25
- **Fusioa:** Emakumeak % 43 / Gizonak % 57
- **Performance:** Emakumeak % 0 / Gizonak % 100

- **Hirikoa:** Emakumeak % 0 / Gizonak % 100
- **Zirku-dantza:** Emakumeak % 0 / Gizonak % 100
- **Emanaldien guztizko kopurua:** Emakumeak % 45 (41) / Gizonak % 55 (51)

3.7 Dantzaren arloko emakume sortzaileen presentzia, gizon sortzaileenarekin alderatuta, EAeko beste programazio egonkor batzuetan

EAeko dantza-ikuskizunak SAREA euskal sareko antzokien inguruan egituratzen dira gehienbat eta beste antzoki independente, kultura-gune eta urteko jaialdi batzuetako programazioarekin osatzen dira. Jarraian, programazio horietako batzuk aztertuko dira.

Elipsiak /Azkuna Zentroa Alhóndiga

‘Elipsiak’ Bilboko Azkuna Zentroak antolatzen duen dantza-ziklo bat da. Isabel de Naverán du komisario eta bere hirugarren edizioan Estatuko eta nazioarteko lan koreografikoak aurkeztu eta ikusleei irekitako solasaldi eta hitzaldiak antolatu ditu. Elipsiak ekimenaren programazioak emakumeen eta gizonen presentziaren arteko oreka bermatzeko joera agertu du 2016-2018 epealdian (2016: emakumeak eta gizonak % 50; 2017: emakumeak eta gizonak % 50; 2018: emakumeak % 33 eta gizonak % 67).

La Fundición Aretoa

Arte eszenikoen sorkuntza garaikidea Bilbon erakutsi eta dinamizatze espazioa dugu La Fundición 1986tik. 2016-2018 epealdiko urteko bere programazioa aztertuz gero emakumeek izan duten presentzia ikus daiteke (2016: emakumeak % 44 eta gizonak % 56; 2017: emakumeak % 59 eta gizonak % 41; 2018: emakumeak % 51 eta gizonak % 49).

11 Jemima Canoren datuetan oinarritua.

dFERIA

Arte eszeniko garaikideak Donostian erakusteko urteroko azoka da dFERIA eta tokiko, nazio-mailako eta nazioarteko lan ugari eskaintzen ditu hiriko kultura-espazio ezberdinetan eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kultura Ministerioa bezalako erakundeen babesarekin.

2016-2018n dFERIAk eskaini duen programazioa aztertuz gero ¹², emakumeren bat buru duten proiektuek presentzia handiago dute gizonen bat buru duten proiektuek baino (2016: emakumeak eta gizonak % 50; 2017, emakumeak % 81 eta gizonak % 19; 2018: emakumeak % 64 eta gizonak % 36).

Bilboko BAD Jaialdia

Bilboko Antzerki eta Dantza Garaikidearen Jaialdia (BAD) ¹³ 1999. urtetik aurrera egiten da eta tokiko artistak zein nazio-mailan eta nazioartean ospetsu diren artistak programatzen ditu. BAD jaialdiak 2016-2018 epealdian eskaini duen programazioak presentzia orekatua agertzen du baina emakumeren bat buru duten proiektuek gora egiteko joera progresiboa agertzen dute gizonen bat buru duten proiektuen aurrean (2016: emakumeak % 54 eta gizonak % 46; 2017: emakumeak % 56 eta gizonak % 44; 2018: emakumeak % 65 eta gizonak % 35).

IV. ANALISI KUALITATIBOAREN LABURPENA

Arestian aipatu datu kuantitatiboetan oinarrituta, lehen sintesi bat egin daiteke. Dantza profesionalak EAeko Sormen industrietako Arte Eszenikoen sektorea osatzen du antzerkiarekin batera: 34 dantza-konpainia ¹⁴ daude eta 177 antzerki-konpainia. ADDEko katalogoak ¹⁵ 2016-2018 epealdian dantza-katalogoan jaso dituen konpainietatik, % 53ak emakume bat du buru.

Dantzaren arloko prestakuntza

Dantzaren arloko profesionalak EAEn prestatzea xede duen goi-mailako dantza prestakuntzari dagokionez, Dantzerti Goi

Mailako Eskola 2016. urtean sortu zenetik emakumeen izen-emateak urtetik urtera egin du gora, % 82ko batezbestekora iritsiz lehen hiru urtetan.

Emakumeek eta gizonak EAeko goi-mailako dantza prestakuntzan duten ordezkariak orekatuaz haraindi begiratzen badugu, ez dago esaterik genero-ikuspegia txertatua dagoenik Dantzertiko ikaskuntza-curriculumeko irakasgaietan. Ondorioz, genero-ikuspegia egungo goi-mailako prestakuntzan txertatua ez dagoela esan daiteke.

Era berean, EAeko hiru foru aldundiek dantzarien prestakuntzarako (EAEn zein EAetik kanpo) eskaintzen dituzten beketan, emakume bekadunek % 76ko batezbesteko presentzia agertzen dute 2016-2018 epealdian zehar.

EAeko hiru foru aldundietako deialdietako oinarriak aztertuz ikus daiteke adinari loturiko baldintzak daudela beka lortzeko (16-30 urte) baina ez da berezko aipamenik egiten aukeraberdintasunari dagokionez. Ondorioz, beken eskarian emakumeek duten presentzia altua ikusita, dantzaren arloa feminizatutako sektore bat dela eta emakumeek praktikatzen ohi duten sektore bat dela aipa daiteke. Printzipioz "feminizatuta" dagoen arlo batean, ordea, dantza ikasten duten emakumeen lan-proiektzioa gizonena baino txikiagoa da, gizonen presentzia eskasaren eta mundu profesionallean dagoen eskari proportzional handiagoaren ondorioz hain zuzen ere. Honela, ikasten hasten direnetik emakumeek lehiakortasun handiagoko etorkizuneko lan-merkatu bati aurre egin beharko diotela esan daiteke; eta gizon dantzariak erraztasun eta aitortza handiagoak dituztela ere.

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak dantza-ekoizpenerako

Dantzaren arloko profesionalizazioa diru-laguntza publikoen mende dago. Dantza-konpainien autofinantzazio-maila % 66,3koa da eta diru-laguntza publikoek pisu erlatibo handia dute (% 33,7) ¹⁶. Horrexegatik, diru-laguntza publikoak dantzaren arloko kultura-proiektuen bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko ezinbestekoak direla esan daiteke.

¹² Dferia web <http://www.dferia.eus>

¹³ Festival BAD web <http://badbilbao.eus/web/>

¹⁴ CULTURABase, Instituto Nacional de Estadística (2017) <http://www.culturaydeporte.gob.es/servicios-al-ciudadano/estadisticas/cultura/mc/culturabase/portada.html>

¹⁵ Catálogo de danza ADDE (2018)

¹⁶ (pag.8) Productores de artes escénicas en Kulturaren Euskal Behatokiaren Estatistika eta Azterketa Bilduma (2010)

Eusko Jaurlaritzak 2016-2018 epealdian arlo honetara bideratu dituen diru-laguntzen inguruko datuek diotenez, kasu gehienetan emakumeen presentziak dantza babesteko modalitate ezberdinetan gizonen presentzia berdindu edo hobetzen du. Halere, emakumeen eta gizonen arteko desorekarako joera bat ikus daiteke eskatutako diru-laguntzei dagokionez: “Sorkuntza koreografikoa” izeneko modalitateko proiektu txikietan emakumeek % 67ko presentzia dute, “Dantza ekoizpena 1” modalitateko proiektu ertainetan % 69ko presentzia dute eta, azkenik, “Dantza ekoizpena 2” modalitateko ekoizpen handienetan % 42ko presentzia dute; hau da, zenbat eta handiagoa izan formatua, are eta baxuagoa da emakumeen presentzia. Diru-laguntzen goranzko eskalarekin jarraituz “Konpainiak egonkortzea” modalitatea aurkituko dugu (emakumeak % 54 2017. eta 2018. urteetan) eta aurkezturiko proiektuen eta jasotako zenbatekoaren arteko lotura sakontasunez aztertuz gero ondokoa antzeman daiteke:

Emakumeren bat buru duten proiektuek % 50eko presentzia izan zuten (6 konpainiatik, 3) eta emakumeren bat buru duten proiektuei emandako laguntzek zenbateko guztiaren % 42,4 suposatu zuten. 2018n, presentzia % 63koa izan zen (8 konpainiatik, 5) eta jaso zuten diru-laguntzek % 55,8 suposatu zuten. Datu horiek ezberdintasun ekonomiko bat uzten dute agerian, emakumeen proiektuen kalterako: emakumeen konpainiak gehiago badira ere, desoreka egon da bitarteko ekonomikoak emakumeen eta gizonen artean banatzerakoan.

Egonaldi artistikoak eta dantzaren arloko sorkuntza babesteko espazioak

Egonaldi artistikoak funtsezkoak dira egungo sorkuntza koreografikorako, artisten arteko bizikidetzarako espazio material gisara ekoizpen-prozesu egitekotsuetan eta tokiko eragileentzako (artista, ikusle eta programazio-eragileak) topagune eta sozializazio-espazio gisara.

Emakumeen presentzia ordezkaritza orekatu batean mantentzen da tokiko egonaldi artistikoetan (% 66) zein mugikortasun-programa edo nazioarteko egonaldietan (% 63).

Rol profesionalak dantzaren arloko sorkuntza-taldean barruan

Egindako inkestetan ondoko hautemate zabaldua antzeman daiteke: gizonak “rol teknikoetan” dira nagusi, emakumeen aurrean. Talde artistikoak osatzerakoan, halaber, “gertuko” eta gizonak nagusi dituen sektore batean eskarmentua duten pertsonak bilatzeko joera dago. Honek, argi eta soinuarekin lan egiten duten emakume gazteen laneratzea oztopatzen du, ez baitute aitortzarik sektore horretan.

Emakumeen eta gizonen presentzia SAREA elkarteko antzoki eta kultura-gunetako dantza-programazioan

Euskadiko programazio-sare profesional nagusia den heinean, Sarea elkarteko programazioaren datuak oso baliagarriak dira emakumeen eta gizonen posizioa jakiteko Euskadiko eremu profesionalean. Sarea elkarteko dantza-programazioa aztertuz gero ikus daiteke emakumeren bat buru duten proiektuen presentzia % 46koa dela eta emakumeek ekoiztu dituzten lanen emanaldi-kopuruak % 43 suposatzen duela. Honela, beste behin, “presentziari” dagokionez ordezkaritza orekatua bermatzea bada ere joera, emakumeen “eskaria” eta “onura ekonomikoa” gizonak jasotzen duten horien azpitik dago.

Komunikabideak, sariak, kritika, akademia

Kultura-sorkuntzak printzipio mobilizatzaile, dinamiko eta zeharkako, bateratzaile eta partizipatibo bat osatzen du, gizarte zehatz batek, talde eta kolektiboek, zentzu-komunitateak¹⁷ gisara ulertuta partekatzen dituzten esanahi-, praktika- eta balio-sareak sortzen dituzten heinean. Kulturaren ikuspegi biderkatzaile horretatik, ondorioz, komunikabideek, ikerketako sariak eta literatura kritikoaren (akademiko zein independente) ekoizpenak egiten duten ekarpena kulturaren ikusgarritasuna, zilegitasuna eta gizarte-balidazioa bultzatzen duen balio-kateko begia sendotzera doaz. Zentzu horretan, eta Kulturklik¹⁸ alde batera utzita, ez da apustu garbirik egin kultura eta dantzaren berriekin loturiko kultura-ekitaldien inguruko berriak erregulariki jasoko duen hedatze-zerbitzu orokor baten alde. Antzinako Meteorik¹⁹ bezalako programarik ez egotea EITBn oso adierazgarria da ere

¹⁷ Geertz, C. (1973) *The Interpretation of Cultures*. New York: Basic Books

[Gedisa, 1988] en Lorente, E. Creación, educación e investigación. Análisis de la cadena de valor y propuestas de política cultural (Primer informe sobre el estado de la cultura CAE 2015)

¹⁸ <http://www.kulturklik.euskadi.eus/hasiera/>

¹⁹ entre 1998 – 2012, programa de televisión dirigido por Marian Gerrikabeitia, sobre manifestaciones artísticas contemporáneas.

eta EAEko sortzaileen eta beren sorkuntza-prozesuen garrantzia nabarmenduko dituen komunikabideetarako inolako kultura politikarik ez dagoela agerian uzten du.

EAEko dantzaren arloko sorkuntzarako sariak

Euskal sorkuntza plastikoaren balioa eta gizarte-aitortza sustatzea xede duen Gure Artea ²⁰ erakunde-sariaren balioidea izan daitekeen inolako saririk ez dago Euskadin arte eszenikoen arlorako. Esanguratsua da ere ikustea Gure Artea sariak EAEko dantzaren arloko sorkuntzaren ekimenak aitortu eta saritu dituela, diziplina anitzeko talde mistoen emaitza izan zein emakume bakarren emaitza izan. Hona hemen adibide batzuk: Mugatxoan (2014) eta Azala (2018) edo Sra Polaraiska (2018). Ikusizko artetan aitortu eta baloratutako diziplinartekotasun horren harira, ordea, EAEko arte eszenikoak aitortza-eremurik gabe geratu direla dirudi.

Sari batzuk daude azoka edo jaialdi ezberdinetan (Umore Azoka; dFERIA/Donostia Saria; festival Act...) baina ez dute arestian aipatutakoek duten eragin sozial, ekonomiko edo mediatikorik. Aipatu sarietan ez da genero-ikuspegiarik antzeman ere balorazio-irizpideen artean²¹.

Dantzari buruzko literatura eta kritika

Ezin esan kasualitatea denik Euskadiko dantzaren arloko sorkuntza eta lan artistikoa aitortzeko erakunde-mailako saririk edo aitortzarik ez izatearekin batera ez dagoela inolako testuingururik, ezta ere, EAEko dantzari buruz hausnartu eta azterlan kritikoak egiteko. Oraingoan, ez dago erreferentziazko erakunderik EAEko dantzari buruzko ikerketa edo dokumentazioa lantzen duenik; halere, "masa kritikoa" dago ikertzailerei dagokienez ²². Ez dago dantza sailik Vitoria-Gasteizko Artearen Historiako²³ Fakultatean. Ondorioz, Dantzerti

da Dantzaren Historiari loturiko irakasgai ofizialak eskaintzen dituen erakunde bakarra. Dantzari buruzko ezagutza kritikoa ikerketa eta literatura kritikoaren bitartez sortu eta hedatzeko testuinguru araugabe ²⁴ honek beste ondorio bat dauka: ez da inolako hausnarketarik egin genero-ikuspegiak dantzaren eta arte bizien arloan duen lekuaren inguruan.

4.1. Iritzi-artikulua

Dantza ²⁵ bizitzatik sortzen den arte bat da, gizakiaren gorputz osoaren ekintzen ondorio da, nahiz eta ekintza horiek ez izan egunerokotasunean egindako horien berdinak. Dantza bizitzari eta gorputzari loturiko arte iragankorra den heinean, historikoki oso zaila izan da dantzaren artea museo eta Arte Ederren akademiatarara, artearen sistema zilegi egiten duten baten erakunde horietara egokitzea. Botere nahikorik ez duenez *truckerako* objektu ukigarria izan ahal izateko (artxibatu, katalogatu, gorde edo galeria batean sal daitekeen tresna), dantza salbuespen bitxitzat hartua izan ohi da eta entretenimenduaren eta antzokien ikusgarritasunaren eremura mugatua geratu da gehienbat.

Antzokietan asmatutako ikuskizun-dantzaren ondorioz gailendu den dantzaren kontzeptua ikuspegi maskulino ²⁶ eta sexualizatu ²⁷ baten zerbitzurako espresio sentsual baten artearena da, artearen historiaren barruan gorputzak izan duen beste forma eta diskurtso askoren aurrean. Honela, antzokietatik eta ikusleria burges baten ikuspegi heteroarauemaile zorrotz baten pean, dantzak bere ibilbide historiko eta kulturala egin du.

Egun, dantzari itsatsi zaion bigarren mailako arte baten gizarte-estigma bizirik dirau oraindik gure gizartean. Ohiko kultura-kontsumoen tokiko testuinguruari erreparatuz gero, dantza azkenaurreko tokian dago, lirikaren aurretik, EAEko kultura-jarduerak suspertzen duten interesaren sailkapenean ²⁸. Dantza herrikoiak plazetan eta YouTubeko playlist delakoetan bizirik irauten

²⁰ Adierazgarria da ikustea Gure Artea sariak genero-paritatea bermatzera jo duela hautagai, saritu eta epaimahaikideei dagokionez. "Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan" Kulturaren Euskal Behatokia (2016)

²¹ Umore Azoka sariaren oinarriak (2014): Epaimahaiaik ondoko ebaluazio-irizpideak izango ditu kontuan: kalitate artistikoa (zuzendaritza, interpretazioa, musika, koreografia, errit moa...), kalitate teknikoa (jantziak, eszenografia, argiak, atrezzoak, karakterizazioa, soinua, produkzioa...), orijinaltasuna, sormena, berritasuna eta ikuskizunaren erakargarritasuna.

²² Ikus egileen aurkibidea: <http://www.ehu.es/ojs/index.php/ausart/issue/view/1356>

²³ <https://www.ehu.es/eu/artearen-historiako-graduak#>

²⁴ EAEko dantzaren kultura ezberdinak hedatzea xede nagusi duen www.danzan.eus webgunetik koreografiari eta pentsamenduari buruz atera berri diren norbere kabuz kudea tutako zenbait argitalpena http://www.coletivoqualquer.com/DARDARISMOA_1.pdf

²⁵ (...) es simplemente una poesía general de la acción de los seres vivos.(...) Paul Valery, Teoría poética y estética (1957) en Ed. Visor (1990).

²⁶ Alderik al dago generorik gabeko dantzaren, femeninoaren, androgino eta maskulinoaren artean? Dantza ez al da maskulinoa izan nagusiki, mundu maskulino batean, bere interpreteak zirenak zirela? Sally Banes, Substanceless Brutality en Before, between and Beyond. Three decades of dance writing. University of Wisconsin Press (2007).

²⁷ XIX. mendeko ballet klasikoan eta XX. Mendeko hasierako Diaghileven balletetan emakume zein gizon desira heterosexual eta homosexual maskulinoaren zerbitzura egon dira. Lynn Gara fola, Legacies of Twentieth-Century Dance Wesleyan University Press (2005).

²⁸ Euskal Herriko kultura ohiturak, praktikak eta kontsumoa 2007-2008 http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/est_hp/es_hp_adjuntos/EH-castellano.pdf

duen bitartean, antzokietan programatutako dantzak gutxiengo eta elite baten entretenimendurako arte bat izatearen estatusa mantentzen du emakumeak nagusi dituen ikusleria baterako.

Dantza garaikidea estigmatizatu egin da eta ez dakidana da genero-arrazoi batengatik izan ote den ala, are gehiago, dantza garaikideari buruzko aurreiritzi intelektual baten ondorioz izan ote den, non ikusleek “ulertzen ez dutela” esaten baituten. (4. elkarrizketa)

Dantzaren bazterrekotasun horrek isla zuzena dauka kultur arloko langilearen estatus sozialean. Dantzaren arloko sortzaileak kapitalismo kognitibo berriaren²⁹ langile immaterial eta moldakorraren etika berriaren irudi fidela irudikatzen du (mugikor, jakingura, berritzaile, independente, irudimentsu, autonomo, erakundeekiko kritikoa eta bizitzaren egitera dedikatzen duena), zeinak egonaldi artistikoetako sorkuntza eta etengabeko prestakuntza proiektuen kudeaketarekin, erakundeetako laguntzak eskatzearekin eta ikuskizunak banatzearekin eta kultura-eragileekin harremanak mantentzearekin partekatzea eskatzen duen ekonomia hegakor batean bizirik irauten duen kultura-merkatuan duen presentzia mantendu ahal izateko.

Ogibide honetatik bizi ahal izateko ate guztiak irekita eduki behar dituzu: interpretazioa, sorkuntza, pedagogia, ikerketa, mahaiak zerbitzatzea, yoga-eskolak eta beste mila gauza. (12. elkarrizketa)

Lanbide honetan denbora eskaini behar zaio fisikoki ahalik eta hobekien egoteko. Horrez gain, eszenatokiak bermatzen ez zaituen ordainsari bat bilatu beharko duzu beste nonbaiten. (13. elkarrizketa)

Lanerako moldakortasun horrekin batera behin-behinekotasuna, lanaren aldizkakotasuna eta ogibidea duina egingo duen aitortza juridiko eta lege-babes³⁰ baten falta datoz.

Ez dago proiektu baten ikuspeirik izaterik. Urte batetik bestera pentsatzeak, oraina bizitzearen ideia horrek, iragana justifikatuz eta etorkizuna asmatuz, ezegonkortasun itzel bat sortzen du. (10. elkarrizketa)

Estatu osoan, ogibide honetatik bizi ahal izateko, zeren ez da sorkuntza bakarrik, baizik eta jardueren arteko denboraren banaketa: edo bolok egin edo gauza berriak sortzen dituzu. Makineria uneoro martxan eduki behar duzu. (3. elkarrizketa)

Egun dantza Euskadiko Kultura-industriaren³¹ “arte eszenikoen” sektorearen azpisektore bat bezala aitortua badago ere, eskasia-egoera batean bizi da. Eta emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunei erreparatzen diegunean eskasia hori areagotu egiten da. Dantzaren sorkuntzaren arloan emakumeek eta gizonak agertzen duten berdintasun eza hori hasierako prestakuntza-fasetik ageri da. Goi-mailako dantza prestakuntzan emakumeek duten gehiengoaren ondorioz ondoko hautematea ageri da: emakumeentzat lanerako etorkizun zailagoa eta gizonentzat errazagoa eskaintzen duen sektore bat da dantza profesionala.

Nesken artean beti esaten genuen mutilek beti izango zutela paperen bat, askoz gutxiago direlako eta bai ala bai egon behar direlako presente. (12. elkarrizketa)

Eskolan mutil gutxi daudenez, horrek lanerako aukera gehiago eskaintzen ditu eta, halaber, arreta berezia bermatzen die eskolan dauden bitartean.

Ikasten nengoenean mutil bakarra nintzenez arreta berezia jaso nuen, matxismo-zio batengatik eta energiagatik (2 elkarrizketa)

Eskolan, emakumeekiko jarrera zen “beren kabuz moldatu eta ikasiko zutela”; gizonekiko jarrera zen, ordea, babes guztia eskaini behar zitzaiea aurrera egin zezaten”. (12. elkarrizketa)

Gorputzak eta portaerak diziplina eta errepikapen fisikoaren bitartez moldatzea dantza ikasketetako berezko ezaugarrietako bat da. Moldaketa hori lortzeko esplorazio propiozeptiboa egin beharra dago, bai eta jasotako mugimendu-patroiak eta genero-irudikapenak berreraiki ere. Prestakuntza fasea, dantza klasikoaren³² kanonak eta horri loturiko estereotipoak dira oraindik dantzarien gorputzak nolakoa izan behar duen zehazten duen eredu hegemonikoa: emakumea arintasunaren eta leuntasunaren ikur da; gizona, aldiz, indarraren eta muskulaturaren ikur.

²⁹ Paulo Virno, *Grammar of the Multitude: For an Analysis of Contemporary Forms of Life* (New York: Semiotext(e), 2004), 17. En Ramsay Burt, *Ungoverning Dance: Contemporary European Theatre Dance and the Commons* Oxford University Press (2017).

³⁰ “Artistaren Estatutua” sortzeko xedearekin 2019n sustatutako lege-agendari eta Kongresuko izapidetzeari egingandako aipamena.

³¹ Delimitación conceptual y definición de los sectores de las ICC en EUSKADI (pag.5) http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_ksi_mugaketa_2018/es_def/adjuntos/Delimitacion_ICC_EUSKADI.pdf

³² El valor social y político atribuido al ballet nunca ha abandonado su lugar como símbolo de una cultura europea de elite desde su origen en la corte francesa de Luis XIV. No sorprende, reproduciendo este modelo político de cultura, que también en Euskadi existen propuestas recientes para la creación de una Informe para una compañía nacional de danza clásica o Euskal Balleta http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/pv_danza/es_6620/adjuntos/danza_c.pdf

Estereotipoak betikotzen dituen lekua da dantza: gaztea, ederra, "neska gaztearen" sindromea, neska sentsuala. Erreala ez den sentsualitate bat, anorexikoa eta hotza. Eskolak eta merkatuak berak sustatzen dute hori. (3. elkarrizketa)

Dantza klasikoaren genero-estereotipo horiek emakume eta gizon dantzarien gorputzen tipologia idealizatu bat agindu eta berresten dute.

Gorputz eder eta estandarren estereotipoak dira nagusi dantzan. (1. elkarrizketa)

Goi-mailako egungo curriculum akademikoak ³³ ez du emakume eta gizon dantzarien irudikapen historikoarekiko kritikoa den genero-ikuspegiak jasotzen. Ikasleak dantzaren arloa genero-ikuspegi batetik kritikoki hausnartzera bultzatuko dituen helburu berezirik ere ez dugu aurkitu.

Ez da nire ikasketetan zehar berariaz aztertu den gai bat. (2. elkarrizketa)

Gorputzaren ideal "estandar" eta heterosexual horren nagusitasunaren aurrean, ikaslearen ardura da eredu kanonikoetara kognitiboki egokitzea eta, ondorioz, artearen arloa genero-ikuspegi batetik aztertzeo aukera irakasleen profil indibidualaren eta ikasleek autoprestakuntzarako ³⁴ izan ditzaketen aukeren mende geratzen da.

Nik ez nuen kanon femenino klasikoa betetzen, baizik eta maskulinoa agian (sendo, kilo gehiago). Beste lagun batzuk ziren printzesak: argalak, ez zuten pisurik hartzen. Adin horretan (hogei urte), estereotipoetan erori eta zure osasuna arriskuan jartzeko arriskua dago, gutxiago janaz esaterako. Gizon homosexual asko dago dantzaren arloan, baina estereotipo maskulinoa betetzea eskatzen zaie oraindik. Gizentasunak agerikoa izan behar zuen. (12. elkarrizketa)

Eskolatik atera ostean hasi naiz genero gaien inguruan kontzientziazatzen. (4. elkarrizketa)

Dantzarien prestakuntzaren barruan funtsezkoa den beste gai bat analisi eta sorkuntza koreografikoa da (zeinak, aldi berean, joko koreografikoan aplikaturiko ideia eta ideologien

dramaturgia-analisia eskatzen baituen). Beste behin, tradizioaren eta erreperitorioaren inertzia eta autoritatearen eskutik "gizonaren eta emakumearen" heteroarauetan oinarritutako narrazio-kanonak betikotzen dira.

Gorputz etereo, gazte, kaltegabe baten sentsualitatearen ideia hori, zeinaren arazoak "komunikazioa-komunikazio eza", "maite zaitut-ez zaitut maite" baitiren... Nahasmen horretatik atera beharra dago behingoz. (3. elkarrizketa)

Ikasketak egiten diren bitartean ere lehen casting esperientziak bizitzen dira: irakasleek beraiek gauzatzen dituzte, nagusi diren estereotipoetan oinarrituta.

Gure artean genion mutilek paperen bat izango zutela beti (-) Nahiz eta maila baxuagoa izan beti izango zutela paperen bat koreografian. Irakasleen arabera, alde handiak zeuden. Pertsonak baloratzen zituzten batzuek; beste batzuek, ordea, estereotipoak baloratzen zituzten. (12. elkarrizketa)

Dantza klasikoaren estereotipo eta kanon horren aurrean, XX. mendeko dantza modernoak espresionismo eta abstrakzio formalarekin bat egin zuen. Horrez gain, emakume koreografo ospetsuak agertu ziren eta hori guztiari esker, dantza klasikoaren genero-estereotipoekin apurto zuten. Estilo eta korronte ugari dantza horrek botere handia dauka egun, akademian zein dantzaren merkatuan antzeman daitekeena. Dantza garaikidearen hegemoniaren aurrean, autokritika agertu da berriz ere eta bere adierazgarritasuna ezbaian jarri da. Dantza garaikidearen zenbait sortzailerentzat dantza garaikideak mendetan ezarritako estereotipoak gainditu eta apurto baditu ere, beste batzuren ustez dantza garaikideak gizonen presentzia lehenesten jarraitzen du oraindik.

Dantza ikasten hasi nintzenean, eta lañoki agian, mugimendua eta dantza osagai abstraktuzat hartzen zituen zerbait zela uste nuen eta nire burua libreki adierazi eta generoarekin apurtzeko aukera emango zidala uste nuen: berdin zela neska ala mutil izatea. (3. elkarrizketa)

Berdintasun eza hori eredu klasikoan antzematen dut, baina garaikidean gehienbat: gizon indartsua eta akrobata; eta orain, gizon hauslea, bere alderdi femeninoa duena. Gizona,

³³ "Análisis y práctica del repertorio I" Dantzerti <http://www.dantzerti.eus/gestor/recursos/uploads/documentos/IKASGAIK/D/D.%201%C2%BA.-%20An%C3%A1lisis%20y%20pr%C3%A1ctica%20del%20repertorio%20I.pdf>

³⁴ Euskadiko arteari buruzko heziketa eskaintzen duten testuinguruak, genero-ikuspegiarekin: 'Perspectivas feministas en las producciones artísticas y las teorías del arte' ikastaroa. Koordinatzaile: Lourdes Méndez, UPV/EHUko Artearen Antropologiako Katedradun eta Xabier Arakistain edo Feministaldiak <https://feministaldia.org>

gizona, gizona. (12. elkarrizketa)

Gorputz dantzariaren inguruko ikuspegi eta politika ezberdin horiek guztiek gizarte- eta politika-haustura eta krisi bat agerian uzten dute dantza garaikide ezberdinetan egiten den generoaren irudikapenari dagokionez.

Errealitatea oso bestelakoa da, askoz ere trabestiagoa. Antzokietan “dantza garaikide” gisara eskaintzen dena errealitate oso urrun dago. Euskal Herrian emakumeak oso feministak badira ere, Euskadiko dantza gehienak ez du errealitate hori islatzen, errealitate oso urruti dago. (3. elkarrizketa)

Gauzak tokiz kanpo ikustea gustuko dut nik, kanonekin apurtzea. Gizon bat edo emakume bat “ez dagokion hori egiten” ikustea gustatzen zait. (5. elkarrizketa)

Ikuspegi kritiko horien eskutik, dantzaren arloko atea binarioak ez diren diskurtsoei ireki zaizkie, heteroarauak ezbaian jarriz sexuen irudikapenean, generoa osatzen duten identitate-aldagai ugarien (sexu, kultura-jatorria, sexualitate eta gizarte-maila) jariakortasun eta aitortzetik.

“Mugimenduak sexurik ez duela” dioen baieztapen inozo horri, alde batetik egia ez dena eta, bestetik, gorputza generorik gabe edo generoarekin jolastuz esploratzeko erreminta ederra dena. (3. elkarrizketa)

Akademiatik arlo profesionalera jauzi egitean zaletasun eta prestakuntza artistiko bat errealitatean kokatu eta kultura-testuinguru batekin eta arte-merkatu batekin lotu beharra dago. Zenbait emakumerentzat, jauzi hori egitean ikasketa akademikoak egitean bizi izandako berdintasun ezeko esperientzia errepikatu egiten da: emakumeen ordezkari eta partaidetza orekatu batek (edo emakumeen nagusitasun batek, ikasketa arautuetan gertatzen den bezalaxe) egiazko lekurik ez duela antzematen da.

Sorkuntza lantzen hasi nintzen inoren zain ez egoteko, emakume gisara zain ez egoteko. Gizonek aukera asko dituzte baina emakumeek borroka egin behar dugu paper bat lortzeko eta, askotan, onena izan ordez argalak, lodiak,

ilehoriak edo altuera jakin bat dugulako aukeratzeko gaituzte; arbitrarioa da dena. (12. elkarrizketa)

Dantzaren kulturaren balio-katearen ardatz nagusia ekoizpena da oraindik eta artistaren eta kultura-programatzailearen arteko harremanak funtsezko garrantzia dauka. Harreman horretan, kalitatezko lan orijinal bat ekoiztera behartuta dago artista baina, beste edozerren gaitetik, kultura-programatzailearentzat iritsi-erraza, justifikagarria eta komunikagarria izan behar du lanak.

Beraiekin duzun komunikazioa da garrantzitsuena, zure artea ulertu behar dute eta horretarako diskurtso indartsu eta argi baten laguntza behar du, programatzaileak zure nortasun artistikoa igarri behar du. (10. elkarrizketa)

Nortasun artistiko argi eta sendo bat komunikatzeko eskakizun horrek tradizionalki maskulinoak izan diren harreman-eredu eta balio ekoizkor batzuk erreproduzitzen ditu, non “balioak” genero-irudikapenei erantzuten baitien.

Nire ustez, dantzaren arloko sexuen arteko paritateaz haraindi, nire ustea da programatzaileek hautemate positiboagoa izaten dutela proiektu bat defendatzen duena gizon bat denean emakume bat denean baino eta sistema osoa gizakiaren alderdi maskulinoak berezko dituen balioetan egituratua dagoela: boterea, irmotasuna, indarra, afirmazioa... Ez dago zalantzarik, ez dago hauskortasunik. (1. elkarrizketa)

Artistei eskatzen zaien gardentasun horrek, baina, kultura-erakunde ³⁵ gehienek komunikazioaren opakutasunarekin kontrastatzen du: ez dago beren ildo estrategikoak biltzen dituen manifestu publikorik; beren langileen lanbide- eta prestakuntza-profilak ezezagunak dira; ez dago eskaintzen dituzten egonaldi artistikoak edo beren ildo pedagogikoa eta bitartekaritza artistikoa zehaztea xede duen dokumenturik. Opakutasun horrek, bestalde, ikuskizun eta entretenimendu tradizionalen gotor gisara (berrikuntza-proiekturik gabe kultura-zentroen kultura-kudeaketari dagokionez) antzokiek duten irudia berresten du.

³⁵ Antzoki asko udaletako webgune ofizialetan ezkatututa daude eta antzokiaren deskribapen teknikoak programazio artistikoa, kulturaren arloko ildo estrategikoak edo egituren arduradunen profil profesionalak baino askoz garrantzitsuagoak dira.

Emanaldietan baino ez da antzoki bat betetzen; zergatik? Beste eginkizun batzuk bete ditzake. Finantrazio-ereduak aldatu beharko genituzke, noski. Baina nire ustez tradizionalagoak diren beste eragile batzuekin (artistikoak edo kudeaketa arlokoak) solastu beharko luketen beste figura, beste ezagupen eta beste diziplina (antropologia, psikologia, soziologia..) asko behar dira kultura-testuinguru berri bat lortzeko. (8. elkarrizketa)

Erakunde-mailako opakutasun hori kultura-programatzaile gehienek dantzaren arloa ezagutzen ez dutelako gertatzen dela uste dute askok.

Programatzaile askok gure lana eta ogibidea ezagutzeko interes gutxi dutela ikusten dut. Asko teknikari edo funtzionario direlako iritsi dira lanpostu horretara baina ez dute sektorea ezagutzen. Edonork egin dezakeen lana dela dirudi baina ez da horrela. Arte-erakusketa bat antolatzen duen komisario batek bere ibilbide eta curriculum dauka. (5. elkarrizketa)

Prestakuntzari dagokionez dagoen hutsune hori antzoki askoren programazioetako kultura-edukietan islatzen da.

Konformismo gehiegi dago Euskal Herrian. Ikusle gehienek gustuko den hori baloratzen da bakarrik. Horren eragina nabaria da: arrisku gutxi, ahalik eta jende gehieni kausitzeko beharra eta ikusleria hezi beharra dago ere. (5. elkarrizketa)

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegitik aztertuta, kultura-programatzaileen % 35,70 emakumeak dira Espainiako Antzoki Sarean³⁶ eta % 44,8 Sarea³⁷ euskal elkartean; kristalezko sabaia nabaria da, ondorioz.

Nire ustez, emakume eta gizon koreografoen arteko genero-paritateko gai bat baino, dagoen arazo nagusia da kultura-politikan ditugun solaskide nagusienak gizonak direla, erakundeak zuzentzen dituztenak. Datu horiek dira azertu beharko litzatekeenak (3. elkarrizketa)

Sarea elkarteko antzokietako programazioak³⁸ (emakumeren bat buru duten proiektuen presentzia, % 48; horien emanaldiek emanaldi guztiekiko suposatzen duten portzentajea, % 45) agertzen duenez lidergoan gizonak baino

ez dituzten dantza-proiektuak daude (euskal dantza edo hiriko dantza), bai eta lidergoan emakumeen nagusitasuna (% 70-100) duten proiektuak ere (familiantzako dantza, zirkudantza). Antzokietan programatutako estilo eta generoen lurralderatze horrek genero-estereotipoen hautemate bat handitzen dute dantza ezberdinetan.

Dantza-formen, genero-ikuspegiaren eta merkatu-aukeren arteko harremanaren inguruko iritzi horrek bi alderdi nabarmentzen ditu: batetik, kultura-programazio askotan dauden kultura-balio hegemonikoak eta, bestetik, ez dagoela bitartekaritza-lanik edota genero-ikuspegia kultura-programazioetan txertatzen duen programatzailearik, artista eta ikusleei egungo gizarte- eta kultura-errealitate anitzaren inguruan hausnartzen ahalbidetzeko.

Dantza-programatzaile izateko artista izan beharra dago: ikusleria mugitu behar duzu, lengoaiak nahasteko begi ona izan... Lengoaia batzuk beste batzuekin infektatzea litzateke hoberena (3. elkarrizketa)

Dantza-ekoizpenaren arloa aztertuz, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna esanguratsua da profil eta rol ezberdineko sorkuntza-taldetan (artistikoak, teknikoak eta hedatzea). Koreografia eta interpretazioari loturiko eginkizunetan emakumeen eta gizonen arteko oreka badago ere, teknikoagoak diren lanetan (argiak, eszenografia) emakumeen presentzia gizonena baino askoz txikiagoa da.

Emakume diseinatzailearik ezagutzen al duzu Euskadin? Emakumezko soinu-teknikaririk ezagutzen al duzu Euskadin? Nik ez dut emakumezko teknikaririk ezagutzen. (1. elkarrizketa)

Jantziei eta banatzeari loturiko eginkizunetan, ordea, emakumeak dira nagusi. Banatze-eginkizunak betetzen dituzten pertsonen kasuan (emakumeak nagusi), ikuskizunak programatzaileei (gizonak, gehienak) hedatu eta saltzeko ardura dute. Testuinguru horretan, merkataritza-interesak, botere-posizio hierarkikoak eta emakumeen eta gizonen arteko desorekak bat egin eta emakumea baztertzen duten eredu sexistak erreproduzitzen jarraitzen dute.

³⁶ https://www.redescena.net/descargas/asociados/listado_asociados.pdf

³⁷ Sarea sareko antzokien zerrenda (2019)

³⁸ Dantzagintzaren Genero-txostena / Informe de genero de Industria de la Danza, Jemima Cano (2019)

Hori bai, programatzaileek duten boterearen eskutik gauza desatsegin asko entzun ditut (...); zuk zure ikuskizuna saldu nahi duzu baina beraiek dute boterea eta botere horretaz abusatzen da askotan. Berdintasun eza nabaria da hor ere. (5. elkarrizketa)

Dantzaren arloko ekoizpena defizitarioa da EAEn. Eusko Jaurlaritzak sektoreari ematen dizkion diru-laguntzen beharra dauka bizirik irauteko. Urterokoak eta dantza-ekoizpena diruz laguntzeko xedea dutela, diru-laguntzek dantza-konpainien finantzazio osoaren % 33,7 suposatzen dute³⁹. Etsipen handia dago sektore profesionalaren barruan, urtero ematen diren diru-laguntzak eredu ekoizkor bati erantzuten diotelako: “gehien saltzen duenak” diru-laguntza “handiagoak” lortuko ditu eta, honela, lehen mailako eta bigarren mailako konpainiak sortzen dira.

Isatsari hozka egiten dion arraina da: zer dela eta du konpainia horrek diru-laguntza hori? Antzezlanak munta ditzakelako; zer dela eta munta ditzake antzezlanak konpainia horrek? Diru-laguntza duelako (10. elkarrizketa)

Horrez gain, kultura-programazioen “estreinaldiatarako egarria” asetzeko ekoizpena babesten duen merkatu-dinamika bat dago ere. Baina bere ondorioz tamaina ertaineko antzezlanek, nahiz eta diruz lagunduta egon, zailtasun handiak dituzte normaltasunez zirkulatzeke eta merkaturako sarbiderik txikiena ere lortzeko.

Zeretik bizi da artista bat? Dantza-ikuskizunak sortzen badituz nik, dantza-ikuskizunetik bizi beharko nintzateke eta, osagarri gisa, bitartekaritza-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-lanak egin ere baina nire diru-sarrera gehienak nire ikuskizunen emaitza izan beharko liriateke. Zeren X-eko inbertsio publikoa jasotzen badut urtean, horrek eragina izan beharko luke nire emanaldietan. Ez badut emanaldirik lortzen, ekonomiaren zirkulartasuna apurtzen da. (10. elkarrizketa)

Bestalde, ekoizpenean nagusiki oinarritutako diru-laguntzen eredu batek dantzaren arloko profesionalak etengabeko heziketarako duten beharra albo batera uzten du, kultura-berrikuntzak halabeharrezko dituen etengabeko pizgarri eta arreta hori (tailer, ikerketa-foro eta/edo jaialdietan parte hartuz) aintzat hartu gabe.

Hutsune handia dago profesionalen etengabeko heziketan; ez dago diru-laguntzarik. Ez dago kanpora irteterik beste eredu batzuk aztertu eta hona ekartzeko. Guk ordaindu beharko genuke. Erreferentziak, beste eredu batzuk, beste esperientzia batzuk behar ditugu. Heziketarik gabe, ez dago aurrera egiterik (10. elkarrizketa)

Dantza-ekoizpena xede duten laguntza-modalitate ezberdinen artean, diru-laguntzen kategorian gora egin ahala emakumeen presentziak behera egiten du. 2018. urtean “Konpainiak egonkortzeko laguntza” jaso duten 8 konpainien artean, esaterako, emakumeren bat buru duten proiektuek (% 63) diru-laguntza guztien proportzio txikiagoa jaso zuten (% 55,8). Horrek esan nahi du emakumeren bat buru duten proiektuak zertxobait gehiago badira ere, proportzionalki bolumen txikiagoak direla gizonen bat buru duten proiektuak baino.

Dantza profesionalaren produktibitatea, aldi berean, bere interpreteen lan-baldintza hobereenen mende dago: eliteko kirolari baten errendimendu fisiko altuko lanaren baliokidea da askotan. Gaztaroari eta/edo indar fisikoari loturiko bikaintasun fisiko horrek, ondorioz, talka egiten du lana, amatasuna eta familia-erantzunkidetasuna bateragarri egiteko aukerarekin.

Dantzatzen duten pertsonen batez besteko adina osoa baxua dela ikusten dut. Zenbat daude 50 urte edo gehiagokoak? Seme-alabaren bat izanez gero gizarterako erabilgarri izateari utziko diodala da zabaldua dagoen hautematea (6. elkarrizketa)

Nire dantzari kide gehienek ez dute seme-alabarik. Erabaki pertsonalak dira baina ogibide honekin zerikusi handia duten erabakiak dira nire ustez (13. elkarrizketa)

Lana eta familia bateragarri egiteari dagokionez, emakume gutxi lortu dute. Emakume gehienek ez dute seme-alabarik. Euskadin, oso gutxi gara dantzaren arloko jarduna eta familia bateragarri egiteko aukera izan dugunak. (3. elkarrizketa)

Aldizkako lan-jardunak eta lurralde-mailako mugikortasunak ez dute beharrezko arreta edo bitartekorik jasotzen lana eta

39 (8. orr.) Arte eszenikoetako produktoreak (2010) in Kulturaren Euskal Behatokiaren Estatistika eta Azterketa Bilduma

familia bateragarri egin ahal izateko ase beharreko baldintzei erantzun ahal izateko. Honela, dantzaren arloko sortzaile askok seme-alabak izateko aukerari uko egin behar izan diote.

Nire dantzari kide gehienek ez dute seme-alabarik. Erabaki pertsonalak dira baina ogibide honekin zerikusi handia duten erabakiak dira nire ustez (13. elkarrizketa)

Gorputz eta egiteko modu berriak aurkitu behar ditugu. Nire bizimodua amatasunera nola egokitu den aztertu baina, errealitate berri honek zer nolako dantza-forma berriak ekar zitzakeen aztertu beharra dago (6. elkarrizketa).

Honela, kasu gehienetan seme-alabek jaso behar duten arreta eremu pribatutik estali egiten da, bikotekideen erantzunkidetasunaren eta edo familia barruko babes-sare inprobisatuen bitartez (aiton-amonak, lagunak). Bestela, ezinezkoa litzateke familia eta dantzaren arloko proiektu profesional bat bateragarri egitea.

Nire kasuan, datak oso mugatuak dira, zaila da kanpora irtetea. Ama nirekin eraman ala ez erabaki behar izaten dut. (6. elkarrizketa)

Dantza-konpainia asko bikoteak dira eta horrek asko errazten du lana eta familia bateragarri egitea. (3. elkarrizketa)

EAEko dantza eta arte eszenikoetarako sari bat (Gure Artea ⁴⁰ sari entzutearen antzekoa) ezartzeko beharra ez dirudi garrantzitsuegia sektore honetako profesionalentzat, beste aitortza-mota batzuk ere falta direla ikusita.

Sariak oso ondo daude baina zure lana egiteko baliabiderik ez baduzu, zer nolako aitortza jasoko duzu? Dantza gizarte-balio bat delaz ohartuko al da gizartea? (2. elkarrizketa)

Sariak ondo egon daitezke baina zinez behar duguna da ikusgarritasuna, eta sentsibilizazioaren eskutik. (4. elkarrizketa)

Dantza eta arte eszenikoetako proiektuen eta langileen iraunkortasuna sustatuko duten ildo estrategikoak zehaztuko dituen EAEko dantzarako plan integral ⁴¹ baten faltan, zaila da dantzaren gizarte-aitortza sarien bidez areagotzeko eta EAEko dantza eta arte eszenikoetako kritika akademikoa bultzatzeko beharra defendatzea.

Funtsezko galdera ondokoa da: interesatzen al zaie? Eusko Jaurlaritzari eta gizarte honi, zinez interesatzen al zaie? Interesatzen al zaizu aniztasun artistiko bat lortzea? Edo nahikoa al da distira berbera duten lau izen izatearekin? Edo nazioarteko biltzarraren batera joan eta artistentzako ditugun diru-laguntzak azaldu ahal izatea al da xedea? (10. elkarrizketa)

Ekoi-penerako, transmisiorako eta dantzaren arloko sortzaileen arteko trukeetarako EAEko lurralde ezberdinek dituzten egitura egonkor eta sendoen ⁴² arteko irregulartasunak eta aldeek asko zailtzen dute dantzaren garapen profesionala eta iraunkorra.

Hona iritsi nintzenean kultura-zentroetan bilatu nuen baina ez zuten parketik. Parketeko zorurik gabe ezin duzu dantza-eskolarik eman. Ezin baduzu dantza-eskolarik eman jendeak ez du dantzarik ikusiko. Eta jendea ez badao dantza ikustera, gizarte-balio txikiagoa dauka. Dantza eskolatik kanpo badago, ez bada haurren heziketaren parte beren harremanetan espresioa lan dezaten... Oso egoera prekariora da, dantzak gizarte-harreman ezberdinen garapenari egin diezaiokkeen ekarpenaren inguruko gizarte-baliorik ez baitago: hezkuntza, jarduera fisiko eta artistikoan... Baliorik ez badu, ezin da baloratu. (2. elkarrizketa)

Eusko Jaurlaritzak 1996. urtean sustatu zuen "Euskal Koreografo Berriak" bezalako programek (Dantzan Bilaka bilakatu da ondoren eta bere xedea da formatu txikiko ikerketa-prozesu koreografikoak babestu eta ikusaraztea) dantza-lan berrien aitortza handitu dute tokiko mailan baina ez dute EAETik kanpoko zenbait sarik (askoz mediatikoagoak direlako: Max sariak, Sari Nazionala, Madrilgo Jaialdia...) izan duten oihartzuna lortu. Ospe handiko sariren bat izan gabe eta EAEko dantza-sorkuntzari

⁴⁰ En cualquier caso, el Gure Artea (creado por el Gobierno Vasco en 1982) se ha introducido dentro del calendario festivo-folklorico de las artes en el contexto vasco. Es decir, su presencia de los medios de comunicación ha jugado y juega un rol importante en el Gure Artea de momento como noticia y habría que repensar hasta qué punto conviene esta exposición a la luz de los focos, o si por el contrario, la exposición a esta luz debería ser más duradera (...). Peio Aguirre, Informe GureArtea: un análisis sobre la coyuntura de un premio https://www.academia.edu/3437877/Informe_Gure_Artea

⁴¹ Kataluniako Dantzaren Plan Integralaren (2009) adibidea dugu. Dantzaren arloko ikerketa, sorkuntza eta ekoi-penerako abaguneak sortzea du xede, bai eta beren hedatzea bermatzea ere hiritar guztiek dantzarako sarbidea izan dezaten eta dantzak eta mugimenduaren arteek presentzia handiagoa izan dezaten esfera publikoan. https://dansacat.org/arxiu/biblioteca/pla_integral_de_la_dansa_definitiu.pdf

⁴² Egun, Dantzagunea (Errenteria) da EAEko dantzaren arloko sorkuntza sustatzeko ekipamendu publiko profesional bakarra.

buruzko kritika literario eta akademikorik gabe, egiazko aitortza merkatu-logikien eta/edo antzokietako programazioak eta ekoizpenerako laguntzak erabakitzen dituzten pertsonen (pertsona berdinak, askotan) mende geratzen da.

Ikusgarritasuna eta merkaturia berezko ezaugarri dituen dantza-sorkuntzako eredu honek, non kontsumoa eta entretenimendua nagusi baitiren, dantzak kultura-berritasuna sustatzeko eta gorputzaren beste ikuspegi batzuk kultura-sorkuntzan txertatzeko duen gaitasuna ezkutuan uzten du.

Badirudi gorputzen arteko harreman sentsuala dela dantzak har dezakeen forma bakarra, ez duela beste eremu batzuetara hedatzeko gaitasunik: espazio publiko, gizarte-harreman, historia, hezkuntza, kolonialismo, pentsamendu abstraktu eta antzekoetara, esaterako (3. Elkarrizketa)

Historia, egoera eta harreman ezagupen bat ahalbidetzeko dantzak duen gaitasuna ondoko ideiarekin kateatzen da: gizarte-harremanei dagokionez genero-ikuspegia ezarritako rol, balio, eta ekonomiak eta kultura egiteko moduak aldatzeko aukera gisa ikusten duena.

Hortik ere ari naiz “generoaz”: saldu beharko dugun produktu bat egin ordez, egiazki horizontalak diren beste testuinguru-mota batzuk sortu beharko genituzke agian, non ez bainaiz programatzailearen kontrol zorrotzaren pean egongo eta gure arteko harremana ez baiten merkantilista izango. Generoa, gutxiengoak aintzat hartzeko kontzeptu gisara; egin, antolatu eta ekoizteko beste era batzuen gisara. (10. elkarrizketa)

Kultura-bitartekaritza solas, truke, topa eta berritzeko eremu gisara, non hezkuntza, komunitate, ikuskuntza, partaidetza eta lankidetzak mailetako aldagaiak praktika artistikoekin uztartuko diren kultura-paradigma berri bat osatzeko. Paradigma berri horrek kultura ikuskizuntzat hartzen duen paradigma hegemonikoa ezbaian jarri du egun eta profesionalen arteko abagune xumeak eskaini ditu egun nagusi den “ekoizpen” eta “estreinaldiko” ereduaren aurrean alternatiboak izango diren praktika artistiko eta harreman berriak sortzeko.

Zenbaitetan, ikusleria heztea eta sentsibilizatzea xede izango duen proiektu bat garatzeko “beharrak” (“Konpainiak egonkortzea” modalitatean gertatzen da, esaterako) harrera negatiboa izan du eta behargabeko polemikak sortu ditu artearen balioaren eta kultura-bitartekaritzaren balioaren artean.

Nire ustez, sortzaile izateko baldintza gisa bitartekaritza egiteko beharra ezarri duten diru-laguntzek mesede gutxi egin diote bitartekaritzaren garrantzia nabarmendu eta beste eragile batzuk inplikatzeko aukerari. Nire ustez, egiteke dugu bidea eta berandu gabiltzala uste dut. Iruditzen zait beste arte batzuek barneratua dutela “lan bat sortu”, “dantzatzen ikasi” edo “ikusle izatearekin” zerikusirik ez duten bitartekaritza- eta hezkuntza-prozesuak garatzeko interesa eta potentziala eta uste dut aipatu prozesuek (bitartekaritza eta hezkuntza) artearen balioaren ikuspegiak eta zentzuak aldatuko ote ez dituzten beldur daudela batzuk. (8. elkarrizketa)

V. PROPOSAMENAK

Jarraian, eta txostenean jasotako datu, hausnarketa eta iritziak oinarri hartuta, proposamen ezberdinak planteatuko ditugu. Beren xedea da genero-ikuspegia dantzaren arloko balio-katean txertatzea, egungo EAEko dantzaren arloko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez dituen hutsuneak betetzeko.

1. Proposamena

Beharrezko bitartekoak esleitzea genero-ikuspegia Dantzertiko Goi-mailako Dantza Tituluaren curriculum irakasgaietan sartzeko.

2. Proposamena

Irakasleek duten prestakuntza zehatza komunikatzea eta ikusaraztea eta, beharrezkoa denean, dagokion prestakuntza eskaintzea Dantzertiko Goi-mailako Dantza Tituluko irakasleei genero-ikuspegia arte garaikidean eta, bereziki, arte eszenikoetan txerta dezaten.

3. Proposamena

Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak sartzeko dantzaren arlorako diru-laguntzetan, guraso diren dantzaren arloko sortzaileen mesedetan.

4. Proposamena

Genero-ikuspegia aintzat hartuko duen profesionalen erregistro edo datu-banku bat ezartzea, dantzaren arloko sektore ezberdinetako emakumeak eta gizonak ikusgarri egiteko. Erregistro edo datu-banku hori profesionalen esku egongo litzateke EAEko dantzaren arloa sustatzeko plataforma ezberdinen bitartez (esaterako, ADDE – Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte, Dantzagunea...).

5. Proposamena

Dantza-ekoizpenerako diru-laguntzetan, “emakumearen presentzia” balorazio-irizpidea berraztertzea eta rol profesionalen araberako puntuazio bereizi bat ezartzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

6. Proposamena

Antzoki publikoetako programazioaren ardura duten pertsonen prestakuntza zehatza komunikatzea eta ikusaraztea. Genero-ikuspegiari buruzko prestakuntza kritikoa ahalbidetzea arte garaikidean eta, bereziki, arte eszenikoetan.

7. Proposamena

Genero-ikuspegia txertatua daramaten irizpideak sartzea lan eszenikoak baloratu eta hautatzeko irizpideen artean.

8. Proposamena

Kultura-edukien eta komisariotza-praktiken (diskurtso estetikoaren inguruko programa espezializatuak) inguruko eztabaida publikoa sustatzea antzokietan, genero-ikuspegi kulturalak eta kulturartekotasuna dantzan eta arte eszenikoetan sustatzeko estrategia gisa.

9. Proposamena

“Artista egoiliarraren” irudia bultzatzea, agentzia sortzaile eta kritiko gisara kultura-programazioaren diseinuan eta ikusleria berriekin kultura-bitartekaritzako programak bultzatzeko. Genero-ikuspegia sustatzea eta ikusleria berriak sortzea izango da xedea.

10. Proposamena

Ticketing bat egitea, EAEko antzokietara bertaratzen diren emakumeen eta gizonen kopurua jakiteko.

11. Proposamena


Bitartekaritza-proiektuak sustatzea eskoletan, artista eta eskolen artean, “dantzaren artistentzako egonaldien” bitartez. Gazteekin genero-identitateak eta estereotipoak esploratzea izango da xedea.

12. Proposamena

Dantza ikertuko duten diziplina anitzeko ikerketa-taldeen (teoria-praktika) sorrera bultzatzea eta babestea unibertsitate eta zentro koreografikoetan, genero-ikuspegia duen literatura kritikoa sor dezaten.


13. Proposamena

Dantza eta arte eszenikoen erakunde-aitortza bermatzeko era egonkor bat ezartzea, dantza-ekoizpenen ospea eta hedatzea bultzatzea, kultura-balio eta EAEko gizarte-berrikuntzarako pizgarri gisara.



DANTZAREN industriako emakumeen eta gizonen **EGOERA** EAEn

JEMIMA CANO MARTINEZ



I. SARRERA

Ikerketaren helburu orokor eta bereziak

Jarraian aurkeztuko den azterlanak dantzagintzaren arloko emakumeen eta gizonen egoera aztertu nahi du. Finean, sektorearen diagnostikoa planteatu nahi da, kultur sektore baten -kasu honetan, euskal dantzagintza- errealitatea irudikatzea xede duen mapa osatzea. Horretarako, azterketa sakona egin beharra dago emakumeek eta gizonen arlo honetan zer nolako garapena bizi duten jakiteko. Lehenik eta behin, baina, zenbait termino eta esamolderen esanahia zehaztuko dugu eta, horretarako, azterlana bultzatu duen Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak ezarritakoari jarraituko zaio aktiboki inplikatu baita “emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak” deritzon horretan. Halaber, “genero”, “dantzagintza”, “adierazgarritasuna eszenan eta “genero-ikuspegidun programazioa” bezalako esamoldeak zehaztuko ditugu ere.

Aurreko idatz-zatian jasotako helburu orokorraz gain, azterlanaren ondoko helburu bereziak azpimarratu beharra dago ere:

- Dantza bezalako arlo feminizatu batean printzipioz gaindituzat jotzen den gai baten inguruan **argi ematea**. Izan ere lana, hedatze eta ikusgarritasunari erreparatuz arazoak daudela ikusiko dugu.
- **Ahotsa ematea** dantzaren arloko profesionalei, gaiaren inguruan hausnartzera eta beren iritzia ematera bultzatzea, zer nolako hobekuntza-ekintzak interesatzen zaizkien edo lehenesten dituzten ikusteko.
- **Neurri praktikoak proposatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna** epe luzera **bermatzeko**.
- **Dantzagintzaren ikusgarritasun eskasa salatzea**.

II. OINARRI-KONTZEPTUAK

Jarraian, azterlan hau egiteko erabili diren oinarri-kontzeptuak zehaztuko dira.

Genero-politikak

Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAE), Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak dio euskal aginte publikoek genero-ikuspegia beren politika eta ekintza guztietan txertatu beharra dutela eta, horietan guztietan, desorekekin amaitu eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarri beharra dutela. Genero-ikuspegia integratzeak esan nahi du “*emakume eta gizonen egoera, baldintza eta behar ezberdinak modu sistematiko batean kontuan izatea, eta ezberdintasunarekin bukatzeko ekintza eta helburu bereziak ezartzea politika guztietan, maila guztietan eta planifikazio, kudeaketa eta ebakuazio fase ezberdinetan*”.

Dantzagintza

Hasteko, Jesús Muñozek eta beste egile batzuek Wikandan jaso duten definizioa, oinarri gisa: “*Kultura industria da jarduera ekonomiko nagusia irabaziak lortzea xede duen kultura ekoiztea duten enpresa eta erakunde guztien multzoa*”.

Bigarrenez, Ramón Zalloren definizioa jasoko dugu: “*eduki sinbolikoko merkantziak ekoiztea eta banatzea xede duten industria-adar, -segmentu eta -jarduera osagarrien multzoa, jarduera sortzaile baterako sortuak, balorizatzen den kapital baten inguruan antolatuak eta, azkenik, kontsumo-merkatuetara zuzenduak erreproduzio ideologiko eta sozialeko eginkizunarekin*”. Laburbilduz, dantzagintzaz aritzean irabaziak lortzeko helburuarekin kultura sortu, landu, ahalbidetu edo banatzen duten entitateez (taldekakoak zein indibidualak) ari gara, kultura kontsumo-produktutzat jotzeaz edo ez jotzeaz haraindi.

Dantzagintzaren barruan jarraian zehaztuko ditugun profil profesional ezberdinak biltzen dira.

Programazio-atala

- **Programatzailea.** Aukeraketa artistikoa ildo estrategiko batzuri jarraiki egiteko ardura eta kaxeta, ordutegia edo emanaldirako espazioa bezalako gaiak negoziatzeko ardura duen pertsona.
- **Komunikazio burua.** Promozio-materialak edo prentsa-oharrak idazteko edo koordinatzeko, sare sozialetako profilak eguneratuta izateko eta hedabideekiko harremanak bideratzeko ardura duen pertsona.
- **Administrazio arduraduna.** Ondokoak dira bere eginkizunak: fakturak, kontratuak, ordainketak eta zuzeneko ikuskizunen kontratazioari loturiko izapide guztiak, jardueraren jarraipena bermatzeko beharrezkoak diren beste dokumentu eta protokolo guztiak.
- **Teknika arduraduna.** Ondoko ardurak ditu: ekipo teknikoak, riderrak, proben koordinazioa, muntaiak, zerbitzu tekniko enpresekiko harremanak koordinatzea eta, askotan, jarduerari loturiko gai teknikoaren ardura.

Eszena-gaien atala

- **Koreografoa.** Mugimenduen diseinuaren eta osagai koreografiko guztien ardura duen pertsona; kasu askotan, **eszena-zuzendariaren** eginkizunak betetzen ditu ere eta, horrenbestez, eszenaratzea, gaia aukeratzea, estetika, musika, eta ikuskizuna osatuko duten beste osagai guztiak erabakitzeko ardura izango du¹.
- **Antzezleak.** Ikuskizuna interpretatuko duten emakumeak eta gizonak; ikuskizuna zuzenean exekutatzeko ardura dute. Kasu honetan, eta laburbiltzeko, bost talde bereizi dira: osotasunean emakumez osaturiko antzezle-zerrenda; emakumeak nagusi dituen antzezle-zerrenda; emakumeen eta gizonen presentzia orekatua duten antzezle-zerrenda mistoak; gizonak nagusi dituen antzezle-zerrenda; eta osotasunean gizez osaturiko antzezle-zerrenda.

- **Teknika arduraduna:** diseinu eta/edo riderra erabaki eta, normalean, ikuskizunaren emanaldietan exekutatuko ditu; **esenografoa** da, lanaren osagai eszenografikoak diseinatu eta askotan eraikitzen dituen.
- **Musika edo soinu-espazioaren arduraduna,** alde zuzenean sortua izan zein zuzenean exekutatzeko bada ere. **Ikusizko** osagaien ardura izan dezake ere, ikuskizunean zehar bideo-osagaiak erabiltzen badira. Kanpoko begi edo ikusmira eskaini dezake ere sorkuntza-fasean zehar kanpoko profesional baten laguntza izan duten ikuskizunen kasuan.
- **Ekoizpen arduraduna:** ekoizpen artistiko osoa epea eta aurrekontua betez gauzatu eta exekuta dadin beharrezkoak diren ataza edo jarduerak arduratuko da.
- **Banatzeko arduraduna,** partaideen fitxa artistikoak lana saltzeko eta merkaturatzeko arduraduna zehazten duen kasuetarako.
- **Beste batzuk:** ikuskizunaren gauzatzeari lotuta egon eta arestian aipatutako profilekin bat ez datozen profilak.

Beste profil batzuen atalak eginkizun osagarriak baina aurrekoak bezain garrantzitsuak biltzen ditu (sorkuntza-espazioak, bekak, sariak, epaimahaikideak edo hedabidetako langileak). Atal honi dagokionez, **deialdi ezberdinetan diru-laguntzen banaketa erabakitzen dutenen sexuen araberako banaketa jasoko da**, berriak idazten dutenen sexuen araberako banaketa edo beren edukietan dantzari leku handia edo txikia esleitzen dioten hedabidetako zuzendarien sexuen araberako banaketa.

Generoa eszenan

Emakunderen glosarioaren arabera **generoa** “gizonak eta emakumeak desberdintzen dituen sinesmen, ezaugarri pertsonal, jarrera, sentimendu, balio, jokaera eta jardueren multzoa da eta gizarte-eraketaren prozesuaren bidez egiten da”; **sexua**, bestetik, “gizakia gizon eta emakume gisara definitzen duten ezaugarri biologikoen multzoa da”.

¹ Sorkuntzaren eremuko atazak aztertzea beharrezkoa zela erabaki da enplegu, ekintzailletza eta diru-sarrerei dagokienez duten pisua ikusita, kasu gehienetan EAeko dantza-ekoizpena beren kabuz lan egiten duten pertsonen elikatu baita.

Eszenari loturiko **adierazgarritasuna**, “pertsone baten izenean antzezteko gaitasunari” baino, “lagin zehatz bati buruzko zenbait gauza zorrotzaz islatzerakoan azalduko eraginkortasun-mailari” erreparatzen dio, hau da, emakumeen eta gizonen artean berdintasun handiagoa edo txikiagoa duen mundu bat eta gure egungo gizarteko sexu-identitateen aniztasuna islatzeko eszenak duen gaitasunari.

III. EAEKO DANTZAGINTZA KARAKTERIZATZEKO DATU KUANTITATIBOEN LABURPENA

3.1 Emanaldiak: programazio eta ekipoen sexuen araberako banaketa (2018)

Jarraian jasotako datuek dantzagintzaren balio-kate osoa osatzen duten egituretan (espazio publiko zein pribatuetan) emakumeek eta gizonen duten presentzia jasotzen dute. Ondoren, **erakustokietan** presente eta emakumeren bat buru edo zuzendari duten ikuskizunen kopurua aztertuko da **dantza-zirkuitu**tik hasiz eta hiru ekipamendu nagusien (Principal, Arriaga eta Victoria Eugenia) eta **jaialdi, azoka eta kaleko jaialdietako** programazioak aztertuz ere.

Horren ostean, **dantza ikusleen** artean emakumeek eta gizonen duten presentzia eta presentzia hori ekoizpen-sektorean, konpainietan zer nolakoa den ere aztertuko dugu. Bukatzeko, ondokoak aztertuko dira: **sorkuntza babesteko laguntzarik** (erakundeen diru-laguntzak zein sorkuntza-espazioen laguntza) jaso duten konpainietan, **sariren** bat jaso dutenen edo ohiko **hedabideetan** (prentsa eta telebista) **presentzia** izan duten horietan emakumeek eta gizonen duten presentzia.

3.1.1 Giza-taldeak

Erakusleihen diren, ikusleekiko iragazki diren eta dantzagintzarako bezero diren egitura horietako taldeen sexuen araberako banaketa aztertu aurretik esan beharra dago Eusko Jaurlaritzak ez dituela kontsultatutako egiturak kudeatzen. Ez dugu ekipamendu publiko guztien datuak lortu. Kontsultatu ditugun SAREA elkarteko 57 espazioetatik, % 77,97ak eskaini dituen datuak azaltzen dira.

● a) Espazio eszeniko publikoak

Programazioaren ardura duten emakumeek % 57,8 suposatzen dute. Komunikazioaren ardura dutenak 14 emakume, 15 gizon eta 4 talde misto dira. Emakumeek kasuen % 35ean betetzen dute kargu hori. **Administrazioen ardura duten pertsonen** sexuen araberako banaketari dagokionez: 33 emakume eta 3 gizon dira; **emakumeek gehiago osoa dute %84,62rekin. Arlo teknikoaren ardura duten pertsonen** sexuen araberako banaketa ondokoa da: 11 emakume, 21 gizon, 7 talde misto dira eta zerbitzua kanporatu duten bi espazio daude. Emakumeen presentzia % 28,21ekoa da.

● b) Espazio eszeniko pribatuak

3 entitate aztertu ditugu, zehazki: La Fundación eta Baratz eta espazio eszeniko pribatuak eta LeLabo sustatzaile pribatua. **Zuzendaritza- eta programazio-eginkizunak** espazio hauen buru diren emakumeek eta gizonen partekatzen dituzte. **Administrazioa** emakumeen ardura da, komunikazioa partekatua dago eta arlo **teknikoa** gizonena da. Espazio publikoetan antzemandako eskema eta ataza-esleipen berberak errepikatzen dira.

Jaialdi eta azokak

Programazioaren edo zuzendaritza artistikoaren **ardura duten pertsonen sexuaren** araberako banaketari dagokionez esan daiteke **dantza-jaialdi bereziek emakumeak edo talde mistoak dituztela buruan**. Hemen sartutako jaialdi generiko guztiek emakumeren bat dute zuzendari. Kaleko jaialdien % 33,33ak du emakumeren bat buru baina aurrekontu handiagoa duten horiek (Kalealdia eta Kaldearte) gizonen esku daude. Eta 2018n EAEn egindako azoken % 50ak emakumeren bat zuen buru.

● c) 2018ko programazioaren analisia

Sarea dantza-zirkuitua

Lehen azterketa batean deigarria suertatzen da 36 konpainien arteko % 45,71k **duela emakumeren bat zuzendari** lanetan baina zirkuitu honetan eskainitako

emanaldien kopurua aztertzerakoan portzentaje hori % 41,18raino jaisten da eta euskal konpainiek eskaintzen dituzten emaldiei erreparatzen badiegu, portzentajea **% 34,85**ekoa da. Hau da, gizonen bat buru duten euskal konpainiek emakumeenak baino **% 30,30** emanaldi gehiago dituzte. Laburbilduz, “gzonek **3,07 bolo** dituzte batez beste; eta emakumeek **2,09**”.

Eserleku eta aurrekontu handienak dituzten Principal, Victoria Eugenia eta Arriaga espazio eszenikoen programazioa aztertzerakoan ikus daiteke emakumeren bat zuzendari duten ikuskizunen presentzia % 20koa dela Arriagan, % 33,33koa Victoria Eugengan eta % 54,55ekoa Principalean ². Lekuz-Leku kaleko dantza jaialdiko programazioan proposamenen **% 60ak** emakumeren bat du buru edo zuzendari. Dantzaldiaren kasuan (2018n ez zen euskal konpainiarik egon), **% 37,50ak** baino ez du emakumeren bat zuzendari edo buru. Bi jaialdien arteko alderik nagusia maneiatzen duten aurrekontua da: honela, **ospe eta kaxet handiagoko konpainia handiak programatzen direnean (Dantzaldia) emakumeen presentziak behera egiten du**.

Dantza Hirian espezializatutako beste jaialdian, **emakumeren bat buru duten ikuskizunek % 21,05** suposatzen dute. Buruan talde misto bat dutenek, ordea, % 47,37 suposatzen dute.

Hirugarrenez, jaialdi jeneralisten programazioa aztertzen badugu (BAD Jaialdia, Bilboko Udaleko BLV Art eta inTACTO; emakume bat dute buru guztiek ere), emakumeen presentzia handiagoa agertzen duen programazioa **BAD Jaialdiarena da % 57,14rekin. Txikiena, aldiz, inTACTO, % 37,50arekin**.

Programazio eszenikoa arte eszenikoetako azoketan

Umore Azoka eta dFeria jaialdiek 2018n izan zuten dantza-programazioaren barruan emakumeren bat buru duten ikuskizunek presentzia orekatua agertu zuten: % 50 dFeria eta % 55,56 Umore Azokan.

Nahiz eta jeneralistak izan dantza-ikuskizunak eskaintzen dituzten kaleko jaialdien programazioan (Kalerik Kale, Rataplán, Kaldearte, Kaleka, Uda Giro, Kalealdi eta Kalerki batuz), emakumeren bat buru duten ikuskizunek % 47,06ko presentzia izan zuten; gizonen proiektuek % 26,47koa eta talde mistoenak % 26,47koa.

Areto pribatuetako programazio egonkorra

La Fundición da programazio erregularra, hilerokoa duen bakarra eta dantzak presentzia jarraitua dauka bere eskaintzan. Espazio hori Antzoki Alternatiboan Sariak Euskadin duen kide bakarra da eta urte asko daramatza dantza babesten programazioan zein egonaldi, truke-programa eta antzekoen bitartez. Datuek diote emakumeren bat buru edo zuzendari duten proposamenek % 41,18 suposatzen dutela.

Baratza areto pribatu eta baliabide-zentroaren kasuan programazioa eskasagoa da (5 asteburu urtean) eta dantzak ziklo bat eta zenbait proposamen solte okupatzen ditu beste asteburuetan. Guztira, programazioaren % 44,44ak emakumeren bat du buru edo zuzendari.

3.1.2 Ikuslerien sexuen araberako banaketa

Kontsultatutako hiru espazioek emakumeen presentzia handiagoa agertzen dute (% 65), gizonen aurrean (% 35), beren kideen artean. Dantza-ikuskizunetako ikusleriak aztertuz gero (ticketing-sistemak eman ditzaken datu zehatzen faltan), portzentajea % 80 inguruan dagoela ondoriozta daiteke. Ezin da baieztapen irmorik egin, ezin izan baititugu datu-baseak eskuratu baina programazioaren eta txartel-leihatilen ardura dutenek diotenez “askoz emakue gehiago bertaraten dira dantza-ikuskizunetara”.

² [Sarea elkarrean: ezinezkoa izan da azterketa koherenteren bat egitera Dantza-zirkuitutik kanpo espazio eszeniko gehienek ez baitute beren programazioa bidali, programaziorik egon ez delako Sarearen zirkuitutik kanpo (Danza Escena ekimenean parte hartzen duten espazio eszenikoen kasuan ezik) edo dantzaren arloko ekitaldiak beste erakunde batzuek antolatuta dituztelako (Gipuzkoako Nazioarteko Dantzaren Gala, adibidez). Lurralde bakoitzeko antzoki nagusienaren programazioa aztertu dugu bakarrik, sakontasunez: Principal Antzokia, Victoria Eugenia eta Arriaga.]

3.1.3 Ekoizpena: zuzendaritza artistiko/koreografia/beste batzuen generoa

Zuzendaritza

54 konpainiaren artean, **30ek emakumeren bat dute buru edo zuzendari**, hau da, % 55,56. Lurraldean araberako datuak aztertuz gero konpainia gehienak Bizkaian daude (28). Gipuzkoa oso gertutik dator (23) eta Araban askoz konpainia gutxiago daude (4). Bizkaian, konpainia gehienek emakumeren bat dute buru (% 71,43); Gipuzkoan, ordea, gizonek dute gehiago txikiagoa (% 60,86).

Profil profesionalak

Oinarri gisa 2018ko Sarea Dantza-zirkuituan sarturiko ikuskizunen antzezle-zerrendetako datuak erabili dira. **Oreka dago zuzendaritzari** dagokionez (emakumeak, % 50,98), **zuzendaritza teknikoan gizonak dira nagusi** (% 84,21), **oreka moduko bat dago jantziei** dagokienez (emakumeak, % 51,61), kanpoko begiradaren edo laguntzailearen -eszenaraterako, lanaren dramaturgiarako edo exekuzio koreografikorako aholkularitza aditua eskaintzen duen pertsona- eginkizuna gizonak betetzen dute nagusiki (% 66,66) eta **emakumeak dira nagusiki ekoizpen- eta banatze-lanen ardura** hartu dituztenak (% 72,22 eta % 81,25, hurrenez hurren).

Antzezleak

Proposamenen % 31,11n emakume dira antzezle guztiak edo gehienak; gizonak, proposamenen % 42,22an.

3.1.4 Sorkuntzarako babesak

Dantzagunea erakundeko Sortutakoak 2018ko deialdian esleitutako egonaldiak, eta 2018ko BilbaoEszena egonaldiak eta La Fundición, Baratza Aretoa, Azala y Azkuna Zentroa entitateen egonaldiak aztertu dira.

Urte horretako datuek diote Azkuna Zentroa, Bilbao Eszena eta Baratza Aretoa entitateetako egonaldietan ez zela emakumeren bat buru zuen proposamenik aukeratu. Dantzagunearen kasuan emakumeek % 16,67 suposatu zuten, Azalan % 36,36 eta La Fundiciónen kasuan % 45,45.

3.1.5 Sari, diru-laguntza eta beste batzuk

● a) Sariak

Dantzarako sari publikorik ez dagoenez Euskadin -euskarazko antzerki-testuetarako Donostia Saria eta antzerkia eta zezenketa aintzat hartzen duen Ercilla saria baino ez-, dantza profesionalaren arlorako **Estatu-mailan ematen diren sariak** aztertu ditugu.

Euskadiko sortzaileek 8 sari lortu dituzte, guztira, azken urteotan (Koreografia-lehiaketa, Max sariak eta Sorkuntzako Sari Nazionala bilduz). 6 kasutan gizon edo gizonen bat buru duen konpainia batek jaso du; kasu batean talde misto batek eta **azken kasuan, emakume bat buru zuen konpainia batek**. Dantzaren arlorako Estatu-mailako sarietan emakumezko euskal sortzaileek % 12,50eko presentzia izan dute.

● b) Diru-laguntzak

Eusko Jaurlaritzak dantzari eskaintzen dion babesak kultura-sorkuntza (sorkuntza koreografikorako deialdian), dantza-ekoizpena (bi modalitate) eta konpainiak egonkortzea ditu jomuga.

Sorkuntza koreografikoen kasuan esleitzen den zenbatekoa finkoa da (3.200 €) eta hautagaien kopurua aldeztatik finkatua dago (9 lagun). 2018n **emakumeek % 66,67 suposatu zuten**.

Dantza-ekoizpena 1 modalitatean babestutako emakumeek **% 66,67** suposatzen dute baina **Dantza-ekoizpena 2** modalitatean emakumeen portzentajeak **% 40**raino egiten du behera. Konpainiak **egonkortzeko** diru-laguntzei dagokienez emakumeek **% 62,50** suposatzen dute.

Dantzari laguntzea xede duten diru-laguntzak eskaintzen dituen beste erakunde bat **Etxepare Euskal Institutua** da (mugikortasuna sustatzeko). 2018n **biretarako emandako laguntzetan** oreka dago onuradunen artean: **proiektuen % 54,55ak emakumeren bat du buru eta % 45,5ak** gizonen bat. Jasotako kopuruei dagokienez, ordea, gizonak laguntzen % 69,56a jaso dute; hau da, **emakumeen bikoitza baino gehiago** jaso dute.

3.1.6 Komunikazioa

Ez dago dantzan espezializatua dagoen hedabiderik Euskadin. Suzy Q da Estatu-mailan dagoen bakarra eta 2018n euskal konpainia bakar bat izan zuen hizpide: Kukai. El País Estatuko egunkariak ez zuen euskal konpainia bakar bat ere aipatu 2018. urtean. Aurreko urtean, ordea, Kukai lau aldiz aipatu zuen, LaSala behin eta Olatz de Andrés beste behin.

Artez Euskadiko arte eszenikoen inguruko aldizkariak (Estatu-mailan banatzen da eta bere oihartzuna dauka ere Latinoamerikako merkatuan), berriz, euskal dantzagintzaren presentzia orekatua izan zuen (% 47,62).


EiTB erakunde publikoak dantzari eskaintzen dion arretak aipamen berezia merezi du: oso eskasa izan eta agenda-informaziora mugatua egoteaz gain, **emakumezko koreograforen bat edo emakumeren bat duten proposamenek % 28,57ko presentzia** izan zuten, gizonen % 71,43aren aurrean.

IV. ANALISI KUALITATIBOAREN LABURPENA

4.1. EAEko dantzagintzako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko sektorearen iritziak

Emakumeek eta gizonak dantzagintzan duten presentziari buruzko informazioa bildu ahal izateko elkarrizketak egin dizkiegu aukeraketa artistikoa egiten dutenei.

Programazioen zuzendaritzan emakumeen eta gizonen arteko ratorik ez ezartzea da joera zabalduena, horrek aukeraketa baldintza baitzezakeen. Orokorrean, kalitateari edo eduki artistikoari begiratzen zaio sexuari baino.



Zenbait kasutan adierazi dute bereizkeria positiboko irizpideak dantza edo eszena babesteko beste ekintza batzuetan aplikatzen dituztela (truke-programak, prestakuntza-jarduerak edo egonaldiak). Gizonen bat buru zuten konpainien kaxeta edo eskariak emakumeen konpainienak baino altuagoak ote ziren galdetu zaienean ezetz erantzun dute. Gizonen bat buru duten prezio altuko konpainia gehiago egon daitekeela adierazi dute baina Estatuan kaxetik handiena duten konpainietako zenbaitek emakumeren bat dutela buru.

Ikuskizunak ekoiztu edo saltzen dituzten pertsonekin landutako gai nagusiak ondokoak izan dira: beren berdintasun edo berdintasun ezeko egoerari buruz duten hautematea, eskaintza eta eskariaren arteko harremanen inguruko beren iritzia eta lan-baldintzak amatasun kasuetan. Emakume edo gizon izateagatik beren burua egoera abantailatsuan edo kaskarrean sentitu ote duten galdetu zaienean gizonak baietz esan dute, abantaila txikiak dituztela; eta emakumeek ezetz, baina beti izan dutela garbi gizonak lanerako aukera handiagoak zituztela eskaintza eta eskari hutseko gai baten ondorioz. Hastapenetako hautematea da gizon baino emakume askoz gehiago daudela eta errealtate horren ondorioz lehenek aukera gehiago izango dituztela dantzagintzan aritzeko eta bigarrenek aukera gehiago dituztela “bidean geratzeko”, elkarrizketatutako gizonetako koreografo batek erantzun zuen bezalaxe.

Elkarrizketatuetako baten ustez “pribilegio” hori aukeraketaz haraindi doa: gizonetako interpreteek arreta gehiago jasotzen dutela koreografoengandik, exigentzia baxuagoa dela beraientzat eta sorkuntza-espazioa “egun bizi dugun gizartearen isla krudela” dela.

Antzezleen inguruan galdetu zaie ere, sexuen araberako ratioak aintzat hartzen al dituzten edo bi sexuen presentzia orekatua lehenesten ote duten eta interpreteak beren sexuarengatik aukeratu ote dituzten. Zentzu horretan, elkarrizketatutakoen % 80ak esan du alde aurretik badakitela zeinekin lan egin nahi duten, sexuak ez duela inolako eraginik antzezleen aukeraketan eta oso muntaia gutxi egiten dituztela sorturiko lana zeinek interpretatuko duen buruan eduki gabe. Hautemate horren aurrean, beste %20aren iritzia: emakumeekin lan egitea nahiago duela dio (elkar-ulertzea eta bereizkeria positiboa dira horretarako arrazoiak).

Beste sexuko pertsona batek ikuskizuna erosi edo benetako bihurtzen duen horren (programatzailea edo epaimahaikidea) aurrean baldintza-berdintasunari buruz duen hautematearen

inguruan galdetu zaienean aldeak egon dira erantzunetan. Galdetutako emakumeen artean, zenbaitek diote baldintza berdinetan daudela, negoziatu, erreklamatu eta beren burua baliarazteko aukera berdinekin; beste batzuek diote, ordea, aginte-egituretan “kristalezko sabai” bat dagoela sentitzen dutela, edo zenbait karrera profesional markatuta daudela eskubide edo aukera berdinak ez izateagatik. Beren hitzetan, emakumeek adierazi dute “barkamena edo baimena eskatzen ari direla sentitu dutela, beraiei dagokiena erreklamatu beharrean egon ordez” (ibilbide profesional luzeko emakumezko koreografo baten hitzak). Zenbaiten ustez (% 35) eskarmentua falta zaie galdera horri erantzun ahal izateko, ez daudela prest, prestakuntza falta zaiela uste dute, aukera berdinak ez izatea beren gabezien ondorio dela emakume edo gizon izateaz haraindi. Esan beharra dago hautemate hori emakumeen artean dagoela zabalduago, gizonen artean baino.

Galdera hori banatzaileei egin zaienean agerikoa izan da sinesgarritasun handiagoa ematen diotela lanari zuzendari artistikoa gizon bat bada. Diotenez, “gizon sortzaileari aginte natural bat ematen zio, emakumezko sortzaile batzuek aipatua egunetik egunera borrokatu behar izaten duten bitartean”. Banatzaileek eskaini duten azken datu esanguratsua merkataritza-izaera handiko inguruei dagokie, arloko azoka eta ekitaldiei esaterako: pertsona batek baino gehiagok dio badagoela “gizon-emakume”, “saltzaile-erosle” motako botere-joko bat eta askotan boterea adinari lotua doala. Emakumeren bat esan du ere “sedukzioak eta gorteatzeak” beren papera jokatu dutela. Zentzu horretan, emakume batzuek diote egoera aldatu egin dela, “hobera egin duela”; baina, zenbaitetan, giro “zahitsua” dagoela oraindik eta oso zaila dela horren aurka borrokatzea.

Antzele edo koreografoei amatasunaren inguruan galdetu zaienean erantzuna garbia izan da: jaioberrien zaintzak emakumeen ardura izaten jarraitzen du; horrenbestez, oztopo izugarria da dantzaren arloan karrera bat bermatzeko. Aitatasunarekin ez da berdin gertatzen.

Galdetutako pertsona guztiek diote ezinezkoa dela ama izatea eta dantzaren arloan lan egitea, “oinarrizko babes-talde bat atzean” izan ezean: gurasoak eta aita-amaginarrebak, gehienbat.

*(*Ez da elkarrizketatuko emakumerik egon bere bikotekidea aipatu duenik)*

Konpainia txikien kasuan, emakumeek zein gizonek ama diren beren kideen egoera kaskarrak jabe direla aitortu dute eta behin eta berriz berretsi dutenez, barne-elkartasun horri esker soilik izan dute aktiboki jarraitzeko aukera.

4.2. Iritzi-artikulua

Kultura-kontsumo, kultura-industria eta generoari buruzko txosten asko irakurri ditudanez, gure egoera aztertzea errazago izango zela uste nuen. Baina zaila da dantzaren arlorako berezkoak diren arazo unibertsalak zehaztea eskari-eskaintza harremanaz (emakumezko antzezleak gizonezkoak baino gehiago dira) edo kaleko egunerokoan gertatzen denaren islez (estereotipo, botere-dinamika, sexu-ideologia edo gizarte-rolak) haraindi.

Erantzukizuneko lanpostu bat duen emakumea naizen heinean, ekimena eta agintea izateak ondokoen inguruan hausnartzera bultzatzen zaitu: zer nolako profesionala izan nahi duzun, zer nolako eredu dituzun eta zer nolako testuingurutan aritzen zaren. Aginte-estilo “maskulinoa” izatea edo “histerikotzat” hartua izateko arriskua izatea egun grinatsua duzunean; lan honetan gabiltzan emakumeok egunero bizitzen dugun erkaketa bat da. Lanpostu altuagoak dituzten gizonekin tratua izatea, balizko arrakasta profesionalaren edo amatasunaren artean aukeratu behar izatea edo gai estereotipatuak saihestea egunetik egunera aurre egin behar izaten ditugun gaiak dira.

Bestalde, kultura-kudeaketaren munduan erreferentziazko eredu femeninorik ez dagoenez baina mundu guztiak ezagutzen dituen emakumezko dantzari edo koreografo entzutetsuen kopurua handia denez ondokoa pentsa genezake: dantza-sorkuntza “feminizatutako” sektore bat izan daitekeela, emakumeak gizonak baino gehiago direlako edo “irudi femeninoagoa” duelako; baina dantzagintzaren errealitatea bestelakoa da. Emakumezko ekoizle, banatzaile, teknikari, diseinatzaile, eszenografo edo musikagileen izenik ezagutzen al dugu, apika? Existitzen ez direlako izango ote da? Ala gizonak, nahiz eta emakumeak nagusi dituen mundu batean egon ere, aitortza handiagoa edo ikusgarritasun altuagoa dutelako izango ote da? Ala kasualitatea izan al da azken urteotan aukeratutako dantza-zuzendari nazional guztiak gizonak izatea? Nekez.

Azterlan honetatik atera dudan lehen ondorioa da ez dagoela “euskal dantzagintzarik”. Ez dago enpresa-egiturarik, ez dago

estrapola daitekeen arrakasta-eredurik, ez dago berezko negozio-eredurik, ez dago merkatu egonkorrik eta oso urriak dira neurtutako adierazleak. Item horiek guztiak desiragarriak lirateke euskal dantza profesionala egiazko dantzagintza bilaka zedin. Baina atzean daudenei galdetzen zaienean behin eta berriz errepikatzen den iruzkina samingarria da: ez dago enpresa-irabazirik, hauskortasuna itzela da, ez dago negozio-planik eta ekipoen egituraketa oso eskasa da. Eta emakumeren bat buru duten konpainiak aztertuz gero, industria-errealitatea area okerragoa da.

Zio nagusia da ez dagoela eskaririk zirkuitu oso zehatz batzuek haraindi. Baina beste arazo batzuk daude: ikusle gutxi bertaratzen dira dantza-ikusketarako, "testuinguru" gutxi dago industria honen proposamenetarako.

Beste sektore sortzaile asko bezalaxe, errealitate-geruza asko dituen eta balio-katearen fase guztietan esku hartzen duen adierazpen artistikoa da dantza. Motor nagusia arlo profesionala (prestakuntza zein ekoizpen mailakoa) izan daiteke, zeinak bere espazioa kultura-ekosisteman, baldintza onetan lan egin eta sortzeko, ikuskizunak herriz herri aurkezteko eta erakundeen laguntzak jasotzeko bere eskubidea aldarrikatzen baituen. Industriad auzotzen garen ekonomia-trukeari, enpleguari loturiko datu horietara mugatzen dugu, ez dugu ikuspegi holistikoa edo integraletik aintzat hartzen; funtsean, finantza-alderdira murrizten dugu. Eta, izan ere, ikuspegi horretatik diot hain zuzen ere ez dagoela dantzagintzarik Euskadin.

Erakunde publikoetatik jasotako funtsak ez dira sektoreak bere kabuz sortzen dituen diru-sarrerak baino handiagoak; sorkuntza, ondorioz, sortzaileek beraiek finantzatzen dute.

Eta prekaritate horrek, pobrezia horrek, emakume aurpegia du. Zeren, kontzeptualki, gizonen aukera gehiago dituzte, emanaldi gehiago dituzte, sari gehiago jasotzen dituzte, zuzendaritza-karguak okupatzen dituzte, irakasle, aditu gisa gonbidatzen zaie; guri, askoz gehiago kostatzen zaigu iristea nahiz eta askoz gehiago izan.

Industriaren ideia egiazki barneratzailea izan dadin ikusmira berri bat behar dugu: ekonomiaz haraindi eta fluxonomia 4D³ delakoaren kontzeptuak barneratu beharko ditu, non finantza-balioa balioetako bat baino ez baiten izango, eta ez bakarra.

Paradigma fluxonomiko honetatik, lau dimentsio aipa ditzakegu: dantzaren baliabide ukiezinena -ezagupen, kultura eta sormena-; **gizarte**-baliabideena; **ingurumen**-baliabideena; eta **finantza**-baliabideena. Honela, dantzagintzak ondokoak izango lituzke: finantza-baliabideak (diru-sarrerak), ingurumen-baliabideak (espazio fisiko edo digitalak), gizarte-baliabideak (komunitate, jarraitzaile, sareak) eta baliabide ukiezinak (sorturiko kultura edo ezagupena). Horrenbestez, ikuspegi hori egiazki aplikatzen lortuko bagenu esan genezake egun ezagutzen dugun dantzagintza aberatsa dela baliabide ukiezinak dagokienez, gizarte- edo komunikazio-baliabide asko eta ugari dituela, gora egiten ari dela ingurumen-baliabideei dagokienez (dantzarako espazioak eta testuinguruak) eta prekarioa dela oraindik finantza-baliabideen arloan. Eta bere aberastasunak nabarmentzea eta ikusgarri egitea nahikoa izango litzatekeela dantzagintza motor fluxonomiko gisatzat hartzen duen ideia hori kohesionatzeko eta, hortik abiatuta, azkoz errazagoa litzatekeela premia larriak dituen finantza-baliabide horiek lortzea.

Horrek guztiak sexu-genero sistemarekin zerikusirik ez duela pentsa lezake norbaitek baina nire ustez erabat kontrakoa da. Ongizatearen ikuspegi feministak pertsonaren, auzolanaren, baliabide ezberdinen orekaren esfera guztiak integratzen dituen ikuspegia da eta sektorearen hautematean eboluzionatu ahal izateko funtsezkoa izango da emakumeen ikuspegia aintzat hartzea. Izan ere, genero-gaia berraztertze merkataritzatik ikuspegia eta finantza-ekonomia arloko ikuspegia berraztertu beharko dira ere. Egun nagusi den ikuspegia antropozentrikoa, maskulinoa eta kapitalista baita.

Aberastasunaren gainetik oparotasuna ulertu beharra dago, iraunkorra izan eta ongizatea barne hartuko duen oparotasun bat, non ingurumena aintzat hartuko baiten eta ekologia-arazoak zalantzazko -eta urrutiko- etorkizun baterako uztari utziko baitiogun. Izan ere, ikuspegi fluxonomikoa aplikatuz gero merkatuaren logiketan beren lekua aurkitu ezinik dauden dantzaren arloko emakume profesional ugariak ezagutza (ukiezinak) eta gizarte-baliabideak (sare eta taldeak) jartzeko aukera izan baitezakete.

Amaitzeko, lerro hauetan guztietan dantzarako proposatu dudana ikuspegi global hau poliedrikoa izateaz gain, gizazale amorratua da ere. Eta gizazalearen edo feminismo horrek gure beharrekiko sentibera izan behar du. Amatasuna, prestazio

³ (Fluxonomia 4D delakoa Brasilen sorturiko ikuspegi bat da. Sistema eta proposamenak 4 kontzeptu ardatz gisara hartuz aztertzen ditu; "aberastasuna" baino, "oparotasuna" bilatzen du eta zaintza, autokontrola edo iraunkortasuna bezalako aldagaiak biltzen ditu).

sozialak, etxeko erantzukizunak, segurtasuna edo jazarpena; izan ere, ongizatearen baitan inplizituki sartuta dauden gaiak ugariak direnez handinahia izan daiteke proposamen hauetan sartzen saiatzea; baina beharrezkoa da erabat.

Ondoriozta daiteke berdintasunerako politikak bidezkoak izan daitezkeela emakumeen eta gizonen ordezkari eta partaidetza orekatuari dagokienez baina errealtatea bidezkoa izan dadin ere, aipatu politikak barneratzen dituen kulturak "orekatua" eta progresista izan beharko du.

Bartzelonako konde-hiriko Genero-justiziarako planak dio ez dagoela proposamenik egiterik emakumeek -guztiek eta anitzek- esateko zer duten horri entzun gabe. Ni, nire aldetik, oso kritikoa naiz egindako elkarrizketen kopuruarekin, mapaketa urriarekin, edo ikertutako errealtatearen barruko pertsonekin aztertutakoa kontrastatzeko saio batek izango lukeen garrantziarekin. Izan ere, zentzu horretan daukadan arazoetako bat da egun nagusi den prekariedade horren ondorioz dantzaren arloko emakumeak polarizatuta daudela eta sektore-zentzuaren alde borroka eginaz, profesional gisa dituzten betebeharrak zabartzeko arriskua dutela. Nire ustez, erakunde-mailatik bultzatutako dinamika-aldaketa baten alde apustu egitea hasiera bat izan daiteke baina egiazko berdintasun bat lortzeko denbora behar da, borroka hau berezko sentitu behar dugu guztiok; esfortzuak eta zaintzak eskatzen ditu, "berdintasun" hori pertsonen bizitzera hel dadin (sortzaileen bizitzara heltzeaz gain, erabiltzaileen eta bideratzaileen bizitzara ere).

Egindako guztiak balioko duelakoan nago, inspirazio eta hausnarketa iturri izango delakoan eta erabakitzen dutenak eta dantzaren ekosisteman bizi diren pertsonak ahaldunduko dituelakoan. Eta hamarkada pare bat barru begirada atzera bota eta bizitzak hobera egin duela ikusiko dugulakoan nago edo, behintzat, bilatzen genuen lekuan gaudela sentituko dugulakoan nago.



V. PROPOSAMENAK

1. Amentzako egonaldiak

Egonaldien % bat seme-alabak beren ardurapean dituzten ama sortzaileentzat erreserbatzea: ordutegi, lanerako espazio eta bitarteko ekonomiko bereziak seme-alabak beren ardurapean dituzten amek deialdi hauetan parte hartzeko aukera izan dezaten.

2. Amentzako espazioak espazio eszenikoetan

Finantza-laguntzak eskaintzea, lehiaketen bitartez, beren lanerako espazioen arkitektura eta ekipamendua (espazio horretako langileentzat edo bisitan dauden langileentzat edo ikusleriarentzat) amen eta seme-alaben arteko bizikidetzarako, edoskitzerako eta beren programazioaren barruko ekitaldi zehatz batzuetan haurtzaindegi-zerbitzuak eskaini ahal izateko egokituko dituzten espazio eszenikoei (publiko zein pribatu).

3. Mutua zerbitzuak ama izan diren emakumeak eszenara buelta daitezen

Sektore-elkarteen bitartezko diru-laguntza zuzenaren bidez, ama berri izan diren antzezle edo sortzaileen behar fisikoak estaliko dituen mutua baten existentzia bermatzeko (lurralde historiko bakoitzean).

4. Dantza eta ongizatea

“Zaintzen teoria” aplikatzea, Colaborabora elkarteak iaz sortu zuen “SosteVIDAbilidad” izeneko gidaliburuaren erabilera sustatuz. Autoanalisirako liburuxka erraz horrek denboren erabilera egokia sustatu eta bizitza pertsonalaren eta kultura-ekintzailetzaren arteko oreka iraunkor bat bultzatzen du.

Gidaliburua sektoreko elkarteetan hedatzea, kontraste-saio bat antolatzea emakumezko koreografo, pedagogo, interprete eta beste ogibide guztiekin, kontzientzia areagotzeko xedearekin.

5. Mentoring: kristalezko sabaia apurtzea

Mentoring-programa bat ezartzea emakumezko sortzaile, koreografo edo konpainia buruarentzat. Beren gaikuntza hobetzea, ahalduntzea eta babes-sareen ehuna sendotzea izango da xedea.

6. Mentoring: belaunaldien arteko erreleboa

Mentoringa “dantzaren lan-merkatura” sartu berri diren gazteei: “senior” eta “juniorren” arteko topaketak bultzatuko liriteke. Truke-saioak antolatzea eszenan 20 urtetik gorako eskarmentua duten pertsonen eta hasiberrien artean. Xedea ez da gazteen sarrera kontrolatzea dantzaren mundura, baizik eta akonpainamendua eskaintzea prozesu horretan zehar (balizko arriskuez ohartaraztea, eskarmentutik aholkuak ematea).

7. Programatzaileentzako kontzientziazioa

Erostea edo saltzea baino enpatia sustatzea, beste “aldearen” dinamikak ezagutzea, oztopoak desagerraraztea eta benetako lankidetzaproiektuak sortzea xede izango duten topaketak antolatzea. Profilak gerturatzeko topaketa-une horizontalak bilatuko liriteke.

8. Ikusleriak: generotik konektatzen

Dantzaren profesionalen eta ikusleen arteko “tandembikoteak” antolatzea ikuskizunera elkarrekin bertara daitezen, bere aurretik kafe edo ardo bat edan dezaten eta transmisio bat eman dadin. Ikuslearentzat dantzarako bidaia inizatikoak izango litzateke arloa barrutik ezagutzen duen profesional baten eskutik; eta egiazko feedbacka eta kontrastea izango litzateke sortzailearentzat, dantzas gozatzen duen horrek dantza nola jasotzen duen ikusteko.

9. Dantza eta ikusgarritasuna: dantzaren (edo euskadiko arte eszenikoen) sariak

Euskal konpainia batek Estatu-mailako sari bat lortzeak orokorrean dakarren ospea eta horrek merkatuan duen eragina ikusita, euskal dantzaren sariak antolatzea da proposamena.

Gure Artea sarien tankerakoak izango liriteke, hau da, Eusko Jaurlaritzak deialdi baten bidez sustatuko lituzke eta ekitaldi publiko bat egingo litzateke sariak emateko.

10. Dantza eta hedabideak

Dantza Globala sustatzeko Plana diseinatzea komunikazio-irizpideak aplikatuz. Dantza sustatu eta ikusgarri egingo duten irratsaioak eta telebista-saioak, etab., bultzatuko lirateke.

11. Dantza eta hezkuntza: dantza eskolara eta familiak dantzara

Eskola-adineko adingabeak sentsibilizatzea eta hezteak. Eskolarekin hasieran mantendutako solasaldia zaila bada ere, aldundien ekarpena konstanteagoa balitz harreman eta lankidetzak hau egonkortu egingo zen, familientzako bitartekaritza-programa bilakatu arte, non haurtzarora eskolatik kanpoko ordutegian, aisialdian lotuko bait litzakeen dantzarekin.

12. Dantza eta nerabeak

Espazio eszenikoa proiektu amateur, partizipatibo edo nerabeen presentzia duten beste diziplina batzuentzako proiektuentzat irekiko litzateke.

13. Dantza eta young curators

Gazteen ikuspegia “dantza-kritika ofizialean” txertatzea. Bartzelonako Salmón Danza jaialdiko “*Stalkers*” proiektua kopia daiteke: nerabe-talde batek sektorearen jaialdi edo azoka ezberdinetara hiru urtez bertaratu, prestakuntza jaso eta zenbait lanen bilakaera jarraitzeko konpromisoa hartzen du. Honela, ikuspegi kritikoa -eta kuratoriala- ere garatuko dute.

14. Kultura eta dantzaren iraunkortasuna

Iraunkortasuneko irizpideak biren antolaketan edo sorkuntza-eta ekoizpen-eremuan txertatzea ariketa erraz bat da, kulturaren paradigma feminista batean bildua dagoena. Finantzazio publikoa jasotzen duten konpainia edo espazio eszenikoentzako gomendio-zerrenda bat osatzea, Erresuma Batuko Arts Council eta Julie’s Bicycle erakundeek bultzatu duten horren antzekoa. 2-3 urteren buruan, gomendio horiek betebeharrak bilakatuko lirateke.

15. Dantza eta ekologia: kalitate-zigilua


“Dantza berdea” zigilu bat ezartzea konpainia, proiektu edo espazio zehatz batzuek iraunkortasuneko irizpideak betetzen dituztela egiaztatzeko.

16. Dantza eta genero-nortasuna

Genero eta Gizarte Zerbitzuetako Sailarekin batera lan egitea beste sexu-adierazgarritasun batzuk azalduko dituzten proiektuak bultzatzeko. Ondorioz, sorkuntza- eta ikerketatildoko berriak bultzatuko lirateke, proiektu berezien komisario-lanak egin beharrean.


17. Dantza eta herritarren partaidetza

Dantza herrikiokiak talde soziodemografiko zehatz bat hartzen du, eta dantzatzeko musikak berdin. Une horiek herritarren partaidetzarako prozesuekin lotuko balira (atrebentzia gehiago edo gutxiagorekin), dantzaren eginkizun katartiko eta kolektiboa berreskuratzeko litzateke. Antzinako euskal erritua eguneratu egingo zen, bide gisa erabiliz apika baina horrek ez lioke inolako egokitasunik kenduko.



Euskarazko **LITERATURA**
ETA HITZEN sorkuntzako
emakumeen eta
gizonen **EGOERA**:

TERE IRASTORTZA GARMENDIA



1. SARRERA

1.1. NONDIK ABIATU ETA NORA JO

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eskaerak eman dio bidea ikerketa honi. Beste kultur esparru batzuetan egindako lanetan bezala (zinema, musika...), euskal literaturan emakumezkoaren ikusgarritasuna eta promozioa planteatzeko, industriaren ikuspegia eta sortzaileen ikuspegia ahalbideratu ditu.

Sortzailearen ikuspegitik, emakumezkoek idatzitakoaren sustapenari heltzeko orduan ere, emakumezkoen presentziari eta absentiari begiratzeko moduari erreparatuko zaio. Izan ere, emakumezkoen ikusgarritasuna bera ere lotua egoten da aurreiritzi kultural, sozial eta politikoetara. Horren harira, lanaren lehen zati bat, indarrean egon daitezkeen hainbat aurreiritziez aritzeko erabili da, horretarako, euskal emakume idazlearen definizioa osatzeko erabiltzen diren hiru kontzeptuei erreparatuz ¹ (euskal – emakume – idazle).

Lehen galdera bat da euskal emakumezko idazlerik ez ote den existitu Bizenta Mogelek bere lehen liburua argitaratu aurretik. Eta existitu direla arrazoitu ondoren, zergatik ez ote diren antzemanak izan oraintsu arte. Bigarrena da euskal emakumezko idazleek lanak argitaratu arren zergatik ez ote diren, gehiegitan, iritsi edo iristen aintzakotzat hartuak izatera, alegia, birsorkuntza fasera.

Azkenik, ondoriozta daiteke euskal emakumezko idazleak euskal letren historian zehar idazle eta gizarte eragile izan direla, gaur egun ezezagunak izan arren. Sistema baten gabeziez ez jabetzeak sistemari buruzko begirada partziala eskainiko duelako, ezinbestean.

1.2. ZEIN DA EUSKAL EMAKUMEZKO IDAZLEEN EGOERA

Euskaraz idazten duten emakumeen testuinguruaren azterketan, hurrengo puntuak nabarmentzen ditugu:

1. Idazlegai gazteen artean 325 neska gazte aurki ditzakegu, idazlegaien % 68,56.

Erreferentzia horretatik abiatzeko ikusmira ona eskaintzen du 1986tik 2018ra Urruzuno sariketan irabazle izan diren egile gazteen zerrendak. Batxilergoa amaitzeko garaian 474 idazle gazte euskal letren atea jotzen ari zitezkeen, prosan eta poesian bakarrik.

2. Euskaraz idatzi duten emakumeen batez bestekoa aldatu egiten da euskal letren historian zehar.

Euskal literatura osoa kontuan hartu eta XXI. mendera bitarteko ikuspegi hori kontuan izanda, ELERako zerrendaketak hasi aurretik erraza zen euskal literaturan gutxienez 150 emakumezko ari zela aurreikustea. Beste iturri batzuk (hainbat testu-antologia, blog, webgune) kontuan izanda, gutxienezko datu hori ziurtzat hartu izan da euskal literaturarako. Urte hauetako ibilbideari begira, 2011n Euskal Pen-Clubak 100 emakumezko idazlez osatutako kartela aurkeztu zuen lehenengoz. Gaurko egunetik gertuago, 2016, 2017, 2018. urteetan, EHUko Euskal Liburuen Apalean (ELA) aurkezten diren datuak ere izan daitezke beste mugarri bat. ELAko datuen arabera 60, 63 edo 70 emakumezko idazleren liburu berriak argitaratu dira, gutxienez, 2016, 2017 eta 2018 urteotan.

Baina argitaletxe literarioez gain, euskal literaturaren esparrutik kanpo ere emakumezko idazle andana ari da lanean, eta, baita zeharka, euskal literaturaren eragiten ere, batik bat azken hamarkadan, generoaren ikuspegitik. Alor guztiok kontuan hartuz definitu da, beraz, ELERako Euskal Letren Sistema, horretarako saiakera idazleak eta ikerlariak ere aintzat hartuz.

¹ Euskarazko emakume idazleen errealitatean oinarrituta dago azterketa, hori baita egilearen jakintza esparrua.

3. Euskal emakumezko idazleen soka ez da eten.

Eta adierazgarria izan daiteke, gerra aurretik sortu ziren euskal emakumezko idazleek ondorengoko emakumezkoekin lotura egitea nahiko nekeza izan zen arren, gerraosteko euskal emakumezko idazleen soka ez dela eten 70eko hamarkadatik.

4. 600 emakumezko, liburu eta saio espezializatuak idazten XXI. mendean.

ELERako egindako datu-irakurketa amaitzerakoan, eta hain denbora laburrean egindako ikerketaren ondorioz, euskal letretan idatzi duten 700 emakumezko idazle baino gehiago dituen zerrenda osatu da, XX. mendetik aurrera unibertsitateetako ikerketa eta tesi, testu-lanak eta sorkuntza-lanak kontuan hartuta, eta prentsa idatzia alde batera utzita. Beraz, esango genuke momentu honetan bizirik, gutxienez, 500 emakumezko ari direla liburuak eta artikulu espezializatuak idazten. Emakumezko horien artean ez dira XX. eta XXI. mendeetan hildako emakumezkoak sartzen, ez eta, libururik edo artikulu espezializatu aski ezean, kazetaritzan eta itzultzaile gisa aritu direnak ere.

Baina badira, gutxienez beste ehun emakumezko oraindik liburuak argitaratu ez arren beren ibilbidea osatzen ari direnak euskal letretan liburu kolektibo, proiektu eta sari bidez; beraz, 600 emakumezko euskal idazle bizirik eta idazten ari direnak XXI. mendeko lehen hogeitau urteotan. Beste hamabosten bat idazletzat kontsidera daitezke, ilustratzaile izateaz gain nobela grafiko, fanzine eta komikietan bidea egin dutenak.

5. Profesionaltasunaz

Hasieran oso emakumezko gutxik egin bazuten modu profesionalen idazle gisa aritzeko apustua, XX. mendeko azken laurdenean hasitako emakumezkoek idazle profesional gisa aritzeko bide berriak urratu behar izan zituzten prentsan, irakaskuntzan, gidoigintzan arituz, eta euskal letren sistema zabaltzeko orduan aukera berriak sortzen ere trebeak izan dira (txotxongilo, ipuin-kontalari, gidoigile, esatari, komikilari, hizlari...).

Argitalpen abiada bizkortu egin dute hamarkada batean euskal emakumezkoek, argitaratzen hasi eta etenik gabe jardunez, batez ere profesional bihurtu diren idazleek.

Emakumezko gehienek, idaztetik bakarrik bizitzea erabaki ordez, nahiago izan dute, idazteko oztoporik eragingo ez dieten lanbideak hautatzea. Horrek ekarri duelarik, aldi berean, euskal emakumezko idazleen obraren oparotasuna.

Bi bideak ez dira elkarren aurkari, eta, etenik eragin beharrean, guztien parte-hartzea bermatzen duen euskal letren sistemaren kontzeptua garatu behar da. Garbi dago, idazle profesional izateko helburua momentu ezberdinetan hartzen dela; gehienetan, idazle aitorpena lortu ondoren.

Emakumezkoek gizonzkoekiko duten aldea, batez bestekoan planteatuta, funtsean mende askotan eta azken hamarkadetan nagusiki, gizonzkoen artean eraikitako euskal letren sistema baten ikuspegitik egiten da. Zehatzago esanda, euskal literaturaren ikuspegi jakin batetik abiatuta. Ikuspegi horretan, industriaren alorrak du garrantzi handiena, liburu-argitalpenetik abiatzen denez. Hor ez dira, beti, autoedizioak aintzat hartzen, ez eta liburu kolektiboetan parte hartzen duten idazle berriak, ez eta eskola-antzerkia bezalako generoak, zeinetan emakumezko antzerkigileen parte-hartzea handia den.

Euskal emakumezko idazle profesionalak ere aintzakotzat hartzeko garrantzizkoa da amateur deitu ohi diren eremuetan idazten diharduten emakumezkoen berri jasotzea. Eta idazle profesionalaren ikuspegiak gain, baita idatzi ahala bizi diren eta bizi ahala idazten duten euskal emakumezko idazleen ibilbideak aztertzeke metodologia sustatzea, zeinetan, ehunekoak aztertzeaz gain, zerrendek ematen duten azterketa askotarako abiapuntua (Urruzunotarren zerrenda, idazle gazteen corpusa osatu eta ibilbidea jorratzeko; ahozko kulturatik ekarpenak egin dituzten informatzaileen zerrenda, presentzia gabeko emakumezkoak euskal letren eta euskal kulturaren sistematan txertatzeko...).

6. Euskal letren sisteman emakumezkoen aniztasuna eta sistema horretan jokatzen duten eta joka dezaketen egitekoak hartu behar dira aintzat.

- Emakumezkoen presentzia nabarmena dago **talde lanean antolatzen diren proiektuetan**, eta emakumezko asko idazten hasten da talde plataformetan.
- **Literatura-genero berrien edo proiektu berrien bultzatzaile.** Aldizkariak eta euskal prentsa, ipuin kontaketa eta txotxongiloak, literatura-generoak berritzeko saioretan (euskal zientzia-fikzioa, album ilustratuak,) Arte Ederretako formakuntza duen euskal emakumezko idazle asko haur eta gazte literaturan sartzen ari da.
- **Bere lehen lana ez da beti argitaletxe batean argitaratzen.** Garrantzizkoak dira sariketak eta ikerketabekak emakumezkoen lanak argitaratzeko. Autoediziora ere jotzen dute euskal emakumezko idazleek gero eta gehiago.
- **600 emakumezko euskal letren sisteman txertatzeko erronka,** euskal industriaren antolaketa neurri txikikoa izan arren. Eta hori kontuan hartuta antolatu da lan honen segidan euskal emakumezkoen liburuak sustatzeko plangintza.

7. Mugimendu baten hasiera: emakumezko kritikari eta saiakeragileak.

Azpimarratzekoa da emakumezko kritikariek eragin dezaketen mugimendua ere. Euskal Unibertsitateko Liburuen Apalategian (ELA) ageri diren erreseina batzuk baizik ez dira aztertu lan honetan. Datu horien arabera, euskal emakumezko argitaratutako liburuen % 30 inguru iristen da erreseina bat jasotzera. Arestian esanda bezala, zenbat eta liburuari buruzko azalpenak zientifikoagotzat hartu (literatura-historiak, adibidez) orduan eta presentzia gutxiago dute gainera. Emakumezko horiek eraberrri dezakete euskal letrei buruzko ikuspegia.

Ondorioz, **emakumezkoen liburugintza eta idazketa sustatzeko planak** zehatza eta epe jakin batera mugatu beharrekoa behar du. Baina, aldi berean, emakumezko


idazleen idazketa sustatzeko helburua ere badu. Hein horretan, bide berriei ekiteko marko teoriko bat planteatuz:

- Euskal emakumezko idazleen segidaren inguruko errelatorik ezin da sortu, informazioa sakabanatua eta zatikatua dago eta.
- Euskal emakumezkoak autore diren liburugintzaren historian oraindik ez dago elkarreraginez ondutako segidarik, apenas dagoelako elkar ezagutzarik. Puntu horretan antzeko egoeran gaude euskal literaturan, orokorrean.
- Oraindik ezin da esan emakumezkoen buruzko informazioa oso barreiatuta dagoenik.
- Gaur egungo euskal emakumezko idazleek ez dute lortu gizonezkoek lortu duten arrakasta sozial bera, eta ezin da esan emakumezkoak elkar irakurriz elikatu direnik ere.

2.SUSTAPEN PROPOSAMENA

2.1.EUSKAL EMAKUMEZKO IDAZLEEN SUSTAPENA


Atal hau emakumezko idazleen sustapenerako lagungarriak izan daitezkeen proposamenetan oinarritzen da; euren lanaren irakurketaren bitartez iritzia sortuz, gizartearen ezagutzara eramango dituen bidea izanik. Beraz, emakumezko idazleen aniztasunean eta sormen lanean arreta jartzea da gakoetariko bat.



Emakumezko idazleak euskal letren sistemaren alor guztietan sortzaile

EUSKAL EMAKUMEZKOAK LETRETAN: SORTZAILEON IKUSPEGIA AZALERATZEN

- Idatzi dutenenak
- Beste idazle batzuen iturri edo laguntzaileenak
- Argitaratu dutenenak
- Aipamen biogradikoak eta erreferentzialak



- Argitaratu diren lanenak (eta noren izenean)
- Argitaratze datak
- Lanen aipamen bibliografiko zeharzak
- Lanen laburpen-fitxak, hitz-gakoak, generoak
- Informazio paratestuala

- Hautatutako obren irakurketa
- Egile osoaren obrab kokatzea
- Egilearen biograafiarekin lotzea
- Egilearene ta obraren testuingurua

- Argitaratze eta idazte artean egon daitekeen aldea eta zergatiak
- Zenbat argitaplen izan dituen
- Zein harrera izan duen (debekuak, goraipamenak...)
- Norentzat idatzia izan den

Euskarazko letren sisteman emakume idazleen txertatzeak egoeraren **azterketa diakronikoa**² eta **sistemikoa** eskatzen du; edonola, emakumezko idazleen **presentzia euskal literaturan** eta XIX. mendeaz geroztikako **eboluzio kuantitatiboaren arrazoiketa posibleak**. Horrekin batera, emakumezkoen artean **gehien jorratu diren generoak** eta arrazoiketa posibleak aztertu beharko lirateke.

Ezinbestekoa da emakumezkoak euskal letretan **agertzearen edo ez agertzearen arrazoi posibleak** aztertzea, eta, horrekin batera, **noiz** (informatzaile gisa, kolaboratzaile gisa, ezizenez, idazle gisa...) **eta nola sortutako obrak diren deskribatzea** (ahoz emanak, idatziak, beste bitartekaritza batzuk: antzerkia, gidoigintza, IKTak...), eta horren inguruko marko teoriko bat sortzea.

Eginbeharren artean emakumezkoek sortutako **obra guztien bibliografia eta erreferentzien bilduma** ere balegoke.

Azken hurbilketa bat emakumezko idazleen **obra irakurketa informatzaile batetik abiatuko litzateke** (laburpena, literatura-generoa, hitz gakoak...), azkenik **obra jakinen irakurketa sakonetara helduz**. **Obra jakin horien lekukotasunak** emakumezko idazleen obran, garaian, euskal literaturaren historian, emakumezko idazleen artean... tresna baliagarriak izan daitezke emakumeek euskal letren sisteman integrazio normalizatua lortzeko.

2.2. EMAKUMEZKOOK IDATZI DUGUNA EZAGUTARAZTEN: AURREZ AURRE

Emakumezko idazleak sortzen. Formakuntza eta dibulgazioa. Idazle artean: zuzenketa eta tutoretza.

Araututako unibertsitate-sistemak ez du idazten erakusten, eta graduondoko gisa planteatzeak ematen du aukera, dagoeneko, adin batera iritsi den ikasleria batengana iristeko. Aukera hori ematen du Bergarako UNEDek tutelatutako **IDAZLE ESKOLA** titulu propioak. Kreditu ofizialik eman ez arren, irakasleen formakuntza gisa homologatua dago. Ez da

emakumezkoentzako idazle-eskola, baina emakumezkoak gehiago dira ia ikasturte oro. Bertan, ikasleak idazten, zuzentzen eta irakurtzen ikasten du idazle diren irakasleekin, eta tutoretza pertsonalaz baliatzen dira bi urtez.

IDAZLE ESKOLAko ikasleek amaiera-proiektu bat aurkeztu behar dute, eta idazle batek zuzentzen ditu.

SKOLASTIKA eskolak ere planteatzen du emakumezkoen formakuntza, baina batez ere irakurketa eta ikerketara bideratua dago. Nahiz eta euskal letrekin lotura izan, batez ere gatzeleraz ari da.

Gaur eguneko testuinguruan, **unibertsitateetan ikerketa sustatzea**, EHUⁿ AKADEME den bezala (2019), baina euskal letren sistema autonomoa aintzat hartuko duen sorkuntzara bideratua, ezinbesteko proposamena da.

Ikusgarritasun fisiko eta soziala. Idazleak irakurleekin: irakurketa-klubetarako irakurketa-gidak. Norbere gela propioak eta egonaldiak. Autobus ibiltari morea. Euskal emakumezko idazleen liburutegi edo artxiboa. Sortzaile ala sorgin, euskal emakumezkoen basoa. Irakurketarako espazioak eta natura.

Emakumezko idazleei buruzko hainbat galdera ere planteatu litezke; horien artean, zein emakumezko idazlek edo sortzailek eragin duen idazleengan... **GIDA PRAKTIKO**aren sorkuntza oinarriko tresna izan liteke emakume idazleen ikusgarritasunaren bermean.

Haur eskolak dituzten **Euskal Herriko hainbat herritan egonaldi luzeagoak antolatzea**, hiru-seihilabetekoak, **30 urte baino gutxiago duten emakumezkoentzat edota 3 urte baino gutxiagoko haurrak dituzten emakumezkoentzat**. Oraindik ibilbide profesionala osatu ez duten emakumezko askorentzat aukera ederra izan daiteke.

² Euskal literaturaren ezaugarri bakan bazuk bostehun urteotan.

Egonaldi horietan parte hartzen duten emakumezkoen kargu utz daiteke, adibidez, euskal emakumezko idazle batzuen irakurketa bideratzea, irakurle klubak sustatzea edo antzeko lan batzuk sustatzea.

Adibidez, udalerrietarako kultur-programazioaren alderdi bat, **irakurle klubekin koordinatua, autobus lila izan liteke**, hala nola emakumezkoen liburuak bertatik bertara **ikusteko, mailegatzeko eta kontsultatzeko** edo emakumezko idazleen zerrendatutako liburuak bertatik eskaintzeko eta irakurleen irakurketa-plan pertsonalizatuak lotzeko balio dezakeena.

Udalerrien ekarpena bizilekua eta haur eskolako kuotak ordaintzea izan daiteke.

Errazena Euskal Liburutegi Sareko liburutegietatik abiatzea izan badaiteke ere, garrantzizkoa da emakumezkoen presentzia aipatua eta ikusgarria izango den toki eta **erakunde nagusi** bat egokitzea ere.

Euskal Herriko emakumei buruzko dokumentazio-zentro ere bilaka daiteke, baina garrantzi handikoa da euskararen presentziaren bermatzaile izatea, eta Hezkuntza unibertsitarioarekin, irakaskuntzarekin eta ikerketan diharduten elkarteekin ere **lotura** izatea. Era berean, **gordailu** lan bat egin dezake, emakumezkoek idatzi eta jasotako eskuizkribu (eguneroko, gutun, irudi, ilustrazio), testu eta liburuen zuzenketa eta inprenta-probak, argitaletxeekin izandako kontratuak eta abar gordetzeko bidea aztertuz, emakumezkoen liburutegiak jasoz.

*IRAKURKETA BULTZATUZ SORTZAILEEN SUSTAPENA
BULTZATZEKO ESKEMA*



Emakumezkoek ez idazteko arrazoi objektiboen artean zentsura daukagu, eta euskal emakumezkoen eta euskal liburugintzaren aurka Inkisizioak eragin handiena izan zuen tokietako bat da Durango.

Era berean, euskal mitologiaren ikuspuntutik, Anbotok eta Anbotoko damak edo Marik duten erreferentzialtasuna ezinbestekoa da euskal imajinarioan.

Euskal literatura modernoa sustatzeko Gerediaga elkarteak eman duen bultzada garrantzitsua izan da. Ez dezagun ahatz, Durangon, Gerediaga elkarte sortu zuten hamabi laguneren artean izan zirela María Concepción Astola, Gerediaga aldizkariko zuzendaria, eta, harekin batera, M. Rosario Astola, Arrate Salazar eta Carmen Miranda.

Durango, Sara edo Zugarramurdi badira, beraz, ibilbide bat, sare bat, non euskal emakume idazleak presentzia nabarmena izan duen.

2.3. EMAKUMEZKOEK IDATZI DUGUNA EZAGUTARAZTEKO SARE SOZIALAK: NORBERE GELATIK WEBGUNE PROPIORA


Eredu baten ezaugarriak ³; idatzi dugunaren isla eta oihartzuna.

Edozein tokitatik irakurtzeko aukera eman dezake webguneak, eta euskal emakumezko guztiek idatzi dutenaren berri modu zehatzean eta metodikoan eman dezake; irakurzaletasuna sustatuko luke eta, datuez gain, datuen irakurketa globala irekitzeko aukera zabal dezake.

Webgune horren **xedeen** artean legoke:

- Euskal letren hasieratik dauden emakumezko idazleen erreferentziak eta testuak jasotzea, emakumezkoek sortuak bezala.
- XVI. mendetik hona euskaraz idatzi eta argitaratu duten emakumei buruzko informazioa dokumentatzea.
- Emakumezko sortzaileak nortzuk izan diren eta diren (gizarte maila, jatorri edo bizilekua...) biltzea.
- Emakumezko sortzaileek zein motatako lanak idatzi zituzten eta dituzten jasotzea.
- Emakumezko sortzaileen lanak nola zabaldu edo debekatuak izan ziren eta diren aztertzea.
- Emakumezko sortzaileon lanak nork irakurri zituen eta dituen, eta nola argitaratu izan ziren eta diren ere ikertzea.

Eredu interesgarria izan daiteke, besteak beste, BIESES izeneko datu basea, Espainian gauzatzen ari dena. <https://www.bieses.net/que-es-bieses/> ⁴



³ <http://www.idazten.com/emakumeak/index.php/eu/>

⁴ 2019-04-16an kontsultatua.



3. EUSKAL EMAKUMEZKO IDAZLEAK: BAGARA

Ikerketak planifikatu beharraz. Oinarrietatik konpreziara.

Marko teorikoan askotan azpimarratu den bezala, euskal emakumezko idazleen **azterketak sistematikoa, jarraia, zehatza** behar du izan. Hara hortxe gure zailtasun handienetakoa: euskal emakumezkoiei buruz eta zehazki idazleei buruz idatzi dena oso **barreiatua dagoela aldizkarietan**, eta, sarri, lanketa handia egin behar dela idazle jakin batzuen urratsak topatzeko. Horrek guztiak, berriro, **ikerketa beharrera** garamatza, arakatzeko oinarri batzuk adostu beharrera.

Erakunde bakoitzak euskal emakumezko idazleen zerrendak publiko egin beharko lituzke, abizen zein izenez, eta helburu bateratua lortzeko lagungarria izan daitekeen ekintza litzateke.

Ikerketa espresuki bultzatzen duten erakundeek, **unibertsitateek eta euskal kulturari diharduten erakundeek batez ere, agerian ez dauden emakumezkoen egiletza aurkitzeko eta aztertzeke ildoak** jorratzeko bideak sustatu beharko lituzkete: a) bildumagileak editore gisa erreferentziatuz; b) egiletza aitortuz; d) idatzi duten emakumezkoak testuinguruan aurkeztuz; e) euskal letren historian ondo kokatuz (datak, datu biografikoak, tokiak, lanbideak, ardurak...); f) gizonezkoek idatzitako obraren paratestuetan emakumezkoen aztarnak erreferentziatuz; g) hizkuntza-paisaia aintzat hartuz, eta toponimian eta izendegietan emakumezkoen arrastoak ere arakatzuz; h) ahozko iturrietan eta ipuin tradizioaletako pertsonaien artean, arkitektura zibil eta erlijiosoetan ageri diren emakumezkoen aztarnak azaleratuz.

Euskal emakumezkoak euskal letren sisteman: eragile. Sistemaren eragileen eta euskarazko idazleen arteko interkooperazioa. Euskal emakumezko idazleen lehen Kongresurantz. Euskarazko emakume idazleen institutua.

Emakumezkoek idatzi dutena irakurri idazlez idazle, eta **esan dutena, esan ahal izan dutena eta esan nahi izango zutenaz hausnartu eta euskal emakumezko idazleen entziklopedia bat osatzea**, birtuala bada ere (webgune edo webgune-sareak), egun eskuragarri samar dauden metadatuetatik abiatuz. Euskal emakumezko idazleen lehen kongresurako gai bat izan daiteke.

I. kongresu horretan **oraina lehenarekin alderatu eta etorkizuna sortzeko ahalegina burutuko genuke.**

Gaur egungo emakumezko idazleen **aniztasunaren lekukotasuna** emango luke, **idatzi duguna elkarren artean partekatuko genuke.**

Gaur egun zer idazten dugun eta nola idatz dezakegun hausnartu eta eztabaidatuko genuke, **aurretik** nola idatzi izan den aztertuz eta geure **emakumezko genealogia** aldarrikatuz.


Aurrera jarraitzeko nola antolatu aztertuko genuke. Dagoeneko abian den euskal letren sistema hobetu beharraz hausnartu beharko litzateke, baina baita emakumezko idazleak bai sorkuntza-lanaren ikuspegitik eta baita euskal letren sisteman eragiteko ere nola elkartu gaitzkeen aztertu (elkarte, auzolandegi, kooperatiba, modu fisikoan ala sare birtualetan, azoka bidez...).



LIBURUAREN

industriako
emakumeen
eta gizonen
EGOERA EAEn

AINHOA NOVO ARBONA



I. SARRERA

Ikerketaren helburu orokor eta bereziak

Ikerlan honen xede orokorra da Euskadiko liburugintzaren eta txikizkako liburuaren salmentaren 2017ko egoera genero-ikuspegitik aztertzea. Halaber, bi helburu berezi ditu: batetik, emakumeek eta gizonak 2017. urtean liburugintzan zuten egoera ikuspegi kuantitatibo eta kualitatibo batetik aztertzea eta, bestetik, emakumeen eta gizonen egoera ulertzea testuingurua eta Euskal Autonomia Erkidegoan egun duten presentziak izan duen bilakaera aintzat hartuz.

II. OINARRI-KONTZEPTUAK

2.1. Oinarri-kontzeptuak

Azterlan honek lantzen dituen bi oinarri-kontzeptuak zehazten dira atal honetan: editore eta liburu-saltzaile, hain zuzen ere. Beren definizioa ekainaren 22ko 10/2007 Legeak, irakurketari, liburuari eta liburutegiei buruzkoak zehazten du.

- Editore “norbere kontura literatura-, zientzia-lanak eta, orokorrean, edozein gairen inguruko lanak sortu edo aukeratu eta aipatua liburu bihurtzeko -euskarria dena dela- beharrezko industria-prozesu guztiak gauzatu edo agintzen duen pertsona natural edo juridiko oro da, beti ere xedea berau argitaratzea, hedatzea edo komunikatzea denean”.
- Liburu-saltzaile “ekonomia-jarduera bakarra edo nagusia azken bezeroari liburuak saltzea duen pertsona natural edo juridiko bat da. Balizko erosleei irispide libre eskainiko dieten merkataritza-dendez edo urruneko edozein salmenta-prozesuaz balia daiteke horretarako”.

10/2007 Legean jasotakoaren arabera, Estatuko Administrazio Orokorrak liburugintza eta liburuaren salmenta babestu beharra ditu, kultura-aniztasuna eta -dibertsitatea bermatu eta irakurketarako irispidea errazteko xedearekin.

Euskadin, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren eginkizunen artean kultura-industriak babestea dago. Liburugintzari dagokionez, honela, diru-laguntzak eskaintzen ditu urtean behin sortzaileei laguntzeko, beste diru-laguntza batzuk gazteei zuzenduriko euskarazko literatur-testuen, ipuin eta eleberri motzen edo lan grafikoen sorkuntzarako edo argitaletxeak zuzenean babesteko laguntzak (literatura-izaerako liburuak argitaratzeko laguntzak, esaterako).

2.2. Testuinguruan jartzea

Lege-esparru eta plan ezberdin batzuk badaude ere egun, liburugintzaren arloan genero-ikuspegi oinarritutako jarduerak gauzatzeko beharrak elkarte ezberdinen sorrera ekarri du zenbait autonomia erkidegotan. Horren adibide da Asociación de Mujeres del Libro de Asturias delakoa, liburuaren emakumeen mugimenduari lotua¹. 2018n sortua, argitaletxetan enpleguren bat duten emakumezko langile guztiak biltzen ditu (itzultzaile, ilustratzaile, administrari, editore, etab.). 2018ko eta 2019ko manifestuan jasotako aldarrikapenek hiru puntu nagusi dituzte hizpide: soldata arrakala, kristalezko sabaia eta lan-baldintzak (lana eta familia bateragarri egitea eta jazarpena).

Lege-esparruarekin eta mainstreaming-printzipioarekin bat, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak genero-ikuspegiarekiko duen konpromisoa argiro jasota dago kultura sustatzeko programaren 2019ko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren memorian.

Liburugintzaren arloan, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak bi laguntza-ildo ditu: gaztelarazko literatur-izaerako edizio-ekoizpenerako diru-laguntzak eta euskarazko literatur-izaerako edizio-ekoizpenerako diru-laguntzak. Diru-laguntzen xedea da euskarazko zein gaztelarazko edizio-planen argitalpen-kostuen zati bat ordaintzea. Diru-laguntza horiek 2019ko ekitaldirako arautzen dituen arauak dio eskariak baloratuko dituen batzordeak osaera paritarioa izango duela. Laguntzak esleitzeko batzorde horrek aintzat hartu beharko dituen irizpideak ondokoak dira:

- Edizio-planean sartutako lanen kultura arloko interesa (lanen kalitatea, lanen edukia, egileen ibilbidea eta Euskadik edota bertako biztanleek bizi duten errealitate kultural, sozial eta linguistikoarekiko lotura).

¹ <https://lasmujeresdelibroparamos.wordpress.com/>

- Argitaletxearen katalogoa eta ibilbidea (azken 10 urteetan argitaratutako lanak, azken 10 urteetan egindako berrargitalpenen kopurua, lanen banaketa).
- Proposatzen den edizio-planaren ezaugarri teknikoak eta aurrekontuaren egokitasuna.
- Euskadiko argitaletxeen eta literatur-ekoizpenaren egoera genero-ikuspegiari dagokionez nolakoa den ikusi ondoren, gomendagarria izan daiteke apika horri loturiko irizpide ezberdinak sartzea diru-laguntza hauetan, edizio-planari edo argitaletxearen ezaugarri lotuta.

Liburu-denden arloan, Kultura eta Kirol Ministerioak 120.000 euro eta 310.000 euro bideratu zituen 2017n eta 2018n, hurrenez hurren, kulturaren balioa handitu eta liburu-dendak modernizatzeko. Irizpideek ez dute berariazko neurririk jasotzen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez.

III. EAEKO LIBURUGINTZA KARAKTERIZATZEKO DATU KUANTITATIBOEN LABURPENA

3.1. Datuen Inguruan

Orokorrean, edozein arlo genero-ikuspegitik aztertzeo bigarren mailako iturriak nagusia Emakundek urtero egin eta Eusko Legebiltzarrean aurkezten duen Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko datu-txostena da. Liburugintzaren eta liburu-denden arloa, baina, oso espezializatua dagoen arlo bat da eta ez da berari buruzko sexuen arabera daturik jasotzen sistematikoki. Ondorioz, zailagoa da egoeraren gertuko diagnostiko bat egitea.

Liburugintzaren inguruko beste iturri garrantzitsu bat Euskal Autonomia Erkidegoko Argitalpenei buruzko XXIII. Txostena da, genero-ikuspegiari oinarritutako zenbait aldagai jasotzen baititu. 2017ko barne-merkataritza. Euskal argitaletxetan lan egiten duten pertsonen kopurua jasotzen du, sexuen arabera. Honela, liburugintza genero-ikuspegitik aztertu ahal izateko EUSTAT erakundea bezalako beste iturri batzuk kontsultatu dira eta aldagai berriak sortu dira diru-laguntzen ezaizpenak edo argitaletxe elkarten webguneak aztertu ondoren.

3.2. Argitaletxeak, osaera

Liburugintzaren ezaugarri nagusietako bat bere aldakortasuna da. Honela, azken 20 urteotan 2017 eta 2018ko kasuaren antzekoak eman dira, non argitaletxeen kopurua ez baitzen 150era iristen; edo 2011ko kasuaren berdinak, non 170 argitaletxe baino gehiago baitzeuden. Azterlan honetarako erreferentziako urtea 2017 denez, aipatu beharra dago 142 argitaletxe zeudela urte hartan: 13 Araban (10 Vitoria-Gasteizen), 63 Gipuzkoan (40 Donostian) eta 76 Bizkaian (43 Bilbon).

Azterketa mugatzeko xedeetarako aipatu beharra dago Eusko Jaurlaritzako gaztelerazko eta euskarazko literatur-izaerako argitalpenentzako diru-laguntzaren bat jaso duten argitaletxeak aztertu ditugula bakarrik. Diru-laguntza horiek jaso ahal izateko zehaztutako irizpideek ibilbide sendoa, gutxieneko argitalpen-kopuru bat eta antzekoak eskatzen dituzte.

- Euskarazko argitalpenentzako laguntzen zuzkidura 511.800 eurokoa da eta aztertu diren hiru edizioetako (2016-2018) baten batean 20.000 euro gutxienez jaso dituzten argitaletxeak hartu ditugu aintzat. Baldintza hori betetzen dutenak 10 dira eta horietatik 3k emakume bat dute editore nagusiaren eginkizunetan.
- Gaztelerazko literatur-izaerako argitalpenentzako diru-laguntzek 9 et 13 onuradun bitartean izan dituzte aztertutako hiru edizioetan (2016-2018). Finantzazioaren % 70a, baina, lau argitaletxera bideratu da eta bere editore nagusiak gizonak dira.

Genero-ikuspegitik egindako liburugintzaren analisisan eragiten duen bigarren ezaugarria argitaletxeen tamaina da (langile-kopurua). Euskal Autonomia Erkidegoan egon eta informazioa helarazi diguten 103 argitaletxeetatik ia erdiak, % 47,6ak langile bakarra zuen. Argitaletxeen % 9,7ak baino ez zituen 10 langile baino gehiago.

Batez besteko tamaina 4,4 enplegatu dira. Hautaketa-prozesu korapilatsuak aplikatzen dituzten industria handiak izan beharrean, gizarte-harremanetan oinarritzen dira gehienbat langileak kontratatzeo. Honela, Euskal Autonomia Erkidegoko Argitalpenei buruzko 2017ko Txostenak langile-kopurua eginkizunen arabera jasotzen badu ere, ezinezkoa

da aldagai hori langile bakarra edo pare bat baino ez dituzten argitaletxeen % 50ean aplikatzea. Txostenaren datuen arabera argitaletxeetako langileen % 50,6 emakumeak dira eta administrazio eta giza balibideak kudeatzeko lanei erreparatuz gero portzentaje hori % 57,3raino igotzen da. Emakumeak argitaletxeetako langileen % 50 badira ere proportzio hori baxua dela esan genezake, argitaletxeetarako langileak eskuratzeko oinarri potentziala letrei eta literaturari loturiko graduetan dagoela aintzat hartzen badugu.

Unibertsitate-eremuko ikasketa horietan emakumeek % 60a gainditzen dute, euskal filologia eta kazetaritza graduetan izan ezik. Itzulpengintza eta Interpretazioa edo hizkuntza modernoetako graduetan, aldiz, 10etik 8 emakumeak dira. Ikasketa-arlo feminizatuak dira, orokorrean.

Argitaletxeen aldakortasuna ikusita zaila da beren zuzendaritzetan dauden emakumeen eta gizonen datu zehatza jakitea. Datu batzuen arabera, baina, esan daiteke enpresaren % 40ak osatzen duen paritate-printzipiotik urruti daudela, argitaletxeak Euskadiko argitaletxe elkartetan ordezkatzan dituzten emakumeek duten presentzia ikusita. Bi elkarte berei ditzakegu: Euskal Editoreen Elkarte eta Euskadiko Editoreen Elkarte.

- Euskal Editoreen Elkarteko zuzendaritza-batzordeak oreka agertzen du bere osakerari dagokionez. Argitaletxeak elkartean ordezkatzeko ardura, ordea, gizonena da nagusiki: argitaletxeetako ordezkarian % 30 baino ez dira emakumeak.
- Euskal Editoreen Elkarteak liburuak gomendatzeko gidaliburu bat argitaratzen du urtero. 2017n elkarteak argitaratu zuen helduentzako literatur-lanen gidaliburuak 21 lan jaso zituen: 10ek emakumeren bat zuten egile. Haur eta gazteentzako literatur-lanen gidaliburuak, bestetik, 33 lan jaso zituen: 15ek emakumeren bat zuten egile, 17k gizonen bat eta lan batek emakumezko eta gizonetzko egile bana zuen.
- Euskal Editoreen Elkarteko kide asko Euskadiko Editoreen Elkarteko kide dira ere. Presidentea gizon bat da egun. Emakumeen presentzia ez da oso ohikoa elkarte mota honetako zuzendaritzan: Espainiako Editoreen Elkarteko zuzendaritza-batzordea 11 pertsonen osatzen dute eta bakarra da emakumea.

3.3. *Liburu-dendak*

Hasteko, esan beharra dago liburu-denden kopuruak agertzen duen bilakaera ez dela argitaletxeena bezain aldakorra; halere, azken urteotan beherakada jarraitua antzeman da liburu-denden kopuruan (2009n, 520; 2018n, 326).

Liburu-denden kopuruari eta hiriburuetan agertzen duten kontzentrazioari dagokienez, aldeak esanguratsuak dira. Honela, Araban 40 liburu-denda daude (guztien % 12,3; 34 Vitoria-Gasteizen), Gipuzkoan 125 (guztien % 38,3; 43 Donostian) eta Bizkaian 161 (% 49,4; 60 Bilbon).

Liburu-denden kasuan egonkor mantendu den gai bat langileen artean dituzten emakumeen proportzioa da. Argitaletxeetan ez bezala, azken urteotan liburu-dendetako 10 langileen artean ia 7 emakumeak ziren.

3.4. *Argitaletxeen ekoizpena genero-ikuspegitik*

Euskal Autonomia Erkidegoko Argitalpenei buruzko XXIII. Txostenaren arabera, 2017n 3.436 liburu argitaratu ziren guztira. Gai eta hizkuntzaren arabera sailkatu ziren, ez ordea egilearen arabera. Informazio hori genero-ikuspegitik osatzeari begira, egileen eta argitaletxeetako itzultzaileen datuak genero-ikuspegitik aztertu dira. Argitaletxeen aldakortasuna dela eta, aukeraketa bat egin da beren edizio-ekoizpena aztertzeko, ondoko irizpidetan oinarrituta:

- Argitaletxearen sendotasuna: Euskal Autonomia Erkidegoan egon eta beren ibilbidean 100 ISBN baino gehiago dituzten argitaletxeak bakarrik; 65 argitaletxe.
- 2017n aktibo zeuden argitaletxeak: urte horretan ISBN-dun libururen bat argitaratu zutenak; 27 argitaletxe.
- Beren lanetan inolako egilerik jasotzen ez duten argitaletxeak alboratu dira.

Aukeraketa-prozesu horren ostean 27 argitaletxeren edizio-ekoizpena aztertu zen ISBN-erregistroaren bitartez. Ondoko alderdiei erreparatu zitzaion: egilea (emakume edo gizon, bi emakume edo bi gizon, bi emakume edo gizon baino gehiago), hizkuntza, gaia, formatua (papera, kartografia eta elektronikoa), salneurria eta lan orijinala ala itzulpena ote den.

Azterketak ez ditu ilustratzaileen lanak aztertu.

- Datu basean aztertutako 2017ko 1.114 tituluaren artean 581ek (% 52,2) egile bakarra zuten, 263k (% 23,6) bi egile eta 270ek (% 24,2) bi egile baino gehiago zuten edo ez zuten pertsona fisikorik egile gisara.
- Egile bakarra zuten 581 argitalpenetik, % 34,1ak emakumeren bat zuen egile.
- Fikzioaren barruan, helduentzako literatur-lanen artean % 37,5ak emakumeren bat du egile; haur eta gazteentzako literaturari dagokionez, emakumezko egileek % 40 suposatzen dute.
- Emakumeen presentziak gai bakar batean gaintitzen du % 50a: haurrentzako ikaskuntza (% 68). Nolanahi ere, haurrentzako didaktikako argitalpenen % 34 baino ez dute suposatzen.
- Giza zientziak eta Historia (% 16,7) eta Zuzenbidea (% 8,1) arloetan emakumeen presentzia ez da % 20ra iristen. Beste zenbait arlotan ez dago emakumezko egile bakarra duen libururik (Arteak, Hizkuntza, Ekonomia, Zientziak, Teknologia, Bitzita-estiloak edo Kirola).
- Egile bakarra duten 581 liburuaren artean, 403 lan orijinalak dira eta 178 itzulpenak. Emakumeak lan orijinalen % 29,8aren egile dira. Oreak handiagoa da itzulpenei dagokienez: itzulpenen % 44,4aren egilea emakumeren bat da.
- Euskarazko literaturak gazteleraizko literaturak baino emakumezko egile bakar gehiago ditu. Honela, gazteleraizko argitalpenen % 21,7ak baino ez du emakumeren bat egile. Proporzio hori % 42,9koa da euskaraz argitaratutako lanei dagokienez.
- Itzultzailearen izena jasotzen duten 217 lanen artean, % 36,9aren kasuan itzultzailea emakumea da.

IV. ANALISI KUALITATIBOAREN LABURPENA

4.1. *Analisi kualitatiboa*

Datu kuantitatiboak aztertzeaz gain, sei elkarrizketa egin ditugu liburu-denda eta argitaletxerekin, bi estrategia ezberdin hartuz oinarri gisara. Liburutegien kasuan, komenentzia-laginketa baten bitartez, erakunde horien partaidetza izateko konplexutasuna dela eta. Eta argitaletxeen kasuan, ondokoak bezalako irizpideak hartu dira aintzat:

- Argitaletxeek urtean 100 ISBN baino gehiago dituztenen artean egon behar dute (2018. urtea aintzat hartu da ere).
- Argitalpenetako aniztasuna eta literatura lehenesteko joera.
- Editoreen elkarteko kide izatea.
- Irizpide gisara izan ez bada ere, argitaletxeek Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren laguntzaren bat jaso duten ala ez begiratu da ere.

Jarraian, garatutako analisi kualitatiboaren informazioa jaso da.

Esperientzia pertsonala

Aipatu beharreko lehen iruzkina: elkarrizketatutako pertsona guztien iritziz editore edo liburu-dendako arduradunaren ogibidea ez da prestakuntza espezializatua jasotzera eramango zaituen bokazio goiztiar baten ondorio. Oso leku gutxik eskaintzen dute ogibide hauetarako prestakuntza edo gradu bereziren bat eta, ondorioz, ez dago benetako lotura zuzenik egindako ikasketen eta ogibidearen artean. Ideia hori berbera antzeman daiteke liburu-denden lanari edo liburu-denden kudeaketari dagokienez.

Elkarrizketatutako pertsonen iritziz egun editore edo liburu-dendako arduradun diren pertsonen heziketa oso anitza da. Honela, praktikaren bitartez ikasten da editorearen ogibidea. Praktikaren bitartezko prestakuntza-prozesu horretan zailtasunak agertu dituen alderdi bat prozesuaren enpresa-osagaia izan da, pertsonak gabezia handiak zituelako gai horren inguruan. Elkarrizketatuek edizioaren enpresa-alderdiaren inguruko prestakuntza izateko beharra nabarmendu dute.

Emakumeak, argitaletxeen eta liburu-denden buru

Bi eginkizun bereiz daitezke argialetxeen zuzendaritza-karguetan: argialetxearen enpresa-kudeaketa eta edizio-kudeaketa; azken hori da argialetxeko editoreari dagokiona. Euskal Autonomia Erkidegoko argialetxe gehienetan pertsona berberak bi eginkizunak betetzen ditu, gutxi baitira 10 langile edo gehiago dituzten argialetxeak. Kudeaketa eta editore-eginkizunak banatuta dituzten argialetxeetan ez dago inolako pautarik emakumeek eta gizonek eginkizun bakoitzean duten presentziari dagokionez baina azkenen presentzia handiagoa da oraindik, arestian aztertutako datuetan ikus daitezkeen bezalaxe. Kudeaketa- eta edizio-eginkizunen ardurak pertsona bakar batek duen kasuetan, gizonek agertzen dute portzentajerik handiena.

Testigantza gehienek aitortzen dutenez aldaketa bat ari da gertatzen argialetxeetako zuzendaritzetan, genero-ikuspegitik. Euskadiko argialetxe gehienak sortu ziren urteetan, 70ko hamarkadako amaieran eta 80ko hamarkadako hasieran, emakumeen presentzia anekdotikoa zen. Emakumeren bat edo bi argialetxe guztiak batuta. Mende berriarekin baina, 90eko hamarkadako amaieran eta 2000ko hamarkadako hasieran, aldaketa bat hasi zen zeina, genero-aldaketa izateaz gain, belaunaldien arteko genero-aldaketa baiten ere.

Aipatu aldaketa lehenago ez emateko arrazoen inguruko hausnarketetan, hiru elementu aipatzen dira elkarrizketetan:

- Emakumeen ikusezintasun orokorra. Emakumeen ikusezintasunari buruz elkarrizketatutako pertsonak diote argialetxeak sortu zirenean ez zegoela emakumerik eremu publikoan eta, horrenbestez, oso gutxi izan zirela erakunde horien hastapenetan parte hartu zuten emakumeak.
- Elkarteen iragazkortasuna. Aipatutako beste gako bat da proiektu gehienak, hasieran, xede edo helburu berbera partekatzen zuten lagun-, militante- edo pertsona-talde baten ekimena zirela. Izaera horrek segida izan zuen denboran zehar. Oso gutxi izan dira beren langileen kopurua handitzeko bilakaera progresiboa izan eta langileen eginkizunak eta egituraketa egituratzeko pausua eman duten argialetxeak, kudeaketa edo zuzendaritzako lanpostuak areagotuz ere ondorioz. Datu kuantitatiboek agerian uzten duten bezalaxe, langileria

handia duten argialetxeak oso eskasak dira. Fenomeno hori eman ez den kasuetan elkarrekin sortu zuten pertsonak beren zuzendaritzetan jarraitzen dute eta belaunaldien arteko erreleboa da genero-ikuspegian oinarritutako aldaketa bat gauzatu ahal izateko aukera bakarra. Hori bai, gehienek iritziz aldaketa horrek emakumeen presentziaren areagotzea ekarriko du ez bairik gabe.

- Argialetxeetako zuzendaritzetako atmosfera. Zailtasunak ekarri dituen beste osagaietako bat dela diote elkarrizketatuek: pertsonen arteko harremana, aitortza, etab. Honela, lan arloko egunerokotasunari dagokionez inertziek eta kidesunak sexu bereko pertsona-talde estuen sorrera ekarri dute askotan.

Liburu-dendetan emakumeek presentzia handiagoa dutela aitortu dute baina argialetxeen kasuan ez bezala, aldaketa ez da hain adierazgarria izan kasu gehienetan emakumeek erakundearen kide zirelako liburu-dendak sortu zirenerako.

Genero-ikuspegian oinarritutako neurriak

Elkarrizketatutako zenbait pertsonak adierazi dute emakumeen presentzia argialetxeen zuzendaritzan edo edizio-planetan, egile gisara, ez dela problematikotzat hartua izan. Eta sektoreak gai honi dagokionez agertzen duen sentsibilitatea aipatu duten elkarrizketatuek aipatu sentsibilitatea azken hamarkadan kokatzen dute gehienbat. Beste kasu batzuetan, ordea, sektorearen bilakaera aipatu da, genero-ikuspegiarekiko sentsibilizazioa edizio-ildo berari loturiko osagai bat izan dela argudiatuz.

Argialetxeek zenbait ekimen genero-ikuspegian oinarritutako neurritzat jotzen ez badituzte ere, badaude emakumeen presentzia argialetxeen erabakiak hartzeko eremuan, emakumeen presentzia egileen artean eta argitaratutako materialen genero-ikuspegia txertatzeko ariketa areagotu duten zenbait praktika. Ondoko ekintzak aipatu dira elkarrizketetan, besteren artean:

- Emakumezko idazleen presentziari buruz hausnartzea eta emakume bati liburu bat idaztea agintzea, beren presentzia oso mugatua zenean.
- Osaera paritarioko Edizio-batzorde bat osatzea.
- Izaera feminista duen bilduma berezi bat sortzea.

- Ibilbide luzea hezkidetzari buruzko lanak argitaratzen, ekarpenak egitea hezkuntzaren arloko balioak aldatzeko, azken 12 urteetan.
- Berdintasunerako Plan bat gauzatzeko-prozesuan izatea.

Argialetxeen eta sorkuntzaren arteko harremana

Lan bat editatzeko prozesua ondoko faseen arabera aztertuko da: 1. Orijinalaren aurkezpena/eskaria; 2. Orijinalaren balorazioa; 3. Orijinala berrikusteko harreman estua; eta 4. Lana komunikatzea eta sustatzea. Lehen bi faseetan editoreek eta beren "ingurukoak" funtsezko papera jokatzen dute egile baten lana onartzeari edo ez onartzeari dagokionez. "Inguruko" talde hori argialetxeari normalean laguntzen dioten idazle-taldeak eta konfiantzazko pertsonak osatzen dute. Argialetxe handienek berezko inguruko talde bat badute ere erakundearen baitan -formalizatua ere zenbaitetan-, argialetxe txikienen kasuan talde hori informala da. Horrek edizio-ildoan eta ildo hori eskari berrietara -horrelakorik balego- egokitzeko gaitasunean eragiten du.

Egileak argialetxe batean lan orijinal bat aurkeztea; hori da lan bat eskuratzeko argialetxeek erabiltzen ohi duten metodoa. Orijinal bat eskatzea askoz ere ezohikoa da.

Tradizionalki, egile eta argialetxe baten arteko harremana iraunkorra, estua eta fidela izan da. Hau da, denboran zehar argialetxeak bere idazle-taldea sortu eta harreman iraunkorra eta fidela mantenduko du beraiekin. Egile horien lanek azkarrago izaten dira onartuak argialetxetan. Oso itxia edo ez hain itxia izan daitekeen talde bat izateak zailtasunak ekar ditzake, horrenbestez, idazle berrien sarrerarako nahiz eta argialetxeek lan guztiak aztertzen dituzten. Kalitatea funtsezko irizpidea da beti. Testuinguru horretan, editorearen ingurukoek edizio-plana baldintzatzen dute zenbaitetan.

Egun, halere, egoera hori era esanguratsuan aldatu da: argialetxe ezberdinekin lan egiten duten idazle gehiago daude, argialetxe txiki gehiago daude eta haur eta gazteentzako literaturaren kasuan gehienbat, idazle berriek sare sozialak erabiltzen dituzte -Facebook edo blogak- beren lanak hedatzeko eta lan horiek argialetxeren batean bukatuko dute. Bestetik, emakumezko idazle gehiago daude eta masa kritiko horri esker emakumezko idazleen lanek sarbide handiagoa dute argialetxetan, euskaraz idazten duten

egileek bereziki. Egun emakumezko idazleen lanentzako giro egoki bat, beren presentzia bultzatzen ari den giro bat dagoela adierazi du ere elkarrizketatutako batek. Honela, feminismoari buruzko boima aipatzen dute liburu-dendek, ekoizpenean ez ezik, baita salmentetan ere.

Literatura-kanonari buruzko eztabaida esanguratsua

Elkarrizketatutako guztiek zalantzak agertu dituzte literaturan eta, orokorrean, artean eman diren aldaketei dagokionez. Bere iraunkortasun laburragoa, etenik gabeko ekoizteko beharra sektorean ikusgai jarraitzen izateko, teknologia berrien eragina, etab.

Eztabaida bizia sortu eta sakontasunez aztertu beharko genukeen alderdi bat literatura-kanonaren gaia da, literaturaren kalitatea eta azken urteotan bizian izan diren aldaketak. Gaur egun argitaratuko lituzketen lanak errefusatu egin dituztela aitortu dute zenbait argialetxeek. Kanon- edo sentiberatasun-aldaketa bat ote den, hori da sortutako zalantza.

Literatura-lanak ikusaraztea: argialetxe eta liburu-dendak

Ondokoak dira literatura-lanak eta beren egileak ikusarazteko argialetxeek egiten duten lanaren ezaugarriak:

- Argialetxe gehienek beren lanak eta argitalpenak hedatu eta ikusgarri egiteko plan minimo bat dute: funtsean, prentsaurreko bat egin eta liburu eta argitalpen berriak azoka ezberdinetan aurkezten dira (euskarazko lanak Durangoko Azokan, gehienbat).
- Lanak hedatu eta ikusgarri egiteko esfortzuen zati handi bat egilearen esku uzten da. Hauek, liburu-azoketan aleak sinatzea edo liburu-dendetan (kasu honetan, argialetxeak) aleak sinatzea aukera dezakete boluntarioki.
- Norbere burua sustatzeko estrategiak belaunaldi-adinaren, profesionalizazio-mailaren eta generoaren arabera aldatzen dira.

Nolanahi ere, egileen ardura da egun literatura-lanak sustatzeko prozesuaren zati gehiena. Argialetxeek egiturak jartzen dituzte beren esku baina idazleak erabakiko du zer nolako sustatze- eta ikusarazte-estrategia erabili.

Azkenik, liburuak hedatu eta promozionatzeko lana asko dibertsifikatu da eta egilearen adina edo literatura-generoaren, profesionalizazio-mailaren eta generoaren arabera aldatuko da. Honela, liburu-dendetan egindako salmentak egileak prentsa idatzian egoteko duen abileziari lotuta badaude ere, faktore horrek ez du inolako eraginik haur eta gazteei zuzenduriko lanei dagokienez.

4.2. Genero-ikuspegian oinarritutako balorazioa (datu kuantitatibo eta kualitatiboak)

Datu kuantitatibo eta kualitatiboek agerian uzten dutenez azken 20 urteotan genero-ikuspegian oinarritutako eraldaketa-prozesu bat egon da Euskadiko liburugintzan, argitaletxeen eremuan bereziki. Zenbait eraldatze testuinguru sozio-politiko orokorren eta beste eremu batzuek liburugintzan duten eraginaren emaitza dira. Beste eraldatze batzuek, ordea, Euskal Autonomia Erkidegoko argitaletxeek aurrean dituzten abaguneei eta oztopoei erantzuten diete.

Nahiz eta bide luzea egiteke egon oraindik industria- eta lan-arloan, azken urteotan iraultza bat bizi izan dugu Europa, Estatu eta Euskadin: emakumeen presentzia areagotu egin da enplegu ordainduan, eta sektore guztietan gainera. Liburugintza ez da isolatutako kasu bat eta sektorean lan egiten dutenen sexuen araberako datuek azken urteei erreferentzia egiten badiete ere, elkarrizketetako testigantzak argi utzi dute goranzko bilakaera hori.

EAEko liburugintzak, orokorrean, 10 langile baino gutxiagoko establezimendu eta enpresa txiki biltzen ditu. Oso gutxi dute 10 langile edo gehiago. Testuinguru horretan, aipatu beharra dago tamainak bere eragina duela langileak kontratatze sistematan: harreman pertsonaletan oinarritzen da, edizio-eginkizunetarako bereziki. Langileak kontratatze sistema hori sustatzen duen beste alderdi bat da ez dela espezializazio edo gaitasun akademiko berezirik izan beharrik editore izateko. Horrela aitortzen dute elkarrizketatutako pertsonak. Adierazten duten arabera, liburugintzan eskarmentua izatea eta irakurzaletasuna, noski, behar dira; ez ordea prestakuntza arauturik. Izan ere, argitaletxeen hastapenetan presente ez zeuden elkarrizketatutako pertsonak azaldu dutenez lanean aritzeko eskaintza argitaletxetik gertu zeudelako, inguruko talde horren barruan zeudelako, konfiantzagatik edo helburuak partekatzen dituztelako jaso zuten. Hurkotasun hori are nabariagoa da oraindik euskarazko ekoizpenekin lan egiten dute argitaletxeetan.

Sare, hurkotasun eta konfiantzan oinarritutako kontratazio-erara horrek zaildu egin dute emakumeen sarbidea editore-eginkizunetara. Argitaletxeetako jatorrizko mamia gizonen osatua zegoen ia osotasunean. Aipatuek, gertuko pertsonak aukeratzen dituzte argitaletxeko eginkizun nagusienak betetzeko eta ingurune horretan emakumeak badaude ere, ezinezkoa dute -edo xedetzat ez dute- oso maskulinizatua dagoen gertu-gertuko talde horretan sartzea.

Emakumeen presentzia editore-eginkizunetan zaildu duten beste faktoreetako bat da argitaletxeen barruan eginkizun horiek betetzen dituzten pertsonen kopuru murrizta. Euskal argitaletxe gehienetan pertsona bakarra dago eginkizun hori betetzen eta, honela, erreleboa gerta dadin edo emakume bat eginkizun horietara sar dadin lehen pertsona horrek bere kargua utzi beharko du. Bilduma ezberdin eta editore bat baino gehiago dituzten argitaletxeek aukera gehiago dituzte pertsona berriak kontratatzeke. Hori gertatu denean, genero-errelebo bat eman da gehienetan. Zentzu horretan, 70ko hamarkadako amaieran edo 80ko hamarkadako hasieran jaiotako argitaletxeek eraldatze-prozesu bat bizi izan dute, beren zuzendaritzetan, belaunaldien arteko erreleboaren ondorioz. Elkarrizketatutako pertsonen ustez, beste herrialde batzuetan gertatu bezala, belaunaldien artekoa ez ezik genero-erreleboa izan da ere aipatua. Prozesu horrek, baina, zailtasunak eta/edo arazoak izan ditzake:

- Batetik, editore izateaz gain erakundearen sortzaile diren pertsona horiek erreparatzeak izan ditzakete karguari uzteko: beren irteera atzeratuz; kargua eginkizun guztiak transmititu gabe utziz; kargua formalki utziz baina ez ordea praktikan; edo egitura berriak sortuz beren eragina mantentzeko.
- Bestetik, kontratatutako editore berriak zailtasunak izan ditzakete lan-atmosfera edo kultura aldatu eta lan-baldintza berrietara egokitu ahal izateko.

Argitaletxeak, halaber, idazle baten karreraren abiapuntua dira. Irakurleengana heldu ahal izateko lehen atea dira. Argitaletxeei esleitzen zaien gaitasun horrek behera egin du azken aldian; hau da, zer irakurtzen den edo zer irakurtzen ez den baldintzatzeke duten eraginak behera egin du. Horren zioa bi alderdi dira, gutxienez: teknologia berrien garapena eta norbere konturako edizioaren presentzia handiagoa eta, bestetik, sare sozialek etorkizuneko idazleen lana hedatu eta ezagutarazteko eremu gisara hartu duten papera.

Testuinguru horretan, hutsetik eginiko orijinalaren irakurketak, hau da, lan hori argitaratzea merezi duen ala ez azaltzen duen irakurketak berebiziko garrantzia du. Editorearen iritzia gailentzen da ezbairik gabe baina zenbaitetan gertuko pertsonen laguntza eta aholkuak izaten ditu (idazleak, literatura-kritikariak, irakurzaile amorratuak) erabakia hartzeko. Editoreek inguruan zuten egitura informal hori gizonez osatua egon ohi da nagusiki.

Egitura horretako kide izatea edo lana babestuko zuten egitura horretako kontaktuak izatea funtsezkoa zen idazle baten karrera abiarazteko. Konfiantza, sarea, funtsezko osagaia da berriz ere. Elkarrizketatutako pertsona batzuen iritziz, ordea, egun errazagoa da lan bat argitaratzea gertuko egitura horren babesik izan gabe: alde batetik, zure lana ezagutarazteko beste aukera batzuk daudelako (YouTube, blogak, etab.) eta jarraitzaileen bermea delako zenbait argitaletxe idazle horiek kontratatuzera bultzatuko dituen. Bestetik, norbere kontura editatzeko aukera gehiago dagoelako eta, azkenik, argitaletxeen arteko lehia handiagoa delako eta argitaletxe bat ez bada beste batek lana argitaratuko duela dakitelako idazleek.

Honela, argitaletxeek funtsezko papera izan dezakete idazle baten karrera abiatu edo sendotzeko. Elkarrizketatutako pertsona guztiek adierazi dute generoaren araberako tratu berezia dagoela. Kasuren batean emakumezko idazle gazte berriak orijinalak aurkezterakoan konfiantza txikiagoa zutela aipatu dute baina, zeharka bada ere, gertuko egitura horretako kide ez izateak emakumezko idazle gazteen literatura-karreraren eraginaren bat izan duela gaineratu dute.

Kalitateari eta gaiei dagokienez ere aldaketa bat egon dela antzematen dute elkarrizketatutakoek. Elkarrizketak aztertuta, kultur arlo guztiei -literaturari tartean- eragiten dieten balorazio-parametroen inguruko eztabaida bat dagoela antzeman daiteke. Argitaletxeek lanak aukeratzeko irizpideak ezbaian jartzen dituzte ere. Erabakiekin asmatzen ote duten da zalantza, eztabaida biziak daude literatura-kanonaren inguruan. Eztabaida horren alderdi batek emakumezko zenbait idazleren literaturan eragiten du, nahiz eta eztabaida askoz sakonagoa izan.

Azkenik, literatura jarduera bakartzat duten idazle gutxi daudela adierazi dute elkarrizketatutako argitaletxeek. Pertsona horietako gehienek literatura beste ogibideren batekin partekatzen dute, eta zaintza-eginkizunekin zenbait kasutan. Baina aldeak antzeman daitezke. Elkarrizketetan

liburuaren hedatzea, promozioa edo ikusgarritasunaz aritzean azaleratu da gai hau. Ez da generoen arteko alderik ikusten lan horretan, hau da, ez dago esaterik emakumeek gizonek baino jarrera hobea edo txarragoa agertzen dutenik beren lanak promozionatzeari dagokionez. “Profesionalizazio-maila” aintzat hartzen badugu, halere, aldeak daude. Honela, ibilbide luze eta sendoa duten zenbait egilek, promozio-lanak duten garrantziaz jakitun, esfortzu berezia egiten dute beren lanak ikusarazteko: denbora dezente ematen diote lanari eta beren eskarmentua eta sare pertsonalaz baliatzen dira lan horren arrakasta bermatzeko. Horrek eragin argi eta zuzena izan dezake idazlea ikusgarria egin, hedabideetan eta sare sozialetan presente egongo den idazle bilakatzeko aukeran.

V. GENERO-IKUSPEGIAN OINARRITUTAKO NEURRIAK

Azken atal honek egilearen ustez liburugintzako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eragin positiboa izango luketen esku-hartzerako proposamenak jasotzen ditu. Proposamen orokorrak zein bereziak izango dira.

5.1. Proposamen orokorrak

1.- Hezkuntza-arloan genero-estereotipo, -rol eta -ezberdintasunak adin txikikoekin lantzea.

2.- Aldaketaren kultura babestea zaintzari dagokionez, erantzunkidetasuna eta/edo liburugintzaren enpresetan lana eta familia bateragarri egitea ahalbidetuko duten neurriak sustatzea, mendeko pertsonak zaindu eta, aldi berean, ibilbide profesional arrakastatsua edukitzeko aukera egon dadin.

3.- Presentziako dedikazioaren lan-kulturekin apurtzen laguntzea; hau da, lantokian ematen diren orduak produktibitate-irizpidetzat edo enpresarekiko konpromisoaren adierazgarritzat hartzen dituen printzipioarekin apurtzea.

5.2. Proposamen bereziak

DIAGNOSTIKOA

4.- Sexuaren aldagaia sartzea egileen inguruan Euskal Autonomia Erkidegoko Argitalpenei buruzko Txostenak jasotzen dituen datuetan.

5.- Kultur arloan eskumena duen Ministerioarekin batera lan egitea, sexuaren aldagaia ISBN²ren datuen artean sar dadin. Honela, aldagai hori Panorámica de la Edición Española de Libros 2017 izenburuko txostenean jasoko litzateke, orain arte egin ez den zerbait.

6.- Euskadirako datu-base bat sortzea ISBNren datuekin, sexuaren aldagaia egileen, itzultzaileen eta ilustratzaileen inguruko datuen artean sar dadin aipatu horiek pertsona fisikoak diren kasuetan (azterlan honetan egin den bezalaxe).

7.- Liburuaren eskariaren egoera eta EAEko irakurzaileen ohiturak ezagutzea. Estatuan osatzen den Informe del Sector del Libro en España izeneko txostenak ez du genero-ikuspegia aintzat hartzen. Sexuen arabera bereizita bildu diren datu garrantzitsuenak bigarren-mailako iturri ezberdinetatik datoz: Espainiako Argitaletxeen Federazioak argitaratzen duen Hábitos de Lectura y Compra de Libros en España izeneko azterlana, esaterako. Galdetegi batean oinarritutako txosten horrek eskariaren inguruko informazio esanguratsua eskaintzen du eta autonomia erkidegoen arabera bereizitako datuek erreferentzia-puntua izan daiteke. Sexua bezalako aldagai bat gurutzatuz gero, baina, laginaren fidagarritasunak behera egiten du. Akordio bat sina daiteke Federazioarekin Euskadiko lagina etorkizuneko azterlanetan zabaltzeko. Edo Euskadira mugatutako azterlan berri bat garatu bestela.

NEURRI BIRBANATZAILEAK

8.- Berdintasuna sustatzeko baldintzak txertatzea liburuaren edizioa jomuga duten egungo diru-laguntzetan. Kultura Sailaren 2019ko aurrekontu-memoriak konpromiso hori jasotzen zuen, hau da, diru-laguntzen deialdiak ikuspegi honetatik berrikustea. Plusen bat txerta liteke osieran -zuzendaritzan gehienbat- egondako aldaketak, edizio-planean emakumezko berriak sartu direla edo beren ibilbidea hasia duten emakumezko idazleei emandako babesera positiboan saritzeko, emakumeen presentzia txikiagoa duten eremu horietan bereziki -saikera edo beste genero batzuk-.

9.- Ad-hoc laguntzak sortzea emakumezko idazle berrien literatura-karrera abian jartzeko eta beren karrera hasia duten emakumezko idazleen hori sendotzeko. Ad-hoc izaerako laguntzak sortzea emakumezko idazle berrien literatura-karrera abian jartzeko eta beren karrera hasia duten emakumezko idazleen hori sendotzeko.

PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

10.- Jardunaldi bereziak antolatzea genero-ikuspegiak liburugintzan bizi duen egoeraren inguruan hausnartzeko, ondoko gaiei dagokienez bereziki: literatura-kalitatea, ekarpen berriak eta arlo honetako edizio-industriak egun agertzen duen noranzkoa. Argitaletxeen elkarte ezberdinekin batera sektorea antolatzeko era berriak eta berrikuntza genero-ikuspegiarekin konbinatzea lagungarria izan daiteke hausnarketa-gune berri bat ireki eta beste esperientziak testuinguru geografiko batzuetako argitaletxeekin partekatzeko. Espaziorik aproposena horretarako UPV/EHUK Miramar Jauregian antolatzen dituen Uda Ikastaroak izan daitezke.


² 2019ko ekainean Kultura eta Kirol Ministerioak Kultur arloaren inguruan Genero Berdintasunerako Behatokiak egin dituen zenbait txosten argitaratu ditu. Aipatuek ISBNren egileen inguruko datuak sexuaren arabera aztertzen dituzte. <https://www.culturaydeporte.gob.es/cultura/mc/espacio-de-igualdad/observatorio-igualdad-genero-cultura/informes.html>. Datu-baseak, halere, ez du sexuen araberako bilaketak egiteko aukerarik ematen.



MUSIKA

sorkuntzako
emakumeen
eta gizonen
EGOERA EAEn

AINARA LEGARDON



I. SARRERA

Ikerketaren helburu orokor eta bereziak

Azterlan honek emakumeek eta gizonak EAEko musikagintzan bizi duten egoera aztertuko du. Beren presentzia eta ikusgarritasunaz gain, ikusgarri edo ez egiteko erak eta horien zioak aztertuko dira, egungo sortzailetan eragiten duten faktore edo baldintza ugari aintzat hartuz.

Datuek ¹ diotenez maskulinizatuena den diziplina artistikoa da musika antzerkia, dantza, arte plastiko eta ikusizkoa edota literatura bezalako beste adierazpen askoren gainera. Musikagintzan ematen den berdintasun ezeko egoeraren inguruko ezagupen-falta eta ikusezintasun bat ematen dira gainera egun. Hori da hain zuzen ere ikerketa hau egiteko beharrezko zioa.

Helburu orokorraz gain, azterlanak ondoko helburu bereziak ditu:

- Emakumezko sortzaileek Euskal Herriko musikagintzan bizi duten egoeraren diagnostikoa egitea.
- Egoera horren inguruko hausnarketak egitea.
- Ekintza inspiratzaileak zerrendatzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko ekintza estrategiko, jarduera eta jardunbide egokiak proposatzea.

II. OINARRI-KONTZEPTUAK

Bereztasun sexu-generikoan (izaera androzentriko eta heteropatriarkal batek markatu duen eraikuntza soziokultural historiko batean eutsia) oinarritutako berdintasun ezeko sistema honek emakume eta gizonentzako egoera ezberdinen eta bereizleen ² sorreran duen eragina aztertu nahi du azterlan honek, musikagintzaren ondoko alderdietan:

- **Egiletza:** egile da musika-konposizio bat eta/edo musikalan baten hitzak bakarka edo beste norbaitekin sortu duen pertsona oro. Egile-eskubideen titularra da.
- **Interpretazioa:** artista interpretatzaile edo jole da musikalan bat interpretatu edo exekutatu duen pertsona oro, lan hori berea zein beste batena bada ere.
- **Ekoizpena:** lan baten exekuzioaren lehen soinu-finkatze hutsaren (grabazio) ekimena eta ardura hartu duen pertsona natural edo juridikoa da. Musika-lanen norbere konturako ekoizpena edo kudeaketa errealitate horren zati da; txosten honek aintzat hartuko du ere.
- **Musika-programazioa:** musika-programatzaile dira kontzertuak antolatzen dituzten pertsona edo enpresak (erakunde publiko zein pribatu).
- **Musika-kritika: garrantzitsua da musika-kritikak daukan boterea aintzat hartzea:** egiletan zein beren prozesuetan, entzulerian eta bere ohituretan zein historiografiari dagokionez. Zentzu horretan, nabarmendu beharra dago azterlan honek prentsa idatzian jarri duela bere arreta, disko eta kontzertuetako kritika edo erreseinak garatzen ohi dituen hedabidea den heinean.
- **Musika entzuteko eta musikaz goatzeko ohiturak:** musika entzuteko eta musikaz goatzeko ohiturek lotura zuzena eta estua dute sorkuntzen hedatzearekin eta, horrenbestez, ekoizpen eta sorkuntza artistikoarekin. Adierazpen artistiko hauek hartu eta aipatuetan parte hartuko duen entzuleriarik ez badago ekoizpenak behera egingo du, sortzaileen beren ekimen edo motibazio faltagatik zein merkataritza-aretoetako zirkuituen edo prentsaren babes faltagatik.

¹ Eusko Jaurlaritzako Kultura Auzolanean 2018-2019 "Genero-programak eta -politikak" proiektuaren barruan garaturiko "Emakumeen eta gizonen presentzia eta partaidetzaaren analisia 2017ko kultura-sorkuntza eta -ekitaldietan, 1. Bertsioa" izeneko txostenetik jasotako datuak. Argitaratu gabe dago txostena.

² Aztertu beharreko gai garrantzitsua bada ere, azterlan honek ez du izaera ez binarioko beste genero-identitate batzuei loturiko gaiak aztertu.

III. ANALISI Kuantitatiboa: Emakumeek eta gizonen euskal musikagintzaren eremu ezberdinetan bizi duten egoerari buruzko datuak

Analisi kuantitatiboak emakumeek eta gizonen kultur arloan eta, bereziki, musika-sorkuntzan eta -ekoizpenean duten presentzia eta partaidetzari buruzko datu eta zenbakiak aztertu ditu. Horretarako, nazioarteko erakundeek, Kultura eta Kirol Ministerioak, Eusko Jaurlaritzak eta musikaren arloko elkarte nagusiek, besteak beste, argitaratu dituzten azken estatistika-txostenak aztertu dira.

Ezaugarri hauetako azterlan baten adierazle esanguratsuenak erreferentzia gisara hartu ahal izateko, UNESCO erakundeak genero-berdintasunari dagokionez dituen kezka nagusienak hartu dira aintzat.

Ikerketa honetako datuak interpretatzerakoan kontuan hartu beharreko alderdi bat da ez dagoela berez osoa den inolako iturriarik. Partzialak dira guztiak eta, horrenbestez, iturri oso ezberdinak aztertu behar izan ditugu. Batzuek estatistika-datuak eta -profilak eskaintzen dituzte, beste batzuk datu horiek aztertu eta hausnarketara bultzatzeko dira baliagarriak eta beste batzuek, azkenik, beste eremu batzuetan gauzatzen diren proposamen eta esperientzia inspiratzaileak azaltzen dituzte.

3.1. Partaidetza sektore honetako elkartetan

Musikaren arloko profesionalak -musikagile zein interpretatzaile- ordezkatzeko elkartek:

Jarraian, euskal musikagintzako elkarte garrantzitsuenen inguruko datuak jaso dira, emakumezko eta gizonen kideen portzentajeak alderatuz.

- **Musikari (Euskal Herriko Musikariak):** % 22,49 emakume eta % 77,51 gizon. Portzentajea % 11tik % 22ra igaro da azken 5 urteotan.
- **Musikagileak (Euskal Herriko Musikagileen Elkartea):** % 31 emakume eta % 69 gizon; portzentajea egonkor mantendu da 2016 eta 2018 bitartean.

Jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzeko erakundeak:

EAEn jarduten duten jabetza intelektualeko eskubideen talde-kudeaketa egiteko erakundeak aurkeztuko dira jarraian, emakumezko eta gizonen kideen portzentajeak jasoz ³.

- **AIE (Artistas, Intérpretes y Ejecutantes), musika interpretatzaile eta joleen egile-eskubideak eta konexuak kudeatzeko entitate espainiarra:** % 19 emakume eta % 81 gizon. Nafarroan, emakumezko kideek % 23 suposatzen dute.
- **EKKI (Euskal Kulturgileen Kidegoa), jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzeko euskal entitatea:** % 22,1 emakume eta % 77,9 gizon, musikaren arloan. Emakumeen artean, % 89,74ak egile gisara eman du izena eta % 10,53ak interpretatzaile gisara ⁴.

Finean, agerikoa da emakumeek presentzia txikiagoa dutela musikagile-interpretatzaileen elkartetan eta eskubideak kudeatzeko erakundetan.

3.2. Musika-sorkuntzak:

- **Jabetza Intelektualaren Erregistroa ⁵:** orokorrean, jabetza intelektualaren erregistro guztien artean emakumeen eta gizonen presentzia desorekatua dagoela ikus daiteke (erregistroen % 37,8 emakumeenak; % 62,2 gizonenak). Musikaren arloari erreparatuz gero aipatu desoreka handiagoa da oraindik, gizonen alde

³ SGAEren datuak ez dira aintzat hartuak izan (EAEn lan egiten badu ere), autonomia erkidegoen arabera berezita ez daudelako. Nolanahi ere, orri-oinak SGAE Zona Norte ataleko Komunikazio-sailak eskaini dituen datu orokorrak biltzen ditu: % 16,05 emakume eta % 83,95 gizon. Komunikazio-sailaren esanetan, "emakumeen portzentajeak 7 puntu egin du gora azken 8 urteotan. Zoritxarrez, horiek dira gure esku dauden azken datuak eta ez dugu autonomia erkidegoen arabera bereizketarik egiten baina joera Estatuan ematen den horren berdina dela eta autonomia erkidegoen artean portzentaje-alde esanguratsurik ez dagoela esan dezakegu".

⁴ EKKIk azaltzen duen bezalaxe, "pertsone horiek EKKIn zer eskubide altan ematen dituzten adierazten du parametrok. Horrek ez du esan nahi interpreteak egile ez direnik edota egileak beren lanen interprete ez direnik".

⁵ EAEN, Jabetza Intelektualaren Erregistroa Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Ondarearen Zuzendaritzaren mende dago. Eusko Jaurlaritzatik azaltzen duten bezala: "nahiko gaztea den erregistroa da eta 2018. urtetik aurrera, jasotako datuak sexuen arabera bereizten ditu".

(emakumeen erregistroak, % 15,4; gizonenak, % 84,6). Emakumeek egin dituzten musika-lanen erregistroen portzentajea Lurralde Historikoen arabera aldatzen da: % 21 Araban, % 17 Bizkaian eta % 12 Gipuzkoan.

- Eresbil (Musikaren Euskal Artxiboa): emakumeek euskal musikagintzan duten presentziaren inguruko datuak eskaini ditu, azken 5 urteotako (2013-2018) diskografiaren bitartez. Emakumeren 179 erregistro bildu ditu, guztien % 15,5eko portzentajea suposatzen dutenak. Agerikoa da, horrenbestez, musika-egileen arloa oso maskulinizatua dagoela.
- Kulturklik. Euskal kulturaren azken jarduerak eta sorkuntzak hedatzeko plataforma da. 2017n ekoiztutako diskoen egileak aztertu ditu eta ondokoak dira emaitzak: diskoen % 59ak gizonen bat dauka egile nagusi; % 9ak, aldiz, emakumeren bat. Diskoen % 27ak egile mistoak ditu, non emakumeek % 31ko ordezkariak baituten eta gizonek, aldiz, % 69koa. Diskoen sorkuntzak emakumeen presentziarik txikiena duten arloetako bat dela esan daiteke.

Elkarteetan izandako partaidetzarekin gertatu bezalaxe, musika-sorkuntzen analisiak emakumeek gizonen baino presentzia txikiagoa dutela agerian utzi du.

3.3. Lehiaketa, sari eta laguntzak

Eusko Jaurlaritza

Atal honek Eusko Jaurlaritzak musika-sorkuntza babestera bideratzen dituen laguntzak aztertuko ditu. Laguntza horiek bi modalitate biltzen dituzte, Musika Sortzeko eta Proiektu unitarioak izeneko modalitateak:

- **Musika sortzeko modalitatea:** musika-lan orijinalen sorkuntza bultzatzea du xede. Laguntza hauek eskatu dituzten emakumeen portzentajea gizonena baino dezente baxuagoa da. Emakumeei laguntzak emateko portzentajea, halere, eskariaren portzentajea baino altuagoa izan da azken urteotako batez bestekoan.

Musika sortzeko laguntzak. Eusko Jaurlaritza

	% Emakumeen eskariak	% Gizonen eskariak	% Emakumeei emandako lag.	% Gizonen emandako lag.
2014	20,51%	79,49%	26,67%	73,33%
2015	12,50%	87,50%	15,38%	84,62%
2016	22,22%	77,78%	42,86%	57,14%
2017	27,27%	72,73%	35,71%	64,29%
2018	20,00%	80,00%	0,00%	100,00%

Laguntza horiek baloratzeko batzordeak osatera orekatua izatea lortu du azken urteotan (2016: emakumeak, % 33; 2018: emakumeak, % 50).

- **Musika-proiektu unitarioak:** laguntza honen xedea da musika-ekoizpenak babestea, zuzenekoak nahiz euskarri fonografikoetan, bai eta musika-proiektu baten promozioa eta zabalkundea babestea ere. Musika sortzeko modalitatean bezalaxe, laguntza hauek eskatu dituzten emakumeen portzentajea eskari berbera egin duten gizonena baino dezente baxuagoa da⁶. Emakumeei laguntzak emateko portzentajea eskarien portzentajearen antzekoa da.

⁶ Emakumeen partaidetza-zenbakiak adierazteko emakumeen proiektuak edo emakumeren bat buru sendoa duten proiektuak aintzat hartu dira.

Musika-proiektu unitarioei laguntzak. Eusko Jaularitza

	% Emakumeen eskariak	% Gizonen eskariak	% Emakumeei emandako lag.	% Gizonei emandako lag.
2014	11,90%	88,10%	12,50%	87,50%
2015	14,71%	85,29%	13,79%	86,21%
2016	13,95%	86,05%	21,43%	78,57%
2017	20,00%	80,00%	18,60%	81,40%
2018	17,95%	82,05%	17,14%	82,86%

Laguntza hauek baloratzeko batzordeen osaera orekatik gertuago dago egun (2016: emakumeak, % 26,66; 2018: emakumeak, % 46,66).

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Institutuak musika-birak (euskararen lurralde geografikotik kanpo) egiteko eta ezohiko kontzertuak eskaintzeko (euskal musika nazioartean hedatzeari begira interes handiko ekitaldietan) ematen dituen laguntzak aztertu dira.

Musika-birentzako eta Ezohiko kontzertuetarako laguntzak. Etxepare Euskal Institutua

	2017		2018	
	EMAKUMEAK DITUZTEN PROIEKTUAK	GIZONAK BAINO EZ DITUZTEN PROIEKTUAK	EMAKUMEAK DITUZTEN PROIEKTUAK	GIZONAK BAINO EZ DITUZTEN PROIEKTUAK
Musika-birentzako modalitatean lagundutakoak	44,44%	55,56%	48,64%	51,35%M
Ezohiko kontzertuetarako modalitatean lag.	44,44%	55,56%	60%	40%

2017ko eta 2018ko datuak alderatzerakoan ikus daiteke emakumeen partaidetza duten lagundutako proiektuen portzentajeak gora egin duela musika-birentzako zein ezohiko kontzertuetarako modalitateetan (modalitate honetan -eta 2018. urtean- baino ez da emakumeen partaidetza duten lagundutako proiektuen portzentajea gizonak besterik ez dituzten lagundutako proiektuen portzentajea baino altuagoa -% 60 eta % 40, hurrenez hurren-).

Diru-laguntza hauek baloratzeko batzordetan emakumeek duten presentziari dagokionez, portzentajea % 40an egonkortu da.

Musika Bulegoa

Musika Bulegoa Sariak eta gure musika nazioartean hedatzeko ekintzak aztertu dira.

Azken urteotan saritutako proposamen gehienak maskulinoak izan dira osotasunean (% 71 2017 eta 2018n). Alderdi positiboek dagokionez esan azken bi urteetan saritutako taldeen artean % 14 inguru emakumeren bat buru duten talde mistoak direla eta beste % 14a lidergo femeninoa duten taldeak dira. Epaimahaiak osaera paritarioa izan du sarien 3 edizioetan.

Gure musika nazioartean hedatzeko laguntzei dagokionez, emakumeek geroz eta presentzia handiagoa dutela baieztatu da. Gizonak besterik ez zuten taldeek % 71 suposatzen zuten 2016n eta % 45 2018n. Osaera mistoko edo lidergo femeninoa duten taldeek igoera esanguratsuak agertzen dituzte 2016-2018 epealdian.

Bilbao Hiria Pop Rock Lehiaketa

Parte hartu zuten taldetan, epaimahaien eta ikusleen artean emakumeek zuten presentziaren inguruko datuak azken bi urteotako memorietan jaso dira bakarrik. Lehiaketaren helburuetako bat emakumeen partaidetza areagotzea da, aipatu hiru eremutan.

Lehiaketan izena eman zuten taldeei dagokionez, emakumeen portzentajeak igoera txikia agertzen du (2017: % 8; 2018: % 9).

Kontzertu-fasera sailkatu eta kideen artean emakumeak dituzten taldeen portzentajeak behera egin du (2017: % 32; 2018: % 22). Ildo horretatik ere, sailkatutako emakumeen portzentaje orokorrak behera egin du ere (2017: % 13; 2018: % 8). Emakumeek bakarrik osatutako taldeen kopurua, aldiz, berean mantendu da (% 3 2017n eta 2018n).

Emakumeek ikusleen artean zuten presentziak beherapen esanguratsua izan du (2017: % 27; 2018: % 19⁷).

Emakumeek epaimahaian zuten presentzia % 17 zen 2017n eta % 36 2018n.

Kutxa Kultur Musika programa

Gipuzkoan sorturiko musika-talde berrien profesionalizazioa bultzatzea xede du programak. Emakumeen partaidetza izan eta izena eman duten taldeen portzentajea egonkorra da, % 28 ingurukoa (2017/18 eta 2018/19n).

Emakumeen partaidetza zuten musika-taldeen 2016/17ko edizioan izan zuten presentziarik handiena (% 50). Portzentaje horrek dezente egin zuen behera 2017/18ko edizioan, % 16,67raino, baina azken edizioan gora egin du berriz ere (% 33,3).

Programa hau baloratzeko batzordetan ez da emakumerik egon, inoiz; datu oso adierazgarria da hau.

3.4. Hezkuntza eta prestakuntzaren arloa

Musika-sorkuntzaren arloan, musikagintzaren kasuan gertatzen den bezalaxe, pertsona batek ez du titulu ofizialik izan edo ikasketa arautuak bukatu beharrik musikaren arloan profesionalki lan egin ahal izateko. Horrexegatik, goi-mailako musika tituluen inguruko estatistika-datuez gain beste prestakuntza-ekintza batzuk aintzat hartu ditugu ere, musika-sorkuntzan ari direnei beren karrera profesionalak garatzeko erremintak eta gaitasunak ematen dizkieten heinean.

⁷ Datu hori ez da estatistikoki adierazgarria, jasotako bozketetatik atera baita.

Titulu ofizialak

Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratu duen Kultur Estatistiken Urtekariaren arabera, Musika-irakaskuntza arautuen irakasleen % 50,7 emakumeak⁸ dira EAEn; Nafarroan % 28,6 suposatzen dute. Estatu-mailako batez bestekoa % 39,9koa da.

EAEko ikasleen artean, % 55,8 emakumeak dira. Nafarroan, portzentaje hori % 48,9 da eta Estatu mailan % 54,4.

Eusko Jaurlaritzaren “Kultura Auzolanean 2018-2019 Genero Politikak eta Programak” izeneko proiektuaren barruan garaturiko Datu-txostenaren eta Musikeneko datuen (2017/18 ikasturtea) arabera, matrikulen % 62a gizonetzko ikasleei dagokio eta % 38a emakumezko ikasleei. Ondokoak dira ikasleen artean desorekarik handienak agertzen dituzten espezialitateak: Konposizioa, Orkestra-zuzendaritza eta Pedagogia. Bi lehen kasuetan gizonetzko ikasleek % 86 suposatzen badute ere, Pedagogian ordea emakumezko ikasleak % 93 dira.

Interesgarria da izen-emateek nesken eta mutilen asmoetan izan dezaketen eragina aintzat hartzea, bai eta egun ospe txikiagoa izan dezaketen espezialitateak ospetsuago egiteko beharra ere; Pedagogiak, esaterako, Orkestra-zuzendaritza baino entzute baxuagoa izan dezake egun.

Beste prestakuntza-jarduera batzuk

Beren programazio, zerbitzu edo jardueretan prestakuntza-ekintzak eskaintzen dituzten euskal musikari loturiko 5 entitate aukeratu ditugu.

- Musika Bulegoak jarduera-poltsari buruzko azken hiru urteotako datuak eskaini ditu. Balorazio-batzordeak osaera paritarioa mantentzen duela (emakumeak eta gizona, % 50) eta partaidetza mistoa (% 44) edo emakumeen presentzia hutsa duten aukeratutako ekintzen portzentajeak gora egiten duela ikus daiteke (azken horiek, halere, % 6 suposatzen dute bakarrik, gizonen presentzia hutsa duten ekintzen % 50aren aurrean).
- Musikari elkarteak 2013 eta 2018 bitartean gauzatu zituen prestakuntza- edo dibulgazio-jardueretan emakumezko

kideek izan zuten presentzia % 43 izan zen (gizonetzko kideek, % 57).

- Musikagileak elkarteak antolatu dituen jardueretan ikusleriaren banaketa paritarioa izan dela kalkulatu da⁹.
- EKKI elkartearen prestakuntza-mintegietan emakumeak bertaratuen % 55 izan dira.
- “Copyzer” zerbitzu egonkorra Irungo Udalaren ekimena da eta jabetza intelektualari eta egile-eskubideen kudeaketari buruzko aholkuak eskaintzen dizkie sorkuntza-proiektuei. Musikaren arloari lotuta zerbitzuaren laguntza eskatu duten emakumeen kopuruak izan duen hazkundea nabarmentzekoa da (% 14 2016n; % 50 2018n).

3.5. Musika-zirkuituak, musika-kritika eta entzuteko ohiturak

Musika-zirkuituak: zuzeneko musika-programazioa

- Emakumeek Euskadiko **bi jaialdi nagusienetan** duten presentzia aztertu da: BBK Live eta Azkena Rock jaialdietan, alegia. BBK Live 2018ko kartelean presente zeuden emakumeek % 16,66 suposatzen zuten (40 emakume eta 200 gizon). Azkena Rocken, ordea, emakumeen batez bestekoa % 6,89koa izan zen (8 emakume eta 108 gizon). Emakumeek bi jaialdietako karteletan duten presentzia oso baxua da¹⁰.
- **Kontzertuei** buruzko daturik esanguratsuenak “Emakumeen eta gizonen presentzia eta partaidetzaren analisia 2017ko kultura-sorkuntza eta-ekitaldietan” izeneko dokumentuak jaso ditu. 2017n egindako kontzertuetako % 38an musika-taldeak mistoak ziren. Emakumeek (% 52,3) gizonen (% 47) baino presentzia handiagoa dute musika-talde mistoetan. Musika-taldeen % 53a gizon hutsez osatua dago; % 9a, aitzitik, emakume hutsez.
- **Programatzaileen profila** aztertzeke, informazioa “Kultura Auzolanean 2018-2019 Genero Politikak eta Programak” izeneko proiektuaren barruan garaturiko Datu-txostenaren lehen bertsioetik atera dugu. Programatzaile publikoen kategorian (zuzendaritza-

⁸ 2016/17 ikasturteko datuak dira guztiak.

⁹ Ez dago datu zehatzik eskuragarri.

¹⁰ “Mujeres y Música” Elkarteak egin duen “La presencia de las mujeres en los festivales en 2018” izeneko txostenetik ateratako datuak.

karguak kenduta), emakumeek presentzia handiagoa agertzen dute eginkizun profesionalean. Eredu publikoko zuzendaritza-karguetako genero-arrakala, gainera, ez da hain handia (emakumeak, % 42). Sustatzaile pribatuaren eremuan, genero-arrakalarik handiena zuzendaritza-karguetan (% 21) eta teknika-izaerako horietan (% 39) dago. Finean, genero-arrakala sektore pribatuan eta erabakiak hartzeko postuetan da handien.

- Emakumeek **musika sinfonikoaren programazioaren** barruan duten presentziari buruzko datuak aztertu dira ere ¹¹. Euskadiko Orkestraren kasuan (2016/17 denboraldia), ez zen emakumeren bat egile zuen lanik jo, ez zen emakumezko orkestra-zuzendaririk egon eta ez zen zuzendaria emakumeren bat izan zuen kontzerturik egon. Bilboko Orkestra Sinfonikoaren kasuan, programatutako lanen % 2ak emakumeren bat izan zuen egile, zuzendarien % 9a emakume bat izan zen eta kontzertuen % 6a emakume baten zuzendaritzapean eskaini zen. Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren kasuan ez dago emakumeen presentziarik aztertutako inolako alderditan (lan, zuzendari edo kontzertuak).
- **Orkestra nagusietako** plantillak aztertu ostean esan daiteke emakumeek langile guztien herena inguru suposatzen dutela kasu guztietan (Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Euskadiko Orkestra eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoa).

Musika-kritika

Diskoak eta/edo kontzertuak kritikatzeko dituzten EAeko 7 hedabide aukeratu ditugu musikan espezializatutako laguntzaileen artean zenbat emakume dauden ikusteko. Mondosonoro aldizkari espezializatu nagusiaren (Zarata lurralde-mailako bere edizioan) kasuan, hedabidearen bertsio digitalean 2018n eta 2019n argitaratutako Euskal Herriko kontzertuetako kroniken artean emakumeen sinadurek % 16,6 suposatzen dute 24 pertsonako plantilla guztiarekiko.

Espezializatuta ez badaude ere musika-erreseinak eta -kritikak jasotzen dituzten beste argitalpen batzuetan kazetariak ez daude musikaren arloa mugatuta baizik eta

beste arlo batzuek lantzen dituzte ere: emakume bat aurkitu da El Correon eta Garan, bi. Argian, emakume bat musikaren arloari buruz idazten hasi berri da.

Nabarmentzekoa da ere 2016-2018 epealdian Mondosonoro argitaratu zituen “Urteko onenen zerrendetan” agertutako emakumeen diskoen artean apenas egon zela emakume bat idatzitako erreseinarik eta emakumeren batek sinatutako disko bakar batek ere ez zuela lehen postua lortu.

Musika entzuteko eta musikaz gozatzeko ohiturak

Euskal Herrian ez dago sexuen arabera bereizitako datuak jasotzen duen txosten ofizialik biztanleen musikarekiko interesari eta musika entzuteko ohiturei dagokienez ¹². Estatu-mailako Kultur Ohitura eta Praktiken 2014/2015 Inkestak datu horiek jasotzen ditu aitzitik eta aipatuen arabera emakumeek gizonak baino gehiago baloratzen dute bai musika entzutea bai kontzertuetara joatea ere. Proporzioz, ordea, gizonak emakumeek baino musika gehiago entzuten dute egunero eta CD-DVD formatuko musika gehiago erosten dute.

Garrantzitsua litzateke Euskal Herrira mugatutako gai honen inguruko ikerketa bat egitea, sexuen arabera bereizitako entzuleei buruzko datuek ikuspegi oso baliotsua eskaintzen baitute ikusleria eta entzuleria berriak sortu, kulturaz gozatzeko grina sustatu eta lan berrien ekoizpena bultzatzeko ekintza berriak diseinatu eta proposatu ahal izateko.

“Emakumeen eta gizonen presentzia eta partaidetzaren analisia 2017ko kultura-sorkuntza eta -ekitaldietan, 1. bertsioa” izeneko txostenak Kulturklik plataformari buruz aurkezten dituen datuek ez badute lotura zuzenik musika entzuteko eta musikaz gozatzeko ohiturekin, kultura-agendari lotuta daude eta interesgarriak izan daitezke puntu honetan. Honela, kartelean emakumeak edo presentzia femeninoa duten taldeak sartuta badaude kontzertuen salneurriak ezberdinak direla antzeman daiteke: emakumeak besterik ez dituzten kontzertuen batez besteko salneurria gizonak besterik ez dituzten kontzertuetako batez besteko salneurriaren erdia da ia.

¹¹ “¿Dónde están las mujeres en la música sinfónica?” izeneko azterlaneko informazioa.

¹² Kulturaren Euskal Behatokiaren “Kultura Ohiturei buruzko Panela” delakoaren informazioa ez da nahikoa emakumeen eta gizonen ohituren artean dauden ezberdintasunak ezagutzeko, datuak ez baititu sexuen arabera bereizten.

IV. ANALISI KUALITATIBOAREN LABURPENA

Ikerketa honen ikuspegi kualitatiboak gai honen inguruko ikuspegi ezberdinak aztertu ditu. Horretarako, testigantza pertsonalak bildu dira musika-sortzaile zein erakunde, elkarte, hezkuntza, kultura-kudeaketa, Musikologia, Soziologia eta Artearen Historia bezalako arlo ezberdinei loturiko pertsona adierazgarri zenbaiti eginiko 33 elkarrizketetan.

Beren erantzunak aztertu eta pautak komunak zein errepikatutako egoerak aurkitu ditugu, bai eta azken urteotan aldaketa esanguratsua bizi izan duten patroiak ere. Ondokoak dira ikerketan behin eta berriz azalatu diren gaiak:

4.1. Erreferente falta

Emakumeek orokorrean eta musikaren arloan bereziki bizi duten erreferente falta elkarrizketetan eta ikerketaren bibliografia-analisan behin eta berriz azalatu den gai bat da. Erreferenterik gabe, betiketuko diren estereotipoetan oinarrituta eraikiko dira bokazioak. Neska batentzat zaila izango da zerbaiten desira izatea gauza hori ezinezkotzat jotzen badu; zaila izango du ogibideren bat izatea bere eskueran ez dagoela edo berari ez dagokiola uste badu. Bokazioa eraikuntza kultural bat da eta hezkuntzak berebiziko garrantzitsua dauka prozesu horren barruan. Horrexegatik, elkarrizketatutako pertsonak musikaren emakumezko erreferenteak edo emakumezko historikoak berreskuratzeko garrantzia aipatu dute. Emakume garaikideen lana aintzat hartu eta baloratzearen garrantzia nabarmendu dute ere, emakumeentzako musika-sorkuntzaren aukera iruditeria kolektiboan eraikitzen laguntzeko.

Elkarrizketetan antzeman denez, zaharragoak diren egileek zailtasunek dituzte beren hastapenetan zituzten erreferenteak izendatzeko. Gazteenek, ordea, ez dute arazorik beren musikarako inspirazio-iturri izan diren emakumeen izenak aipatzeko. Aldaketarako joera honek agerian uzten duenez, erreferenteak agertzen ari dira pixkanaka-pixkanaka eta aipatuei esker sortzaile gazteek beren bidean bakarrik ez daudela, aitzindari -edota sudurluze- ez direla senti dezakete.

Beren hastapenetan erreferenterik izan ote zuten galdetu zaienean, elkarrizketatutako emakume gehienek diote beren

garaian ez zirela erreferente falta horren kontziente izan. Geroago jabetu ziren horretaz. Nabarmentzekoa da ere feminismoaren mugimendu eta teorietara gerturatzeak ekarri zuela askotan erreferente gehiago bilatzeko motibazioa.

Erreferenteak garrantzitsuak diren bezalaxe, elkarrizketatutako pertsona gehienek diote oso garrantzitsua dela ere familian edo eskolan erreferente bat izatea musika jotzen hasten diren gazteen autoestimua indarti, beren jakin-nahia sustatu eta gazte horiek lanean jarraitzea bultzatzeko.

4.2. Estereotipo sexistak musikaren arloan

Lengoiaren garrantzia

Elkarrizketatutako pertsonen arabera, lengoia ez sexistak erabiltzeko berebiziko garrantzia hartzen du musika beren jardueran nagusi duten emakumeak aipatzeko genero maskulinoa oraindik erabiltzen duen arlo batean. Arteen barruan gai teknikoaren -soinua edo argiak- arduraren emakumei erreferentzia egiteko ere genero maskulinoa erabiltzen da oraindik. Kontzeptu horiek genero maskulinoa erabiliz behin eta berriz aipatuz oztopo-eginkizuna betetzen duen errealitate zehatz bat sendotzen da, zeinak beren burua musikari edo soinu-teknikari femenino gisara ikustea galarazten baitien emakumei.

Jabetza intelektualaren arloan erabiltzen den lengoia maskulinoaren ondorioz ere, "egile-eskubideak" bezalako berebiziko garrantzia duten kontzeptuak irudi maskulinoari lotzen zaizkio zuzenean (gizonezko sortzailea edo jeinua). Eskertzekoa da emakume askok (Intangia Elkarte, tartean) egiten duten lana Jabetza Intelektualaren Legeak erabiltzen duen lengoiari buelta eman nahirik, aipatua ireki eta barneratzaile eginaz "egiletza-eskubideak" bezalako kontzeptuen erabileraren bitartez.

Artista baten irudia, emakumearen gorputza

Une honetan irudiak, ikusizkoaren kulturak, posizio hegemonikoa dauka musikarekiko. Emakume baten eta bere sorkuntza-lanaren arteko balizko hautsezintasunari gehitzen badiogu horri, gatazka asko sortzen dira musketan. Irudiari eta artisten esposizio publikoari loturiko gai horiek behin baino gehiagotan agertu dira elkarrizketetan, "emakumeen inguruko hautematearen" kezka horien artean.

Musikaren arloan egon daitezkeen matxismo, mikromatxismo eta estereotipo sexisten inguruan galdetu zaienean “existitu direla eta existitzen direla” erantzun dute, irmoki, elkarrizketatutako pertsonak. Elkarrizketatutako zenbait pertsonak, hain zuzen ere, musikaren arloko prentsaren estereotipo sexisten erabilera eta jarrera matxistak gaitzetsi dituzte. Emakumehoriek beren fisikoaren inguruko eta kontzertu baten kronika batek izan behar duen horren testuingurutik kanpoko iruzkinen bat xehetasun osoz adierazteko gai izan dira eta gertakari hori norberaren karreraren hastapenetan markatzen zaituen zerbait dela gaineratu dute. Beren ibilbide profesionalaren hastapenetan zeuden neska gazteak izanda horrelako iruzkin sexistak entzun behar izan zituztenez emakumearen irudia eszenatokian -eta gizonetzko bere kideen irudiak jasotzen duen hautematearen aurrean- nola hautematen den ezagutu ahal izan dute hasiera-hasieratik. Izaera horretako kritika horiei aurre egiteko “irudi maskulinoago bat eskaintzen saiatu zirela” adierazi dute elkarrizketatutako zenbait emakumek, “gehiago errespeta zezaten”.

Musikari gazteetako batzuek aitortu dutenez barne-gatazka moduko bat sentitzen dute emakume izate hutsagatik eta beren irudiagatik beraiekin gehiago kontatzen delaz ohartzen direnean. Zentzu horretan, musika-industriaren negozioak eta bere merkatu-logikek emakumeen gorputza salmentarreminta baten gisara erabiltzeko sortzen duten presioen harira elkarrizketatutako emakume gehienek adierazi dute erosoago, askeago eta errespetatuago sentitzen direla norbere kontura kudeatutako inguruetan, musika-industriaren mekanismoetatik eta beren ohitura eta inertziatik at.

Solasaldietan agerian utzi den beste gai bat da emakumeek bere buruari exijitzen dioten maila handiagoa eta baloratuak izateko gizonetzko beren kideak baino balio handiagoa agertu behar dutela sentitzen dutela askotan.

Genero-rolak instrumentua edo ogibidea aukeratzekoan duten eragina

Datu kuantitatiboan azterketan ikusi bezala historikoki betikotu diren rolak daude eta aipatuek instrumentu bat aukeratzekoan edo musikaren arloaren barruan ogibide zehatz bat aukeratzekoan eragiten dute. Goi-mailako musika eskoletara, esaterako, beren instrumentua aukeratua dutela iristen dira ikasleak, aukera hori 8 edo 10 urterekin egiten baita. Faktore ugari erabaki hori baldintza dezakete: familiaren eta/edo beren gisakoen eraginak, faktore

ekonomikoak, instrumenturen bat musika bandan egotea ala ez eta, nola ez, genero-estereotipoak ere.

Elkarrizketetan galdetutako pertsonak goi-mailako ikasketetako egungo ikasleen ikuspegia azaldu digute, orkestren barruan ikus daitezkeen joera jarraitzen dutela adieraziz. Harpa, adibidez, emakumeek gehienbat jotzen duten instrumentu bat da eta metaleen kasuan (tronpeta, tronboi, etab.), aitzitik, gizonak dira nagusi. Klasikoaz haraindiko beste generoen ikasketei dagokienez, jazean gizonak dira nagusi (abeslari gehienak emakumeak badira ere). Erdibidean hari igurtzizko musikatresnak (biolin edo biolaren kasuan oreka dago emakumeen eta gizonen artean, biolontxeloen emakumeak dira nagusi eta gizonak, aldiz, kontrabaxuaren kasuan) eta egurrezko haize-instrumentuak daude, nahiz eta gizonen gehiengo txikia agertu (oboearen kasuan izan ezik, emakumeak baititu nagusi). Gizonen gehiengo zabala dute perkusioan. Alderdi positibo gisara esan emakumezko ikasleak ikusten hasiak garela tradizionalki maskulinoak izan diren instrumentu batzuk ikasten: bateria, tronpeta, jazz tronpeta... Eta geroz eta emakumeen presentzia handiagoa ikusten dela konposizioko espezialitatean.

Azkenik, goi-mailako musika ikasketak bukatzen dituztenen artean mugikortasun profesionalerako aurrejoera nabariagoa agertzen dute gizonak. Emakumezko ikasleek bidaiatzeko nahi txikiagoa agertzen dute, beren bikotekidearekin geratzea nahiago dutelako. Egonkortasuna bilatzen dute bereziki, oposaketa bat gaudituz eta irakasle-plaza finko bat lortu eta beren familiak sortzea. Honela, emakumezko hezitzaile eta pedagogoen rola betikotu egiten dira (Konposizioko eta Orkestra-zuzendaritzako adarretan gizonak dira nagusi; Pedagogia, aldiz, feminizatua dagoen eremu bat da).

4.3. Emakumeak arloa uzten duten unea

Emakumeek musikaren arloa uzteko (behin-behinean batzuek, betirako besteek) aukeratzekoan dituzten uneak identifikatu ditu ikerketa honek: ikasgela edo entseatzeko aretoa eta eszenatokiaren arteko jauzia; eta amatasuna.

Ikasgela edo entseatzeko aretoa eta eszenatokiaren arteko jauzia

Lehen “botila-lepoa” musika-prestakuntzako lehen urteen eta eszenatokien arteko jauzian ematen da. Musika-eskolako ikasgelak, eskola partikularrak eta entseatzeko aretoak neskez beteta daude baina, ondoren, neskek mutilek baino zailtasun

handiagoak dituzte esfera publikora jauzi egiteko. Estereotipo sexistak neskek ikasgela utzi eta zuzenean edo musika-talde batean jotzeko duten interes txikiago hori ulertzeko gakoetako bat dira. Norbere buruari jartzen dioten exijentzia-maila handiagoa eta gizonak baino balio gehiago agertzeko beharra arestian aipatutako jauzi hori egiteko emakumeek agertzen dituzten erreparatu handiagoen beste zio bat izan daiteke.

Amatasuna

Amatasunean emakumeak beren jarduera gelditzera behartuta daude. Zenbaitetan, ahalik eta gehien atzeratu den bizitzako une bat da. Izan ere, elkarrizketatutako pertsonak aitortu dute beren musika-jarduera haurdunaldiaren unetara arte luzatzen saiatu direla. Gai honi dagokionez azaldu zaigun alderdi bat da emakumeek oso barneratua dutela zaintzailearen rola, beren jarduerarekin jarraitu ahal izateko ama txarrak direlaren sentsazioa izaten baitute behin baino gehiagotan.

Amek duten beste arazo bat beren musika-karrera berriz abiarazteko dituzten zailtasunak dira; bai eta aipatu hori zer nolako baldintzetan egiten duten ere. Testuinguru konplexu horretan, gertuko ingurunean sorturiko sareek eta taldearen babesak berebiziko garrantzia dute ama izateko erabakiak ez dezan emakumeen karrera artistikoa eten. Ama izan diren elkarrizketatutako emakume guztiek logistika eta antolakuntza ahalbidetuko duen gertuko senideen eta lagunaren sare bat egonkortzeko garrantzia azpimarratzen dute.

Nahiz eta laguntzak izan, artista askok baldintza zehatz batzuk itundu behar izaten dituzte bikotekideekin beren jarduera profesionala mugatu (egun zehatz batzuetara) eta, honela, seme-alabarekin asteburuetan egon ahal izateko. Horrek lanei ezetz esatea eskatzen du askotan. "Makro"-izaerako ekintza interesgarri batzuk aplikatzen dira ere: amatasun-bajak luzatzea, laguntzak ematea autonomo diren amei, lana eta familia bateragarri egiteko aukerari loturiko beste laguntza ekonomiko batzuk aintzat hartzea...

Azkenik, amek prestakuntzara sartzeko duten aukerei dagokionez arrakala bat dagoela aipatu da. Beren eguneroko atazek aparte aske duten denbora oso laburra denez ez dute prestakuntza-ikastaro edo -mintegietara bertaratzeko aukerarik beren gaitasunak eta ahalmenak eguneratzeko. Ondorioz, ama izan diren emakumeek beren gizonetako kideek baino baldintza kaskarragotan garatzen dute beren musika-karrera.

Horregatik guztiagatik, elkarrizketatutako pertsonen ustez osoa garrantzitsua litzateke "ama eta artista izateak zer suposatzen duen ikusaraztea", dakartzan zailtasunen inguruan kontzientziatu ahal izateko. Eta "egoera hau guztia gurekin kontatzen hasten direnean, emakumezko programatzaile gehiago daudenean aldatzen hasiko dela" gaineratu dute itxaropentsu (edo gizonetzko programatzaileek enpatia agertzen hasten direnean).

4.4. Legitimazioa

Musika-kritikak "gizarte-botere" handia dauka eta pertsona bat legitimatzeko ahalmena dauka bere lanak ikusgarri eginaz, aitortuz eta, finean, legitimatuz. Elkarrizketatutako pertsonak baieztatu dutenez gizonak dira nagusi musikaren arloko hedabidetan eta ez dago sentiberatasunik genero-ikuspegiari dagokionez. Hedabideetako sentiberatasun falta horrek eragin berbera dauka beste eremu batzuetan: denda, kontzertuen programazio, lan berrien sorkuntza, etab.

Beste legitimazio-eragile bat sariak eta erakundeen diru-laguntzak dira. Epaimahai batek zure lana positiboki baloratu eta sari edo diru-laguntzaren bat ematen badio, lan horrek ospea hartuko du musikaren arloan eta bere egilearen curriculum-a sustatzen lagunduko du. Sari eta diru-laguntzen inguruan adierazi da ere proiektu eskatzaileak bete behar dituen administrazio-baldintza ugarien ondorioz hautagaiek eskaria-prozesu hori bukatu baino lehen utzi uko egin dutela zenbaitetan. Deialdi batzuen zurruntasun burokratikoak oztupo gaindiezina izaten ohi da diru-laguntza bat eskatzeko prozesuari lehen aldiz aurre egiten dioten artista gazteentzat.

Gai honi loturiko alderdi positiboa da sariak eta diru-laguntzak baloratzeko batzordeak paritarioak izaten direla normalean deialdi publikoetan; pribatuetan, aldiz, badago zer egiteko oraindik gai honi dagokionez.

Laguntza publikoen inguruan adierazi da ere normalean kuotak ezartzen badituzte ere emakumeek orokorrean laguntza gutxiago eskatzen dituztela eta gizonek baino presentzia txikiagoa dutela lehiaketa eta sarietako deialdietan.

4.5. Kuotak eta ekintza afirmatiboa

Berdintasuna bermatzeko xedearekin borrokatzen den bitartean, elkarrizketatutako pertsonen iritziz faktore bakarra egon da emakumeen musika entzutea ahalbidetu duena:

ekintza afirmatiboa. Elkarrizketatutako zenbait pertsonaren iritziz, ordea, ekintza afirmatiboa uzteko unea iritsi da: dagoen arriskua da ekintza horrek “konkurrentzia bidegabearen biktima direla pentsatzera bultzatuz gizonak eta, ondorioz, emakumeen lorpenak gutxiestera ere”¹³. Horrexegatik, aproposena berdintasun ezeko arazoaren erroak bilatu eta konpontzen saiatzea litzatekeela diote.

Programazioari dagokionez, ikusgarri eta programatua izan merezi duten emakumeren proposamen asko daudela adierazi da. Esfortzu bat egin beharra dago emakumeen proposamenak aurkitzeko eta programazioaren ardura duten pertsona guztiak ez dira lan hori egiteko gai edo ez daude horretarako prest eta, ondorioz, gai horren inguruan sentsibilizatu beharra dago.

Emakume gehiago programatzeko behar argiaz gain, programazio hori zer nolako baldintzetan egingo litzatekeen aztertu beharko dela adierazi dute ere, hau da, emakumeen lan-eskubideak betetzen diren, etab.

Azkenik, ondoko gaia aipatu da ere: Bilbo BBK Live edo Azkena Rock bezalako jaialdi handietan emakumeek duten presentzia txikia ikusita, itxaropenez ikusten dira tokiko kultura-elkarte ezberdinek beren kontura antolatuta eta askoz minoritarioagoak diren beste ekimen batzuk. Diru-laguntza ekonomiko xumei eta koordinatzen dituzten boluntarioen lanari esker ateratzen dira aurrera eta paritatetik askoz gertuago daude normalean. Ekimen horiek, horrenbestez, hain mediatikoak ez direnez eta musika aisialdiarekin eta turismoarekin zuzenean eta/edo eskusiboki lotzen ez dutenez, kultura berarekin baizik, arreta eta babes handiagoa izan beharko zuten administrazioaren aldetik.

4.6. Soldata-arrakala

Txosten honetan dagoeneko aipatu den bezala, musikaren arloan emakumeen lana zer nolako baldintzetan kontratatu, hedatu edo programatzen den inguruko kezka dago.

Beltzean kobratzen diren kaxetak, egiazko ordainsarian oinarritu ez eta gutxieneko zenbatekoa aplikatuz egindako Gizarte Segurantzarako altak eta antzeko faktoreen ondorioz ezinezkoa da euskal musikaren arloan egun dagoen soldata-arrakalaren egiazko irudi bat eskaintzea. Elkarrizketatutako emakume batzuen esanetan zenbatekoak “txikiak” direnean

sustatzaileek ez dute arazorik ordainketa beltzean egiteko; nahiago dutela ere esan daiteke. Eta prekarietatean harrapatuta gelditzeko era bat da hori: artistek ere nahiago dute kaxeta ez igo, gehiago ez kobratu, beltzean kobratzen jarraitu ahal izateko. Gizonekin ere gertatzen den fenomeno bat da baina emakumeen kasuan ageriagoa da agian.

Kontzientzia-azterketa bat egin beharko lukete alde guztiek: beltzean ordaintzen duten areto eta jaialdiek, ez ikusiarena egiten duten agintariek eta aipatu egoera -ondorioen kontziente izanda edo izan gabe- onartzen duten artistek ere.

4.7. Erantzukizuneko lanpostuak

Emakumeen legitimazioa eta aitortzak, bai eta lanpostu beraren balorazioak ere beren eragina dute emakume batek zuzendaritzako eta erantzukizuneko lanpostu baterako hautetsi izateko ala ez izateko hartzen duen erabakian. Elkarrizketatutako zenbait pertsonen ustez denbora kontua baino ez da, goranzko joera bat antzeman baitaiteke erabakiak hartzeko karguetan emakumeek duten presentzian. Belaunaldi gazte hau 50 urteko adinaren bueltan dagoenean zuzendaritza-karguetan emakume gehiago ikustea espero dute elkarrizketatutakoek, nahiz eta emakumerik jasotzen ez duten izendapen asko aurki daitezkeen oraindik erakunde publikoen arloan.

V. PROPOSAMENAK

Ikerketa honen zati handi bat beste kultur arlo batzuetan eta/edo beste lurralde batzuetan gauzatutako esperientziak aztertzen eman dugu, adibide inspiratzaileak izan daitezkeelakoan musikaren arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko ekintzak garatu ahal izateko.

Praktika horiek talde ezberdinetan egituratu dira, beren arteko puntu komunak aintzat hartuz. Proposamen gehienak zeharkatzen dituzten zenbait alderdi orokor daude: emakumeen sorkuntza-lana ikusgarri egiteko eta aitortzeko beharra, horizontaltasunarekin loturiko lan asoziatiboaren garrantzia, prestakuntza, sariak eta taldearen babesa. Politika horizontalak indar handiz ageri zaizkigu, gora begiratzera, erreferente baten irudia aintzat hartuz bultzatzen duen

13 Haizea Barcenillaren hitzak; “Presencia de las mujeres en las artes visuales y el audiovisual” izeneko txostenean jasota.

gunetzat hartzeaz gain, beste pertsona batzuekin batera eta beren laguntzarekin haztera eta sortzera bultzatzen duen gunetzat hartzen baitute sorkuntza-espazioa.

5.1. Aldizkako bilera ez mistoak

- **Intangia, Asociación para la defensa de Intangibles.** Nafarroan sortua 2009. urtean, sektore artistiko ezberdineko intelektualak eta sortzaileak biltzen ditu. Aktibo ukiezinak sustatu, hedatu eta babestu eta beren inguruko kontzientziarioa bultzatzea ditu bere xedearen artean. Intangia elkarteak "Jornadas sobre propiedad intelectual en femenino" izeneko bilerak antolatzen ditu. Aldizkako bilera horietan, sorkuntzaren arloko emakumeak (artista, kultur arloko eragileak eta ukiezinak buruzko lege-diziplinako profesionalak) bildu eta beren iritzi, esperientzia, ezagupen eta ideiak partekatzen dituzte.
- **Ladies, Wine & Design.** Mundu-mailako ekimen bat da, non emakume sortzaileak kopa bat ardo baten inguruan biltzen diren diseinu, sormen, negozio eta bizitzaren inguruko esperientziak partekatzeko xedearekin. Mundu osoko 140 hiri baino gehiagotan egiten da eta emakumeentzat inspirazio-, mezenasgo- eta babes-iturri izango den plataforma bat eraikitzea du xede. Ekimen hau Bilbon garatzen da ere eta hiriko sorkuntza-arloko eta musika barne hartzen duten sorkuntza-profil mistoko emakume ezberdinak gonbidatzen dira ekitaldietara.
- **Girls Rock Camp Alliance.** Mundu-mailako rock kanpaleku ez mistoen aliantza bat da. Kanpaleku horien xedea da neska, emakume eta genero zehatz batekin identifikatzen ez diren pertsonak gaitu eta ahalduntzea, beren sorkuntza-potentziala musikaren bitartez gara dezaten, berdintasuna sustatuz eta pertsona guztiei ahotsa eman eta maila bereko kide egiten dituen komunitate bat eraikiz.

5.2. Elkarte eta kolektiboak

- **Mujeres y música (MYM).** MYM delakoaren xede nagusia da musikaren arloko dinamika matxistak ikusaraztea eta horien aurka borrokatzea. Ekitate-eszenatoki bat bilatzen du, non sexuak ez baituen abaguneak mugatuko, ez eta entzuleen erantzuna baldintzatuko ere. Ikerketak egiten ditu, datuak zabaldu, hausnarketa bultzatzen du eta emakumezko musikari eta musikagileen datu-base bat dauka musikaren arloko programatzaileei artista berriak aurkitzeko lana errazteko helburuarekin.
- **Mujeres en la música.** Emakumeak musikaren arloan sustatzeari dagokionez erreferentziatzeko elkarteetako bat da, eta zaharrenetakoa ere. Musikaren arloko emakumezko profesionalen presentzia sendotu, hedatu eta sustatu nahi du, historian zein egun ere. Beste aro batzuetako eta egungo emakumezko egileen lanak aurkezten dituzten kontzertu eta jaialdiak programatzen ditu. Getxoko Emakumeak Musikan Jaialdia eta hiri ezberdinetan mahai-inguruak eta kontzertuak antolatzeko xedearekin Off Arteria sarearekin garatzen duen lankidetzan nabarmentzekoak dira.
- **Women In Sound Women On Sound (WISWOS).** Pertsona, talde eta elkarteak batzeko sareen saretzat ikusten du bere burua. Soinu, musika eta teknologiaren arloetako ezagupenen trukea sustatu nahi du. Soinuaren arlo ezberdinetan -musika-teknologiatik soinu-arteraino, soinua eta gizartea, soinuaren politika eta bitarteko beste arlo batzuk- lan egiten duten emakumeak ikusgarri egitea izan zen bere lehen helburua. Sareak sortzeko eta lanak interpretatu eta erakusteko aukerak eskaintzen ditu egun. Jomuga duen beste gai bat honako hau da: neskek musika-teknologiaren eta soinu-arten eremuan duten partaidetzan bigarren hezkuntzak zer nolako eragina duen aztertu nahi du.
- **Emarock.** Euskal Herriko musikaren arloan emakumeen protagonismoa bultzatu, hedatu eta promozionatzeko helburuarekin jaio zen. Elkarteak sustatu dituen ekimenak oso anitzak izan dira: argazki-erakusketak antolatu ditu, liburuak argitaratu, kontzertuak antolatu edo dokumental bat sortu du...

5.3. Emakumeen mentoretza, formakuntza eta laguntzarako programa

- **SouthMed WiA – Women in Audiovisual in the Southern Mediterranean.** Hego Mediterraneoko herrialdetan ikus-entzunezkoen arloan lan egiten duten emakumeen gaitasunak indartzea bilatzen duen programa bat da. Ondoko jarduerak gauzatzen ditu: diru-laguntzen deialdiak egin eta sareak sortzea xede duten eta ikus-entzunezkoen arloko profesionalak, emakumeak bereziki prestatzeko topaketak antolatzen ditu finantzazioa lortzeko eta koprodukzio, merkaturatze eta hedatzeari dagokienez dituzten gaitasunak sendotzeko. Sorkuntza, ekoizpena eta banatzea bezalako eremuetan emakumeek duten presentziari buruzko datuak biltzen ditu ere.
- **Noka Mentoring delakoa prestakuntza- eta laguntza-programa berezi bat da.** Euskal emakumezko zinegileak ikusgarri egin eta ahaldundu nahi ditu, beren alboan egonaz profesionalizaziorako bidean zehar.
- **Bertigo programa (Espacio Artemisa)** izeneko zerbitzuak babes eta ahalduntzea eskaintzen dizkie Portugaleteko eta inguruetakoa artista gazteei. Laguntza, kultura-ekintzailatza, lan-eskubide eta antzekoen inguruko informazioa eskaintzen du ere artista gazteen komunitate baten bitartez, non pertsona horiek elkarri babes eman eta esperientziak, ezagupenak eta zalantzak partekatzeko aukera baituten.

5.4. Datu-baseak

- **Wikiemakumeok proiektua.** Anitzagoa eta paritarioagoa den Wikipedia baten alde lan egiten duen emakume-talde bat. Emakumeen presentzia areagotu nahi du entziklopedia horren edizioan; emakumeen inguruko bere edukia zabaldu nahi du ere.
- **Women in experimental music.** Entzuleria orokorrenentzat oraindik ezezagunak diren musikagile esperimentalen datu-base bat da.

- **Gabiltza – Emakume Adituen Biltoki Digitala.** Genero-arrakalarekin bukatu nahi du Gabiltzak. Horretarako, emakumezko adituen esperientzia eta ezagupenak bildu nahi ditu, “aditu” hitzaren ohiko kontzeptua -gizonezko zuri heterosexuala, gizarte-maila ertain edo altukoa” alde batera utziz. The Women’s room ekimen britainiarra bezalako nazioarteko datu-base ezberdinetan inspiratua, hedabidetan presentzia txikia duten emakumeak legitimatu nahi ditu Gabiltzak.

5.5. Jardunbide egokien kodeak eta eskuliburuak

- Emakumezko musikagileak ikusgarri egiteko eskuliburua (edo ezkutaturako irudia nola azaldu). Mercedes Zavala musikagileak emakumeen lanak programatu eta ikusgarri egiteko jarraibideak eskaintzen ditu.
- MU-ISM Industry Code of Practice. Britainia Handiko jardunbide egokien kodea. Musikaren arloko jazarpen eta bereizkeriarekin amaitu nahi du.
- Musikaren arloan kontratatzeko jardunbide egokien eskuliburua.
- Ikusizko arteetako jardunbide profesional egokien eskuliburua.
- Kultura-kudeaketarako jardunbide egokien gidaliburua.


5.6 Balizko hiru proposamen. Garapena

Jarraian jasotako proposamenen garrantzia ondokoa da: epe motzera edo ertainera gauza badaitezke ere, beren eraginak epe luzerako arrasto positibo bat utz dezake. Deskribatu diren esperientzia inspiratzaile gehienak zeharkatzen dituzten bi funtsezko alderdiak hartu dira aintzat: bata, emakumeek egindako sorkuntza-lana ikusgarri egiteko eta aitortzeko beharra; eta bestea, horizontaltasun, sare, talde-babesa, prestakuntza eta gaikuntzaren garrantzia.

LAN-TALDE EGONKOR BAT SORTU ETA SENDOTZEA. Lantalde egonkor bat sortu eta sendotzea proposatzen da. Sektorean aditu diren pertsonak bilduko zituen eta bere xedea behatoki-eginkizunak betetzea izango litzateke: emakumeek Euskal Herriko musikaren arloan bizi duten egoera, partaidetza eta presentziari buruzko datuak eguneratzea eta ikusgarri egitea, eguneratutako datu-baseak sortu eta mantentzea, etab., aurki daitezkeen arazo edo egoera zehatz batzuei aurre egiteko aukera egon dadin.

MENTORETZA ETA PRESTAKUNTZA PROGRAMA. Ikus-entzunezkoen arloan dagoen mentoretza-programaren (Noka mentoring) antzeko programa bat sortzea proposatzen da, musikaren eta zinearen arloan dauden ezberdintasunak aintzat hartuz. Programa horretaz gain, emakume gazteak eta, halaber, prestakuntza-berezia lortzeko zailtasunak dituzten emakumeak (laguntza bereziak aurreikusiz ere) jomuga duten prestakuntza-jarduerak puntualak (ikastaroak, mintegiak, etab.) aurreikus daitezke ere. Komenigarria litzateke ere entzulerien prestakuntzan sakontzea eta musikaren arloko programazioan zein kazetaritzan aritzen diren profesionalen prestakuntzan sakontzea xede izan eta genero-ikuspegia barneratzen dute tailerrak antolatzea.


GENERO-IKUSPEGIA BARNERATUKO DUEN JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURU BAT OSATZEA. Genero-ikuspegia barneratuko duen Jardunbide Egokien Eskuliburu bat osatzea da azken proposamena. Ikusizko-artisten Elkarleen Batasuna delakoak 2008. urtean argitaratu zuen “Manual de Buenas Prácticas Profesionales en las Artes Visuales” izeneko txostena abiapuntu ezin hobe izango litzateke horretarako. Erreminta baliagarria da aipatu dokumentua, funtsezko esparru bat da edozein harreman ezarri ahal izateko artista eta erakundeen -publiko zein pribatu- artean. Horrez gain, kontratueterako ereduak eta gomendioak jasotzen ditu, bai eta funtsezko gaitzat jotzen diren horien inguruko dekalogo bat ere: adierazpen askatasunaren eta sortzaileen eskubide moralen errespetua, bidezko ordainsari bat jasotzeko eskubidea, etab.





MUSIKAREN industriako emakumeen eta gizonen **EGOERA** EAEn

AMAIA ISPIZUA



I. SARRERA

Ikerketaren helburu orokorrak eta helburu zehatzak

Ikerketa honen xedea Euskadiko musikaren industrian lan egiten duten emakumeen eta gizonen presentzia eta egoera ebaluatzea da. Emandako pauso zehatzak honako hauek izan dira:

- 1 Musikaren industrian lan egiten duten pertsonen buruz lehendik egindako ikerketen bilaketa bat egitea, generoaren arabera bereizitako datuekin.
- 2 Sektoreari zuzendutako inkesten bidez, zenbait datu modu kuantitatiboan aztertzea: esate baterako, kulturaren kontsumo-ohiturak, demografia, lanean diharduten gizonen eta emakumeen adina, ordainsariak, euren karguak...
- 3 Musikaren sektorean postu garrantzitsuak eta erreferentzialak dituzten emakumeen elkarriketak eginez azterketa kualitatibo bat sortzea, eta baita beste esparru batzuetan lan egin arren egungo egoeren zergatia ulertzen laguntzen diguten emakumeen ere.
- 4 Esperientzia horietan eta beste iturri batzuetatik (artikuluak, liburuak...) jasotakoetan oinarrituta, ondorio sorta bat osatzea.
- 5 Ezarri beharreko neurri multzo bat proposatzea.

II. EAE-KO MUSIKAREN INDUSTRIAREN KARAKTERIZAZIORAKO DATU KUANTITATIBOEN LABURPENA

Sektoreko eragileei eginiko elkarriketa anonimoetako laginketa-fasean lortutako datuen eta lehendik argitaratutako ikerketetatik jasotako datuen azterketa.

2.1 Prestakuntza

Berariaz musikaren industriaren adar ezberdinen kudeaketara bideratutako irakaskuntza arautuaren eskaintza, oraindik, oso urria da.

Musikaren sektorean lan egiten duten enpresak eta erakundeak, funtsean, honako sail hauetan egituratuta daude: management eta booking, antzokien eta festivalen programazioa, produktuen zuzendaritza diskoetxeetan, produkzio teknikoa eta logistika, komunikazioa eta marketina, salmenta-komertzialak eta finantza- eta kontularitza-sailak.

Alde batetik, ikuskizunetara bideratutako *prestakuntza profesional teknikoa* ezberdindu daiteke, merkataritzaren eta marketinaren adar batzuk izatez gain, batik bat etorkizuneko teknikariak prestatzeko bideratuta dagoena (soinu, argizatze edota bideo-errealizazio teknikariak, adibidez), eta beste alde batetik, *unibertsitate-ikasketak*, enpresen zuzendaritza edota marketina eta komunikazioa bezalako ikasketak orokorrak edota kultur-ekitaldien kudeaketa eta publikoen sorkuntza bezalako master zehatzagoak eskaintzen dituztenak.

LANBIDE HEZIKETA EAE-N

- Merkataritzan eta marketinean emakumeen matrikulek % 48,09 hartzen dute, eta enpresen zuzendaritzaren kasuan, berriz, % 60,96.
- 2018-2019 ikasturtean, ESCIViko (Andoingo Zine eta Bideo Eskola) 282 izen-emateetatik % 30,85 emakumeenak izan ziren, aurreko ikasturteko kopurua (% 29,37) baino zertxobait gehiago.
- Soinuaren espezializazioan (Ikus-entzunezkoetarako eta Ikuskizunetako Soinuaren Goi-mailako Gradua), soilik % 10,20 dira emakumeak, gainerako % 89,8 gizonenak izanik, guztira izandako 49 izen-emateen artean.
- Irudia argiztatzeko, hartzeko eta tratatzeko goi-mailako graduaren kasuan, bitxia izan arren, aurkakoa gertatzen da; matrikulen % 70 emakumeek osatzen dute (2018-2019 ikasturtean 35 emakume eta 15 gizonenak izan zuten izena).

UNIBERTSITATE-IKASKETAK

- Euskal Herriko unibertsitateetako artearen eta giza zientzien adarretan, izen-emateen gehiengoa emakumezkoena izan zen (% 65,54 emakumeak eta % 34,46 gizonak, guztira 3921 matrikuletatik).

- Musikaren industrian lan egiten duten enpresen ohiko espezialitateetan emakumeen presentzia handiagoa da, enpresaren buruzagitzari lotutako ikasketetan salbu (% 42,39 dira emakumeak) eta kudeaketari eta enpresa-marketingari lotutakoetan izan ezik (% 39,95 dira emakumeak).
- UPV/EHU-n¹, orokorrean emakumezko irakasleen ehunekoa gizonena baino apur bat baxuagoa da, Gizarte eta Lege Zientzien adarretan izan ezik, adar horretako emakume kopurua altuagoa baita. Unibertsitate pribatueta ezberdintasun hori irakaslerian nabarmentzen da (irakasleen % 45,27 emakumeak dira), nahiz ez den eskaini espezialitatearen arabera bereizitako daturik.

2.2 Profesionalizaziorako jauzia

2.2.1 EAEko musika-sektorearen egitura

Oro har, honako hauek izan litezke EAEko musikaren industria osatzen duten eragileak. Lehenengok, harreman zuzena dute sorkuntzarekin, eta gainerakoak musikaren sorkuntzaren inguruko alderdi ezberdinekin dute zerikusia: kudeaketarekin, antolaketarekin, programazioarekin, sustapenarekin, produkzio teknikoarekin...

Musikariak, konpositoreak, musika bandak, orkestrak, diskoetxeak, disko-dendak, musika-argitaletxeak, kontzertu-aretoak, antzokiak eta auditorioak, kontserbatorioak eta musika-eskolak, musika sustatzaileak, kudeatzaileak, festibalen antolatzaileak, ingeniariak eta soinu eta argizatze teknikariak, kontzertuetako egituren muntatzaileak (scaffolders, riggers, karga eta deskarga...), kontzertuetako segurtasuna, musika-argazkilaritza, kazetariak eta musika-kritikariak, diseinatzaile grafikoak, kontzertuetako ticketing zerbitzuak...

Oso atomizatuta dagoen sare bat da, pertsona autonomoek, mikroenpresek, ETEek eta erakunde publikoek osatzen dutena, eta horrek datu-bilketa zailtzen du, modu globalean sektorea marraztu ahal izateko. Gainera, aurretik egindako ikerketen gehiengoak albo batera uzten ditu aipatutako azpisektore ugari.

2.2.2 Sektorearen dimentsioa

- Kulturaren Euskal Behatokiak bere EAEko Arte eta Kultura Industrien Estatistikatik (2015)² erazitako datuen arabera, musikaren sektoreak 144 eragile zituen 2015ean; horietatik 121 langilek zuzeneko musikaren esparruan ziharduten eta 23 eragilek diskoaren industrian.
- Musika programatzaileen artean, urte hartan eskuratutako datuen arabera, 69 programatzaile publiko zeuden, 21 sustatzaile eta sustatzaile pribatu, 19 kontzertu-areto, 3 orkestra eta 9 musika banda eta txistulari. Diskoaren industria 3 diskoetxek eta 20 disko-dendek ordezkaten dute.

Aurreko urteetan egindako txosten bereko datuekin alderatuz gero, eragile kopuruak 2009az geroztik beherantz egin duela nabaritzen da, bai urte horietan bitzako krisi ekonomikoaren ondorioz, bai kulturaren BEZa % 21era igo izanagatik edota merkatuaren digitalizazioaren harira diskoetxeen sektoreak jasandako krisia dela eta³.

- Sektorearen atomizazioaz gain, datuetatik jasotako beste ezaugarri bat sektoreko eragile garrantzitsuenek gainerakoengan duten pisua da. Hala, 2015ean, EAEko 5 sustatzaile pribatu nagusien % 23,8k diru-sarrerara guztien % 84,4 sortu zuen.
- Programatzaile publikoei dagokienez, deigarria da programatzaileen % 7,2k diru-sarrerara guztien % 53,8 sortu izana.
- Aretoen kasuan, % 26,3k diru-sarreraren % 74,4 sortu zuen.
- Sektorearen jasangarritasunaren ikuspegitik, 2015ean sektore pribatutik lortutako datuetan oinarrituta, kontzertuen sustatzaile pribatuen artean susperraldi txiki bat igartzen da, 2009rekin alderatuta eta azken urteetako krisi ekonomiko larriaren ostean⁴.

¹ <http://www.ehu.es/zenbakitan/eu.html/>

² <http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/estadistica/estadistica-de-artes-e-industrias-culturales-2013/r46-19123/es/>

³ FUENTE: MIRADAS: Una lectura analítica de los datos de la Estadística de las Artes y las Industrias culturales.

⁴ <http://www.euskadi.eus/informacion/miradas-2015/web01-s2kultur/es/>

2.2.3 Enpleguaren banaketa sexuaren arabera

Kulturaren Euskal Behatokiak argitaratutako EAEko Arte eta Kultura Industrien Estatistikatik (2015) ⁵ ateratako datuen arabera, orokorrean postu guztietan emakumeen parte-hartzea baxuagoa dela ikus daiteke, kudeaketa-eta administrazio-postuetan izan ezik. Musikaren industriako azpisektoreetan nabarmena da emakumeek zuzendaritza-postuetan duten parte-hartze urria; soilik programazio publikoaren postuak dira gizonen eta emakumeen ordezkariak orekatuagoa dutenak, haien zuzendaritza-postuetan % 42 emakumeak izanik. Halaber, arreta ematen du orkestren zuzendaritzan emakume bakar bat ere ez goteak.

Aurreko urteetako txostenekiko garapena behatuz gero, azpisektore guztietan emakumeak sartzeko joerak argi eta garbi gora egin duela ikusten da, eta bereziki nabarmena da orkestretan jazo den igoera (zuzendaritzan salbu), batik bat azkeneko datuen alboan (2013).

Oraindik ere asko dagoela egiteke ondorioztatu daiteke orokorrean, eta esparru guztietan datu asko % 50en azpitik egon arren, batez ere sektore pribatuan, emakumeak txertatzeko joera goranzkoa da. Sektore honetako enpresetako zuzendaritza- eta buruzagitzak postuetan emakumeen parte-hartzea oso baxua dela ere azpimarratu behar da ⁶.

PROGRAMATZAILEAK ETA PROGRAMATZAILE PUBLIKOAK

- Programatzaile publikoen taldeetako emakumeen ehunekoak nahiko berdintasunezkoa da (% 47,3) eta zuzendaritza-postuak % 50ean orekatuta daude. Datu horrek desbideratzeren bat izan dezake errealitatearekiko, jasotako erantzunen kopurua baxua dela eta, baina aurretik aipatutako Kulturaren Euskal Behatokiaren 2015eko datuekiko oreka handiagoa dagoela adierazi lezake.
- Antzerki taldeen tamaina txikia da, 2 eta 12 langileen arteko lan-egiturak dituzte, eta euren egitura nahiko orekatua da emakumeen (% 47,37) eta gizonen (% 52,63) artean.

- Lortutako emaitzak kontuan izanez gero, eta programatzaile guztien erantzuna izan gabe, zuzendaritza-postuetako emakumeen presentzia orekatua da, % 50ekoa.
- Antzokietako kontzertuen programazioari dagokionez, erantzun kopuru baxuaren ondoriozko desbideratzea kontuan izanda ere, desproporzio bat igarri da emakumeak buru diren bandekin programatutako kontzertuen eta gizonen banden kontzertuen artean (emakumeek zuzendutako bandak % 31,75 dira).

KONTZERTU-ARETOAK

Kultura Live elkarteetan sartuta dauden 17 aretoetara bidali da galdetegia, baina parte-hartze baxua dela eta, ezin dugu datu erabakigarriak eskuratu.

ENPRESA PRIBATUAK: Diskoetxeak, kudeatzaileak, kontzertuen eta festibalen sustatzaileak.

Galdetegia MIE-ko (Musika Industriaren Elkarte) 16 diskoetxetara eta 34 zuzeneko ekoizpen-enpresetara bidali da.

- Enpresa pribatuetako zifrak programatzaile publikoekin alderatuta ezberdinak dirudite, galdera-sortari erantzun dioten enpresetan emakumeen presentzia soilik % 37,74koa baita.
- Zuzendaritza-postu kopuruari dagokionez, berdintasun eza ere nabarmena da, soilik emakumeen % 17,86 baitaude erabakitzeko ahalmena duten postuetan.

ENPRESA PRIBATUAK: Enpresa teknikoak

Galdetegia MIE-ko (Musika Industriaren Elkarte) 16 enpresa teknikotara bidali dugu. 6 erantzun jaso dira, eta horietatik ondorioztatzen da azpisektore teknikoan langileen gehiengoa gizonezkoek osatzen dutela (% 81,25 gizonezkoak dira eta % 18,75 emakumezkoak) eta jasotako 6 erantzunetan zuzendaritza gizonen esku dago (jasotako erantzunetako zuzendaritza-postuetan % 0 emakume daude).

2.3 Musikaren industriarentzako diru-laguntzak

Euskal erakunde publiko ugari dirulaguntzak ematen dituzte urtero musika-ekitaldiak antolatzeko. Eusko Jaurlaritzak, bere Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren bidez eta euskal kultura nazioartean zabaltzeko xedea duen Etxepare Institutuaren bitartez, zenbait dirulaguntza eskaintzen ditu musika-sorkuntza eta musika-ekitaldien antolaketa sustatzeko.

Dirulaguntza egonkorrenak honako hauek dira ⁷:

EUSKO JAURLARITZA

Zuzenak

- Musika-konposiziorako dirulaguntzak. Zuzkidura 50.000€
- Kultura-arlo ezberdinetan jaialdiak antolatzeko dirulaguntzak (2018) Zuzkidura: 350.000€
- Musika-jarduera profesionaletarako dirulaguntzak. Musika-programazioa (2018) Zuzkidura: 140.000€
- Musika-jarduera profesionaletarako dirulaguntzak. Musika-ekimen enpresarialak (2018) Zuzkidura: 205.000€
- Musika-jarduera profesionaletarako dirulaguntzak. Musika-proiektu unitarioak (2018) Zuzkidura: 155.000€
- Musika jarduera profesionaletarako dirulaguntzak. Musika partituren edizio inprimatua (2018) Zuzkidura: 30.000€
- Euskal sortzaileen mugikortasuna sustatzeko dirulaguntzak: musika (2018) Zuzkidura: 350.000€
- Euskal kultura sustatzeko eta hedatzeko jarduerak euskararen eremu geografikotik kanpo garatzeko dirulaguntzak. 2018ko deialdia. Zuzkidura: 30.000€

Zeharkakoak

- Kultura- eta gizarte-arloetako bitartekotza- eta berrikuntza-proiektuetarako dirulaguntzak. Zuzkidura: 500.000€
- Kultura-sormena bultzatzeko dirulaguntzak: Ikertu, proiektu eta prototipoen alde aurreko diseinuaren sortze-prozesuak (2019). Zuzkidura: 48.000€
- Praktika sortzaileak bultzatzen dituzten kulturagune independenteei zuzendutako dirulaguntzak. Zuzkidura: 560.000€
- Euskadin kulturaren arloko ikuslegoa sortzeko, fidelizatzeko eta ugartzeko proiektu eta jarduerak gauzatzeko dirulaguntzak. Zuzkidura 640.000€
- Euskadin kulturaren arloko ikuslegoa sortzeko, fidelizatzeko eta ugartzeko proiektu eta jarduerak gauzatzeko dirulaguntzak (2018). Zuzkidura: 640.000€

Dirulaguntza batzuen datuak eskuratu ahal izan ditugu, sexuaren arabera bereizita.

Horietan ikusten da proiektu gehienak gizonen aurkeztu dituztela, baina adierazle zehatzagoak falta dira, ez baitakigu ea proiektua aurkeztu duen pertsonaren atzean emakumeen presentzia handiagoa egon litekeen.

2018. urtean musika-proiektu unitarioen atalean gizonen zuzendutako 175 proiektu eta emakumeek zuzendutako 33 proiektu aurkeztu zituzten. Enpresaren modalitatean ere gizonen zuzendutako proiektuak dira gehiengoa (16), emakumeek zuzendutakoen aldean (1).

2.4 Sariak euskal musikari

MUSIKA BULEGOA SARIAK

Industria honetako sariei dagokienez, duela 2 urteetatik Musika Bulegoa Sariak ematen dira musika-diziplina ezberdinetan.

Sari hauek banatu diren bi urteetan epaimahaien osaketan gizonen eta emakumeen ordezkariak orekatua izan den arren (% 50), emakumeek aurkeztutako proposamenak eta jasotako sariak gutxiengoa dira (% 14,29).

III. ANALISI KUALITATIBOAREN LABURPENA

Analisi kualitatibo gisa aurkeztutako dokumentu hau, hainbat hildabeteetan zehar burututako ikerketa baten emaitza da, Euskadiko musikaren industriaren emakumeen eta gizonen berdintasunaren egoera aztertzeko xedez egindakoa, hain zuzen.

Bertan, musikaren industriako erreferentziazko emakumeen iritziak alderatzen dira, eta baita beste esparru batzuetan lan egiten duten emakume batzuen iritziak ere, egungo egoeren zergatia ulertzen lagunduko digutenak. Bada haiek guztiek partekatzen duten zerbait: egiaztatutako ibilbide bat dute eta zuzendaritza-postuetara edo euren proiektuak zuzentzera iritsi dira denak. Helburua ez da buruzagitza postuei balio berezia ematea, ezta hierarkia-egiturak sustatzea ere, baizik eta gertuagotik aztertzea ea musikaren industriaren emakumeek zergatik duten horren ikusgarritasun txikia eta zergatik dauden horren emakume gutxi erabakitzeke boterea duten postuetan, eta orain duten postura iritsi arte emakume horiek izandako ibilbidea aztertzea.

Xedea ez da inor deabrutzea, baina errealitatea zera da; lidergo-eredu nagusia, kasu honetan gehienbat gizonen erreproduzitu dutena, ez dela positiboa izan emakumeentzat eta ez dela ona izan harreman osasuntsuak sortzeko. Horrenbestez, ikuspuntu kritiko batetik egin nahi da analisia, musikaren sektorean zehazki eta gizartean orokorrean gizonak eta emakumeak rol ezberdinak hartzera bultzatzen dituzten desparekotasunaren arrazoi sozial eta estrukturaletara gerturatuko gaituena.

Hala, aurreko analisi kuantitatibotik hartutako datuek eskaintako erretratua osatu eta sektorearen ikuspegi hurbilagoa eskaini nahi da, aurrerago ondorioak ateratzeko eta hobekuntza proposamenak egiteko xedez.

3.1 Sektoreko iritziak EAEko musikaren industriako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz eta iritzi artikulua

Elkarrizketatutako emakumeen profila honako hau izan da:

- Antropologo soziala eta feminismoan aditua
- Nazioarteko musika festival bateko arlo profesionalaren zuzendaria
- Musikaren multinazional handi bateko marketin sailaren zuzendaria
- Euskadiko emakume ekintzaile eta enpresarien elkarte baten lehendakaria
- Eusko Jaurlaritzaren kultura-erakunde baten zuzendaria
- Euskadiko goi-mailako musika eskola baten zuzendari orokorra eta akademikoa
- Euskadiko abeslaria eta musikagilea, bere proiektu propioen liderra eta autogestio eredu baten sustatzailea.

Elkarrizketa guztiek galdera orokor eta partekatu batzuk dituzte honako gai hauei buruz: pertsona bakoitzaren ibilbidea, euren proiektuaren egunerokoa, balizko desparekotasun-egoerak, hezkuntza, kontziliazioa, etorkizuneko ikuspegiak eta hobekuntza-proposamenak.

3.1.1 MUSIKAREN SEKTOREKO ETA ORO HAR GIZARTEKO FEMINISMOARI ETA PARADIGMA ALDAKETEI BURUZ

“Kulturak ez du jendea egiten. Jendeak egiten du kultura. Egia bada emakumeak eskubide osoko izakiak izatea ez dela gure kulturaren parte, orduan gure kultura aldatzeko aukera eta betebeharra daukagu”

- Chimamanda Ngozi Adichie –
“Guztiok izan beharko genuke feminista”

Gizartearen alor guztietara heldu den eztabaidagai ukalezina da feminismoa gaur egun. Hainbat hamarkadetan, bidegabe, sektore inkonformista batzuek sustatutako mugimenduzat ikusia eta matxismoari oker kontrajarria izan arren, duela urte gutxi batzuetatik multinazionalak eta enpresak, politikariak, erakundeak eta gizarte osoa, orokorrean, kezkatuta dagoela dirudi edo, behintzat, gizonen eta emakumeen arteko bidegabeko desberdintasunak agerian jartzen ari da. Inplikazio maila ezberdinekin, talde sozial oso ezberdinetako pertsonak kalera ateratzen dira mobilizatzeraz, gaiari buruz eztabaidatzen dute edo, besterik gabe, gizartean jokatzeko euren moduari buruz hausnartzen dute. Hala ere, ez litzateke bidezkoa feminismoa azkeneko bi urte hauetara mugatzea. Mugimendu feministak hamarkada ugari daramatza gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak agerian jartzeko eta gure gizartetik ezabatzen saiatzeko lanean.

Azkeneko bi urteetan, badirudi olatu-bolada berri bat gizarte osoa bustitzen ari dela eta eskubide- eta aukera-berdintasunaren aldeko borroka errotzen ari dela. Zalantzarik gabe, gogoan izan behar da hamarkada ugaritan zehar mugimendu feministak egindako lan eta esfortzu itzela, hari esker gaur egun gure abiapuntua duela urte batzuk zutenaren oso ezberdina baita.

Bestalde, garrantzitsua da komunikabideek gai honi eskaintzen ari diren zeregin esanguratsua azpimarratzea, arlo guztietako emakumeak ikusgai jartzeko lan izugarria eginez, ahotsa eskainiz eta eraso matxisten aurrean gaitzespen garbia adieraziz, eta ia aho batez feminismoaren alde jarritz.

Azkenik, sare sozialek salaketarako eta komunikazio biralerako duten botere handia nabarmendu behar da; sare sozialetan azaleratzen baitira salaketak, eztabaidak, mugimenduak, deialdiak, eta abar. Horrek iritziz guztientzako lekua duen eztabaida sozial handi bati ematen dio bide, eta asko laguntzen du gizartea kontzientziatzen eta arazoa ikusgarri bihurtzen.

Gure historiako une zeharo garrantzitsua da, alde batetik, gizonen eta emakumeen artean dauden desparekotasunak onartzeko eta haiei buruz kontzientziatzeko, eta bestetik, berdintasunaren politiken esparruan etorkizuneko gizartearen norabidea finkatzeko funtsezko oinarri bat delako. Aldiz, horrek ez du esan nahi lan guztia eginga dagoenik; herrialde askotan eskuinak izandako gorakadak eta feminismoarekiko gizon eta emakume askok duten deserosotasun eta ulertezintasun sentimenduak gatazkak sorrarazten ditu eta kasu batzuetan atzerapausoak ematea dakar.

Musikaren sektoreak, ez du albo batera utzi mugimendu hori, noski. Are gehiago, ikusgarritasun handia duen sektorea da musikarena, bai sare sozialetan, bai komunikabideetan eta baita ospearean aldetik ere, eta beraz, zuzentasun politikora egokitzen saiatzen ari den lehenengoetarikoa da. Moda bat dela eman dezake, baina egia da emakumeen parte-hartzea (jaialdietan, programazioetan, diskoetxeen salmenta zerrendetan, musika-sarrietan...) luparekin begiratzen hasi direla, eta horrek ez dirudi gertaera iragankor bat. Hori guztia Big Datako aurrerapen handiekin lotu behar da, datuen bilketa eta azterketa asko errazten dutenak, eta sektoreko desparekotasunak duen pisua baloratzeko tresna egokia eta azkarra eskaintzen dutenak. Gaur egun, Big Data bezeroen jokaerak ezagutzeko eta euren profiletara gehien egokitzen diren produktuak eskaintzeko erabiltzen da gehien bat, baina genero indizeak txertatuz gero, berdintasunaren arloan azterketa-tresna izugarri boteretsua izango genuke eskuartean.

Festibaletan berdintasunaren eta genero-aniztasunaren sari-kategoriak gehitzea⁸, eszenatokietan dauden emakumeen ehunekoaren neurketak burutzea⁹, edo festibaletan eta kontzertu-areto nahiz aisialdi-espazioetan eraso sexisten aurkako protokoloak aktibatzeak, gizartearen sentsibilizazioa barruraino sartzen ari dela pentsarazten digu.

Bartzelonako Primavera Sound festivalak, adibidez, 2019rako bere berdintasun-alorraren antolaketari egiturazko aldaketa bat egingo ziola iragarri eta #TheNewNormal kanpaina aktibatu zuen, programazioan parekidetasuna eta emakumeen eta gizonen berdintasuna normala izan beharko litzatekeela adieraziz¹⁰.

Era berean, ekintza horri lotuta, Primavera emakume sortzaileen ikusgarritasun kanpainak abiarazi zituen, #NobodyIsNormal izen eta kontzeptu berriaren azpian #NoCallem protokoloa indartzen zuen bitartean, genero kontuengatik eraso edo diskriminazio mota ororen aurrean erabateko gaitzespena erakusteko jarduera-multzo bat biltzen duena.

Gugandikgertuago, Iruña Rock festivala Nafarroako "Acción Contra la Trata"¹¹ plataformaren #metachodemacho mugimendura batu zen, erasotzailerik gabe, erasorik ez gogorarazten saiatzen dena. Kanpainak galdera hau jartzen du mahai gainean: "nork esan dezake nolakoa izan behar duen gizon batek soilik gizona izateagatik?" eta tradizioz "gizona izatea" zer den zehaztu izan duten estereotipoak zalantzan jartzen ditu, "benetan berdintasunezkoa den gizarte baten eraikuntza aktiboa gizonen aldetik" defendatuz, gizona izatearen esanahiak dakartzan estereotipoak deseraikitzeke xedez.

Antzokietako eta jaialdietako beste programatzaile asko proposamen eta jarduera antzekoetara batu dira. Alabaina, oraindik lan asko dago egiteko, eta sektorearen itzalean dauden pertsonekin lan egitea iradokitzen dute aldarrikapen berriek (enpresa pribatuetako langileak, programatzaileak, kudeatzaileak, langile teknikoak, musika kritikariak...), soilik hedabideen arretagunera mugatu gabe (festival

handietako artistak, areto handietako programazioak...). Anlisi kuantitatiboetatik eta kualitatiboetatik hartutako datuak nahiko kezagarriak dira, aldaketarako itzaropen zirikitu bat ematen duten arren.

3.1.2 EGUNGO PROBLEMATIKAK ETA DESPAREKOTASUN GUNEA

Musikaren sektoreko gizonen eta emakumeen roleri buruz

Euskadiko musikaren industria, batez ere, mikroenpresek eta ETEek osatuta dago, gehienek 1 eta 10 langile bitartean dauzkate, eta kasu gutxi batzuetan 10 langile baino gehiago dituzte. Datu kuantitatiboek erakusten dute enpresak 1 edo 2 langile artean dituztenean, horiek ia kasu guztietan gizonetzkoak izan ohi direla, eta aldiz, emakumeen presentzia handiagoa izaten dela enpresa ertainetan eta ia inoiz ez zuzendaritza- edo erabakitze-postuetan, erakunde publikoetan izan ezik, haietan ehunekoak orekatuago baitaude. Horrenbestez, enpresa pribatu horien buruzagitza zeharo gizonetan oinarrituta dagoela esan genezake.

Egoera horren jatorria apur bat ulertzeko, jakin behar da Euskadiko musikaren industriako ETE gehienak 80ko hamarkadan sortu zirela, musikaren eskari gero eta handiagoari erantzuteko, bai grabatutako formatuan, bai kontzertuetan eta baita aisialdi-esparruetan ere. Musikarekin zerikusia duten kontzertuak eta negozioak gauarekin eta aisiarekin lotuta zeuden eta daude, eta espazio horiek tradizioz ez dira emakumeen presentziarekin lotu, batik bat amatasunaren ostean. Kudeatzaileen, teknikarien edota diskoetxeetako produktu-arduradunen rolak modu naturalean gizonen hartu zituzten euren gain, musikarekiko grina zuten gizonen, urteetako jardunbidearekin negozioa hobeto ezagutzen joan direnak. Emakumeak ere, asko musikarekiko grinak bultzatuta, sektore honetan sartzen joan dira, zeregin administratiboez, itzulpenez edota harreman publikoez arduratuz, eta geroago, marketin-

8 Premios Fest

9 MYM-La Presencia de las mujeres en los festivales en 2019)

10 <https://www.primaverasound.es/noticiaSingle?id=1658>

11 <https://www.primaverasound.es/nobodyIsNormal>

eta finantza-sailetan sartuz. Rol horiek aldatu ahal izateko, lidergorako beharrezkotzat jo diren balioak aztertu eta horiek urteetan zehar nola aldatu diren ere ikusi behar da. Lidergoaren gaia aurrerago aztertuko dugu.

Erreferenteen gabeziari buruz

Elkarrizketa guztietan gehien errepikatu den baieztapenetako bat, agian, sektoreko erreferenteen gabezia izan da. Egia da azkeneko bi urteetan sektorean, oro har, emakumeen presentzia eta partaidetzaren gorakada garrantzitsua ikusi dugula; hein batean, emakumeek osatutako bandek eszenatokietan duten ikusgarritasunari esker.

Aldarrikapena garbia izaten ari da zentzu horretan, eta badirudi bere fruituak ematen hasia dela, ez soilik kontratatutako emakume kopuruaren aldetik, baita caché-aren eta programazio-ordutegiaren aldetik ere. Hori biraketa handi bat da, engranaje baten moduan funtzionatzen duten jokabide-mekanismoak pixkanaka aktibatzen dituenen, beste emakume batzuk identifikatuta sentitzea eta banda berriak osatzeko adorea izatea sustatzen baitu, gero programazioan sartu ahalko direnak, eta horrela behin eta berriro.

Sektorean emakumeak ikusgarri jartzeari eta ahalduntzeari buruz

Elkarrizketa guztietan azaleratu den beste gaietako bat, musikaren sektorean diharduten emakumeek ikusgarritasun handiagoa nola lortu dezaketen izan da. Diziiplina gehienetan, ikasgeletako emakumeen eta gizonen proportzioa orekatua dela ondorioztatu da datu kuantitatiboetan, eta musikaren sektorean gero eta emakume gehiago daudela; dena den, emakumeek "itzalean" eta erabakitze ahalmenetik kanpo dauden postuak izateak, industria honen sorreratik gailendu diren rola eta lan egiteko moduak iraunarazten ditu. Emakumeak ikusgarri bihurtzea, eskubide bat izateaz gain, lan-egiturak eta sektoreko ikuspegiak eraldatzeko prozesu aberasgarria eta beharrezkoa da.

Elkarrizketatutako emakume guztiak ia bat zetozen gauza batean: arazoa ez da ez dagoela emakumerik sektorean, baizik eta horiek itzalean dauden postuak dituztela eta ez direla inoiz

ikusgai dauden postuetara iristen.

Eskuratutako rol batzuk aldatu ahal izateko, ezinbestekoa da inertziaz hartzen ditugun jarrera eta mekanismo horiez ohartzea, nola emakumeak hala gizonak, eta horiek eraldatzen saiatzea. Elkarrizketatutako bi emakumeek aipatu zuten ikusgarritasuna lortzeko, derrigorrez, kaskarkeria onartzeak garrantzi handia duela. Ideia horren arabera, jarrera patriarkalek inposatutako exijentzia eta autoexijentzia urte askotan errepikatu izanaren ondorioz, ez ditugu onartzen beste emakumeen proposamenak eta jarrerak baldin eta ez badaude gure iritziz egokia den maila batean, eta normalean maila hori oso altua izaten da. Emakumeek bizitza pribatutik bizitza publikora jauzi egitea beste ideia garrantzitsu bat izan daiteke, erantzunkidetasunaren eta gizonekin benetako kontziliazioa izatearen bidez bi mundu uztartzea, ikusgarritasuna lortzeko eta sektoreko erreferenteen gabezia nabarmena gaingintzeko.

Laneko kontziliazioari eta amatasunari buruz

Elkarrizketetan zehar errepikatu den beste gai bat emakumeek lana euren gainerako bizitzarekin bateragarri egiteko duten zailtasuna izan da. Ustezko bateraezintasun horren gakoetako bat amatasuna da, baina baita gurasoen zaintza, etxeko lanak edo asiarekiko kontziliazioa, orokorrean.

Zaintza horien pisua eta ardua emakumeek beren gain hartzeko joerak gatazka garrantzitsuak sortzen ditu, esate baterako; erru-sentimendua, antsietatea eta estresa, zaintzarekiko erantzukizun-sentimendua, gatazkak bikoteekin, nebeekin... Kasu askotan, kuantifikatzeko zaila den modu batean, euren karrerak albo batera utzi edo itzaleko postuetan geratzen dira, erantzukizun txikiagoa duten postuetan, nolabait euren lana eta familiako bizitza uztartzea ahalbidetzen dietenetan.

Lidergoari, ekintzaitzari eta emakumeak zuzendaritza-karguak izateari buruz

Arazo orokorreari buruzko iritzia ezagutu ostean (erreferenteen gabezia, emakumeek eta gizonen hartutako rola, benetako kontziliazioa eta ikusgarritasuna eta ahalduntzea eskuratzeko beharra), sakonago joan gara eta aztertu dugu ea zergatik dauden horren emakume gutxi musikaren sektorearekin lotutako

zuzendaritza-karguetan, erabakitze-postuetan eta proiektuen lidergoan. Horretarako, aurreko belaunaldien alboan, lidergoak gaur egun zer esanahi duen ikertu dugu, eta kristalezko sabaia deituriko fenomenoaren egoerak gertuagotik behatu ditugu.

Hasteko, zuzendaritza-postuetan eta proiektuen buruzagitzapostuetan emakume gutxi dauden pertzepzioa ahobatekoa da. Era berean, egia da lidergo hitzaren esanahia bera ere aldatzen joan dela urteen poderioz, eta hori oso garrantzitsua da, izan ere, negoziatzeko, lan egiteko eta gizarteko harremanak eta egiturak ezartzeko modua aldarazten ditu eta eredu sozial berriak ezartzea dakar. Ildo horretatik, beste gai batzuen artean, lidergoa autoritatearekin baino gehiago enpatiarekin, parteketzarekin edo konbentzitzetarekin lotuta dagoela adierazi dute.

Elkarrizketa horietako askotan agertu den kezka bat kristalezko sabaia izan da. Azkeneko urteetan, emakumeak ahalduentzeko hitzaldien zati handi bat orokorrean, eta musikaren industrian zehazki, erabakitzeko ahalmena duten postuetara sartzeko hesi "ikusezina" gainditzean datza. Aldaketa sozial garrantzitsu baten aurrean gaude une honetan, eta enpresa handiak balio ekonomikoaz ez ezik, balio sozialetan, berdintasunean eta ekologiararen kontzientzian pentsatzen hasi dira. Testuinguru horretan, ezin da oharkabea joan parean dugun kontraste handia; munduko biztanleriaren erdia emakumeek osatzen duten bitartean, ikasketen adar gehienetako ikasgelak orekatuta dauden bitartean eta sektorean prestakuntza handiko emakumeak lan egiten duten bitartean, ia ez dagoela emakumerik erabakitzeko ahalmena duten postuetan. Erabakitze-postuetara sartzeko unean, elkarrizketatutako emakume askok noizbait kristalezko sabai ospetsuaren aurrean desparekotasun-egoerak bizi edo gertutik ezagutu dituzte. Musikaren sektorea, nola enpresa handietan edo multinazionaletan hala ETE eta enpresa txikietan, emakumeak erabakitze-postuetara sartzeari dagokionez oraindik ere berdintasunetik oso urrun dagoela dirudi.


Eremu publikoan ikuspegia zertxobait ezberdina dela dirudi, genero-berdintasuneko politikak baitaude eta azterketei esker lanpostuetarako sarbidea berdintasunezkoa baita. Hori bera egiaztatu du elkarrizketatutako musika-eskola bateko zuzendariak.

Laburpen gisa


Oro har, egungo eredu sozialen egituraren funtsezko aldaketa-une baten aurrean gaudela esan dezakegu. Aldaketa hori pixkanaka ari da gertatzen, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren kasuan, gizartearen sektore guztietara heltzen ari da.

Analisi kuantitatibo honetan gertuagotik ezagutu dugu musikaren sektoreko egoera, bi ikuspegitatik abiatuta: sektorean dauden desparekotasunaren loturak eta arazoak eta aldaketarako proposamenak.

Baliteke gizartearen sentsibilizazioaren eta desparekotasunguneen ikusgarritasunaren lehenengo fase baten aurrean egotea, baina orain da benetan berdintasunezkoa izango den gizarte bat eraikitzeke eman beharko ditugun pausoak sakon lantzeko unea.







**AURKEZTUTAKO
PROPOSAMENEN
LABURPENA
KATEGORIAREN ETA
SEKTOREAREN
ARABERA (SOR-
KUNTZAREN ETA
INDUSTRIAREN
IKUSPUNTUA)**

ANTZERKIA		
NEURRIAK	EKINTZAK	
	ANTZERKI-SORKUNTZA	ANTZERKIAREN INDUSTRIA
<p>1. Aldaketak deialdietan eta dirulaguntzen ordenetan, alor edo laguntza jakin batzuetara sarbide- eta aukera-berdintasuna bermatzeko xedez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko babesa behar duten egiturazko egoerei irtenbide bat aurkitzeko.</p>	<p>1. AAEE barruan generoaren batzorde egonkor bat sortzea.</p> <p>2. Berdintasuna bermatzeko helburuarekin, sarientzako dirulaguntzak eta batzordeak sortzea.</p>	<p>1. Berdintasun-klausulak ezartzea ordene-tan eta dirulaguntzetan.</p> <p>2. Diskriminazio positibozko neurriak ezar-tzea laguntza-lerro ezberdinetako sarien epaimahaietan eta balorazio-organoetan.</p> <p>3. Dirulaguntzen deialdietan eskatzaileek enpresako berdintasun-ziurtagiri ofizialak txertatzeko aukera eskaintzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna modu sistematikoan sustatzeko beharra azpi-marratzen duten edo behar horri buruzko kontzientziazio-edukiak edo izaera duten proiektuei puntuazio gehigarria emateko.</p>
<p>2. Aldaketak bigarren mailako datuen, inkesten eta abarren sistematikan, sorkuntzan, bilketan eta ustiapenean, sexuaren aldagaia txertatzeko.</p>	-	-
<p>3. Emakumeen ahalduntze- eta hausnarketa-espazioak eta sareak.</p>	<p>1. Antzerki-sorkuntza eta ekoizpen-taldeak sortzea.</p>	-
<p>4. Mentoring programak profesionaliza-zio (sendotze egoeran, eta abar) egoe-ran dauden emakumeak babesteko.</p>	-	-
<p>5. Prestakuntza/ Sentsibilizazioa/ Ikusgarritasuna.</p>	<p>1. Komunikabideentzako sentsibiliza-zioa eta prestakuntza.</p> <p>2. Genero ikuspegia duten pres-takun-tza-programak antzerki-progra-matzaileentzat.</p> <p>3. antzerkiaren arloan emakume sor-tzaileen katalogo bat osatzea emakumeak ikusgai jartzeko.</p>	<p>1. Berdintasunaren balioetan oinarritutako sentsibilizazio-kanpainak sustatzea, genero-aurreiritziak eta genero-estereotipoak eza-batzeari buruz kontzientziatzen lagunduko dutenak, emakumeen irudia indartsua eta positiboa izan dadin sustatuz.</p> <p>2. Emakumeentzako ikusgarritasun-espazio bat sortzea. Antzerkiaren esparruan emakumeen ekarpenak ezagutzera ema-teko jaialdiak, lehiaketak eta beste espazio edo ekitaldi batzuk sustatzea eta babestea.</p>

ANTZERKIA

NEURRIAK	EKINTZAK	
	ANTZERKI-SORKUNTZA	ANTZERKIAREN INDUSTRIA
<p>6. Politika publikoetan genero-ikuspegia zeharkako gai gisa txertatzea.</p>	<p>1. Antzerki eta argizatzearen diseinu-eskoletan genero-ikuspegia zeharkako gai gisa txertatzea.</p>	<p>1. Emakumeek eginiko sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektualei laguntzeko politika aktiboaren garapena sakontzea, batik bat haren hedapena azpimarratuz.</p> <p>2. Ikasketen diseinuan berdintasunaren eta diskriminazio ezaren alorreko eduki zehatzak txertatzea, derrigorrez eta irakaskuntzaren maila guztietan, eta arte eszenikoen arloan, ikasketen diseinua egiterakoan, Antzerkiaren Historia eta Teoria ikasgaia berrikustea, ikusgarri ez diren emakumeen lana diseinu horietan txertatzeko.</p> <p>3. Enpresa-kulturaren barruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna modu aktiboan sustatzea, berdintasun-diagnostikoak eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planak egitea sustatuz.</p>

7. Lana eta familia bateragarri egiteko neurriak eta zaintza-lanen balioa azpimarratzea.

-

1. Estatu mailan, laneko ordutegia eta kontziliazioa arautuko dituen itun baten sorrera bultzatzea, lanaldi malguagoa lortzeko eta hori txertatzen duten enpresei pizgarriak emateko.

2. Aitatasun-baimena amatasun-baimenarekin berdintzea, modu besterenezinean, baimena 26 astetara luzatuz: 8 aste guraso bakoitzarentzat eta 10 aste partekatuz.

3. Haurren zainketa-eskaintzaren (haurtzaindegiak/eskolak) egokitzapena sustatzea, heziketa zentro horiek euren irekiera-orduak familien lan-orduetara egokitu ditzaten, familien aukerak zabalduz eta lanarekiko bateragarritasuna hobetuz.

DANTZA

NEURRIAK	EKINTZAK	
	DANTZA-SORKUNTZA	DANTZAREN INDUSTRIA
<p>1. Aldaketak dirulaguntzen deialdi eta aginduetan, alor edo laguntza jakin batzuetara sarbide-berdintasuna eta aukera-berdintasuna bermatzeko xedez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko babesa behar duten egiturazko egoerei irtenbidea aurkitzeko.</p>	<p>1. Dantza ekoizpenerako dirulaguntzetan, "emakumearen presentzia" izeneko balorazio-irizpidea berrikustea eta ezberdindutako puntuazio bat ezartzea emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten rol profesionalen arabera.</p> <p>2. Antzezlanen balorazio eta hautaketa irizpideei genero ikuspegia duten irizpideak txertatzea.</p>	-
<p>2. Aldaketak bigarren mailako datuen, inkesten eta abarren sistematikan, sorkuntzan, bilketan eta ustiapenean, sexuaren aldagaia txertatzeko.</p>	<p>1. EAEko antzokietara bertaratzen diren emakumeen eta gizonen kopurua zenba-tzea ahalbidetuko duen ticketing sistema gauzatzea.</p>	-
<p>3. Emakumeen ahalduntze- eta hausnarketa-espazioak eta sareak.</p>	-	<p>1. Dantzaren arloko profesionalen eta ikusle- leen artean "tandem-bikoteak" antolatzea, batera etor daitezten, aurretik kafe bat edo ardo bat hartu dezaten, eta transmisio bat gertatu dadin.</p>
<p>4. Mentoring-programak profesionalizazio (sendotze egoeran, eta abar) egoeran dauden emakumeak babesteko.</p>	-	<p>1. Sortzaileentzako, koreografoentzako eta dantza-konpainien arduraduentzako mentoring programa bat prestatzea.</p> <p>2. "Dantzaren lan-merkatuan" sartzten diren emakume gazteei mentoring zerbitzua eskaintzea, hau da, "seniorren" eta "juniorren" arteko topaketak antolatzea.</p>

DANTZA

NEURRIAK	EKINTZAK	
	DANTZA-SORKUNTZA	DANTZAREN INDUSTRIA
5. Prestakuntza/ Sentsibilizazioa/ Ikusgarritasuna.	<p>1. Erregistro bat edo datu-banku bat osatzea, genero-ikuspegia izango duena, dantzaren sorkuntzako alor ezberdinetako emakumezko eta gizonezko profesionalak ikusgai jartzeko. Erregistro edo datu-banku hori profesionalen eskuetan egon liteke dantza sustatzeko EAEko plataforma ezberdinen bidez (esate baterako, ADDE Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte, Dantzagunea...)</p> <p>2. Antzoki publikoak programatzen dituzten pertsonen prestakuntza/gaikuntza zehatza ikusgai jartzea. Arte garaikidean, eta zehatzago arte eszenikoan, genero ikuspegiko heziketa kritikoa eskaintzea.</p> <p>3. Erakundeen aldetik EAEn dantzaren eta arte eszenikoen onarpen egonkorreko motaren bat sortzea, dantzaren esparruan artearen sorkuntzak daukan ospea eta hedapena sustatzeko, kultura-balio gisa eta berrikuntza soziala sustatze aldera.</p>	<p>1. Erosteke edo saltzeko xedea izan ordez, beste "bandoaren" dinamikak ezagutzeko eta enpatizatzeke helburua duten topaketak antolatzea.</p> <p>2. Euskal dantzaren lehiaketak antolatzea.</p> <p>3. Adingabeko pertsonentzako sentsibilizazioa edota prestakuntza familia-bitartekaritzako programak gauzatzeko.</p> <p>4. Espazio eszenikoan nerabeen presentzia duten proiektu amateurrak, parte-hartzaileak edo beste diziplina batzuetako proiektuak egitea.</p>
6. Politika publikoetan genero ikuspegia zeharkako gai gisa txertatzea.	<p>1. Dantzako Goi-mailako Tituluko (Dantzerti) curriculum-ikasgaietan genero-ikuspegia txertatzeko baliabide egokiak eskaintzea.</p> <p>2. Irakasleen gaikuntza-prestakuntza zehatza ezagutzera ematea eta, beharrezkoa den kasuetan, Dantzako Goi-mailako Tituluko (Dantzerti) irakasleei prestakuntza eskaintzea genero ikuspegia arte garaikidean eta, zehatzago, arte eszenikoetan gehitu dezaten.</p>	-

DANTZA

NEURRIAK	EKINTZAK	
	DANTZA-SORKUNTZA	DANTZAREN INDUSTRIA
6. Politika publikoetan genero ikuspegia zeharkako gai gisa txertatzea.	<p>3. Antzokietan, eduki kulturaleri eta jardunbide kuratorialei (hitzaldi estetikoaren programa espezializatuak) buruzko eztabaida sustatzea, dantzan eta arte eszenikoetan generoaren ikuspegi kulturalak eta kulturartekotasuna sustatzeko estrategia gisa.</p> <p>4. Artisten eta heziketa-zentroen arteko bitartekaritza-proiektuak sustatzea heziketa-zentroetan “dantzaren egonaldi artistikoak” egitearen bidez, pertsona gazteekin genero-estereotipoak eta genero-nortasunak esploratzeko helburuarekin.</p> <p>5. Dantzaren esparruko unibertsitateetan eta koreografia-zentroetan, diziplina anitzeko (teoria eta praktika) izaera duten ikerketa-taldeek sorkuntza sustatzea eta babestea, genero-ikuspegia izango duen literatura kritikoa ekoizteko.</p>	<p>1. Generoaren Sailaren eta Gizarte-Zerbitzuen arteko lankidetzak, bestelako sexu-adierazgarritasunak erakusten dituzten proiektuak sustatzeko. Ikerketa- eta sorkuntza-lerro hori sustatzea litzateke helburua, eta ez proiektu jakin batzuk babestea.</p> <p>2. Dantza eta komunikabideak Dantzaren Bultzada Plan Globala diseinatzea, dantza sustatzen eta ezagutzera ematen duten irrati eta telebista programak bultzatzen dituzten komunikazio-irizpideak jarraituz.</p>

7. Lana eta familia bateragarri egiteko neurriak eta zaintza-lanen balioa azpimarratzea.

1. Dantzaren arloko guraso sortzaileentzako familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak dantzaren esparruko dirulaguntzetan txertatzea.

1. Kontziliatorako aukera (ordutegiak, espazioak...) ematen duten egonaldiak amentzat.

2. Dirulaguntza-lerro bat ezartzea euren laneko espazioen arkitektura eta prestaketa pertsonen beharretara (edoskitzea, amen eta seme-alaben bizikidetzak, programaziotik hautatutako ekitaldi batzuentzako haurtzaindegi zerbitzuak... eta abar) egokitzen duten espazio eszenikoentzat.

3. “Zaintzen teoria” ezartzea, Colaboraborak sortutako “IraunBIZIbideragarritasuna” gidaren erabilera sustatuz.

4. Mutualitate-zerbitzuak ama izan diren emakumeak eszenatokian berriz sartzeko. Sektore-elkar-teei zuzenean dirulaguntzak ematearen bidez, amatasuna bizi izan duten interpreteen edo sortzaileen behar fisikoez arduratuko den mutualitate baten sorrera erraztea (lurralde historiko bakoitzean).

LIBURUAK

NEURRIAK	EKINTZAK	
	LITERATURA-SORKUNTZA	LITERATURAREN INDUSTRIIA
1. Aldaketak dirulaguntzen deialdietan eta aginduetan, alor edo laguntza jakin batzuetara sarbide-berdintasuna eta aukera-berdintasuna bermatzeko xedez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko babesak behar duten egiturazko egoerei irtenbidea aurkitzeko.	-	<p>1. Liburuen ediziorako ematen diren dirulaguntzetan, berdintasunaren aldeko klausulak ezartzea sustatzea.</p> <p>2. Ad hoc dirulaguntzak sortzea, emakumezko idazle berriei literatura-ibilbidean hasten eta berriak ez direnei ibilbidea sendotzen laguntzeko.</p>
2. Aldaketak bigarren mailako datuen, inkestean eta abarren sistematikan, sorkuntzan, bilketan eta ustiapenean, sexuaren aldagaia txertatzeko.	-	<p>1. Euskal Autonomia Erkidegoko Edizioaren Txostenean sexuaren aldagaia txertatzea, egiletasunaren datuetan.</p> <p>2. ISBN datu-basean sexuaren aldagaia txertatzeko, kulturaren arloaz arduratzen den ministerioarekin elkarlanean aritzea.</p> <p>3. Euskadirentzat datu-base bat osatzea ISBNko datuekin.</p>
3. Emakumeen ahalduntze eta hausnarketa espazioak eta sareak.	<p>1. Emakumezko idazleen arteko elkarrekintza: zuzenketak, zuzendaritza eta tutoretza</p> <p>2. Luzaroko egonaldiaren antolaketa, 30 urte baino gutxiago dituzten emakumeentzat edota hiru urte baino gutxiagoko seme-alabak dituztenentzat.</p>	-
4. Mentoring programak profesionalizazio (sendotze egoeran, eta abar) egoeran dauden emakumeak babesteko.	1. Emakumezko idazleak euskarazko letren sistemako arlo guztien bidez jarduten dute sortzaile gisa.	-

LIBURUAK

NEURRIAK	EKINTZAK	
	LITERATURA-SORKUNTZA	LITERATURAREN INDUSTRIA
5. Prestakuntza/ Sentsibilizazioa/ Ikusgarritasuna.	<p>1. Idazleen eta irakurleen arteko topaketa: irakurketa klubentzako irakurketa-gidak: Gida praktikoa, emakumezko idazleei buruzko hainbat galdera egiteko aukera, adibidez, ea idazlearengan emakumezko zein idazlek edo sortzailek izan duten eragin handiena.</p> <p>2. Emakumezko idazleen liburutegi baten edo artxibo baten sorrera. Sortzaileak edo sorginak, euskal emakumeen basoa. Irakurketaren eta naturaren espazioak: emakumeari buruzko dokumentazio-zentro ere bilakatzea Euskal Herrian.</p>	<p>1. EAE barruan liburuen eskaria eta irakurketa-ohiturak zein egoeratan dauden ezagutzea.</p> <p>2. Jardunaldi espezializatuak antolatzea liburuen industrian genero ikuspegiari buruz hausnartzeko.</p>
6. Politika publikoetan genero ikuspegia zeharkako gai gisa txertatzea.	-	-
7. Lana eta familia bateragarri egiteko neurriak eta zaintza-lanen balioa azpimarratzea.	-	-

MUSIKA

EKINTZAK

NEURRIAK

MUSIKA-SORKUNTZA

MUSIKAREN INDUSTRIA

1. Aldaketak dirulaguntzen deialdietan eta aginduetan, alor edo laguntza jakin batzuetara sarbide-berdintasuna eta aukera-berdintasuna bermatzeko xedez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko babes behar duten egiturazko egoerei irtenbidea aurkitzeko.

-

-

2. Aldaketak bigarren mailako datuen, inkestean eta abarren sistematikan, sorkuntzan, bilketan eta ustiapenean, sexuaren aldagaia txertatzeko.

1. Sektoreko pertsona adituek osatutako lantalde egonkor bat sortzea eta sendotzea, honako helburu hauekin: Euskal Herriko musikaren munduan emakumeen egoerari, parte-hartzeari eta presentziari buruzko datuak eguneratzeko eta ikusgarri bihurtzeko behatoki moduan jardutea; datu-baseak sortzea eta eguneratzea... Hala, datu horiek islatu ditzaketen arazo edo egoera zehatzak lantzeko aukera izango litzateke.

1. Teknologia-enpresekin lan egitea inkestak egiteko eta datuak biltzeko sistemak modernizatzeko. Era horretan, modu automatikoago batean erregistratu ahalko lirateke sektoreko langileak datu-base batean, desberdintasun mailak ikertzeko datu adierazgarrien arabera bereizita: sexua, prestakuntza-maila, ordainsaria...

3. Emakumeen ahalduntze- eta hausnarketa-espazioak eta sareak.

-

-

4. *Mentoring* programak profesionalizazio (sendotze egoeran, eta abar) egoeran dauden emakumeak babesteko.

1. *Mentoring* programak: ikus-entzunezko munduan dagoeneko egina dagoen *mentoring* programa baten (Noka *mentoring*) antzerako *mentoring* programa bat sortzea proposatzen da, betiere zinemaren eta musikaren sektoreetako ezberdintasunak aintzat hartuta.

-

5. Prestakuntza/
Sentsibilizazioa/
Ikusgarritasuna.

1. Aldizkako prestakuntza-ekintzen lerro bat (lantegiak, hitzaldiak, ikastaroak, eta abar), emakume gazteentzat ez ezik, prestakuntza eta gaikuntza jakin batzuetara sartzeko lortzeko zailtasunak dituzten emakumeentzat ere bai (laguntza zehatzak aurreikusiz).

1. Enpresetan berdintasunari buruzko ikastaroak ematea, horietara emakumeak nahiz gizonak bertaratzea bultzatuz.

MUSIKA		
NEURRIAK	EKINTZAK	
	MUSIKA-SORKUNTZA	MUSIKAREN INDUSTRIA
6. Politika publikoetan genero-ikuspegia zeharkako gai gisa txertatzea.	-	<p>1. Musikako ikasgaiaren sektoreko erreferentziak txertatzea, genero-ikuspegi garbi batekin, emakume erreferenteen kasuak ezarriz (bai sortzaileak eta baita sektoreko beste maila batzuetako profesionalak ere).</p> <p>2. Sarietako eta dirulaguntzetako adierazleak hobetzea eta homogeneizatzea, sektorean dagoen arrakala zehazteko.</p> <p>3. Enpresetan berdintasunaren alorreko ezarpenaren jarraipena egitea. ETE eta enpresa txikientzat egokitutako planak sortzea, industria-sektore handien alboan errealitate zeharo ezberdin batean bizi baitira.</p>
7. Lana eta familia bateragarri egiteko neurriak eta zaintza-lanen balioa azpimarratzea.	-	<p>4. Hainbat neurriren bidez (lanaldi malgungoak, horren presentzialak ez direnak, helburuen araberako lanak...) kontziliazioa hobetzen duten enpresei sariak eta laguntza ematea.</p>

BESTE NEURRI BATZUK

1. Erabakitzeke ahalmena duten erakundeetan eta postuetan emakumeen presentzia sustatu.

2. Euren proiektuak hasi nahi dituzten emakumeei pizgarri ekonomikoak eskaini.

3. Dantzaren eta kulturaren jasangarritasuna

Biren antolaketan edo sorkuntzaren eta ekoizpenaren esparruan jasangarritasun-irizpideak gehitzea, kulturaren paradigma feministaren barruko gauza erraz bat da. Finantzazio publikoa jasotzen duten konpainientzat edo espazio eszenikoentzat gomendio-zerrenda bat osatzea, Erresuma Batuko Arts Council-ek eta Julie's Bicycle erakundeak sustatzen duten zerrendaren antzera. 2 edo 3 urte igarotzean, gomendio horiek derrigorrezko izaera hartu beharko lukete.

4. Dantza eta ekologia: kalitatezko zigilua

“Dantza berdea” zigilua ezartzea, konpainia, proiektu edo espazio jakin batek jasangarritasun-irizpideak betetzen dituela bermatuko duena.

5. Dantza eta herritarren partaidetza





Dantza tradizionalak talde sozio-demografiko jakin bat hartzen du barne; dantzaren une horiek, “atrebentzia” gehiagorekin edo gutxiagorekin, parte-hartze prozesuekin lotuko balira, dantzaren erabilera katartikoa eta kolektiboa berreskuratuko litzateke. Antzinako euskal errituaren eguneratze bat izango litzateke, agian instrumentualizatuagoa, baina egokia dena den.

6. “Erresidentziako artista” delako figura sustatzea, kultura-programazioaren diseinuko agentzia sortzaile eta kritikogisa, eta genero ikuspegia eta publiko berriekiko arreta sustatzen duten kultura-bitartekaritza programei bultzada bat emateko xedez.

7. Jardunbide Egokien Gida bat sortzea, genero ikuspegia izango duena

Azken proposamen hau Jardunbide Egokien Gida bat osatzean datza, genero ikuspegia barne izango duena. Dokumentu hau tresna baliotsua da, artisten eta erakundeen (nola publiko hala pribatu) arteko edozein harreman ezartzerakoan funtsezko esparrua eratzen baitu. Hitzarmentarako ereduak eta gomendioak ere aurkezten ditu, eta baita oinarritzko zenbait gai jorratzen dituen dekalogo bat ere, besteak beste, adierazpen askatasunarekiko eta sortzaileen eskubide moralekiko errespetua, bidezko ordainsari bat izateko eskubidea edota profesionaltasunarekiko eta gardentasunarekiko arreta berezia.

8. EHMBE – Musika Bulegoa erakundearen barruan, EAEko musikaren sektoreko elkarte nagusiak biltzen dituen, lanerako batzorde bat sortzea, pixkanaka elkarteen sare osoan garatuko eta ezarriko den berdintasun-plan bat izango duena.



KULTURA AUZOLANEAN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura